

Sinopsiak

HIZKUNTZA
ESKU
BIDE
EN
EGOERA
2012

Hizkuntz Eskubideen Behatokia

AURKIBIDEA

1. ESPAINIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOA 5

- 1.1. Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente
- 1.2. Ministerio de Defensa
- 1.3. Ministerio de Economía y Competitividad
- 1.4. Ministerio de Educación, Cultura y Deporte
- 1.5. Ministerio de Empleo y Seguridad Social
- 1.6. Ministerio de Fomento
- 1.7. Ministerio del Interior
- 1.8. Ministerio de Justicia
- 1.9. Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad
- 1.10. Defensor del Pueblo
- 1.11. Delegación del Gobierno en Navarra
- 1.12. Justizia Administrazioa

2. FRANTZIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOA..... 39

- 2.1. Autoroutes du Sud de la France - ASF
- 2.2. Baionako Errobi Unibertsitatea
- 2.3. Commission Paritaire des Publications et Agences de Presse – CPPAP
- 2.4. Conseil Général des Pyrénées Atlantiques
- 2.5. Chambre de Commerce et d'Industrie Baiona - CCI
- 2.6. Direction Générale des Finances Publiques - DGFIP
- 2.7. Euskararen Erakunde Publikoa – EEP
- 2.8. France Télévisions
- 2.9. Guso
- 2.10. Institut Français
- 2.11. Ministère de la Culture et de la Communication
- 2.12. Pôle Emploi
- 2.13. Société Nationale des Chemins de fer Français – SNCF
- 2.14. Sous-préfecture de Bay

3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA..... 47

- 3.1. Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila
- 3.2. Etxebizitza, Herri-Lan eta Garraio Saila
- 3.3. Herrizaingo Saila
- 3.4. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
- 3.5. Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila
- 3.6. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila
- 3.7. Kultura Saila
- 3.8. Osasun Saila

4. NAFARROAKO FORU ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA.....	79
4.1. Ekonomia eta Ogasun Departamentua	
4.2. Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentua	
4.3. Hezkuntza Departamentua	
4.4. Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentua	
4.5. Landa Garapena, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua	
4.6. Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barne Departamentua	
4.7. Osasun Departamentua	
4.8. Sustapen Departamentua	
4.9. Nafarroako Arartekoa	
4.10. Nafarroako Parlamentua	
5. FORU ALDUNDIAK.....	133
5.1. Arabako Foru Aldundia	
5.2. Bizkaiko Foru Aldundia	
5.3. Gipuzkoako Foru Aldundiak	
6. EUROPA.....	147
7. UDALAK.....	151
7.1. Arabako Udalak	
7.2. Bizkaiko Udalak	
7.3. Gipuzkoako Udalak	
7.4. Ipar Euskal Herriko Udalak	
7.5. Nafarroako Udalak	
8. EREMU SOZIOEKONOMIKOA.....	210
8.1. Aisialdia: aisialdia, argitalpenak, hedabideak, kirola, kultura	
8.2. Aseguru-etxeak eta finantzak	
8.3. Elikadura eta ostalaritza	
8.4. Eragileak: alderdi politikoak, sindikatuak, eragile erlijiosoak, bestelako eragileak	
8.5. Interes orokorreko zerbitzuak: energia hornitzaileak, garraioak, hezkuntza, osasungintza, telekomunikazio-enpresak	
8.6. Merkataritza handia	
8.7. Merkataritza txikia, profesionalak eta zerbitzuak	
9. ZORIONAK.....	301
10. KONTSULTAK.....	309

1. ESPAINIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOA

MINISTERIO DE AGRICULTURA, ALIMENTACIÓN Y MEDIO AMBIENTE

Esp. Zenb.: 278-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE AGRICULTURA, ALIMENTACIÓN Y MEDIO AMBIENTE – AEMET

Arrazoia: Agencia Estatal de Metereologiaren Nafarroako Herrialde Ordezkaritzako egoitzako errotulu batzuk ez daude euskaraz idatzita.

Erantzuna: JEFA DEL AREA DE ATENCION A USUARIOS: *AEMETen Nafarroako Lurralde Ordezkaritzako atariko, barneko eskaileretako eta 2. solairuko ateetako errotulu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz daude. Gaztelaniaz duten atal bakarra Espainiako Gobernuari eta Ministerioari dagozkion logoak dira, eta irudi instituzionala diren aldetik bere horretan mantendu behar direnak. AEMETen Nafarroako Lurralde ordezkaritza eremu mistoan dago, eta beraz, 29/2003 Foru Dekretuaren arabera, aski litzateke errotuluak gaztelaniaz idatzita egotearekin. Hala ere, esan bezala, euskaraz eta gaztelaniaz daude, logo instituzionalak salbu.*

Esp. Zenb.: 281-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE AGRICULTURA, ALIMENTACIÓN Y MEDIO AMBIENTE – CONFEDERACION HIDROGRÁFICA DEL EBRO

Arrazoia: Confederación Hidrográfica del Ebroren Iruñeko bulegoko errotulazioa nahiz herritarrei zuzendutako kartelak eta herritarren eskura dauden foiletoak ez daude euskaraz. Horrez gain, ez dago herritarrei arreta emateko langile euskaldunik.

Erantzuna: SECRETARIA GENERAL: *Herri Administrazioen Araubide Juridikoren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1192 Legeko 36. artikuluaaren arabera Estatuko administrazio orokorraren prozedurak gaztelaniaz izapidetuko dira, eta gaztelaniara itzuli beharko dira autonomia erkidegoko lurraldetik kanpo ondorioz izan behar badute. Hizkuntza Eskubideen Behatokiak gutuna euskaraz bidali duenez, gaztelaniara itzulita bidaltzeko eskatzen dugu.*

MINISTERIO DE DEFENSA

Esp. Zenb.:	136-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE DEFENSA
Arrazoia:	Espainiako Lurreko Armadaren http://www.ejercito.mde.es webguneko eduki guzti-guztiak gaztelania hutsean daude, euskarazko bertsioa aukeratuta ere. Euskarazko bertsioan interfazeko berba zenbait baino ez dira euskaraz ageri.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	137-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE DEFENSA
Arrazoia:	Espainiako Lurreko Armadaren webgunean, http://www.ejercito.mde.es , agertzen diren zenbait hitz okerrak dira. Rabilerraztasuna jartzen duen tokian erabilerraztasuna jarri behar zuen; stekak, estekak beharrean.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	147-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE DEFENSA
Arrazoia:	Espainiako Lurreko Armadaren webgunean, http://www.ejercito.mde.es , ez dira Euskal Autonomia Erkidegoko Mungia, Bizkaia, Vitoria-Gasteiz eta Gipuzkoa toponimoak errespetatzen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	148-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE DEFENSA
Arrazoia:	Espainiako Lurreko Armadaren webguneko, http://www.ejercito.mde.es , edukiak gaztelaniaz gain, frantsesez eta ingelesez ere bistaratu daitezke, ez ordea, euskaraz, Euskal Autonomia Erkidegoan ofiziala den hizkuntza.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	149-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE DEFENSA
Arrazoia:	Espainiako Aireko Armadaren webgunea, http://www.ejercitodelaire.mde.es , gaztelania huts-hutsean dago.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	165-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE DEFENSA
Arrazoia:	Defentsa Ministerioak Lurreko Armadaren berri emateko esku-orriak zabaldu zituen otsailaren hasieran Barañainen. Informazio guztia gaztelania hutsean zetorren. Ez zen hitz erdirik ageri euskaraz.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	274-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: DELEGACIÓN DE DEFENSA EN NAVARRA
Arrazoia:	Defentsaren Nafarroako Ordezkaritzan errotulazioa nahiz herritarrei zuzendutako kartelak eta herritarren eskura dauden foiletoak ez daude euskaraz. Horrez gain, ez dago herritarrei arreta euskaraz emateko langilerik.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.: 993-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: DELEGACIÓN DE DEFENSA EN BIZKAIA

Arrazoa: Espainiako Defentsa Ministerioak Bilboko Juan de Garai eta Urizar kaleen inguruan duen Gobierno Militar delakoaren kanpoaldean bideo zaintzaz ohartarazteko jarrita dauden kartelak gaztelania hutsean daude. Era berean, inguruan bertan ezin dela aparkatu adierazten duten bide-seinaleak daude eta testu bana ageri dute, gaztelania hutsean: *Reservado Gobierno Militar. Subdelegación de Defensa en Bilbao* .

Erantzuna:

MINISTERIO DE ECONOMÍA Y COMPETITIVIDAD

Esp. Zenb.:	110-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE ECONOMÍA Y COMPETITIVIDAD
Arrazoa:	Enpresa publikoa den Aseguruen kontsorzioari, aseguru-etxearen bidez zenbait kalte erreklamatu ondoren, gaztelania hutsean idatzitako e-posta eta sinatzeko dokumentu bat bidali zioten. Euskarazkoa eskatu eta hizkuntza ofizialean bidalita zegoela erantzun zioten herritarrari. Telefonoz ere erantzun berbera eman zioten.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	272-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE ECONOMÍA Y COMPETITIVIDAD – DELEGACIÓN
Arrazoa:	<i>Delegación Especial de Economía y Hacienda</i> delakoaren Nafarroako Herrialde Zuzendaritzaren egoitzan herritarren eskura dauden foiletoak ez daude euskaraz. Horrez gain, ez dago herritarrei zerbitzua euskaraz ematen dien langilerik.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	275-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE ECONOMÍA Y COMPETITIVIDAD - INE
Arrazoa:	INEk ez ditu datuak euskaraz, hau da, tokiko berezko hizkuntzan, argitaratzen, bai ordea ingelesez, atzerriko hizkuntzan, alegia.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	283-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE ECONOMÍA Y COMPETITIVIDAD – INE
Arrazoa:	Herritarrak 900.344.011 telefono zenbakira deitu zuen martxoaren 22an derrigorrez erantzun beharrekoa den Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuaren inkesta egiteko. Inkesta euskaraz egin nahi zuela azalduta, langile euskaldunik ez zegoela erantzun zioten, kontratua egiterakoan ez zietela euskara jakitea eskatu.
Erantzuna:	SUBDIRECTOR GENERAL DE MUESTREO Y RECOGIDA DE DATOS: <i>INEk herritarrek errolda-datuak autonomia erkidegoetako hizkuntza koofizialetan bete ahal izateko moduan antolatu du Biztanle eta Etxebizitzaren Erroldako informazio-bilketa. Aurkezpen gutunak elebitan prestatu ziren hizkuntza koofiziala duten Autonomia Erkidegoetarako. Bertan erroldako informazioa internet bidez helarazteko aukera eskaintzen zitzaien herritarrei. Internet bidezko nabigazioa nahiz galdera-sorta hizkuntza koofizial guztietan egiteko aukera bermatuz. Bigarren jakinarazpenean errolda internet bidez bete ez zuten herritarrei papereko galdetegia helarazi zitzaien. Kasu honetan ere gutun guztiak ele bietan idatzi ziren eta galdetegia gaztelaniaz eta tokian tokiko hizkuntza ofizialean helarazi zen. Herritarren eskura jarri zen telefono bidezko arreta zerbitzuan hizkuntza koofizial guztiak aintzat hartu ziren. Herritarrekin egin zen azken harremana ordenagailu eramangarri hornitutako erroldako agenteen bidez burutu zen, galdetegia hizkuntza koofiziaahiz gaztelera erabili ahal izatea bermatzeko. Hala, euskara klaseak emango zaizkie bezeroekin harreman zuzena duten langileei, eta bi informazio guneetan une oro euskaraz dakien norbait egotea bermatuko da.en ezagutza ere kontuan hartu zelarik. Arabako lurralde ordezkartzako langileen %67 lan poltsa horretatik hartu ziren, gainerako izangaien zerrendak Lanbideri eskatu zitzaizkion, kasu honetan ere euskararen ezagutza aintzat hartuz. Kexan deskribatzen den bezalako egoeretan, INE elkarrizketa herritarrak aukeratutako hizkuntzan egiteko erraztasunak ematen saiatzen da, eta kexa errolda egiten ari zen unean jakinarazi izan balitzaio hori bera eginen zukeen.</i>

Esp. Zenb.:	1138-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE ECONOMÍA Y COMPETITIVIDAD – INE
Arrazoia:	Barañaingo herritarrak urriaren hasieran gaztelania hutsean hitz egin behar izan zuen INEko 900.352.207 telefonora informazio eske deitu zuenean.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1397-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE ECONOMÍA Y COMPETITIVIDAD – INE
Arrazoia:	Hauteskundeetako errolda-txartelean, nahiz eta itxura batean elebiduna izan, ez da informazio guzti-guztia euskaraz ageri.
Erantzuna:	HAUTESLE ERROLDAKO BULEGOKO BIZKAIKO ORDEZKARI PROBINTZIALA: <i>Bizkaiko Bulegoak bere jakinarazpen eta komunikazio guztiak bi hizkuntzatan egiten ditu. Hautesle Erroldako Bulegoak bere testu finkoak eta inprimakiak euskaratu egiten ditu, Oficina del Censo Electoral eta Delegación Provincial deiturak izan ezik, horiek Estatuaren Administrazio Orokorren esparruko administrazio unitateen izen ofizialak direlako. Testu aldagarriak, itzultzen ez direnak, hautesleku edo hautesleen posta helbideak dira eta kasu horietan Udalek emandakoak erabiltzen dira.</i>
Esp. Zenb.:	280-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE ECONOMÍA Y COMPETITIVIDAD – MUFACE
Arrazoia:	MUFACEn Nafarroako egoitzan ez dago herritarrei zerbitzua euskaraz emateko gai den langilerik.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	745-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE ECONOMÍA Y COMPETITIVIDAD - MUFACE
Arrazoia:	Herritarrak ekainaren 19an MUFACEn Iruñeko bulegora deitu zuen, 948.990.510 telefonora, eta ezin izan zuen euskaraz aritu.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	276-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE ECONOMÍA Y COMPETITIVIDAD – DIRECCION
Arrazoia:	Komertzioaren Nafarroako Herrialde Ordezkaritzako bulegoetako errotulazioa nahiz herritarrei zuzendutako kartelak eta herritarren eskura dauden foiletoak ez daude euskaraz. Horrez gain, ez dago herritarrei arreta euskaraz emateko langilerik.
Erantzuna:	

MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE

Esp. Zenb.: 89-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE - UNED

Arrazoa: Iruñeko UNEDen egoitzan ez dago harrera euskaraz egiteko gai den langilerik.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 90-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE - UNED

Arrazoa: Iruñeko UNEDen egoitzako errotulazioa gaztelania hutsean dago.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 91-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE – UNED

Arrazoa: Iruñeko UNEDen ez da euskarazko irakasgairik eskaintzen.

Erantzuna:

MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

Esp. Zenb.: 279-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL. FOGASA

Arrazoia: FOGASAREN Nafarroako Herrialde Zuzendaritzaren egoitzan herritarrei zuzendutako kartelak nahiz herritarren eskura dauden foileto eta inprimakiak ez daude euskaraz. Horrez gain, egoitzako errotulazioa gaztelaniaz baino ez dago.

Erantzuna: FOGASAREN NAFARROAKO ADMINISTRAZIO UNITATEKO BURUA: *FOGASAREN Nafarroako administrazio-unitatea Iruñean dago, eremu mistoan, euskara ofiziala ez den eremuan, alegia. Bestetik Estatuko Administrazio Orokorraren menpeko erakundea da, Madrilgo Zerbitzu Zentralen menpe dago, eta bertatik jasotzen ditu inprimakiak, paper ofizialak, errotuluak eta abarrekoak. Aplikagarria zaion legeriaren arabera, 18/1986 Foru Legea, 29/2003 hura garatzeko Dekretua eta 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena, ez dago komunikazioak, errotuluak, kartelak, inprimakiak ele bietan egitera behartuta, eta beraz ez du inongo lege betebeharririk urratu. Hala ere, eta Administrazio Publikoen hizkuntza gutxituei begirako jardunbidea hobetze aldera web-orrian gaztelaniaz, euskaraz, katalanez, galegoz eta valentzieraz eskura daiteke eskabide-orria. Bestetik, Zerbitzu Zentralei euskarazko inprimakiak/formularioak bidaltzeko eskatu diegu hala nahi duten herritarrek eskura izan ditzaten. Era berean, FOGASAREN errotuluak edota letreroak aldatu behar diren hurrengo aldian, izendapen elebiduna dutenak igortzeko eskatuko dugu.*

Esp. Zenb.: 270-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

Arrazoia: Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzako Nafarroako egoitzetan herritarrei zuzendutako kartelak nahiz herritarren eskura dauden foileto eta inprimakiak ez daude euskaraz. Horrez gain, egoitzetako errotulazioak gaztelaniaz baino ez daude.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 39-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL – INSS

Arrazoia: Herritarra urtarrilaren 10ean 13:00ak aldera INSSeren Donostiako Podabines kaleko 3.ean kokatua dagoen eraikineko informazio gunean izan zen eta artatu zuen langilea ez zen euskalduna. Beraz, gaztelaniaz hitz egin behar izan zuen.

Erantzuna: GIPIZKOAKO PROBINTZIA-ZUZENDARIA: *Gizarte Segurantzak jendeari kasu egiteko zentro guztietan du nahikoa langile euskaldun edozein herritarri euskaraz egiteko eskubidea bermatzeko. Funtzionario guztiek euskaraz ez dakitenez, bezeroak harremana euskaraz nahi izanez gero, funtzionario euskaldun batengana bideratuko dute. Hala ere, horrek zenbaitetan langile elebiduna libre egon arte itxaron behar izatea dakar. Erakundearen nahia da herritar guztiei aukeratzen duten hizkuntzan kasu egitea, horregatik, urteak daramatzagu funtzionarioak euskalduntzeko planak lantzen.*

Esp. Zenb.: 44-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL – INSS

Arrazoia: Gizarte Segurantzako Bizkaiko Zuzendaritzatik gutuna bidali diote. Gutunaren azalean testu guztiak gaztelaniaz daude. *Gobierno de España/Ministerio de Empleo y Seguridad Social/ Instituto Nacional de la Seguridad Social/ Dirección Provincial de Vizcaya/ Gran Vía, 89 - 48011 Bilbao/ España*. Franqueo pagado. Cartas. Bizkaiko lurraldearen izendapen ofiziala ere ez da errespetatzen *Vizcaya* ageri baita *Bizkaia* beharrean.

Erantzuna: BIZKAIKO ZUZENDARI PROBINTZIALA: *Zerbitzu Orokorren Sailarekin harremanetan jarri gara, gutun azaletan inprimatutako testuak ahalik eta lasterren alda ditzaten eta EAEko bi hizkuntza ofizialetan ager daitezen. Bizkaiko probintziaren izendapenari dagokionez, administrazio publiko moduan erabiltzen ditugun inprimaki eta zigiluetan pixkanaka aldatzen ari gara.*

Esp. Zenb.: 97-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - INSS

Arrazoia: Baraiaingo herritarrak ez du euskaraz jaso INSSek igorritako *Certificados de Rentas - 2011* izeneko agiria. Jakinarazpena bera eta gutun-azala ere gaztelania hutsean daude.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 212-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL – INSS

Arrazoia: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministroaren gutuna jaso zuen urte hasieran, 2012an jasoko duen erretiro-sariaren eta beste xehetasun batzuen berri emanez. Agiri guztiak gaztelania hutsean zeuden. Aurreko urteetan ordea, osorik ez bazen ere, hein batean behintzat euskaraz jasotzen zuen informazio hori.

Erantzuna: AHOLKULARIA: *2012ko ekitaldian ezinezkoa izan zen, ministerioaren eskualdatzea tarteko, itzulpena garaiz egitea. Hala ere, INSSek neurriak hartzen jarraituko du ahal den heinean euskara erabili eta legediak aitortutako hizkuntza-eskubideak babesteko.*

Esp. Zenb.: 553-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - INSS

Arrazoia: GIZARTE SEGURANTZAREN INSTITUTU NAZIONALEKO BIZKAIKO PROBINTZIA ZUZENDARITZAK bidalitako gutuna jaso zuen herritarrak apirilean eta gaztelania hutsean zegoen. Bertan, mediku azterketa egiteko hitzordua berehala jasoko zuela jakinarazten zitzaion.

Erantzuna: ZERBITZU-BURUA: *Herritarraren daturik ematen ez denez, ezin ditugu kexaren nondik norakoak aztertu, ezin baitugu jakin jakinarazpenak euskaraz jaso nahi dituela adierazia duen. Uste dugu, aldi baterako ezgaitasunak abiatzean bidaltzen den jakinarazpen orokorrari buruz ari dela, idazki hori gaztelania hutsean bidaltzen hasi garelako. Bizkaiko Probintzia Zuzendaritzaren asmoa bere eskumeneko arlo guztietan eredu elebidunak ezartzea da. Hala ere, erabiltzen diren eredu aniztasunak, izan ere hainbeste dira kudeatzen diren prestazioak, lehenetsunak ezartzera behartzen gaitu, are gehiago Administrazio publikoen gastuan ezartzen ari diren murrizketekin. Nolanahi ere, kexan aipatzen den jakinarazpenaren eredu elebidunak ahalik eta epe laburrenean ezartzeko agindu dugu.*

Esp. Zenb.: 990-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL – INSS

Arrazoa: Gizarte Segurantzaren Bilboko kale Nagusiko 89. zenbakiko egoitzan kartel pilo bat daude, denetariko argibideak eta oharrak ageri dituztenak, batez ere itxarongelan, eta den-denak gaztelania hutsean daude. Batzuk aipatzearen Bilboko Udalarekin duen hitzarmenaren berri ematen duena eta laneko bizitzaren ziurtagiriaren ingurukoak.

Erantzuna: ZUZENDARI PROBINTZIALA: *Gure departamentuak aztertu ditugu eta kartel guzti-guztiak EAEko bi hizkuntza ofizialetan idatzita daude. Horregatik, eraikin honetan dagoen beste herri-administrazio batekoa izango dela pentsatzen dugu.*

Esp. Zenb.: 1046-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL – INSS

Arrazoa: Gizarte Segurantzaren Deustuko Iruña kaleko bulegoan izan zen herritarra ekainaren 4an. Galdera euskaraz egin zuen arren, gaztelaniaz erantzun zioten.

Erantzuna: ZUZENDARI PROBINTZIALA: *Estatuko Administrazio Orokorreko kide garen heinean prestazioen kudeaketa gure Zerbitzu Zentralek egiten dute. Hori alde batera utzita, badakigu gure bezero guztiak euskaraz artatuak izateko eskubidea dutela, baina beti ez da posible izaten, justifikatutako ez etortzeak direla eta.*

Esp. Zenb.: 1048-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL – INSS

Arrazoa: Gizarte Segurantzaren Bilboko Iruña kaleko bulegora joan zen abuztuaren 7an goizeko 9ak aldera. Bertan zeuden hiru langileetatik bakarrak zekien nonbait euskaraz, *Ese sabe euskera* esan baitzion langileetarikoa batek. Harengana joan eta kostata ulertu zion, nekez baitzekien euskaraz eta esaten zuenaren erdia gaztelaniaz egiten baitzuen.

Erantzuna: ZUZENDARI PROBINTZIALA: *Estatuko Administrazio Orokorreko kide garen heinean prestazioen kudeaketa gure Zerbitzu Zentralek egiten dute. Hori alde batera utzita, badakigu gure bezero guztiak euskaraz artatuak izateko eskubidea dutela, baina beti ez da posible izaten, justifikatutako ez etortzeak direla eta.*

Esp. Zenb.: 1394-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL – INSS

Arrazoa: Urriaren 2an Gizarte Segurantzaren Deustuko bulegora joan zen informazio eske. Euskaraz egin zuen galdera eta bertan zegoen enplegatuek gaztelaniaz egiteko eskatu zion, langile euskaldun batengana bideratzeko ahaleginik ere egin gabe.

Erantzuna: ZUZENDARI PROBINTZIALA: *Estatuko Administrazio Orokorreko kide garen heinean prestazioen kudeaketa gure Zerbitzu Zentralek egiten dute. Hori alde batera utzita, badakigu gure bezero guztiak euskaraz artatuak izateko eskubidea dutela, baina beti ez da posible izaten, justifikatutako ez etortzeak direla eta.*

Esp. Zenb.: 271-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL – SEPE

Arrazoa: SEPEren Nafarroako egoitzetan herritarren eskura dauden foileto eta inprimaki guztiak ez daude euskaraz. Horrez gain, Agoitz, Lizarra, Lodosa, Tafalla, Tuter, Iruña-Yamaguchi, Iruña-2. Zabalgunea eta Iruñeko Herrialde Zuzendaritzako egoitzetako errotulazioak gaztelaniaz baino ez daude.

Erantzuna:

Esp. Zenb.:	535-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - SEPE
Arrazoia:	SEPEren Nafarroako zuzendaritzak Agoizko herritarrari gaztelania hutsean bidali dio martxoaren 5ean 2011ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren agiria.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	536-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL – SEPE
Arrazoia:	SEPEren Nafarroako herrialde zuzendaritzak gutuna bidali zion martxoaren 5ean Agoizko herritarrari. Helbidea adierazteko formulak nahiz pertsonaren trataera gaztelania hutsean zeuden (D./D ^a c/, NAVARRA)
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1003-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL – SEPE
Arrazoia:	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoko Nafarroako Zuzendaritzak herritarrari irailaren 4an bidalitako gutuna, non langabeziaren prestazioaren onespeneren ebazpenaren berri ematen zitzaion, gaztelania hutsean zegoen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1004-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL – SEPE
Arrazoia:	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoko Nafarroako Zuzendaritzak Iruñeko herritarrari irailaren 13an bidalitako gutuna, non langabeziaren prestazioak lanaldi murriztuarekin duen bateragarritasunaren berri ematen zitzaion, gaztelania hutsean zegoen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1005-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL – SEPE
Arrazoia:	Iruñeko herritarrak irailaren 14an Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoko 901.010.210 telefonora deitu zuen alde zuzentzeko eta ezinezkoa suertatu zitzaion euskaraz hitz egitea.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	103-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL – TGSS
Arrazoia:	Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorreko Nafarroako Lurraldeko Zuzendaritzak gaztelania hutsean bidali zion urtarrilean Iruñeko herritarrari inkesta bat betetzeko gutuna. Gutunaren zioa ondokoa zen: <i>Atención telefónica 901.502.050. Su opinión es lo más importante para mejorar el servicio.</i>
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	268-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - TGSS
Arrazoia:	euskaraz. Horrez gain, herritarrei arreta emateko lanpostuek ez dute euskararen ezagutzaren derrigortasuna ezarria.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.: 269-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - TGSS

Arrazoia: Nafarroan legeak ezarritako eremu misto eta ez-euskaldunetako Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren egoitzetako errotulazioa ez dago euskaraz. Horrez gain, herritarrei arretarako emateko lanpostuek ez dute euskararen ezagutzaren derrigortasuna ezarria.

Erantzuna: IDAZKARI NAGUSIA: *Nafarroako Lurralde Ordezkaritzaren egoitza 16/1986 Foru Legeak eremu misto gisa definitzen duen horretan aurkitzen da eta errotulazioak legeak kokapen horretarako ezartzen duena betetzen du. Hala eta guztiz ere, azpimarratu nahi du erakundea Espainiako Konstituzioan eta 30/1992 Legearen 35. eta 36. artikuluetan jasotzen diren herritarren eskubide eta askatasunen bermearekin guztiz konprometituta dagoela, eta ahal duen guztia egiten du erabiltzaileei gaztelania ez diren Espainiako hizkuntzen erabilera errazteko hizkuntza horiek ofizialak diren lekuetako bulegoetan.*

Esp. Zenb.: 539-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - TGSS

Arrazoia: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren Gipuzkoako ordezkaritzatik ebazpena helarazi zioten otsailaren erdi aldera ordaindutako kuoten itzulketaren inguruan. Jakinarazpena gaztelania hutsean idatzita zegoen.

Erantzuna: PROBINTZIA ZUZENDARIA: *Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak sortzen dituen ia agiri guztiak euskaratuta badaude ere, justu Oker Jasotako Dirua itzultzeko Ebazpena ez dago itzulita, Madrilgo Zerbitzu Zentraletan sortu eta igortzen baita. Nolanahi, honen berri eman diegu Zerbitzu Zentralekoei, konponbidea eman diezaioten.*

Esp. Zenb.: 991-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - TGSS

Arrazoia: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Durangoko Tronperri kaleko egoitzan izan zen herritarra uztailaren 6an. Egokitu zitzaizkion funtzionarioengana euskaraz zuzendu bazen ere, gaztelaniaz jarraitu behar izan zuen, ez baitzekiten euskaraz.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 992-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - TGSS

Arrazoia: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Durangoko Tronperri kaleko egoitzako kartelak eta errotuluak gaztelania hutsean daude. Esate baterako, laneko bizitzaren ziurtagiria delakoa eskatzeko herritarren eskura propio jarrita dagoen telefono-aparatua erabiltzeko argibideak ematen dituen kartela.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 996-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - TGSS

Arrazoia: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren Iruñeko Conde Oliveto kaleko egoitzan irailaren 23an herritarren eskura zeuden inprimakiak gaztelania hutsean zeuden. Herritarrak hartutako *Solicitud alta, baja* inprimakiak horrela zioen: *Advertencia: en las CCAA con lenaua cooficial, existe a su disposición este impreso redactado en lenaua vernácula.*

Erantzuna: KIDE AHOLKULARIA: *Langileei zuzendutako informazio kanpaina (gutuna, lan txostena, galdetegia...) gaztelania hutsean egiten da. Beste alde batetik, zenbait urrats egiten ari gara Europako Erregio eta Gutxiengoan Hizkuntzen Itunaren III. parte aplikatu eta garatzeari begira, horien artean, herritarrek betetzeko inprimakiak, hizkuntza-paisaia, kartelak, ahozko zerbitzua... Hau dena beti bi hizkuntza ofizial dituzten erkidegoetan. Hala ere, arlo batzuk jorratzeke daude eta horietan ere lanean jarraitzen dugu, jakinarazpen administratibo guztiak ele bietan idaztea helburu harturik.*

Esp. Zenb.: 997-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL – TGSS

Arrazoia: TGSS-k Iruñeko herritarrari irailaren 25ean bidalitako SMS-a gaztelania hutsean zegoen. Bertan, TGSSn alta emana zuela eta non jakinarazten zioten.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 998-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL – TGSS

Arrazoia: Herritarrak irailaren 23an Iruñeko Conde Oliveto kaleko Gizarte Segurantzaren eraikinean eskuragai ikusi zituen esku-orri guztiak gaztelania hutsean zeuden. Berak behar zuena ere bai: *Nueva regulación Servicio del Hogar familiar.*

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 999-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - TGSS

Arrazoia: Herritarrak irailaren 2an Iruñeko Conde Oliveto kaleko Gizarte Segurantzaren eraikinean eskuragai ikusi zituen esku-orri guztiak gaztelania hutsean zeuden. Berak behar zuena ere bai: *Sede electrónica. Nuevo acceso a servicios vía SMS.*

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1000-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - TGSS

Arrazoia: Herritarrak irailaren 2an Iruñeko Conde Oliveto kaleko Gizarte Segurantzaren eraikinean eskuragai ikusi zituen esku-orri guztiak gaztelania hutsean zeuden. Berak behar zuena ere bai: *Sede electrónica. puede obtener su vida laboral llamando al 901.502.050.*

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1001-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - TGSS

Arrazoia: Herritarra Iruñeko Conde Oliveto kaleko Gizarte Segurantzaren bulegoetan izan zen irailaren 2an eta ezin izan zuen euskaraz egin, langile euskaldunik ez baitzegoen. Horretaz gain, ikusi zituen kartel guzti-guztiak gaztelania hutsean zeuden.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1028 -2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - TGSS

Arrazoia: Herritarra TGSSren Iruñeko egoitzan izan zen irailaren 10ean goizeko 10:40ak aldera eta ezin izan zuen arreta euskaraz jaso langile euskaldunik ez baitzegoen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1029-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - TGSS

Arrazoia: Herritarrari TGSSren Iruñeko egoitzan irailaren 10ean goizeko 11:00ak aldera eta luzatu zioten agiria gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1030-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - TGSS

Arrazoia: TGSSren Iruñeko egoitzako hizkuntza-paisaia osoa gaztelania hutsean dago.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1142-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - TGSS

Arrazoia: Gizarte Segurantzaren Nafarroako Diruzaintza Nagusiak herritarrari urriaren 9an luzatutako ziurtagiria gaztelania hutsean zegoen. Aipatu agirian herritarrak ordezkatzeko duen erakundea Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin egunean zegoela ziurtatzen zen.

Erantzuna: IDAZKARI NAGUSIA: *Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak ezin ditu ebidentzia materialik ez duten kexak aintzat hartu. Horregatik uste dugu zuen txostenetan islatzen dena ez datorrela bat errealitatearekin.*

Esp. Zenb.: 1168-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - TGSS

Arrazoia: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL-ek Barañaingo herritarrari urrian bidalitako gutuna gaztelania hutsean zegoen. Bertan, Gizarte Segurantzaren Sistemari izandako gorabeheren berri ematen zitzaion.

Erantzuna: IDAZKARI NAGUSIA: *Erakunde hau guztiz konprometiturik dago herritarrei Espainiako Konstituzioan aitortzen zaizkien eskubide eta askatasunak hala nola 30/1992 Legearen 35 eta 36. artikuluetan xedatutakoa bete eta bermatzen. Horregatik ahalegin berezia egiten du erabiltzaileei gaztelania ez den hizkuntzen erabilera ahalbidetzeko hizkuntza horiek ofizialak diren lurraldeetako egoitzetan. Era berean adierazi nahi dugu Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak ezin dituela ebidentzia materialik ez duten kexak aintzat hartu. Horregatik uste dugu zuen txostenetan islatzen dena ez datorrela bat errealitatearekin.*

Esp. Zenb.: 1321-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - TGSS

Arrazoia: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak Iruñean kokatutako erakunde bati azaroaren 6an luzatutako TC2 agiria gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna: KIDE AHOLKULARIA: Ez dakigu zehatz-mehatz zein agiriri egiten dion erreferentzia kexak. RED sistemaren bidez inprimatutako TC2 agiria dela pentsatuz, aipatu nahi dugu Gizarte Segurantzaren (www.seg-social.es) ataria guztiz euskaratuta dagoela, esku-liburu batzuk eta RED albisteak salbu. Hala ere, helburua ataria RED sistemarekin lotutako eduki guztiak, zein sistema honen bidez gauzatzen diren izapide guztiak berezko hizkuntza ezberdinetan erabiltzeko egokitzea da, sortzen diren agiriak hizkuntza horietan inprimatu ahal izateko. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia ahalegin handia egiten ari da egokitze horretan, uste baitu aspektu hori funtsezkoa dela, batetik enpresei haien hizkuntza-askatasuna errespetatuz zerbitzurik onena emateko, eta bestetik, erabiltzaileei sistema berezko hizkuntzetako edozeinetan erabiltzeko aukera eskaintzeko.

Esp. Zenb.: 1326-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - TGSS

Arrazoia: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak Barañaingo herritarrari azaroan postaz bidalitako bitzita laborala, gutuna, gutun-azala eta betetzeko galdetegia, hau da, bidalitako informazio osoa gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna: KIDE AHOLKULARIA: *Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia ahalegin handia egiten ari da herritarrari zerbitzuak gerturatzeko, eta horretarako ezinbestekoa da informazioa eta zerbitzuak ahalik eta neurri handienez eskuratzea Estatuko hizkuntza koofizialetan. Urtero egin ohi den bitzita laboralaren kanpaina gaztelaniaz egiten da Nafarroan. Gizarte Segurantzaren zenbait urrats egiten ari gara Europako Erregio eta Gutxiengoen Hizkuntzen Itunaren III. parte aplikatu eta garatzeari begira, horien artean, herritarrek betetzeko inprimakiak, hizkuntza-paisaia, kartelak, ahozko zerbitzua... Hala ere, arlo batzuk jorratzeke daude eta horietan ere lanean jarraitzen du, helburuak lortzeko bidean.*

Esp. Zenb.: 1339-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - TGSS

Arrazoia: Barañaingo herritarrak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren 2012ko galdetegia bete egin zuen. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak azaroaren 6an eskerrak emateko bidali zion gutuna gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna: KIDE AHOLKULARIA: *Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia ahalegin handia egiten ari da herritarrari zerbitzuak gerturatzeko, eta horretarako ezinbestekoa da informazioa eta zerbitzuak ahalik eta neurri handienez eskuratzea Estatuko hizkuntza koofizialetan. Gizarte Segurantzaren gogotsu ari da berezko hizkuntzen erabilerara egokitzeko ahaleginean, eta ez Nafarroako eremu euskaldunean soilik. Hala ere, jaso dugun informazioa ez da aski herritarrak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiko Zerbitzu Zentralei igorri zien galdetegia zein hizkuntzatan bete zuen jakiteko. Hala ere, arlo batzuk jorratzeke daude eta horietan ere lanean jarraitzen du, helburuak lortzeko bidean.*

Esp. Zenb.: 1352-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - TGSS

Arrazoia: Gizarte Segurantzaren Estatu Idazkaritzak urtero ohi duen moduan langileei zuzendutako 2012ko Komunikazio kanpainaren barruan legeak ezarritako Nafarroako eremu euskalduneko herritarrari bidali dizkion agiri guztiak: gutuna, lan historiala, kotizazio oinarriak, herritarraren asebetetzea neurtzeko galdetegia eta datuak eguneratzeko inprimakia gaztelania hutsean daude.

Erantzuna: KIDE AHOLKULARIA: *Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia ahalegin handia egiten ari da herritarrari zerbitzuak gerturatzeko, eta horretarako ezinbestekoa da informazioa eta zerbitzuak ahalik eta neurri handienez eskuratzea Estatuko hizkuntza koofizialetan. Urtero egin ohi den bizitza laboralaren kanpaina gaztelaniaz egiten da Nafarroan. Gizarte Segurantzaren zenbait urrats egiten ari gara Europako Erregio eta Gutxiengoaren Hizkuntzen Itunaren III. parte aplikatu eta garatzeari begira, horien artean, herritarrek betetzeko inprimakiak, hizkuntza-paisaia, kartelak, ahozko zerbitzua... Hala ere, arlo batzuk jorratzeko daude eta horietan ere lanean jarraitzen du, helburuak lortzeko bidean.*

Esp. Zenb.: 1389-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - TGSS

Arrazoia: Enplegu Ministeriotik gaztelania hutsean bidai diote Nafarroan legeak ezarritako eremu mistoko herritarrari bizitza laboralari buruzko informazioa.

Erantzuna: KIDE AHOLKULARIA: *Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia ahalegin handia egiten ari da herritarrari zerbitzuak gerturatzeko, eta horretarako ezinbestekoa da informazioa eta zerbitzuak ahalik eta neurri handienez eskuratzea Estatuko hizkuntza koofizialetan. Urtero egin ohi den bizitza laboralaren kanpaina gaztelaniaz egiten da Nafarroan. Gizarte Segurantzaren zenbait urrats egiten ari gara Europako Erregio eta Gutxiengoaren Hizkuntzen Itunaren III. parte aplikatu eta garatzeari begira, horien artean, herritarrek betetzeko inprimakiak, hizkuntza-paisaia, kartelak, ahozko zerbitzua... Hala ere, arlo batzuk jorratzeko daude eta horietan ere lanean jarraitzen du, helburuak lortzeko bidean.*

Esp. Zenb.: 1398-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - TGSS

Arrazoia: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak Agoizko herritarrari abenduan bidalitako informazio guztia, gutuna, gutunazala, bizitza laboralaren txostena eta datuak eguneratzeko eskaera, gaztelania hutsean zegoen. Gaia: *Campaña de comunicación a los trabajadores, 2012.*

Erantzuna: KIDE AHOLKULARIA: *Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia ahalegin handia egiten ari da herritarrari zerbitzuak gerturatzeko, eta horretarako ezinbestekoa da informazioa eta zerbitzuak ahalik eta neurri handienez eskuratzea Estatuko hizkuntza koofizialetan. Urtero egin ohi den bizitza laboralaren kanpaina gaztelaniaz egiten da Nafarroan. Gizarte Segurantzaren zenbait urrats egiten ari gara Europako Erregio eta Gutxiengoaren Hizkuntzen Itunaren III. parte aplikatu eta garatzeari begira, horien artean, herritarrek betetzeko inprimakiak, hizkuntza-paisaia, kartelak, ahozko zerbitzua... Hala ere, arlo batzuk jorratzeko daude eta horietan ere lanean jarraitzen du, helburuak lortzeko bidean.*

MINISTERIO DE FOMENTO

Esp. Zenb.:	1445-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO
Arrazoia:	Espainiako Sustapen ministerioak gaztelania huts-hutsean argitaratu du iragarkia abenduaren 22ko <i>EL CORREO</i> egunkarian. Iragarkiaren testua ondokoa da: <i>Pablo / 29 años / Pablo es uno de los profesionales de Salvamento Marítimo que trabajan para velar por tu seguridad. Gracias a él, y a muchos como él, si lo necesitas tienes servicio 24 horas al día, 365 días al año de / búsqueda y salvamento marítimo / servicios de rescate / prevención y lucha contra la contaminación / control del tráfico marítimo / Para cualquier emergencia: Llama al 112 / Radio: Canal 16 VHF / Más información en: www.estoesfomento.es / Gobierno de España / Ministerio de Fomento / Para que puedas llegar .</i>
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1074-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO - ADIF
Arrazoia:	Herritarra RENFEren Bilboko geltokiara informazio eske joan zen leihatilara irailaren 19an, eta gaztelaniaz egiteko eskatu zioten, euskaraz ez baitzekiten.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1097-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – ADIF
Arrazoia:	Herritarra Tuterako RENFEren geltokira joan zen irailaren 25eko eguerdian informazio eske eta gaztelaniaz hitz egiteko eskatu zioten, euskaraz ez baitzekiten.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1311-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – ADIF
Arrazoia:	ADIF Trenbide Azpiegituren Administratzaileak azaroaren 7an, Abiadura Handiko Trenaren proiektuko desjabetzeen inguruan, <i>EL CORREO</i> egunkarian argitaratutako iragarkia gaztelania hutsean zegoen. Herritarrak ez du beste inongo egunkaritan iragarkia euskaraz ikusi.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1409-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – ADIF
Arrazoia:	Herritarra abenduaren 21ean eguerdiko 14:00ak inguruan Renferen Abandoko geltokira joan zen informazio eske. Leihatilako langileak ez zekien euskaraz eta gaztelaniaz egiteko eskatu zion. Herritarrak dioenez, Abandoko geltokira joaten den guztietan gertatzen zaio egoera hau.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	277-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – AENA
Arrazoia:	Noingo aireportuan zenbait errotulu ez daude euskaraz, baina bai gaztelaniaz eta ingelesez. Herritarrei zuzendutako kartel gehienak ere, gaztelaniaz eta ingelesez daude. Horrez gain, herritarrei arreta emateko lanpostuek ez dute euskararen ezagutzaren derrigortasuna ezarria eta ez da euskararen ezagutza merezimendu gisa baloratzen.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.:	349-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO - AENA
Arrazoia:	Herritarrak martxoan Loiuko aireportuan aurkitutako esku-orria gaztelaniaz eta ingelesez idatzita zegoen, ez ordea, euskaraz. Testua: <i>Aeropuerto de Bilbao. Servicio de asistencia a personas con movilidad reducida. Bilbao Airport. Assistance for persons with reduced mobility.</i>
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1045-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – AENA
Arrazoia:	Abuztuaren 1ean goizeko 11:00ak aldera Loiuko aireportuko informazio-puntura jo zuen herritarrak eta euskaraz egin zuen galdera. Bertan zegoen langileak gaztelaniaz galdetu zion ea zer nahi zuen, eta gaztelaniaz jarraitu behar izan zuen.
Erantzuna:	<u>1. erantzuna:</u> BILBOKO AIREPORTUA-JEFA DEL GABINETE DE DIRECCION: <i>Aireportuan bi harrera-leku daude, eta gutxienez euskaldun bat egoten da gune batean edo bietan. Egun horretan, tamalez, ez zegoen euskaraz zekien langilerik herritarra egon zen harrera-lekuan, baina bai beste informazio gunean. Kexa kontuan hartuko dugu zerbitzua hobetzeko.</i> <u>2. erantzuna:</u> AENA AEROPUERTOS - DIRECTOR GABINETE DE LA PRESIDENCIA: <i>Kontuan hartu dugu kexan salatutako gertaera, gure ustez ez baita ohikoa aireportuaren funtzionamenduan, eta berriro horrelakorik ez gertatzea espero dugu, gure borondatea indarrean dagoen legedia betetzea baita. Aireportuko Zuzendaritzak hainbat neurri hartu ditu herritar guztiak aireportuko langileekin dituzten harremanetan euskara nahiz gaztelera erabili ahal izatea bermatzeko. Hala, euskara klaseak emango zaizkie bezeroekin harreman zuzena duten langileei, eta bi informazio guneetan une oro euskaraz dakien norbait egotea bermatuko da.</i>
Esp. Zenb.:	72-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – CORREOS
Arrazoia:	Herritarrak gutun ziurtatua jaso zuen urtarrilaren amaieran. Posta bulegoan jarritako zigilua eta eranskailua gaztelania hutsean daude. <i>HONDARRIBA 26 ENE. 2012. Franqueo Pagado en Oficina. España</i> irakur daiteke batean. Eranskailuan berriz <i>Firma. Certificado</i> . Herriaren izen ofiziala ere ez du errespetatzen zigiluak, <i>HONDARRIBA</i> ageri baita <i>HONDARRIBIA</i> beharrean.
Erantzuna:	RESPONSABLE DE ATENCION AL CLIENTE: <i>Oker inprimatutako zigiluak erretiratu ditugu dagoeneko.</i>
Esp. Zenb.:	183-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – CORREOS
Arrazoia:	Herritarrak lurretatik bidalitako gutun ziurtatua jaso zuen otsailaren erdialdean. CORREOSek jarritako eranskailua gaztelania hutsean dago. <i>Certificado, Reembolso, Destinatario</i> jartzen du.
Erantzuna:	RESPONSABLE DE ATENCION AL CLIENTE: <i>Gure bidalketen inprimaki guztiak ele bietan idatzita daude. Hala ere, intzidentzia zehaztu ahal izateko, eranskailuaren fotokopia bidaltzeko eskatzen dizuegu, arren, behar diren neurriak hartu ahal izateko.</i>

Esp. Zenb.:	258-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – CORREOS
Arrazoia:	Martxoaren 13an CORREOSen Deustuko Agirre lehendakariaren etorbideko posta bulegoko leihatilan euskaraz egin zuen galdera eta gaztelaniaz egiteko eskatu zioten.
Erantzuna:	DIRECTOR DE RELACIONES INSTITUCIONALES Y COORDINACION: <i>Ezaguna da CORREOSek eleaniztasunaren inguruan duen posizionamendua, eta indarrean den legea betetzeko prestutasuna ez ezik, hura sustatu eta betearazteko sentsibilitate berezia. Puntualki kexan adierazten denaren antzeko intzidentziak gerta daitezkeen arren, horiek konpondu eta gerta daitezkeen hondar intzidentziak ezabatzeko ahaleginean dihardugu.</i>
Esp. Zenb.:	282-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO - CORREOS
Arrazoia:	Martxoaren 21ean CORREOSen Deustuko Agirre lehendakariaren etorbideko posta bulegora joan zen gutuna jasotzera bertatik pasatzeko oharra utzi ziotelako etxean. Euskaraz agurtu zuen enplegatua, euskaraz agertu zion zertara zihoan, baina gaztelaniaz jaso zuen erantzuna.
Erantzuna:	RESPONSABLE DE ATENCION AL CLIENTE: <i>CORREOSek begirunerik handiena du Autonomia Erkidegoetako hizkuntza ofizialekin. Horregatik legeriak gure zerbitzuen erabiltzaileei aitortutako hizkuntza-eskubideak bermatzeko CORREOS egiten ari den etengabeko ahaleginaren berri eman nahi dizuegu. Horrela, CORREOSek bere bulegoetan erabiltzaileen eskura jartzen dituen inprimaki, formulario, eta produktu eta zerbitzuen informazio-orriak ele bietan argitaratu eta hornitzen ditu, telefono bidezko arreta hizkuntza ofizial ezberdinetan egiteko zerbitzua ere baduelarik. Hala ere, kontuan hartuko dugu kexan adierazitako gertaera, dagokion departamentuak aztertu eta posible bada konponbidea jar diezaion.</i>
Esp. Zenb.:	296-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – CORREOS
Arrazoia:	CORREOSen Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuko 902.197.197 telefono zenbakira deitu zuen ekainaren 14an kontsulta bat egiteko. Hizkuntza hautatzeko aukera eskaini zion erantzungailuak eta euskara aukeratu zuen. Telefono hartu zuen operadoreak, hala ere, gaztelaniaz egin zion lehen hitza. Herritarrak zerbitzua euskaraz nahi zuela gogorarazi zion eta orduan pixka bat itxoiteko eskatu zion, deia langile euskaldunari pasa behar ziola eta. Handik pixka batera, langile euskaldun guztiak okupatuta zeudela eta euskaraz egin nahi bazuen beranduxeago deitzeko esan zion. Bigarren aldiz deitu zuenean, sekuentzia bera errepikatu zen, baina kasu honetan langile euskalduna noiz jarriko zain zegoela deia eten egin zen, inolako azalpenik gabe. Hirugarren dei bat egin zuen, gaztelaniaz eskatu zuen zerbitzua eta batere itxoin beharrik gabe eman zizkioten eskatutako argibideak.
Erantzuna:	RESPONSABLE DE ATENCION AL CLIENTE: <i>CORREOSek begirunerik handiena du Autonomia Erkidegoetako hizkuntza ofizialekin. Horregatik legeriak gure zerbitzuen erabiltzaileei aitortutako hizkuntza-eskubideak bermatzeko CORREOS egiten ari den etengabeko ahaleginaren berri eman nahi dizuegu. Horrela, CORREOSek bere bulegoetan erabiltzaileen eskura jartzen dituen inprimaki, formulari, eta produktu eta zerbitzuen informazio-orriak ele bietan argitaratu eta hornitzen ditu, telefono bidezko arreta hizkuntza ofizial ezberdinetan egiteko zerbitzua ere baduelarik. Hala ere, kontuan hartuko dugu kexan adierazitako gertaera, dagokion departamentuak aztertu eta posible bada konponbidea jar diezaion.</i>

Esp. Zenb.: 847-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – CORREOS

Arrazoia: Bizkaiko Lekeitio herriko posta-bulegoak darabilen zigilua, ordaindu izana adieraztekoa, gaztelania hutsean dago: bai data bera 25 JUN 2012, bai eta *España* eta *Franqueo Pagado en Oficina* testuak ere.

Erantzuna: RESPONSABLE DE ATENCION AL CLIENTE: *CORREOSek begirunerik handiena du Autonomia Erkidegoetako hizkuntza ofizialekin. Horregatik legeriak gure zerbitzuen erabiltzaileei aitortutako hizkuntza-eskubideak bermatzeko CORREOS egiten ari den etengabeko ahaleginaren berri eman nahi dizuegu. Horrela, CORREOSek bere bulegoetan erabiltzaileen eskura jartzen dituen inprimaki, formulari, eta produktu eta zerbitzuen informazio-orriak ele bietan argitaratu eta hornitzen ditu, telefono bidezko arreta hizkuntza ofizial ezberdinetan egiteko zerbitzua ere baduelarik. Hala ere, kontuan hartuko dugu kexan adierazitako gertaera, dagokion departamentuak aztertu eta posible bada konponbidea jar diezaion.*

Esp. Zenb.: 1124-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – CORREOS

Arrazoia: CORREOSen Iruñeko Sarasate pasealekuko posta-bulegoan *CORREOS, tu compañero en el Camino* esku-orria gaztelaniaz soilik zegoen bezero eta erabiltzaileen eskura. Saiatu zen arren, ez zuen inon aurkitu euskarazko bertsiorik.

Erantzuna: RESPONSABLE DE ATENCION AL CLIENTE: *kexan aipatzen diren esku-orriak galegoz eta gaztelaniaz soilik argitaratu ziren, Done Jakue bidean hizkuntza horiek hitz egiten diren herrietako bulegoetan banatzeko. Esku-orrien banaketa segmentazio irizpideen arabera egin zen, kokapen geografikoa aintzat hartuta eta bidea eskualde horietan egiten ari ziren erromesen artean mezua optimizatzeari begira. Akatsen bat tarteko, Iruñeko bulegoan bertarako ez ziren esku-orriak jaso zituzten. Hala ere, CORREOS Sozietateak sentsibiltate bereziz aplikatzen ditu hizkuntza politikaren inguruko arauak, eta jarrera aktiboa du hizkuntza ofizial bat baino gehiago dituzten Autonomia Erkidegoetan haien erabilera sustatzen.*

Esp. Zenb.: 1229-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – CORREOS

Arrazoia: Iruñeko herritarrak zerbitzuarekin lotutako kexa bat helarazi zion CORREOSi urrian. Kexa telefonoz bideratu zuen eta zerbitzua euskaraz jaso zuen. Erantzuna, berriz, urriaren 19an jaso, gaztelania hutsean bidali zioten.

Erantzuna: RESPONSABLE DE ATENCION AL CLIENTE: *Ez dugu behar besteko daturik intzidentzia aztertu ahal izateko. CORREOSek ahaleginak egiten ditu legeriak gure zerbitzuen erabiltzaileei aitortzen dizkien hizkuntza-eskubideak bermatzeko eta sentsibiltate berezia du hizkuntza-politikako arauak aplikatzerakoan, bi hizkuntza ofizialen erabilera bultzatzen duelarik hala ezarrita dituzten Autonomia Erkidegoetan. Telefono bidezko arretan euskaraz arreta egiteko langileak baditugula ziurtatzen dizuegu, eta akats puntual baten ondorio besterik ezin daitekeela izan erreklamazioa euskaraz jaso eta erantzuna gaztelaniaz bidaltzea.*

Esp. Zenb.:	1315-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO - CORREOS
Arrazoia:	CORREOSEk argitaratutako <i>Guía de prepagados y embalajes</i> euskarazko bertsioko azala gaztelania hutsean dago, <i>euskara</i> hitza izan ezik. Horretaz gain, barruko orrialdeetan ere euskarazko bertsioan gaztelaniak toki nabarmena eta batzuetan eskusiboa du. Horren erakusgarri dira, adibidez, <i>Paquetería e-commerce. Reinventamos la fórmula</i> eta <i>Dónde y cuándo</i> leloak ageri dituzten iragarkiak.
Erantzuna:	RESPONSABLE DE ATENCION AL CLIENTE: <i>Marka erregistratuak eta haien logoak, esloganak, eta produktuen esaldi publizitarioek ez dute itzulpenik, produktu edo zerbitzu jakin baten kontsumitzaileei zuzendutako marketing edo publizitate-kanpainak baitira. Gainera, produktu bakoitzari balio propioa eranstean dioten balio komertzialak izanik, ezin dira itzuli ez eta bereizgarri egiten dituzten ñabardurez gabetu. Hori horrela, uste dugu gida zuzen idatzita dagoela euskaraz zein gaztelaniaz.</i>
Esp. Zenb.:	86-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – RENFE
Arrazoia:	Abenduaren 11n erreklamazio bat jarri zuen herritarrek Bilboko Abando tren-geltokian, Renferen Bezeroarentzako Bulegoan. Erreklamazio orria euskaraz bete zuen arren, hilabete beranduago gaztelania hutsean jaso zuen erantzuna.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1064-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – RENFE
Arrazoia:	Altsasu tren geltokian Espainiako Gobernuko Sustapen Ministerioak zenbait lanen berri emateko panela paratuta du. Panela ele bietan dago, baina euskarazko bertsioa oso trakets itzuli dute.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1152-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – RENFE
Arrazoia:	17an ikusitako kartela gaztelania hutsean zegoen. Igogailua hondaturik zegoen eta kartelak hau zioen: <i>Ascensor averiado-Utilicen el situado al otro lado.</i>
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1393-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – RENFE
Arrazoia:	Urriaren 6an RENFEren San Mamesko geltokiko leihatilara joan zen herritarra argibide eske. Euskaraz egin eta bertan zegoen langileak gaztelaniaz egiteko eskatu zion.
Erantzuna:	

MINISTERIO DEL INTERIOR

Esp. Zenb.: 135-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR – DIRECCIÓN GENERAL DE LA POLICÍA

Arrazoia: Espainiako Barne Ministerioak segurtasun-zaindariendako, bizkartzain pribatuendako eta detektibeendako jaulkitzen duen T.I.P. txartela, Tarjeta de Identidad Profesional delakoa, gaztelania hutsean dago, bai orain arteko modeloa bai otsailare 6tik aurrera jaulkiko duena ere.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 267-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR – DIRECCIÓN GENERAL DE LA POLICÍA

Arrazoia: Polizia Nazionalaren Nafarroako egoitzetan herritarren eskura jarritako foileto eta inprimakiak ez daude euskaraz; Denuntzien eta Atzerritarren Bulegoan kartelik ere ez dago euskaraz. Horrez gain, egoitzetako errotulazioak gaztelaniaz baino ez daude.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 119-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR – DIRECCIÓN GENERAL DE TRÁFICO

Arrazoia: Iruñeko herritarrak gaztelania hutsean jaso zuen pasa den otsailean Barne Ministerioak bidalitako isun baten jakinarazpena.

Erantzuna: KALITATE ETA GAI OROKORREN ZERBITZUKO BURUA: *Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua arabera, gaztelania da Espainiako Estatuko hizkuntza komuna eta guztiok ezagutu beharrekoa. Hori horrela uste dugu gaztelania erabiliz guztiz bermatzen dela herritarrak jakinarazpena ulertzea. Bestetik, Foru legearen 9. artikulua xedatzen du, euskara ofiziala izango dela gaztelaniarekin batera eremu euskaldunean, baina ez du ezartzen nahitaez ezagutu beharrekoa denik, ez eta jakinarazpen ofizialean gaztelania baztertu behar denik ere. Gaztelaniazko jakinarazpenak euskal hiztunen eta erdal hiztunen arteko bereizkeria ekiditen du, Espainiako eremu misto batean. Bestetik, Europar Batasuneko Kontseiluaren arabera, funtsezko irizpidea izan behar du jakinarazpenak herritar guztiak ulertzeko moduan bermatzea, hori baita segurtasun juridikoa errespetatzeko modu bakarra. Beraz, trafikoko isuna jakinarazteko gaztelania erabiliz, herritarrak jakinarazpena ulertzea bermatzen da, eta 2011/82/UE arteztarauan jasotakoari men egiten zaio, alegia, jakinarazpenak hartzaileak ulertzeko probabilitate handiena duen hizkuntzan egin behar direla, bidaltzen zaien informazioa ongi ulertzeko bermea ahalik eta handiena izan dadin.*

Esp. Zenb.: 200-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR – DIRECCIÓN GENERAL DE TRÁFICO

Arrazoia: Donostian dagoen Gipuzkoako Trafikoko Zuzendaritzara joan zen. Egin behar izan zituen bi izapideetan gaztelaniaz hitz egin behar izan zuen artatu zuten bi langileek ez zekitelako euskaraz Horretaz gain, izapidea betetzeko bete beharreko dokumentu batzuk, ez guztiak, gaztelania hutsean zeuden.

Erantzuna: TRAFIKOKO PROBINTZIA-BURUA: *Jendearen arretan aritzen diren langileek dituzten jarraibideak, herritarrari arreta berak aukeratutako hizkuntzan eman ahal izateko bideratuta daude. Batzuetan, lehen unean egokitutako funtzionarioak ez du herritarra euskaraz egoki artatzeko gaitasunik, eta kasu horretan arreta egoki egiteko gai den funtzionarioari dei egiten zaio. Kasu honetan, kexa eragin zuen gertaera zehatzari buruzko argibide gehiago beharko genituzke zer gertatu zen argitzeko eta horrelako egoerak ez errepikatuzko neurriak hartzeko.*

Esp. Zenb.: 325-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR – DIRECCIÓN GENERAL DE TRÁFICO

Arrazoia: Gipuzkoako lurraldeko izendapen ofiziala *GIPUZKOA* izan arren, Gipuzkoako Trafikoko Buruzagitza Probintzialak martxoan herritarrari igorritako gutun-azalean *GUIPUZCOA* izendapena agertzen da.

Erantzuna: TRAFIKOKO PROBINTZIABURUA: *Gutun-azal izakinak berrikusiko ditugu aurre-inprimatzeak izendapen ofizialetara egokitzen direla ziurtatzeko.*

Esp. Zenb.: 718-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR – DIRECCIÓN GENERAL DE TRÁFICO

Arrazoia: Trafiko Zuzendaritzak Gizarte Ekintzarako 2011 Planaren bidez langileentzat bideratu zituen diru-laguntzak arautzeko 5.5. puntuan ezarri zuen eskatzaileek hizkuntza koofizialetan idatzita aurkezten dituzten agiriei gaztelaniazko itzulpena erantsi beharko zaiela. Eskatzaile bati laguntza ukatu diote eskaera euskara hutsean aurkezteagatik.

Erantzuna: ZUZENDARI NAGUSIA: 30/1992 *Legearen 36. artikulua xedatzen duenez, Estatuko administrazio orokorraren prozedurak gaztelaniaz izapidetuko dira. Dena den, interesdunek autonomia-erkidegoan ofiziala den beste hizkuntza ere erabil dezakete, autonomia erkidego horretan kokatutako estatuko administrazio orokorreko organoetara jotzen dutenean. Beraz, agiriak euskaraz aurkezteko aukera egoitza autonomia erkidegoan duten organoetara mugatzen da, kasu honetan aldiz, egoitza Madril en duen Estatuko Administrazio Orokorreko organora zuzendu zen eskaera.*

Esp. Zenb.: 803-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR – DIRECCIÓN GENERAL DE TRÁFICO

Arrazoia: DGT-ren nortasun agiria egiteko Gasteizko bulegoetan aurki daitezkeen kartelak eta inprimakiak gaztelania hutsean daude.

Erantzuna: ARABAKO TRAFIKO-BURU PROBINTZIALA: *Buruzagitza honetan dauden kartelak eta inprimakiak berriz aztertu dira guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egon daitezten.*

Esp. Zenb.: 851-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR – DIRECCIÓN GENERAL DE TRÁFICO

Arrazoia: Iruñeko herritarrak ez du euskaraz jaso Nafarroan A-15 errepidean izandako gertaeraren harira DGTk igorritako isunaren jakinarazpena.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1435-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR – DIRECCIÓN GENERAL DE TRÁFICO

Arrazoia: Nafarroako Trafiko Zuzendaritzak Barañaingo herritarrari abenduan bidalitako gutuna, non gidatzeko baimen berria bidaltzen zitzaion, gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 64-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR – DNI Y PASAPORTES

Arrazoia: Iruñeko N.A.N. eta pasaporteen bulegotik bidalitako jakinarazpena jaso du herritarrak. Euskaraz idatzita dago, baina akatsak ditu eta ez da oso ongi ulertzen. Herritarraren helbidean ere akats ortografikoa ageri da, *emparantza* jartzen baitu *enparantza* beharrean.

Erantzuna:

Esp. Zenb.:	266-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR – GUARDIA CIVIL
Arrazoia:	Guardia Zibilaren Nafarroako egoitzetako errotulu ofizialak ez daude euskaraz idatzita.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	467-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR – INSTITUCIONES PENITENCIARIAS
Arrazoia:	Secretaría General de Instituciones Penitenciarias-ek Euskal Autonomia Erkidegoko Zaballa herrian kokatutako presondegi berriko hizkuntza-paisaia gaztelania hutsean dago.
Erantzuna:	SUBDIRECTOR GENERAL DE TRATAMIENTO Y GESTION PENITENCIARIA: <i>Kexa dagokion departamentura bideratu dugu, disfuntzioa zuzentzeko aginduarekin.</i>
Esp. Zenb.:	1348-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR – INSTITUCIONES PENITENCIARIAS
Arrazoia:	Algecirasko espetxeko segurtasun batzordeak zirkularra banatu zien joan den azaroaren amaieran bertako presoek, jakinaraziz, Gabonak direla eta, astean baimenduta dituztenak baino bost gutun gehiago bidali ahal izango dituztela abenduaren 3tik hasi eta urtarrilaren 6ra bitartean. Hala ere, ohartarazten zaie, ez direla onartuko eta itzuli egingo zaizkiela euskaraz idatzitakoak, <i>Zorionak eta urte berri on, Eguberri on, Errege magoen gutuna, Urte berri, bizitza berri, Badator Olentzero, Zortea Loteria zozketan, Gabon gaua zoriontsua izan</i> , edo gisako esapideak erabili ezean.
Erantzuna:	GOBERNUAK DIPUTATUEN KONGRESUAN EMANDAKO ERANTZUNA: <i>Aipatu testua zirriborro bat besterik ez da, presondegian jakinarazpen ofizial gisa inoiz zabaldu ez zena. Behar beste itzultzaile badago presoek kanpokoekin dituzten harremanak Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofizialetan izateko eskubidea bermatzeko. Komunikazioen alorreko mugak segurtasunarekin dute zerikusia, berme guztiak legez araututa daudelarik.</i>

MINISTERIO DE JUSTICIA

Esp. Zenb.: 24-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE JUSTICIA

Arrazoa: Gasteizko erregistro zibilean atzera bota diote alabaren izena aldatzeko eskaera (*Uxue*), Euskaltzaindiaren euskal izenen liburuan ez dela *Uxune* hipokoristikoa agertzen argudiatuz eta sustatzaileak eskatzen duen aldaketa huskeria dela eta aldakuntza fonetikorik ere ez duela eragiten adieraziz. Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketen Saileko 2 irakasle katedradunek eginiko ziurtagiriek herritarrak eskaera egiteko duen zilegitasuna berresten dute ordea.

Erantzuna: JEFA DE SERVICIO DE ESTADO CIVIL: *Agiriak aztertu eta ebazpen zain dago kasua.*

Esp. Zenb.: 273-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE JUSTICIA – ABOGACÍA DEL ESTADO

Arrazoa: Estatuko Abokatutzaren Nafarroako Herralde Zuzendaritzaren egoitzan herritarrei zuzendutako kartelak ez daude euskaraz. Horrez gain, ez dago herritarrei zerbitzua euskaraz ematen dien langilerik.

Erantzuna:

MINISTERIO DE SANIDAD, SERVICIOS SOCIALES E IGUALDAD

Esp. Zenb.: 328-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE SANIDAD, SERVICIOS SOCIALES E IGUALDAD

Arrazoa: Herritarrak martxoan Barañaingo Bake Epaitegian hartu zuen *Ley para la igualdad de mujeres y hombres* liburuxka gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna: JEFA DEL AREA DE ATENCIÓN CIUDADANA: *Emakumearen Institutuak zorrotz aplikatu du egin dituen kanpainetan 29/2005 Legeak, Publizitate eta Komunikazio Institutuzionalari buruzkoak, aurreikusitakoa, alegia, kanpaina instituzionaletan gaztelania erabiliko dela, hedapen esparruaren arabera, Autonomia Erkidegoetako hizkuntza koofizialak ere erabiliko direla. Kexan aipatzen den kanpainarako 500.000 ale argitaratu ziren, horietatik 71.900 katalan hutsean, 26.400 galego hutsean, eta 13.000 euskara hutsean. Gainerakoak gaztelania hutsean argitaratu ziren. Esku-orriak 2008 urtean argitaratu zirela kontuan hartuta, litekeena da gaur egun euskarazko aleak agortuta egotea eta gaztelaniazkoak besterik ez gelditzea. Beraz, Emakumearen Institutuak lege-betebeharrak bete zituen, esku-orriak gaztelaniaz eta Autonomia Erkidegoetako hizkuntza koofizialean argitaratu baitzituen.*

Esp. Zenb.: 1410-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE SANIDAD, SERVICIOS SOCIALES E IGUALDAD

Arrazoa: Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad Ministerioak abenduaren 5ean *EL CORREO* egunkarian argitaratutako iragarkia gaztelania hutsean idatzita zegoen. Iragarkiaren gaia: *Hay salida a la violencia de género* .

Erantzuna: DELEGADA: *Kanpaina ezagutarazteko unean garrantzia berezia eman zaio berezko hizkuntzak dituzten lurraldeetan hedatzeari begira edukiak hizkuntza koofizialelara itzultzeari. Horregatik, kanpainaren ikus-entzunezko euskarriak, 3 spot, Imanol Arias, Juanjo Artero eta Mario Casas protagonista dituztenak, euskara, katalan eta galegora itzuli dira. Kanpainaren euskarri grafikoei dagokienez, Ministerioaren bitartekoen planaren bidez hedatzeko epeak oso estuak zirenez, ez zen posible izan pieza grafikoak hizkuntza koofizialelara itzultzea. Gainera, bertan ageri zen literatura oso gutxi zenez, gaztelania hutsean zabaltzeko aukera eskaintzen zuen.*

DEFENSOR DEL PUEBLO

Esp. Zenb.: 933-2012

Erakundea: DEFENSOR DEL PUEBLO

Arrazoa: Espainiako Defensor del Puebloren webguneak ez du kexak euskaraz paratzeko aukerarik ematen.

Erantzuna: IDAZKARI NAGUSIA: *Web orriak kexak bide telematikoz aurkezteko aukera eskaintzen die herritarrei. Orriaren atariak informazioa zenbait hizkuntzatan irakurtzeko aukera eskaintzen du, eta bere eraginkortasuna hain zuzen ere kexa dagokion loturaren bidez egin ahal izatean datza. Izapidetze telematikoa formulario baten bidez egiten da. Formularioa gaztelaniaz bakarrik dago, formatu txikia izan beharrak eraginda, hala ere, formularioko azalpenak hizkuntza ezberdinetan ematen dira, ulermena eta kexa egitea errazteko. Formularioa bera gaztelaniaz soilik egoteak ez du esan nahi, ordea, ezin dela beste hizkuntzetan bete, kasu honetan euskaraz.*

Esp. Zenb.: 934-2012

Erakundea: DEFENSOR DEL PUEBLO

Arrazoa: DEFENSORA DEL PUEBLOk abuztuaren 21ean Nafarroako herritarrari bidalitako erantzuna gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna: IDAZKARI NAGUSIA: *Jakinarazpenean ematen zaizkigun datuak ez zaizkigu aski, herritarra, kexa edota erakunde honek emandako erantzuna identifikatzeko, eta ondorioz ezin dugu herritarraren ezadostasuna sortu duen hizkuntza-erabileraren gaineko baloraziorik egin.*

Esp. Zenb.: 1171-2012

Erakundea: DEFENSOR DEL PUEBLO

Arrazoa: DEFENSORA DEL PUEBLOk gaztelania hutsean bidali zion Barañaingo herritarrari bere idazkia jaso zuela adierazten zuen jakinarazpena.

Erantzuna: IDAZKARI NAGUSIA: *Jakinarazpenean ematen zaizkigun datuak ez zaizkigu aski, herritarra, kexa edota erakunde honek emandako erantzuna identifikatzeko, eta ondorioz, ezin dugu herritarraren ezadostasuna sortu duen hizkuntza-erabileraren gaineko baloraziorik egin.*

Esp. Zenb.: 1227-2012

Erakundea: DEFENSOR DEL PUEBLO

Arrazoa: DEFENSOR DEL PUEBLO erakundeak kexa jarri zuen Nafarroako herritarri urriaren 22an bidalitako erantzuna gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna: IDAZKARI NAGUSIA: *Jakinarazpenean ematen zaizkigun datuak ez zaizkigu aski, herritarra, kexa edota erakunde honek emandako erantzuna identifikatzeko, eta ondorioz, ezin dugu herritarraren ezadostasuna sortu duen hizkuntza-erabileraren gaineko baloraziorik egin.*

DELEGACIÓN DEL GOBIERNO EN NAVARRA

Esp. Zenb.:	127-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: DELEGACIÓN DEL GOBIERNO EN NAVARRA
Arrazoa:	Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak Iruñeko herritarrari otsailean bidalitako ebazpena gaztelania hutsean zegoen.
Erantzuna:	DELEGADA DEL GOBIERNO: <i>Ez dugu behar besteko argibiderik jaso kexan aipatzen den ebazpena zein den jakiteko. Indarrean den legediaren arabera (30/1992 Legea, Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, 18/1986 Foru Legea, Euskarari buruzkoa eta 29/2003 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena) Administrazioak ez du hutsegiterik egin, herritarra eremu mistoan bizi baita eta legez ez baita jakinarazpenak ele bietan egitea eskatzen. Horrela bada, euskarak eremu mistoan izaera ofizialik ez badu ere, hori ez da oztopo euskara zaindu, babestu, bultzatu eta Administrazio Publikoekiko harremanetan erabiltzeko. Horregatik, Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak urratsak egin ditu norabide horretan, errotulazio eta eskaera-orri elebidunak ezarriz. Horrez gain, euskaraz artatzeko zerbitzua ere badu duela zenbait urte Argibide eta Erregistroko bulegoan, harremanak euskaraz nahi dituzten herritarrei arreta euskaraz egiteko.</i>
Esp. Zenb.:	777-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: DELEGACIÓN DEL GOBIERNO EN NAVARRA
Arrazoa:	Ekainaren 8an Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzara deitu zuen Iruñeko herritarrak bertako helbide elektronikoa eskatzeko. Euskaraz egin zuen eskaera eta <i>no te entiendo</i> erantzun ziotenez, gaztelaniaz jarraitu behar izan zuen.
Erantzuna:	DELEGADA DEL GOBIERNO: <i>Gobernuaren ordezkariak eremu mistoan du bere egoitza. Bertan euskarak ez du izaera ofizialik, hala ere. Hori ez da oztopo euskara zaindu, babestu, bultzatu eta Administrazio Publikoekiko harremanetan erabiltzeko. Urteak dira Gobernuaren ordezkariak euskaraz artatzeko zerbitzua duela Argibide eta Erregistroko Bulegoan, harremanak euskaraz nahi dituzten herritarrei arreta euskaraz egiteko. Horregatik, ezin dugu ulertu zergatik ez zitzaion herritarrari arreta euskaraz egin.</i>
Esp. Zenb.:	787-2012
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: DELEGACIÓN DEL GOBIERNO EN NAVARRA
Arrazoa:	Nafarroako erakunde bateko ordezkariak idazkia euskaraz aurkeztu bazuen ere, Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak maiatzaren 25ean bidalitako ebazpena gaztelania hutsean zegoen. Bidalitako gutun-azalean agertzen zen helbidea ere, kalea eta hiria, gaztelania hutsean zeuden.
Erantzuna:	DELEGADA DEL GOBIERNO: <i>Ez dugu behar besteko argibiderik jaso kexan aipatzen den ebazpena zein den jakiteko. Indarrean den legediaren arabera (30/1992 Legea, Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, 18/1986 Foru Legea, Euskarari buruzkoa eta 29/2003 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena) Gobernu ordezkariaren egoitza eremu mistoan dago eta bertan euskarak izaera ofizialik ez badu ere, hori ez da oztopo euskara zaindu, babestu, bultzatu eta Administrazio Publikoekiko harremanetan erabiltzeko. Horregatik, Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak urratsak egin ditu norabide horretan, errotulazio eta eskaera-orri elebidunak ezarriz. Horrez gain, euskaraz artatzeko zerbitzua ere badu duela zenbait urte Argibide eta Erregistroko bulegoan, harremanak euskaraz nahi dituzten herritarrei arreta euskaraz egiteko.</i>

Esp. Zenb.: 788-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: DELEGACIÓN DEL GOBIERNO EN NAVARRA

Arrazoia: Nafarroako erakunde bateko ordezkariak idazkia euskaraz aurkeztu bazuen ere, Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak maiatzaren 31n bidalitako ebazpena gaztelania hutsean zegoen. Bidalitako gutun-azalean agertzen zen helbidea ere, kalea eta hiria, gaztelania hutsean zeuden.

Erantzuna: DELEGADA DEL GOBIERNO: *Ez dugu behar besteko argibiderik jaso kexan aipatzen den ebazpena zein den jakiteko. Indarrean den legediaren arabera (30/1992 Legea, Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, 18/1986 Foru Legea, Euskarari buruzkoa eta 29/2003 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena) Gobernu ordezkartzaren egoitza eremu mistoan dago eta bertan euskarak izaera ofizialik ez badu ere, hori ez da oztopo euskara zaindu, babestu, bultzatu eta Administrazio Publikoekiko harremanetan erabiltzeko. Horregatik, Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak urratsak egin ditu norabide horretan, errotulazio eta eskaera-orri elebidunak ezarriz. Horrez gain, euskaraz artatzeko zerbitzua ere badu duela zenbait urte Argibide eta Erregistroko bulegoan, harremanak euskaraz nahi dituzten herritarrei arreta euskaraz egiteko.*

Esp. Zenb.: 789-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: DELEGACIÓN DEL GOBIERNO EN NAVARRA

Arrazoia: Nafarroako erakunde bateko ordezkariak idazkia euskaraz aurkeztu bazuen ere, Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak ekainaren 1ean bidalitako ebazpena gaztelania hutsean zegoen. Bidalitako gutun-azalean agertzen zen helbidea ere, kalea eta hiria, gaztelania hutsean zeuden.

Erantzuna: DELEGADA DEL GOBIERNO: *Ez dugu behar besteko argibiderik jaso kexan aipatzen den ebazpena zein den jakiteko. Indarrean den legediaren arabera (30/1992 Legea, Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, 18/1986 Foru Legea, Euskarari buruzkoa eta 29/2003 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena) Gobernu ordezkartzaren egoitza eremu mistoan dago eta bertan euskarak izaera ofizialik ez badu ere, hori ez da oztopo euskara zaindu, babestu, bultzatu eta Administrazio Publikoekiko harremanetan erabiltzeko. Horregatik, Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak urratsak egin ditu norabide horretan, errotulazio eta eskaera-orri elebidunak ezarriz. Horrez gain, euskaraz artatzeko zerbitzua ere badu duela zenbait urte Argibide eta Erregistroko bulegoan, harremanak euskaraz nahi dituzten herritarrei arreta euskaraz egiteko.*

Esp. Zenb.: 963-2012

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: DELEGACIÓN DEL GOBIERNO EN NAVARRA

Arrazoia: Carmen Alba andreak, Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Delegatuak, Nafarroako parlamentarioei urriaren 2rako bidali zien gonbidapena gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna: DELEGADA DEL GOBIERNO: *13/1982 Lege Organikoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoak, 9 artikuluan dio, gaztelania dela Nafarroako hizkuntza ofiziala eta euskarak izaera ofiziala izango duela eremu euskaldunetan. Lege batek arautuko ditu eremuak, euskararen erabilera ofiziala eta Estatuko legediaren barruan euskararen irakaskuntza arautuko du. 18/1986 Foru Legeak, euskarari buruzkoak, Nafarroan hiru eremu bereizten ditu: euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna. Eremu euskaldunetan soilik da euskara ofiziala. 29/2003 Foru Dekretuak modu berezitan arautzen du euskararen erabilera, eremuen arabera.*

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA

Esp. Zenb.:	854-2012
Erakundea:	CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL
Arrazoa:	Maiatzaren 6an Durangoko Justizia Jauregiko 4. zenbakidun instrukzioko epaitegira bertaratu zen herritarra, kasu baten inguruan lekuko moduan borondatez kontuak ematera. Funtzionarioak aitorten modukoa eginarazi zion ahoz, eta elkarrekin euskaraz egin zuten arren funtzionarioak gaztelaniaz idatzi zuen herritarraren aitortpena. Jarraian luzatu zion zitazio-zedula ele bietan bazegoen ere, testuan gauza batzuk gaztelania hutsean ageri ziren, hala nola, epaitegiaren helbidea, herritarraren helbidea eta <i>Atestado Ertzaintza Durango</i> testua.
Erantzuna:	LETRADO DE LA UNIDAD DE ATENCIÓN CIUDADANA: <i>Bitartekoak hornitzeko eskumena duen administrazioari edo dagokion organo judicial edo zerbitzuko arduradunari jakinaraziko diogu, agerian jarri den gabezia konpontzeko neurriak har ditzan.</i>

Esp. Zenb.:	855-2012
Erakundea:	CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL
Arrazoa:	Ekainaren 13an Durangoko Instrukzioko 4. Zenbakidun epaitegira joan zen lekuko gisa deklaratzera. Epailleak <i>bai, ez, hala da</i> moduko esaldiekin erantzuteko moduko galderak egin zizkion hasieran, gaztelaniaz. Herritarrak euskaraz erantzun zituen eta jarraian epailleak ikusi zuena kontatzeko eskatu zion, baina erantzuten hasi baino lehen <i>¿vas a declarar en euskera?</i> galdetu zion herritarrari. Honek baietz erantzutean <i>tenemos un problema</i> esan zuen epailleak, euskaraz egin nahi izanez gero, aldez aurretik jakinarazi behar zuela ohartaraziz herritarrari. Idazkariak bere burua eskaini zuen interprete gisa aritzeko. Abokatuak eta harekin salan zegoen beste pertsona batek ez zutela euskaraz egiteko arazorik erantzun zuten. Herritarrak euskaraz egiteaz gain, ondoren sinatzeko ematen zioten agiria euskaraz ez bazegoen ez zuela sinatuko jakinarazi zuen. Abokatuak orduan, idazkariak interpretearena egitea proposatu zuen, eta herritarrak sinatu beharreko idazkia beste egun batean sinatzeko uztea, bitartean itzulpena egin zezaten. Herritarrak ontzat eman zuen abokatuaren proposamena, baina epailleak azkenean saioa beste egun baterako uztea erabaki zuen, aurrez interpretea eskatu ahal izateko. Herritarrari epailleak atzerapenaren errua berari egotzi nahi izan ziola iruditu zitzaion.
Erantzuna:	LETRADO DE LA UNIDAD DE ATENCIÓN CIUDADANA: <i>Durangoko Instrukzioko Epaitegiko epailearen ebazpenekiko ezadostasuna agertzen da kexan. Ebazpen judizialekiko ezadostasunak lege prozesalean aurreikusitako helegite eta aurkatze bideetatik soilik bidera daitezke. Hori horrela, bulego honek ez du eskumenik gaia aztertzeko, Botere judicialaren Lege Organikoak espresuki debekatzen baitio epaile eta magistratuen ebazpenetan esku-hartzea.</i>

Esp. Zenb.:	1336-2012
Erakundea:	CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL
Arrazoa:	Berako Udalak helegitea tarteratu zuen Nafarroako Gobernuaren aurka Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusian eta prozedura guztiak euskaraz egiteko eskaria egin zuen. Auzitegiak ezezkoa eman zion eskaerari eta Berako Udalak erabakia errekurritu zuen. Nafarroako Gobernuak ez zuen iritzirik eman eta Nafarroako 2. administrazio-epaitegiak Berako Udalaren eskariak ez duela lekurik ebatzi du.
Erantzuna:	LETRADA DEL CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL: <i>Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Bezeroen Arretarako Zerbitzuak ezin du esku hartu prozedura judizialean, ez eta haiek emandako ebazpenak berraztertu edo zuzendu ere. Beraz, prozedura judizialean emandako ebazpenekin ezadostasunik izanez gero, lege prozesalean aurreikusitako helegiteen bidez bideratu behar dira horiek, haietan ezarritako epe eta betebeharrei jarraikiz.</i>
Esp. Zenb.:	409-2012
Erakundea:	EAEko AUZITEGI NAGUSIA
Arrazoa:	Herritarrak euskaraz aurkeztu zuen demanda bat. Bergarako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 2. Zk.Ko ZULUPek jakinarazpena bidali dio martxoaren 7an jakinaraziz ez dela tramitera onartuko gaztelaniazko itzulpena esku artean izan arte. Herritarrak dena euskaraz egin duen arren, jakinarazpena gaztelania hutsean idatzita dago.
Erantzuna:	GOBERNU IDAZKARIA: <i>Jarduketa artxibatzea erabaki da, ez baita irregulartasunik ikusi aipatutako organo judizialen jardunean. Euskaraz aurkeztutako idazkiak eta demanda itzultzerantz bidali zituzten, izapidetzeko onartu aurretik, dagokien Auzitegian ez dakitelako hizkuntza hori, eta defentsa-gabeziarik ez sortzeko. Dokumentuak itzultakoan, izapidetzeko onartu ziren eta prozeduraren fase guztiak bete ziren, euskarazko agiriak gaztelaniara itzuliz.</i>
Esp. Zenb.:	410-2012
Erakundea:	EAEko AUZITEGI NAGUSIA
Arrazoa:	Herritarrak euskaraz aurkeztu zuen idazki bat eta Bergarako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 2. Zk.Ko ZULUPek jakinarazpena bidali dio martxoaren 16an jakinaraziz ez dela tramitera onartuko gaztelaniazko itzulpena esku artean izan arte. Herritarrak dena euskaraz egin duen arren, jakinarazpena gaztelania hutsean idatzita dago.
Erantzuna:	GOBERNU IDAZKARIA: <i>Jarduketa artxibatzea erabaki da, ez baita irregulartasunik ikusi aipatutako organo judizialen jardunean. Euskaraz aurkeztutako idazkiak eta demanda itzultzerantz bidali zituzten, izapidetzeko onartu aurretik, dagokien Auzitegian ez dakitelako hizkuntza hori, eta defentsa-gabeziarik ez sortzeko. Dokumentuak itzultakoan, izapidetzeko onartu ziren eta prozeduraren fase guztiak bete ziren, euskarazko agiriak gaztelaniara itzuliz.</i>
Esp. Zenb.:	411-2012
Erakundea:	EAEko AUZITEGI NAGUSIA
Arrazoa:	Herritarrak euskaraz aurkeztu zuen idazki bat eta Bergarako Zerbitzu Erkide Prozesala-Betearazpeneko Atalak jakinarazpena bidali dio martxoaren 16an jakinaraziz ez dela tramitera onartuko gaztelaniazko itzulpena esku artean izan arte. Herritarrak dena euskaraz egin duen arren, jakinarazpena gaztelania hutsean idatzita dago.
Erantzuna:	GOBERNU IDAZKARIA: <i>Jarduketa artxibatzea erabaki da, ez baita irregulartasunik ikusi aipatutako organo judizialen jardunean. Euskaraz aurkeztutako idazkiak eta demanda itzultzerantz bidali zituzten, izapidetzeko onartu aurretik, dagokien Auzitegian ez dakitelako hizkuntza hori, eta defentsa-gabeziarik ez sortzeko. Dokumentuak itzultakoan, izapidetzeko onartu ziren eta prozeduraren fase guztiak bete ziren, euskarazko agiriak gaztelaniara itzuliz.</i>

Esp. Zenb.:	639-2012
Erakundea:	EAEko AUZITEGI NAGUSIA
Arrazoia:	Durangoko Epaitegiko komunikazio egintzen zerbitzu orokorrak premiazko oharra bidali zion apirilaren 30ean. Jakinarazpenaren eredia elebiduna izan arren, txantiloia gaztelaniazko bertsioa soilik ageri da beteta.
Erantzuna:	LEHENDAKARIA: <i>Kexa izapidetzeko interesdunaren identifikazio datuak adierazi behar dira, eta herritarrak Behatokiari haren izenean jarduteko baimena ematen diola egiaztatzen duen agiria.</i>
Esp. Zenb.:	641-2012
Erakundea:	EAEko AUZITEGI NAGUSIA
Arrazoia:	Durangoko Zaintzako Epaitegiaren leihatilako kristalean ipinita dituden ohar guztiak (lauzabost dira), tartean ordutegiaren berri ematen duena, gaztelania hutsean daude.
Erantzuna:	LEHENDAKARIA: <i>Kexa izapidetzeko interesdunaren identifikazio datuak adierazi behar dira, eta herritarrak Behatokiari haren izenean jarduteko baimena ematen diola egiaztatzen duen agiria.</i>
Esp. Zenb.:	412-2012
Erakundea:	NAFARROAKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIA
Arrazoia:	Herritarrak euskaraz aurkeztu zuen idazki bat eta IRUÑEKO EPAITEGIAk jakinarazpena bidali dio martxoaren 5ean jakinaraziz ez dela tramitera onartuko gaztelaniazko itzulpena esku artean izan arte. Herritarrak dena euskaraz egin duen arren, jakinarazpena gaztelania hutsean idatzita dago.
Erantzuna:	LEHENDAKARIA: <i>Salatutako egoerak ez du urratzen Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231. artikulua, ez eta euskarari buruzko Foru legeria ere. Beste kontu bat da, euskararen erabilera bultzatzeko neurriak hartzeko aukera: euskaraz dakien langilerik egotea, erabili ohi diren formulario eta testuak euskaraz egotea herritarren eskura, eta abar. Hala ere, Auzitegi honek ez du horren inguruko eskumenik, izan ere Justizia Ministerioarenak eta Nafarroako Gobernuarenak dira bi-biak.</i>
Esp. Zenb.:	850 -2012
Erakundea:	NAFARROAKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIA
Arrazoia:	Legeak ezarritako eremu euskalduneko erakundearen prokuradoreak euskaraz aurkeztu ditu auzi bati dagozkion idazkiak Iruñeko epaitegian. Idazkari judizialak gaztelaniara itzultzeko eskatu dio Justizia Zuzendaritza Nagusiari eta gaztelaniazko itzulpena eskuarte izan arte ez dutela tramitera onartuko jakinarazi du gaztelania hutsean idatzitako diligentziaren bidez.
Erantzuna:	LEHENDAKARIA: <i>Salatutako egoerak ez du urratzen Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231. artikulua, ez eta euskarari buruzko foru legeria ere. Beste kontu bat da, euskararen erabilera bultzatzeko neurriak hartzeko aukera: euskaraz dakien langilerik egotea, erabili ohi diren formulario eta testuak euskaraz egotea herritarren eskura, eta abar. Hala ere, Auzitegi honek ez du horren inguruko eskumenik, izan ere Justizia Ministerioarenak eta Nafarroako Gobernuarenak dira bi-biak. Europako Batzordeak Espainiako Estatuari bertako legeria Euroituna sinatzean hartutako konpromisoak bete ahal izateko oztupo izan ez dadin egokitze behin eta berriz egindako gomendioen inguruan, Nafarroako Justizia Auzitegiak legeria aldatzeko gaitasunik ez duela erantzun du.</i>

Esp. Zenb.: 889-2012

Erakundea: NAFARROAKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIA

Arrazoa: Legeak ezarritako eremu euskalduneko erakundearen prokuradoreak euskaraz aurkeztu ditu auzi bati dagozkion idazkiak Iruñeko epaitegian. Idazkari judizialak gaztelaniara itzultzeko eskatu dio Justizia Zuzendaritza Nagusiari eta gaztelaniazko itzulpena eskuartean izan arte ez dutela tramitera onartuko jakinarazi du gaztelania hutsean idatzitako diligentziaren bidez. Eskaera hau ekainaren 13an sinatuta dago.

Erantzuna: LEHENDAKARIA: *Salatutako egoerak ez du urratzen Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231. artikulua, ez eta euskarari buruzko foru legeria ere. Beste kontu bat da, euskararen erabilera bultzatzeko neurriak hartzeko aukera: euskaraz dakien langilerik egotea, erabili ohi diren formulario eta testuak euskaraz egotea herritarren eskura, eta abar. Hala ere, Auzitegi honek ez du horren inguruko eskumenik, izan ere Justizia Ministerioarenak eta Nafarroako Gobernuarenak dira bi-biak. Europako Batzordeak Espainiako Estatuari bertako legeria Euroituna sinatzean hartutako konpromisoak bete ahal izateko oztopo izan ez dadin egokitze behin eta berriz egindako gomendioen inguruan, Nafarroako Justizia Auzitegiak legeria aldatzeko gaitasunik ez duela erantzun du.*

Esp. Zenb.: 1023-2012

Erakundea: NAFARROAKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIA

Arrazoa: Legeak ezarritako eremu euskalduneko erakundearen prokuradoreak zabaldutako prozedura euskaraz egiteko eskatu zuen eta idazkari judizialak irailaren 7an emandako erantzuna ezetz izan zen.

Erantzuna: LEHENDAKARIA: *Salatutako egoerak ez du urratzen Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231. artikulua, ez eta euskarari buruzko foru legeria ere. Beste kontu bat da, euskararen erabilera bultzatzeko neurriak hartzeko aukera: euskaraz dakien langilerik egotea, erabili ohi diren formulario eta testuak euskaraz egotea herritarren eskura, eta abar. Hala ere, Auzitegi honek ez du horren inguruko eskumenik, izan ere Justizia Ministerioarenak eta Nafarroako Gobernuarenak dira bi-biak. Europako Batzordeak Espainiako Estatuari bertako legeria Euroituna sinatzean hartutako konpromisoak bete ahal izateko oztopo izan ez dadin egokitze behin eta berriz egindako gomendioen inguruan, Nafarroako Justizia Auzitegiak legeria aldatzeko gaitasunik ez duela erantzun du.*

Esp. Zenb.: 1067-2012

Erakundea: NAFARROAKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIA

Arrazoa: Iruñeko erregistro Zibilak Iruñeko herritarrari irailan bidali zion gutun-azalak gaztelania hutsean zeukan logoa: *Juzgado de 1ª Instancia Nº 4. Registro Civil de Pamplona*. Herritarraren helbidea ere gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna: LEHENDAKARIA: *Salatutako egoerak ez du urratzen euskarari buruzko foru legeria. Beste kontu bat da, euskararen erabilera bultzatzeko neurriak hartzeko aukera: euskaraz dakien langilerik egotea, erabili ohi diren formulario eta testuak euskaraz egotea herritarren eskura, eta abar. Hala ere, Auzitegi honek ez du horren inguruko eskumenik, kasu honetan Nafarroako Gobernuari dagokio. Europako Batzordeak Espainiako Estatuari bertako legeria Euroituna sinatzean hartutako konpromisoak bete ahal izateko oztopo izan ez dadin egokitze behin eta berriz egindako gomendioen inguruan, Nafarroako Justizia Auzitegiak legeria aldatzeko gaitasunik ez duela erantzun du.*

2. FRANTZIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOA

FRANTZIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOA

Esp. Zenb.:	792-2012
Erakundea:	AUTOROUTES DU SUD DE LA FRANCE
Arrazoa:	Beskoitzetik Baionarako bidean, IKEA gunearen inguruan egiten ari diren lanen ondorioz, autopistan ezarri diren bide seinale berriak frantses hutsean dira.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	936-2012
Erakundea:	AUTOROUTES DU SUD DE LA FRANCE
Arrazoa:	A63 autobideko atseden guneetan (Biriaturtik Bordelerako autobidean) hainbat informazio eta seinale agertzen dira, frantses hutsean eta beste batzuk beste hizkuntza batzuetan (ingelesa eta espainola), baina ez dira, ordea, euskaraz. Adibidez, Bidarteko atseden gunean hondakinak zein ontzitarra bota behar diren informatzen duen afixan frantsesez, espainolez eta ingelesez dira azalpenak: <i>Collecte sélective, Waste separation, Recogida selectiva</i> .
Erantzuna:	VINCI AUTOROUTES, BEZEROEN ARRETARAKO BURUA: <i>ez dugu bide-seinale elebidunik egitea aurreikusi. Bestalde, A63 eta A64etik ateratze eta sartze seinaleak, Beskoitzen eta Biriatur euskaratuak dira. Horrez gain, Ametzondo gunean, A63a eta A64a elkartzeko bidean diren obren baitan, euskarazko seinaleak ezartzea kontuan hartua izan da. Berretsi nahi dugu bezeroei kalitatezko zerbitzua eskaintzeko xedea.</i>
Esp. Zenb.:	1510-2012
Erakundea:	BAIONAKO ERROBI UNIBERTSITATEA
Arrazoa:	Baionako Unibertsitateko Zerbitzu Kulturalak iraila-abendu bitarteko eskaintzen berri ematen duen <i>le MICROSCOPE</i> deitu egitaraua kasik frantses hutsean da. Bi azpigitulu soilik agertzen dira euskaraz, <i>2012ko egitaraua iraila/abendua</i> eta <i>Baionako unibertsitateko kultur gunea</i> . Gainerateko guzia frantses hutsean da.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	493-2012
Erakundea:	COMMISSION PARITAIRE DES PUBLICATIONS ET AGENCES DE PRESSE
Arrazoa:	Frantziako prentsa agentziak eta argitalpenak kudeatzen dituen batzorde parekideak (CPPAP) euskaraz jarduten duten sareko bi hedabideri ez die onartu <i>informazio orokorra eta politikoa</i> lantzen duten hedabide elektronikoen izaera eta ondorioz, diru laguntzaren heina murriztu diete, hau da %60 jaso baino, %20 soilik jasoko dute media horiek euskara erabiltzen dutela eta ondorioz hunkitzen duten publikoa murrizta dela argudiatuz.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	388-2012
Erakundea:	CONSEIL GÉNÉRAL DES PYRÉNÉES ATLANTIQUES
Arrazoa:	Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak urtean zehar argitaratu eta hedatu <i>Pyrenees Atlantiques Le Mag</i> aldizkarian artikulua bakarra da euskaraz, izan dadin abendu-otsaileko edota ekaineko zenbakia. Abenduko zenbakiari doakionez, Behatokiak bi kexa jaso ditu.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.: 762-2012

Erakundea: CONSEIL GÉNÉRAL DES PYRÉNÉES ATLANTIQUES

Arrazoia: Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak urtean zehar argitaratu eta hedatu *Pyrenees Atlantiques Le Mag* aldizkarian artikulua bakarra da euskaraz, hala nola, aldizkariaren 54. zenbakian, *Factory64* finkatze gunea izenburua duen artikulua laburpena salbu, gainerateko guziak frantses hutsean dira.

Erantzuna: KOMUNIKAZIO ETA MARKETING ARLOKO ZUZENDARIA: *Departamenduko aldizkariaren formula berritu dugu, eskualdeko hizkuntzetan idatzi artikulua emansten ditugula, 2011ko irailaren 29an departamenduko asanbladak hartu delibero baten aplikazioan. Behatokiarekin biltzeko prest gaude.*

Esp. Zenb.: 935-2012

Erakundea: CONSEIL GÉNÉRAL DES PYRÉNÉES ATLANTIQUES

Arrazoia: Ekainean Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko Protection Maternelle Infantile egiturak jakinarazpena helarazi dio haurra sortu berria duen familiari. Bertan, sortze-agiria ongi jaso zuela eta haurtzainak etxetik pasa behar zuela haurrari bisita egiteko abisatzen zuen. Bestalde, PMIaren funtzioak aurkezteko esku-orria banatu zaie. Guzia frantses hutsean zen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1463-2012

Erakundea: CONSEIL GÉNÉRAL DES PYRÉNÉES ATLANTIQUES

Arrazoia: Irailaren 23an antolatu Erlaitzaren bestaren kari plazaratu esku-orria frantses hutsean zen.

Erantzuna: ZUZENDARIA OROKOR ORDEA: *Erlaitzaren bestaren kari plazaratu esku-orria hiru hizkuntzetan zabaldu dela baieztatzen dizut, hau da, hiru esku-orri argitaratu dira kopuru berdinean, bakoitza hizkuntza batean, herritarrek nahi duten hizkuntza hautatzeko moldean. 2013ko Erlaitzaren bestaren esku-orriak ere molde berean zabalduko dira.*

Esp. Zenb.: 1473-2012

Erakundea: CONSEIL GÉNÉRAL DES PYRÉNÉES ATLANTIQUES

Arrazoia: Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak argitaratu eta hedatu 64 aldizkariaren 55. zenbakia frantses hutsean da: *Assise pour la jeunesse, une parole pour l'avenir.*

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 757-2012

Erakundea: CHAMBRE DE COMMERCE ET D'INDUSTRIE – BAIONA

Arrazoia: Komertzio eta Industria Ganbarak zabaldu duen *Invest Basque country. Bienvenue au centre du monde* kanpainaren bideoa frantses hutsean da eta ingelesez azpi titulatu (youtube.be/5BLBw_6mxkl.)

Erantzuna:

Esp. Zenb.:	1470-2012
Erakundea:	DIRECTION GÉNÉRALE DES FINANCES PUBLIQUES Direction Générale des Finances Publiques erakundeak urrian helarazi funtsaren gaineko
Arrazoia:	zergetako inprimakia frantses hutsean zen.
Erantzuna:	FINANTZA PUBLIKOEN SAILA, KABINETEAREN ARDURADUNA: <i>1958ko urriaren 4ko Konstituzioaren 2. artikulua dio "Frantsesa dela Errepublikaren hizkuntza". Kontseilu konstituzionalaren jurisprudentzia baten ondorioz, 2. artikulua honek, zerbitzu publikoa eskaintzen duten zuzenbide publikoko eta pribatuko pertsonen frantsesaren erabilera inposatzen diela dio. Ondorioz, norbanakoek ez dezakete administrazioarekin dituzten harremanetan frantsesa ez den beste hizkuntza bat erabili. Bestalde, 1994ko abuztuaren 4ko 94-665 legearen lehen artikulua "frantsesa Frantziaren ondarearen funtsezko ezaugarria dela" adierazten du, eta "irakaskuntzaren, lanaren, trukaketen eta zerbitzu publikoen hizkuntza" dela. Bestalde, 1539ko abuztuaren 25eko, Villers-Cotterêts ordenantzak, François Ier erregeak onartua, akta ofizialetan eta justizian frantsesaren erabilera behartzen du. Testu hori gaur egun indarrean da. Azkenik, hizkuntza eskubideen deklarazio unibertsala ez da nazioarteko gobernu instituzioetatik datorren dokumentu ofizial bat eta Estatu bati aplikatzen ahal litzaiokeena. Baldintza horietan, fiskalitateaz arduratzen den administrazioak plazaratzen dituen dokumentuak ez dira frantsesa ez den beste hizkuntza batean zuzenduak izaten ahal.</i>

Esp. Zenb.: 1450-2012
 Erakundea: EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA – EEP
 Arrazoa: Euskararen Erakunde Publikoaren aholku batzorderako dokumentazioa frantses hutsean da.
 Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1461-2012
 Erakundea: FRANCE TÉLÉVISIONS
 Arrazoa: France 3 Telebista katearen zuzendaritzak France 3 Euskal Herriko erredakzioa hetsi du Omiasaindu eta Eguberriko oporretan. Euskaraz oso minutu gutti eskaintzen baditu ere, emankizun hori da egun euskarari tarte bat eskaintzen dion zerbitzu publikoko kate bakarra.
 Erantzuna: FRANCE TÉLÉVISIONS, Lehendakaria: *Aipatu hiru aste horietan (omiasainduko oporrak eta eguberriko oporrak) tokiko informazio-buletina mantendu da, aldaketa bakarra tokiko edizioak eskualdeko edizioan sartu izana izan da. Hortaz, buletin berdinean tokiko eta eskualdeko informazioa hedatu da. Neurri hori ez da usaiaz kanpoko, opor garaian, hau da, aktibitateak behera egiten duenean, egunkari, irrati eta telebista ugari egokitzen dira. Guk, hego mendebaldean tokiko edizioak mantendu nahi izan ditugu udan (beste batzuk murrizten ditugularik) sasoi horretan eskaintza kulturala oso aberatsa baita eta egokitzen dugu omiasaindu eta eguberri. Gure ikusleak ez daitezen kaltetuak izan zaindu dugu eta beren eskualdeko edizioan haien eskualdeko aktualitatezko gai nagusiak atzemateko aukera ukan dute. Neurri hori gure aurrekontua errespetatzeko bideratu da eta gainera, edizio normalak berriz zabaltzen hasi dira oporrak bukatuta. Ez du euskarazko emankizunen gaineko intzidentziarik ukan. Izan ere, euskarazko emankizunak ez dira sistematikoak "Euskal herri" informazio-buletinean, baina egunerokotasuna duten gaien arabekoak. Horrez gain, euskaraz proposatzen diren programazioak emendatu dira 2012an, eta irailetik "Txirritta" emankizuna, 26 minutuko euskara hutsezko emankizuna 4 igandero hedatzen da, France 3k euskararen prestijiatzerari erakusten dion interesaren lekuko.*

Esp. Zenb.: 791-2012
 Erakundea: GUSO
 Arrazoia: Kotizazio sozialak eta lan kontratua deklaratzeko inprimakia frantses hutsean da.
 Erantzuna:

Esp. Zenb.: 684-2012
 Erakundea: INSTITUT FRANÇAIS
 Arrazoia: Bilboko INSTITUT FRANÇAIS ikastegiak ekainean zehar ez ditu zenbait egunkaritan euskaraz argitaratu iragarkiak. Besteak beste, ekainaren 8an *El País* egunkariaren EAEko edizioan (*Edición País Vasco*) gaztelania hutsean jarri zuen eta ekainaren 10ean *El Correo*-n. Euskal prentsan iragarkirik ez ezartzeaz gain, erdal prentsan ezarritakoa gaztelania hutsean izan da.
 Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1431-2012
 Erakundea: INSTITUT FRANÇAIS
 Arrazoia: Herritarra Frantziako Errepublikaren enbaxadaren menpeko Bilboko Institut Francais erakundera joan zen abenduaren 12an informazio eske. Euskaraz egin eta euskaraz ez zekitela erantzun zioten, nahi izanez gero frantsesez edo gaztelaniaz egiteko.
 Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1438-2012
 Erakundea: INSTITUT FRANÇAIS
 Arrazoia: Frantziako Errepublikaren enbaxadaren menpeko Bilboko Institut Francais erakundearen webguneak ez du euskarako bertsiorik.
 Erantzuna:

Esp. Zenb.: 492-2012
 Erakundea: MINISTÈRE DE LA CULTURE ET DE LA COMMUNICATION
 Arrazoia: Frantziako prentsa agentziak eta argitalpenak kudeatzen dituen batzorde parekideak (CPPAP) euskaraz jarduten duten sareko bi hedabideri ez die onartu *informazio orokorra eta politikoa* lantzen duten hedabide elektronikoen izaera eta ondorioz, diru laguntzaren heina murriztu diete, hau da %60 jaso baino, %20 soilik jasoko dute media horiek euskara erabiltzen dutela eta ondorioz hunkitzen duten publikoa murrizta dela argudiatuz.
 Erantzuna:

Esp. Zenb.: 731-2012
 Erakundea: PÔLE EMPLOI
 Arrazoia: Uztailen elkarte batek lan eskaintzak bideratu dizkio internetez POLE EMPLOI erakundeari. Langile euskalduna bilatzen zuen heinean, lan deialdia bi hizkuntzetan idatzirik igorri zitzairen, euskaraz eta frantsesez. Haatik, euskaraz idatzia zelakoan ez dute onartu.
 Erantzuna:

Esp. Zenb.: 796-2012

Erakundea: SOCIÉTÉ NATIONALE DES CHEMINS DE FER FRANCAIS – SNCF

Arrazoia: SNCFko geltokian euskaraz egiten saiatu zen internet bidez erositako tren-txartelak jaso asmoz. Beste askotan gertatu ohi denez, leihatilan inork ez zekien euskaraz eta frantsesez barik, gaztelaniaz egiten hasi zitzaizkion. Uztailaren 8an goizeko 11:00ak aldean izan zen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 389-2012

Erakundea: SOUS-PRÉFECTURE DE BAYONNE

Arrazoia: Urtarrilean herritarrak autoko karta grisa eskuratzeko euskaraz idatzi txekia ez diote onartu SUPREFETURAKO zerbitzuek.

Erantzuna:

3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

Esp. Zenb.:	87-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
Arrazoia:	Herritarrak adineko gurasoak ditu, 82 eta 85 urtekoak, eta duela urte batzuk larrialdietarako Tele-laguntza gailu bat jarri zieten. Gaztelaniaz ez direnez ondo moldatzen, are gutxiago telefonoz, fitxan euskaraz hitz egin behar zaiela jartzeko eskatu zuen. Otsailaren 2an eguerdian Tele-laguntzako dei bat jaso zuten sistemak ondo funtzionatzen zuela frogatzeko. Gailuaren botoia zanpatzeko eskatzen zuten ongi funtzionatzen zuela egiaztatzeko zentraletik. Lehen deian gaztelaniaz hitz egin zuten. Botoia zanpatu eta beste dei bat jaso zuten, hau ere gaztelania hutsean. Haserretu eta fitxa irakurtzeko eskatu zuen semeak, eta arduradunarekin jartzeko. Hirugarren deia ere jaso zuten eta hau ere gaztelania hutsean. Semea guztiz haserretu zen eta fitxa irakurtzeko eta arduradunarekin jartzeko eskatu zuen berriro. Zerbitzu arduradunak ez zuen deitu eta harekin hitz egiteko berriro botoia zanpatu zuenean, berriro gaztelaniaz erantzun zioten. Okupatuta zeuden arduraduna eta langile euskaldunak. Berriro deitu eta azkenean langile euskalduna jarri zen. Arduraduna ez zen jarri, eta ez zuen deitu ere egin.
Erantzuna:	ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILBURUORDEA: <i>Sail honek herritar orok tele-laguntza zerbitzua euskaraz jasotzea ahalbidetzen du. Horrela, tele-laguntzako kontratuko baldintzetan argi eta garbi jasotzen da: zerbitzua euskaraz edo gaztelaniaz jasotzeko eskubidea bermatu behar dela, eta beraz, enpresak operadore kopuru egokia izan behar duela, txandaka deiak bi hizkuntzatan jasotzeko, herritarren eskariaren nahierara. Gertaeraren egunean erabiltzaileak seigarren deira arte ez zuen arreta euskaraz jaso. Beharbada une horretan langile euskaldunak lanpetuta egongo ziren. Hala ere, hori ez da aitzakia, eta Sail honek bere eskura dituen neurri guztiak hartuko ditu tele-laguntzako zerbitzua euskaraz jasotzea aukeratu duten erabiltzaileek zerbitzua kasu guztietan euskaraz jaso dezaten eta beraien eskubidea bermatu dadin.</i>

Esp. Zenb.:	114-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
Arrazoia:	Herritarrak goizeko 10:00etan eta 12:00etan Eusko Jaurlaritzak Donostiako Intxaurren kalean duen bulegora deitu zuen izateko bikotea izateko gaiari buruzko informazioa eta ordua eskatzeko asmoz. Telefonoa hartu zuen langilea ez zen euskalduna eta herritarrak arreta euskaraz jaso nahi zuela azaldu zion. Langile euskaldunik ez zegoela erantzun zion.
Erantzuna:	FAMILIA ETA KOMUNITATE POLITIKARAKO ZUZENDARIA: <i>Bikoteen Erregistroaz arduratzen den pertsonala eta neroni ere ustekabeen hartu gaitu kexa honek, zentzu honetan jasotzen dugun lehendabiziko kexa baita. 943022649 telefonoa erantzun ohi duen pertsonak eta Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan Izatezko Bikoteen Erregistroaz arduratzen den teknikariak ere euskaraz hitz egiten dute. Hauek lanpetuta daudelako herritarren kontsultak noizbehinka erantzuten dituzten langileak ere euskaldunak dira. Gainera, telefonoa hartzen duen langileak euskaraz jakingo ez balu, ez luke inongo zailtasunik izango deia langile euskaldun bati helarazten. Beraz, ez da egia Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan Izatezko Bikoteen Erregistroan langile euskaldunik ez dagoela. Horregatik ukatu egiten dugu hizkuntza-araudiaren eta eskubideen urraketarik izan denik.</i>

Esp. Zenb.:	303-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA:ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
Arrazoa:	Herritarrak <i>Televida Servicios Sociosanitarios</i> enpresaren bisita izan zuen etxean teleasistentziaren aparailua jartzeko. Langileak esan zion enpresan lau langile daudela eta bakar bat dela euskalduna. Honetaz gain, aparailuak esaten dituen lehen hitzak gaztelaniaz daude eta ezin da euskaraz programatu. Langileak ezin zion ziurtatu deia eginez gero, telefonoa hartzen dion langilea euskalduna izanen den ala ez.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	95-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA:ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA. LANBIDE
Arrazoa:	Otsailaren 2an telefonoz deitu zuen Lanbidera eta harrera egin zioten bi langileei euskaraz artatua izan nahi zuela adierazi zien. Bulegoan euskaraz egin ziezaiokeen inor ez zegoela eta euskaraz nahi izatekotan Gasteizko zentralera deitu behar zuela esan zioten, nahiz eta berak zerbitzua Donostian jaso behar zuen.
Erantzuna:	BEZEROEI ARRETA EMATEKO ZERBITZUA: <i>Sortu zenez geroztik, Lanbidek Euskararen erabilera arautzen duen 10/1982 Oinarrizko Legean ezarritakoa betearazteko ahaleginak egin ditu. Donostian dituen enplegu bulegoetan, arreta euskaraz emateko langileak badaude. Datu gehiagorik gabe zaila da gertatutakoa ikertzea.</i>
Esp. Zenb.:	113-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA:ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA. LANBIDE
Arrazoa:	Otsailaren 2an goizeko 9:30ak aldera Lanbideren Antiguoko bulegora deitu zuen herritarrak hitzordua adosteko asmoz. Telefonoa hartu zuten bi langileei arreta euskaraz jaso nahi zuela azaldu zien eta langile euskaldunik ez zegoela erantzun zioten. Gasteizko telefono bat eman nahi zioten, baina herritarrak azaldu zuen berak Donostian egin behar zuela egitekoa.
Erantzuna:	BEZEROEI ARRETA EMATEKO ZERBITZUA: <i>Sortu zenez geroztik, Lanbidek Euskararen erabilera arautzen duen 10/1982 Oinarrizko Legean ezarritakoa betearazteko ahaleginak egin ditu. Donostian dituen enplegu bulegoetan, arreta euskaraz emateko langileak badaude. Orobat, Lanbideren hainbat baliabide, hala nola webgunea, inprimakiak, curriculumak, eskaintzak komunikabideetan argitaratzea eta abar bi hizkuntzetan gauzatzen dira. Kexan aipatzen den bulegoa bi administraziok partekatzen dute: Lanbidek eta SEPEk (Administrazio Zentrala). Lanbiden edozein izapide euskaraz egiteko gai diren langileak badira; hala ere SEPEren egoera bestelako aizan daiteke, lanpostuak estatu mailan ateratzen baitira, euskara jakiteko baldintzarik gabe.</i>

Esp. Zenb.: 245-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA:ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA. LANBIDE

Arrazoa: LANBIDEk bere webgunearen bidez erabiltzaileen eskura jartzen dituen euskarazko kontratuak eguneratu gabe daude. Horiek dira kontratu-eredu ofizialak, beraz egun Lanbidek ez du kontratuak euskaraz egin ahal izateko baliozko eredurik eskaintzen.

Erantzuna: BEZEROEI ARRETA EMATEKO ZERBITZUA: *Sortu zenez geroztik, Lanbidek Euskararen erabilera arautzen duen 10/1982 Oinarrizko Legean ezarritakoa betearazteko ahaleginak egin ditu. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak www.sepe.es web-orriaren bidez ematen ditu kontratu-eredu guztiak estatuko hizkuntza ofizial guztietan (euskara barne). Lan-arloan azken hilabeteetan izan diren aldaketa ugariak direla-eta, eguneratuta agertzen diren eredu bakarrak gaztelaniazkoak dira. SEPEk konpromisoa hartu du kontratu guztiak eguneratuta eta itzulita atxikitzen jarraitzeko, baina, dena dela, Lanbidek kontratu-eredu erabilien itzulpena laster egitea aurreikusia dauka, eta jendearentzat gure webgunearen bidez eskuragarri jartzea. Nolanahi ere, kontratu-eredu horiek ez dira nahitaez erabiltzekoak, eta beraz, norberak itzultitako ereduak erabil daiteke.*

Esp. Zenb.: 462-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA:ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA. LANBIDE

Arrazoa: LANBIDEren Bilboko Mazarredo Zumarkalean 39an dagoen bulegoan jartzen diren oharrak gaztelania hutsean daude.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 534-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA:ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA. LANBIDE

Arrazoa: Martxoaren erdi aldera Santutxuko enplegu bulegotik bidalitako jakinarazpena jaso zuen herritarrak, langabezia dauten pertsonentzako PIZTU BILBO 11 Enplegu plan integralaren berri emateko informazio-saio batera gonbidatuz. Jakinarazpena ele bietan jaso zuen arren, euskarazko bertsioa akatsez josita zegoen.

Erantzuna: BEZEROEI ARRETA EMATEKO ZERBITZUA: *Gutuna Lanbideren zentro laguntzaile batek igorri zuen, eta Zentroari bertan agertzen ziren akatsak zuzentzeko eskatu zitzaion.*

Esp. Zenb.: 917-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA:ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA. LANBIDE

Arrazoa: www.lanbide.net webgunean lan eskaintza gehienak gaztelaniaz ageri dira, baita kontsulta euskaraz eginda ere.

Erantzuna: BEZEROEI ARRETA EMATEKO ZERBITZUA: *Lanbiden zerbitzua zein hizkuntzatan jaso nahi den aukera daiteke, baina eskaintzak ez dira Lanbideren agiri ofizialak. Enpresek eskubidea eta askatasuna dute aukeratzeko zer hizkuntzatan kudeatu nahi dituzten eskaintzak, eta eskatzaileek bezala, enpresek ere aukeratzen dute Lanbideri eskaerak egiteko eta harekin komunikatzeko hizkuntza. Eskaintzak ez dira itzultzen, eskatzaileen CVak itzultzen ez diren bezalaxe, eta beti errespetatzen da zein hizkuntza aukeratzen duten enpresek eta eskatzaileek.*

Esp. Zenb.: 988-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA:ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA. LANBIDE

Arrazoia: Irailaren 25ean goizeko 08:55 aldera telefonoz deitu zuen Lanbideren Bilboko Mazarredo kaleko bulegora. Telefonoa hartu zuen langileak gaztelaniaz egin zion lehen hitza. Herritarrak euskaraz jarraitu zuen zerbitzua euskaraz jasoko zuelakoan, eta hitzordua eskatu zuen. Langileak, galdera ulertu izan balu bezala, ordutegiaren berri eman zion. Herritarrak ordutegia ez, baino hitzordua eskatu zuela argitu zion, oraingoan gaztelaniaz. Langileak, horretarako ez zuela telefono horretara deitu behar erantzun zion zakar. Herritarrak gaztelaniaz jarraituz nora deitu behar zuen azaltzeko eskatu zkon orduan eta bi telefono zenbaki jaso zituen: 901.222.901 eta 945.160.600. Lehenbizikora deitu eta euskaraz egin zioten harrera. Hitzordua eskatu zuen orduan, eta okerreko telefonora deitu zuela adierazi zion harrera egin zion enpleguatuak. Herritarrak zergatik deitu zuen bertara azaldu zion eta langileak eman zizkioten bi telefonoak ez zirela hitzordua hartzeko jakinarazi zion, horretarako lehenik markatu zuen telefonora deitu behar zuela. Berrito trantze bera ez pasatzeagatik bulegora bertaratzea erabaki zuen herritarrak.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1076-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA:ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA. LANBIDE

Arrazoia: Lanbidek Bizkaiko herritarrari urriaren 3an bidalitako eskutitza gaztelania hutsean zegoen. Bertan beka baten eskaintza egiten zioten.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 633-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA:ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA. OSALAN

Arrazoia: Apirilaren 27an OSALANen ikasgela mugikorra Abadiñon zen, Astolako kartzela deritzon eraikinaren aurrean. Ikasgelak gaztelania hutsean ageri zuen, bai atzeko aldean bai ezkerrekoan bai eskumakoan *Prevención en movimiento* leloa.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1300-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA:ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA. OSALAN

Arrazoia: OSALAN Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak *El Correo* egunkarian azaroaren 22an argitaratutako iragarkia gaztelania hutsean zegoen. Herritarrak ez du iragarki berbera beste inongo egunkaritan euskaraz ikusi.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1337-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA:ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA. OSALAN

Arrazoia: OSALAN Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak *El Correo* egunkarian azaroaren 29an argitaratutako iragarkia gaztelania hutsean zegoen. Herritarrak ez du iragarki berbera beste inongo egunkaritan euskaraz ikusi. Gaia: *Campaña móvil de formación gratuita en prevención de riesgos laborales*.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1432-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA:ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA. OSALAN

Arrazoia: OSALAN erakunde publikoak abenduaren 3an *El Correo* egunkarian argitaratutako iragarkia gaztelania hutsean zegoen. Herritarrak ez zuen beste inongo egunkaritan iragarki bera, euskaraz edo ele bietan, ikusi. Herritarrak egoera hau salatu zuen azaroaren 22an eta 29an argitaratutako iragarkiekin eta apirilean kanpaina egiteko erabilitako ibilgailuak gaztelania hutsean idatzitako errotulazioa zeramalako.

Erantzuna:

ETXEBIZITZA, HERRI-LAN ETA GARRAIO SAILA

Esp. Zenb.:	304-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: ETXEBIZITZA, HERRI-LAN ETA GARRAIO SAILA
Arrazoia:	Goiaingo industrialde inguruan obrak zirela eta, Billerle/Legutianotik Vitoria/Gasteizerako errepidean, Luku inguruan, norabide horretako aldean zegoen seinalea gaztelania hutsean idatzita zegoen: <i>Peligro / Salida de camiones</i> .
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	768-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: ETXEBIZITZA, HERRI-LAN ETA GARRAIO SAILA
Arrazoia:	N-634 errepidean, Zornotzatik Durangorako norabidean, adingabekoendako harrera-etxea (Euba) igaro eta metro gutxitara gaztelania hutsean idatzitako bide-seinaleak daude; batetik, errepidearen alde bietan <i>Salida de camiones</i> dioten bana; eta bestetik, aurreraxeago, AHTren lanetarako sarbideetako batean <i>Prohibido el paso a toda persona ajena a la obra</i> dioena.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1016-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: ETXEBIZITZA, HERRI-LAN ETA GARRAIO SAILA
Arrazoia:	Getariko hondartzara joanez gero, udan ordaindu egin behar izaten da aparkatzeko; hondartza aldera sartzerakoan txartela hartu behar da. Txartel horrek hitz bat edo beste badu euskaraz, baina gainerako guztia gaztelaniaz eta alemanez dago. Eusko Jaurlaritzaren portu eta aireportuen zuzendaritzaren ikurra du txartelak.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1328-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: ETXEBIZITZA, HERRI-LAN ETA GARRAIO SAILA
Arrazoia:	Eusko Jaurlaritzaren emantzipaziorako oinarritzko diru-laguntzak kudeatzen dituen bulegora deitu zuen azaroaren 7an eta euskaraz zuzendu zitzaion telefonoa hartu zuen langileari. Gaztelaniaz erantzuten ziola ikusita zerbitzuan euskaraz artatuko zuen inor ez al zegoen galdetu eta hark ezetz erantzun zion. Horrez gain, zerbitzuak gaztelania hutsean bidali zizkion jakinarazpen idatzia eta ebazpena.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1420-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: ETXEBIZITZA, HERRI-LAN ETA GARRAIO SAILA
Arrazoia:	Abenduaren 3an <i>El Correo</i> kazetan argitaratutako iragarkia gaztelania hutsean zegoen. Iragak honela zioen: <i>CORTES DE TRÁFICO NOCTURNO BI-625 (ARRIGORRIAGA/ZARATAMO) Con motivo de las obras de construcción del Viaducto del Nervión, perteneciente al tramo Galdakao-Basauri de la Línea de Alta Velocidad Vitoria-Bilbao-San Sebastián, se va a proceder al desvío provisional de la BI-625 a su paso por Arrigorriaga y Zaratamo (P.K. 384,7) por lo que se producirán desvíos y cortes puntuales de tráfico en ambos sentidos durante la noche de los días 3, 4, 5, 10, 11, 12 y 13 de Diciembre en horario de 10:00 a 06:00 horas del día siguiente. DISCULPEN LAS MOLESTIAS.</i>
Erantzuna:	

Esp. Zenb.: 133-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: ETXEBIZITZA, HERRI-LAN ETA GARRAIO SAILA. EUSKOTREN

Arrazoia: Otsailean Berrizko tren-geltokian lanak egiten ari zirela eta nasetan ipinita zeuden seinaleak gaztelania hutsean zeuden. Testuak honakoak: *Es obligatorio seguir todas las normas de seguridad. Prohibido el paso a toda persona ajena a la obra.*

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 220-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: ETXEBIZITZA, HERRI-LAN ETA GARRAIO SAILA. EUSKOTREN

Arrazoia: Usansoloko tren geltokitik Usansoloko ospitalera joateko autobusak, EuskoTren konpainia publikoarena da, *Salida de emergencia* errotulua lau bider ageri du gaztelania hutsean.

Erantzuna: BEZEROARENGANAKO ARRETA: *Joan den martxoan kexa berbera jaso genuen eta Errepide saileko teknikariek egin zuten txosten baten bitartez horrela zela egiaztatu ondoren, errotulu berriak jarri ziren, elebidunak larrialdietarako irteera adierazteko eta nazioartekoa (irudia bakarrik) elbarrituei gordetako eserlekuak zeintzuk diren adierazteko. Hala eta guztiz ere, berriz egiaztatu dugu eta errotuluak zuzen daude.*

Esp. Zenb.: 254-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: ETXEBIZITZA, HERRI-LAN ETA GARRAIO SAILA. EUSKOTREN

Arrazoia: Martxoaren 6an EuskoTreneko 902.543.210 informazio telefonora deitu zuen, eta gaztelaniaz zuzendu zioten lehen hitza *Sí, dígame*. Herritarrak *euskaraz badakizu?* galdetuta, *Sí, dígame* erantzuna jaso zuen, eta bigarren aldiz galdera bera egin zuenean *en castellano por favor* erantzun zioten. Herritarrak gaztelaniaz eman behar izan zituen azalpenak.

Erantzuna: BEZEROARENGANAKO ARRETA: *EuskoTreneko Bezeroarenganako Arreta Bulegoan lanean ari diren langile guztiek euskaraz hitz egiten dute. Izan ere, postu horretan lan egiteko ezinbestekoa da euskararen ezaguera maila altua izatea. Horrexegatik arraroa egiten zaigu gaztelaniaz hitz egiteko eskatzea. Ditugun datuekin ezin dugu egiaztatu zein bulegotan eta zein ordutan gertatu zen, beraz, ezinezkoa zaigu ezagutzea telefonoa nork hartu zuen, beste posturen batera desbideratuta egon zen edo langileak okupatuta izanik beste langileren batek hartu zuen. Hala eta guztiz ere, ditugun hiru bulegoetara oharra bidali dugu lehen hitza euskaraz egin behar dela gogorarazteko.*

Esp. Zenb.: 767-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: ETXEBIZITZA, HERRI-LAN ETA GARRAIO SAILA. EUSKOTREN

Arrazoia: Abuztuaren 19an, igandea, 4:45 inguruan, Zarauztik Getariara doan EuskoTreneko autobusa hartzera abiatu ziren 3 lagun. Barrura sartu eta *Hiru Getarira* eskatu zuen batek. Gidariak berriz: *¿Qué?* eta herritarrak berriz *Hiru Getarira*. Gidariak *¿Qué?* berriz ere eta herritarrak hirugarrenez, eta oraingoan poliki-poliki: *Hi-ru-Ge-ta-ri-ra*. Gidariak oraingoan: *¿Me dices en castellano?* Herritarrak Urola-Kostan egunero zerbitzua egiten dabilen gidari publiko batek euskaraz gutxieneko bat jakin beharko lukeela erantzun zion, berak euskaraz esan ziona ulertzeko beste bai, behintzat. Orduan gidariak honakoa erantzun zion: *Si quieres que te hablen en euskera, espera y coge el siguiente autobús*. Azkenean gaztelaniaz eskatu behar izan zion ordu bete zain ez gelditzeagatik.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1091-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: ETXEBIZITZA, HERRI-LAN ETA GARRAIO SAILA. EUSKOTRAN

Arrazoia: Tranbia geltokietan BAT Txartela diruz betetzeko makinak daude. Makina horietan, euskara hizkuntza aukeratu arren, gaztelaniaz mintzatzen dira. Herritarrak orain dela sei hilabete kexa hau jarri zuen, baina egoerak bere horretan jarraitzen du.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 52-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: ETXEBIZITZA, HERRI-LAN ETA GARRAIO SAILA. EUSKAL TRENBIDE

Arrazoia: Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoak HUMAN MANAGEMENT SYSTEMS enpresaren bidez kudeatu du lanpostu baterako kontratazioa. Enpresa pribatu horrek webgunearen euskarazko bertsioa baduen arren, lan eskaintzarik ezin da bistaratu euskarazko orrian. *Bad Request (Invalid Hostname)* mezua agertzen da.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1069-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: ETXEBIZITZA, HERRI-LAN ETA GARRAIO SAILA. EUSKOTRAN

Arrazoia: Euskotrenek Amaran duen geltokiaren irteeretako batean gaztelania hutsean idatzitako kartela dago. Kartelak ondokoa dio: *Euskal Trenbide Sarea. Entrada y salida de camión.*

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 815-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: ETXEBIZITZA, HERRI-LAN ETA GARRAIO SAILA. PASAIAKO PORTU

Arrazoia: Pasaiaiko portu agintaritzak ingurumeneko teknikari lanpostu bat (2. taldea, 2. banda, 3 maila) oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia egin zuen ekainean. Deialdi guztia ele bietan egon arren, gaitegia gaztelaniaz soilik jarri zen jendearen eskura.

Erantzuna:

HERRIZAINGO SAILA

Esp. Zenb.:	219-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HERRIZAINGO SAILA
Arrazoia:	Ertzaintzaren ibilgailu berriek (SEAT ALTEA autoak) <i>POLICIA</i> errotulua daramate, gaztelania hutsean.
Erantzuna:	HERRIZAINGOKO SAILBURUA: <i>SEAT Altea modeloko ibilgailuetan atzeko alderdian, ezkerrean Ertzaintza hitza agertzen da (bai eta alboetan ere) eta eskuinaldean Policía, beti ere euskararen erabilera arautzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak ezarritakoa betez.</i>
Esp. Zenb.:	352-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HERRIZAINGO SAILA
Arrazoia:	Ertzaintzaren Seat Altea ibilgailu berriek <i>POLICÍA</i> dioen errotulua ageri dute; ez ordea euskarazko baliokiderik.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	561-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HERRIZAINGO SAILA
Arrazoia:	Ertzaintzak Tolosarako bidean dagoen Andoaingo baskulan gerarazi zuen. Herritarra euskaraz zuzendu zitzaion 210533 agenteari. Hura berriz, gaztelaniaz. Elkarrizketa osoa horrela egin zuten; beraz, bistakoa zen euskaraz ulertzen zuela. Agenteak isuna jarri zion gidariari eta isunaren inprimakia ere gaztelaniaz bete zuen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	651-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HERRIZAINGO SAILA
Arrazoia:	Maiatzaren 27an SOS deiak zerbitzura deitu eta haiek Ertzaintzarekin harremanetan jarri zuten herritarra. Euskaraz hasi zen eta gaztelaniaz egiteko eskatu zioten. Euskaraz zekien norbaitekin jartzeko eskatu zuen eta ez zegoela erantzun zioten. Herritarrak gaztelaniaz egin behar izan zuen. Zer polizia-etxe zen galdetuta, Erandiokoa zela erantzun zioten.
Erantzuna:	IKERKETA ETA AZTERKETA ALORREKO BURUA: <i>Ertzaintzak eskaintzen dituen zerbitzu guztietan euskaraz hitz egin dezaketen agenteen presentzia etengabea izateko ahalegina egiten den arren, une zehatz batzuetan, zerbitzuaren beharrek eraginda, ezinezkoa izaten da euskaraz elkarrizketa arina mantentzeko besteko ezagutza duten langileak egotea. 76/2012 Dekretua, Ertzaintzan euskararen normalizazio prozesua arautzen duen Dekretua aldatzen duena duela gutxi jarri da indarrean. Ekarki duen berrikuntza nagusietako bat izan da Ertzaintzako bi hizkuntza-eskakizunak zehaztu dituela, Hizkuntzetarako Erreferentziako Europako Esparru Erkidera moldatuz. Aldaketa horri esker Ertzaintzako agenteek, oro har, euskaraz komunikatzeko gaitasun hobea izatea espero dugu.</i>

Esp. Zenb.:	1035-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HERRIZAINGO SAILA
Arrazoa:	Uztailaren 18an eguerdiko 13:10 aldera AP-8 autopistan, Bilboko norakoan, Orioko jaitsieran dagoen panel elektronikoak gaztelania hutsean ageri zuen erretentzioak zeudela iragartzeko mezua.
Erantzuna:	<i>EUSKADIKO TRAFIKOA KUDEATZEKO ZENTROKO BURUA: ETKZ-ren bidez kudeatzen diren paneletan, mezu guztiak gaztelaniaz nahiz euskaraz idazten dira, mezu batetik besterako txandaketa bataz beste 8 segundoro egiten delarik era automatikoan. Kexan aipatzen den panelari gagozkiolarik, Zentroan dugun panelen aplikazio informatikoan data eta ordu horretan panela itzalirik zegoela agertzen zaigu. Hala ere, panelen mantenimendua eramaten diguten teknikariek egon ostean, aldi baterako konexio galtze bat izateko aukera ezin da baztertu. Hala balitz, litekeena da matxura gertatu zen une hartan zegoen mezua izozturik geratzea, mezuen arteko txandaketa automatikoa etenik geratuz. Herritarrak aipatzen duen mezua bat letorke balizko matxura aurretik txandakatuz genituen gaztelaniazko "A 27 km accidente. Retenciones" eta euskarazko "27 Km-tara istripua. Auto-pilaketak" mezuekin. Horiek horrela, herritarraren kexa egiazkoa izan liteke, baina egoera zehatz hori matxura bati egotzi beharko litzaioke eta inolaz ere ez nahita burututako hizkuntza-eskubideen urraketa bati.</i>

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Esp. Zenb.:	6-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
Arrazoia:	Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak atzerrian hizkuntzak ikasteko beka bat eman dio herritarraren alabari. Informazio osoa gaztelaniaz jaso duenez, euskaraz eskatu eta honako hau erantzun diote: <i>Lamentamos comunicarle que no disponemos de personal vasco parlante y no podemos entender el contenido de su mensaje.</i>
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	19-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
Arrazoia:	Irunen DBHko eskola mapa berrantolatzen ari dira. D ereduko Elatzeta ikastetxeko ikasleak B ereduko Lekaenea ikastetxeko ikasleekin elkartuko dituzte Hirubide ikastetxean. Erabaki honek arriskuan jarriko du D ereduko hezkuntza proiektua.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	112-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
Arrazoia:	Laudio BHIIn ikasle eta irakasleen eskubideak zapalduak izan dira PISA-2012 proba egin denean. Izan ere, D ereduko ikasleak izan arren, azterketaren jarraibideak eta galderak gaztelaniaz eraman dizkiete, familiek euren seme-alabentzat aukeratua duten hizkuntza-eredua kontuan izan gabe.
Erantzuna:	ISEI-IVEIko ZUZENDARIA: <i>Nazioarteko ebaluazio guztietan (PISA, TIMSS) betidanik (2000, 2003, 2006, 2009, 2012) ikasleak proba nagusia erantzuteko hizkuntza, bidalitako Familia Hizkuntza fitxategiaren arabera egiten da. Irizpide hori D ereduko ikasle guztietan aplikatzen da Komunitate Autonomoan sare publikoan eta itunpekoan. Proba pilotua (2002, 2005, 2008, 2011) D ereduetan bakarrik egiten da eta bertan Familia Hizkuntza fitxategian baldintzak betetzen dituzten ikasleek bakarrik parte hartzen dute Euskarazko itemak balidatzeko (proba pilotua euskaraz bakarrik egiten da). Proba pilotua ez da gaztelaniaz egiten Komunitate Autonomoan, Espainia mailan baizik. Erabakia Probako Hizkuntzak Nazioarteko Ebaluazioetako Emaitzetan duen eraginari buruzko ikerlanean oinarritua dago. Irizpide hau balidatzeko ebaluazio guztietan egin da ikerketa, eta orain arte Hezkuntza Sailak ez du ebidentziarik aurkitu irizpidez aldatzeko Nazioarteko Ebaluazioetan. Audio BHIko ikastetxean PISA 2012 Ikastetxe galdetegia zuzendariak beten ditzaten, aukera zabalagoa izateko. tiek euskaraz erantzun zuten. Proba gaztelaniaz erantzun behar izan zuten, aukeratutako laginean Familia Hizkuntza fitxategian ikasle batek ere ez zituelako euskaraz erantzuteko baldintzak betetzen.</i>
Esp. Zenb.:	116-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
Arrazoia:	Otsailaren 15ean Hezkuntza Sailera deitu du herritarrak galdera bat egiteko eta gaztelaniaz atenditua izan da.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	122-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
Arrazoia:	Apirilean Basauriko Hizkuntza Eskolako bere gelan banatutako galdetegia gaztelania hutsean zegoen. Galdetegia zentroa ebaluatzeko zen eta irakasleak banatu zien ikasleei. Herritarrak euskaraz ote zegoen galdetu zuen. Irakasleak azaldu zion Bartzelonako enpresa batek kudeatzen zuela eta nahiz eta inprimakia euskaraz izan, gaztelaniaz erantzun beharko zuela.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.: 233-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Arrazoia: Apirilaren 10eko astean Irungo *BIDASOA* Goi-mailako Berariazko Lanbide Heziketako Institutura gerturatu zen ikasketa batzuei buruzko informazio eske eta idazkaritzan artatu zuenak ez zekienez euskaraz, informazioa gaztelaniaz jaso zuen herritarrak. Apirilaren 16an matrikula egiteko deitutakoan ere ezin izan zuen euskaraz aritu herritarrak.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 305-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Arrazoia: Herritarrak martxoaren 7an goizeko 11:45ean Iurretako Institutu publikora deitu zuen eta gaztelaniaz egin behar izan zuen telefonoa hartu zuen langileak ez zekielako euskaraz hitz egiten.

Erantzuna: IURRETAKO GLHB INSTITUTUKO ZUZENDARIA: *Jendeari arreta egiteko dugun pertsonalak, atezaintzakoak eta administraziokoak, administrazioak exijitzen duen hizkuntza-eskakizuna du, 2.HE. Nolanahi ere, gerta liteke baten batek baja hartzen badu, haren ordezkariak izan beharko lukeen hizkuntza-profila ez izatea. Guk ahaleginak egiten ditugu sortzen diren bajak dagokion hizkuntza-eskakizuna duten langileekin betetzeko, baina ez dugu erabateko eskumenik arlo honetan. Nolanahi, azpimarratu nahi dugu gure eskolak euskarari dion begirunea oso garrantzitsua dela, izan ere, euskararen normalizazioa baita Iurreta Institutuaren helburu nagusietako bat.*

Esp. Zenb.: 327-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Arrazoia: Gasteizko D ereduko Luis Elejalde-Rogelia Alvaro ikastetxe publikoko atezaina ez da euskalduna.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 345-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Arrazoia: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Gasteizko delegaziora deitu du, 945017200 telefonora, eta lehenengo langilearekin euskaraz ongi egin badu ere, DBHko langilearekin gaztelaniaz hitz egin behar izan du hark halaxe eskatu diolako.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 827-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Arrazoia: Bilboko Martin Bertendona Batxillergo Institutuan ikasleei zuzendutako ohar ofizialetan gaztelania bakarrik erabiltzen da. Horietako bat, institutuaren sarreran 2009tik kokatua dagoen oharra: *Aviso para todo el alumnado: tanto la entrada al centro como la salida del mismo se efectuará por la puerta de acceso situada en la calle Alameda de Urquijo. Bilbao, 8 de septiembre de 2009. La dirección.*

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1081-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Arrazoa: Donostiako Usandizaga institutuan, D ereduko Batxilergoko ikasleek urriaren lehen astean jaso zuten idatzitako jakinarazpena gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna: USANDIZAGA INSTITUTUKO IKASKETABURUA: *Eskerrak ematen dizkizuet kexa hau jakinarazteagatik. Nolanahi ere adierazi nahi dut, informazio hori bera euskara hutsean bidali zitzaiea ikasle guztiei posta elektronikoz. Beraz, informazioa bi hizkuntzetan zabaldu da, bi hizkuntzak batera ageri ez baziren ere. Euskarazkoan zehatz-mehatz azaltzen ziren aktibitatearen nondik norakoak; gaztelaniazkoa, aldiz, ohar labur bat zen.*

Esp. Zenb.: 1206-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Arrazoa: Herritarra irailaren 6an Getxoko hizkuntza eskolan izan zen eta ezin izan zuten behar zuten informazioa euskaraz jaso, inork ez baitzekien euskaraz eskolako administrazioan.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1312-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Arrazoa: Fraisoro Nekazaritza Eskolan azaroaren 29an formazio ikastaro batean sartu ahal izateko egindako azterketa osoa gaztelania hutsean egin zen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1329-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Arrazoa: Biasteriko Victor Tapia ikastetxean lan egin zuten aldi batez herritarrak. Lekualdatze lehiaketan parte hartzeko aurkeztu behar zituen agiriak faxez eta gaztelania hutsean bidali zizkioten. Delegaritzan faxez jasotako agiriak ez zutela balio esan zioten eta azaroaren 23an goizeko 9:15ean Victor Tapia Ikastetxera deitu zuten agiriak postaz bidaltzeko eskatzeko. Euskaraz egin eta ikasketa-buruak gaztelaniaz hitz egiteko eskatu zion. Herritarrak euskaraz jarraitu zuten bere eskaera erraz ulertzeko modukoa zelakoan, eta ikasketa buruak gaztelaniaz egiteko eskatu ziola erantzun eta beste azalpenik eman gabe telefonoa eskegi zion.

Erantzuna: CEIP VICTOR TAPIA HLHIko ZUZENDARIA: *Herritarrak eskolako ordutegitik kanpo deitu zuenez ez genituen bere eskubideak bermatu.*

Esp. Zenb.: 1330-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Arrazoa: Hezkuntza Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako Eskola-Bekak kudeatzen dituen sailera (943.022.890) deitu zuten azaroaren 29an eguerdiko 12:15 aldera. Euskaraz azaldu zuten zer nahi zuten eta arreta egin zion pertsonak gaztelaniaz egiteko eskatu zion. Herritarrak harrera euskaraz egingo zion inor ez al zegoen galdetu zuten orduan. Euskaraz hitz egin nahi izatera, biharamunean deitzeko eta Jabiz galdetzeko izan zen jaso zuten erantzuna.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 290-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. EHU

Arrazoa: EHUK Bizkaia Bilbao Arte eta Kultura Udako Ikastaroak antolatu ditu ekainaren 5etik urriaren 19ra. Eskaintzen diren 29 ikastarotatik 5 baino ez dira euskaraz.

Erantzuna: BIZKAIKO CAMPUSEKO UNIBERTSITATE ZABALKUNTZAKO ZUZENDARIA: *Udako Ikastaroek aspaldi hartu zuen bere gain herritarraren kexa. UPV/EHUn elebitasuna bermatzen den bezala Udako ikastaroetan ere ahaleginak egiten ari gara euskararen presentzia bermatzeko. Azken edizioan aurkeztutako 75 proposamenetatik 15 proposamen izan dira osotasunean edo zati batean euskaraz eskaintzen zirenak, ororen %19,74. Ikastaro guztietatik 30 aukeratzen dira aurrera eramateko, hauetariko 6 euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen direlarik. Modu honetan hasierako %20ko proportzioari eusten zaio. Tamalez ikastaro batean ez direnez behar zen adina pertsona matriculatu bertan behera utzi behar izan genuen. UPV/EHUK elebitasunaren aldeko apustu tinkoa egiten du eta horregatik hausnarketa sakona burutzen ari gara Bizkaia Bilbao Arte eta Kultura jardueren inguruan euskaraz egiten den eskaintzan orain arte izandako %20a gainditzeko. Beraz hurrengo erronka irakasle eta zuzendari euskaldunei zuzenduta egongo da, ikastaro elebidunak eskain ditzaten, aukera zabalagoa izateko.*

Esp. Zenb.: 417-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. EHU

Arrazoa: 2012ko selektibitateko lehenbiziko deialdiko Biologia eta Matematika azterketek itzulpen akatsak zituzten euskarazko bertsioetan. Biologiakoan errugoso hitza erabili zuten bikortsu beharrean. Matematikakoan ohikoagoak diren ganbil-ahur erabili beharrean, konbexo-konkabo erabili zituzten. Azterketa hauek benetan erabakigarriak dira ikasleen etorkizunerako eta beste behin ere, D ereduko ikasleak kaltetuta atera dira.

Erantzuna: UPV/EHUKO EUSKARA ZERBITZUAREN ZUZENDARIA: *Konbexu eta konkabo terminoak dagokienez esan beharra dago lehenbizikoa bakarrik erabili dela Hautaprobetan, eta konbexu forman, eta Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan ontzat emandako forma dela. Hizkuntza-kontuetan Euskaltzaindiari zor diogun autoritatea baliatu dugu KONBEXU forma ontzat emateko eta hura erabiltzeko. Biologiako ariketan erabili den hitza dela eta (errugoso), geure gain hartzen dugu hitz hori agertzearen erantzukizuna; esan nahi da gure unibertsitatearen akatsa dela bikortsu, pikortsu, zimurtsu erabili beharrean errugoso hitza erabili izana, eta neurriak hartuko ditugu (argituko dugu non gertatu den akatsa) halako hutsik berriro gerta ez dadin. Euskal Herriko Unibertsitateak ardura osoz jokatzen du Unibertsitateara sartzeko Hautaprobetan erabiltzen den euskara zuzena, egokia eta ulergarria izateko: horretarako, giza eta diru-baliabide asko erabiltzen ditu, eta bide beretik segituko du aurrerantzean ere.*

Esp. Zenb.: 916-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. EHU

Arrazoa: EHUK komunikazio eta publizitate alorretarako gestio teknikarien lan-poltsa ireki zuen ekainaren amaieran. Euskaraz jakitea ez da nahitaezkoa, merezimendu gisa soilik baloratzen da (3. H.E. gehenez ere 3,45 puntu, 30 punturen gainean).

Erantzuna:

Esp. Zenb.:	976-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. EHU
Arrazoa:	EHUko Soziologia Sailean erreklamazioa jarri zuen. Erreklamazioa tramitatzen ari zirela eta bertara aurkezteko data gaztelania hutsean jaso zuen, nahiz eta erreklamazioa euskaraz aurkeztu.
Erantzuna:	BIZKAIKO CAMPUSEKO EUSKARA ETA IKASKETA PLANGINTZAKO ZUZENDARIA: <i>Barkamena eskatzen dugu egindako akatsagatik, eta aurrerantzean berriro horrelakorik ez gertatzeko eta hizkuntza-eskubideak bermatzeko neurriak hartuko ditugu.</i>
Esp. Zenb.:	977-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. EHU
Arrazoa:	EHUko Soziologia Sailean jarri zuen errekurtsorearen defentsa egitera agertu zen uztailaren 24an, EHUK jarritako hitzorduari erantzunez. Defentsa gaztelaniaz egitera behartu zuten epaimahaiko kide batek euskaraz ez zekielako.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	978-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. EHU
Arrazoa:	EHUko Soziologia Sailean euskaraz jarri zuen erreklamazioa. Ebazpena gaztelania hutsean jaso zuen.
Erantzuna:	BIZKAIKO CAMPUSEKO EUSKARA ETA IKASKETA PLANGINTZAKO ZUZENDARIA: <i>Batzordeak gaztelaniaz idatzitako ebazpena jakinarazi zion herritarrari, batzordeburua (ebazpena berak idatzi zuen) ez zelako euskalduna. Une horretan batzordekideek ez zioten erreparatu erreklamazioaren hizkuntzari eta horren ondorio izan zen kexaren arrazoa.</i>
Esp. Zenb.:	1070-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. EHU
Arrazoa:	Herritarrak Euskal Herriko Unibertsitateko Donostiako Magisteritza eskolan eman ditu hiru urte, ikasketak burutzen. Hiru urte horietan ezin izan du idazkaritzan normaltasun osoz eta beti euskarazko ahozko zerbitzua jaso, langile euskaldun bat besterik ez baitago. Langile hori ez dagoenean edota txanda beste batekin egokitzen denean, ezin da euskaraz egin.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1100-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. EHU
Arrazoa:	Fundación para la Colaboración erakundeak <i>COLLAB 2012: educación, colaboración y eficiencia</i> jardunaldia antolatu du urrian 10ean eta 11n eta EHUren Santamaria Erakinean burutu dira. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren eta EHUren laguntza izan arren, jardunaldiaren web-orrian agertzen den informazio osoa gaztelania hutsean dago.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	560-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. EHU-UDAKO IKASTAROAK
Arrazoa:	Euskal Herriko Unibertsitatearen XXXI. Udako ikastaroetan eta XXIV. Europar Ikastaroetan 112 saiotik 18 besterik ez dira antolatu euskaraz.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.:	1335-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. EHU-UDAKO IKASTAROAK
Arrazoa:	Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako XXIV Europar Ikastaroetako batean izena eman zuen herritarrak. Udako Ikastaroen antolakuntzak bidalita matrikula-agiriarekin batera Renferen bidaia-baimena delakoa jaso zuen. Euskarazko ikastaroan matrikulatu zen arren Renferen baimena gaztelania hutsean zegoen.
Erantzuna:	DONOSTIAKO UDA-IKASTAROEN ZUZENDARIA: <i>Beste erakundeetatik igorritako testuen itzulpen ofiziala egiteko eskuduntzarik ez dugun arren, informazioa guztiz interesgarria iruditu zitzaigunez, ikastaroen administrazioak urtero bidaltzen diguten jatorrizko idatzia ikasleei helaraztea erabaki zuen. Salaketa jasota, RENFErekin harremanetan jarri eta informazio hori euskaraz ba ote duten galde egin genien. Oraingoz ez duten arren, Madrildik jakinarazi dute aurten deskontu-sistema aldatu egingo dutela. Deskontuen inprimaketa RENFEk egingo du eta nahiz eta orain arte gazteleraz soilik inprimatu, deskontuak Estatuko hizkuntza ofizial guztietan inprimatuko dituztela baieztatu dute (euskaraz ere bai).</i>
Esp. Zenb.:	914-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. EHU EUSKOBAROMETRO
Arrazoa:	Euskobarometroak gaztelaniaz soilik eskaintzen du bere jardueraren gaineko informazioa, bai unibertsitateko web-orrian, bai argitaratzen dituzten txostenetan.
Erantzuna:	EUSKARA ETA ELEANIZTASUNeko ERREKTOREORDEA: <i>Euskobarometroa irakasle batzuek osaturiko ikerketa taldea da, ez da UPV/EHuren organigramako unitate bat, eta ondorioz, hark idatzi eta argitara ematen dituen txostenak ez dira UPV/EHuren dokumentu eta agerpen ofizialak, ikerketa talde horrenak baino. UPV/EHuren zuzendaritzak behin baino gehiagotan jakinarazi dio taldeari, bere txostenek duten oihartzun mediatikoa ezaguturik, ona litzatekeela txostenak euskaraz ere argitara ematea; baina ikerketa taldearen emaitzak direnez, eta ez dokumentu ofizialak, ezin du behartu euskaraz egin dezaten. Edozein kasutan, etorkizunean ere jarraituko dugu txosten eta agerpen horietan euskararen presentzia bermatzeko ahaleginean.</i>
Esp. Zenb.:	1058-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. BILBOKO HIZKUNTZA ESKOLA
Arrazoa:	Internet bidez, Bilboko Hizkuntza Eskola Ofizialean epez kanpoko matrikula egin zuen. Guztia euskaraz egin ahal izan zuen, honako orrialde honetara iritsi arte: http://www.hezkuntza.net/o32/presolicitudwebJSP/o32Menu.jsp?pagelId=392060939&ID_NAVEGACION=1 Hemen, guztia gaztelaniaz zegoen, nahiz eta hasiera-hasieratik euskara hautatu, eta ez zegoen hizkuntza aldatzeko modurik.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1346-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. BILBOKO HIZKUNTZA ESKOLA
Arrazoa:	Herritarra Deustuko Hizkuntza eskolan izan zen irailaren 10ean goizeko 10ak aldera. Harreran zegoen langileak gaztelaniaz egiteko eskatu zion.
Erantzuna:	

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

Esp. Zenb.:	138-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA.
Arrazoia:	INNOBASQUEk 2011ko abenduaren 18an Bilboko Alhondigan egin zuen GOGASUN ekimenaren aurkezpenean hizlarietako bakarrak esan zuen esaldiren bat euskaraz; ekitaldian gaztelania izan zen nagusi.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	168-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
Arrazoia:	<i>GOGASUN: buscamos personas mayores de 55 años (...)</i> gaia zuen e-mezua jaso zuen. Bai mezu elektronikoa eta bai hari atxikitako gutuna gaztelaniaz baino ez zeuden idatzita. Herritarrak informazioa euskaraz jaso nahi duela esanez idatzi zien eta gogoan hartuko zutela izan zen beraien erantzuna. Gauza bera gertatu zaion bigarren aldia da. GOGASUN ekimenaren beraren aurkezpenenari buruzko informazio-mezuarekin berdin jokatu baitzuten eta gauza bera erantzun baitzioten.
Erantzuna:	<i>KOMUNIKAZIO ETA SOZIALIZAZIOKO ZUZENDARI NAGUSIA: Mila esker gertatu behar ez lukeen gertaeraren berri emateagatik, jokabide hau ez baitator bat Innobasqueren jarduteko moduarekin. Kontuan hartuko dugu eta barneko neurriak bultzatuko ditugu horrelakorik berriro gerta ez dadin.</i>
Esp. Zenb.:	338-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
Arrazoia:	Eusko Jaurlaritzak Enpresa Digitala Sarien VIII. edizioan banatzean ez dio inolako garrantzirik eman Hijos de José Serrats enpresaren webgunea gaztelania hutsean egoteari.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	646-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA. SPRI
Arrazoia:	Maiatzean SPRI erakundearen web orrian euskarazko bertsioan azaltzen ziren diru-laguntzak ez zeuden eguneratuta; ez ziren denak azaltzen. Herritarrak SPRIra deitu eta hori horrela zela aitortu zioten, gaztelaniazko bertsiora joan behar zela diru-laguntza guztien berri izateko.
Erantzuna:	<i>SPRI,S.A.ko KALITATE ARDURADUNA: Litekeena da erabiltzaileak kontsultak egin zituen egunean indarrean dauden laguntzen laburpen-fitxa guztiak euskarara itzuli gabe egotea, itzulpena egiteko behar besteko baliabiderik ez izateagatik. Hala ere, laguntzen araudiak euskaraz irakur daitezke gure web orrian ageri diren EHAArako estekak erabilita. Egin ditugun ahalegin eta hobekuntza guztiak gora behera, ongi dakigu oraindik lan handia daukagula aurrean zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan eskaintzeko.</i>
Esp. Zenb.:	861-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA.
Arrazoia:	Okamikako Industrialdea Sozietatea Mallabiako Industrialdea baltzuak irentsi behar du, eta behin prozesua amaituta Mallabiako Industrialdea sozietateari <i>Bizkaia Sortaldeko Industrialdea S.A.</i> izena eman nahi diote. Bada, Bizkaia barik <i>Bizkai Sortaldeko Industrialdea S.A.</i> behar luke.
Erantzuna:	

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Esp. Zenb.:	831-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
Arrazoia:	Hazi, Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Korporazioa sozietate publikoak ekainaren 20an <i>El Correo</i> egunkarian argitaratu zuen iragarkia gaztelania hutsean zegoen. Iragarkiaren gaia: Pasaiko Itsas Arrantza Eskolan eraiste-lanak egiteko lizitazioaren berri emateko.
Erantzuna:	HAZIKO KOMUNIKAZIO ARDURADUNA: <i>Erakunde publikoek aurrekontuetan dituzten murrizketa eta kontrolak kontuan izanda eta mugatuak diren baliabideak modu eraginkorrean erabiltzeko helburuarekin, HAZIk aurreztea irizpide harturik, erabaki du publiko erdalduna edo irakurle erdaldunak dituzten egunkarietan, esaterako CORREO taldean, iragarkiak gaztelera hutsez argitaratzea eta euskara hutsez, berriz, BERRIA egunkarian.</i>

KULTURA SAILA

Esp. Zenb.:	132-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: KULTURA SAILA. HPS
Arrazoa:	Eusko Jaurlaritzak aurkeztu berri duen <i>Itzultzaile automatiko</i> delakoagatikoxa da (www.itzultzaile.euskadi.net). Egiten duen lan eskasaren 3 adibide: <i>revision – revision-a , vehiculo – badaramat</i> edo <i>habilidades domesticas – trebetasunak</i> hezten duzu .
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	108-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: KULTURA SAILA. EITB
Arrazoa:	Maiatzaren 7an ETB-1eko <i>Ai Ama</i> saioan elkarrizketa luzea egin zioten Rafael Amargori. Elkarrizketatzaileak galderak euskaraz egin zituen, baina erantzunak gaztelania hutsean eman zituzten, inolako bikoizketarik edo <i>off</i> -ahotsik sartu gabe.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	109-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: KULTURA SAILA. EITB
Arrazoa:	Maiatzaren 7an ETB-1eko <i>Ai Ama</i> saioan Rafael Amargo artista gonbidatu zuten. Kazetariak galderak euskaraz egin, baina erantzunak gaztelania hutsean entzuten ziren. Herritarrari harrigarria eta tamalgarria iruditzen zaio ETB-1ean holakoak gertatzea.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	141-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: KULTURA SAILA. EITB
Arrazoa:	Martxoaren 22an ETB-1eko ZAINDU osasunari buruzko saio berrian gaztelaniaz elkarrizketatu zituzten pazienteak eta inolako bikoizketarik gabe emititu zuten saioa. Saioan pazienteak izan ziren protagonista nagusiak.
Erantzuna:	TRAUKO MANAGEMENT S.L.U.: <i>Telebista bezalako medio batean beharrezkoa zen osasun saio bat, are gehiago gaixotasun kronikoez aritzeko, gaur egun gutako edonor izan gaitzkeelako paziente kroniko gure bizitzan zehar. Ados gaude ETB-1en paziente euskaldunen iritzia jasotzen saiatu beharko genukeela, eta saiatu, saiatu gara. Hala ere, ZAINDU saioa ekoizteko jarritako epeak asko mugatu gaitu eta hala ere ehun lagun edo paziente baino gehiagorekin izan dugu harremana. Osasun sailetik bideratu den saioa izan da ZAINDU eta paziente aktiboa programaz arduratzen diren profesionalen laguntza jaso dugu, baita mediku, gaixoen elkarte eta erietxeetako bestelako profesional ugariena ere. Gurekin izan diren gaixo edo paziente gehienek, gutxi batzuk kenduta, gaixotasunari buruz hitz egin behar zutela jakitean gaztelaniaz nahiago zutela jakinarazi dute, eta euren nahiari erantzunez, gaztelaraz grabatu diegu. Horren aurrean, eta pazienteen hitzek zuten garrantzia ikusita, besteetan erabiltzen den doblajearen aukera ere alde batera utzi genuen ez baikin erreportaje turistikoa edota filme batean ikus dezakegun istorioa kontatzen, paziente batzuen eguneroko jarduna eta gaixotasunarekin nola bizi diren azaldu nahi genuen. ZAINDUren hurrengo saioetarako paziente euskaldunak behar izanez gero, zuekin harremanetan jarriko garela ziurtatzen dizut.</i>

Esp. Zenb.: 408-2012
Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: KULTURA SAILA. EITB
Arrazoa: Martxoaren 22an ETB1 katean bota zuten *ZAINDU!* izeneko gaueko saioan gaztelania izan zen nagusi.
Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1011-2012
Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: KULTURA SAILA. EITB
Arrazoa: Bilboko EITBren egoitzan, harrera-gunean euskaraz galdetu eta gaztelaniaz egiteko eskatu zioten herritarrari. Gaueko 9ak aldera izan zen.
Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1090-2012
Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: KULTURA SAILA. EITB
Arrazoa: Abuztuaren 12an ETB1ek euskaraz eman zituen estropaden ondoren, elkarrizketa bat baino gehiago entzun ziren gaztelania hutsean, euskarazko inolako itzulpenik gabe, ez ahozkorik, ez azpigitulu bidezkorik.
Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1360-2012
Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: KULTURA SAILA. EITB
Arrazoa: Herritarra ETB3 ikusten ari zen abenduaren 4an arratsaldeko 17:50ak aldera eta emititzen ari ziren marrazki bizidunak, euskarazkoak, bi hizkuntzatan aldi berean entzuten ziren.
Erantzuna:

OSASUN SAILA

Esp. Zenb.:	1240-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: OSASUN SAILA
Arrazoia:	Biobanco Vasco para la Investigación delako erakunde publikoaren irudi korporatiboa guztiz erdaraz dago. Webguneak ere ez du euskarazko bertsiorik.
Erantzuna:	O+EHUN: <i>Webgunea euskaratzeko prozesua martxan dago. Datorren urtarrilean prest egongo da euskarazko bertsioa.</i>
Esp. Zenb.:	1285-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: OSASUN SAILA
Arrazoia:	IOEF Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioak gaztelania hutsean argitaratu du iragarkia, <i>El Correo</i> kazetak azaroaren 7an kaleratutako osasun-gehirriaren.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	2-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA
Arrazoia:	Leioako Anbulatoriora deitu eta euskaraz eskatu zuen hitzordua herritarrak. Arreta egin zion pertsonak faborez gaztelaniaz hitz egiteko eskatu zion.
Erantzuna:	OSAKIDETZAKO URIBE ESKUALDEKO GERENTEA: <i>Leioako osasun zentroko bezeroak atenditzeko unitateak zazpi lanpostu ditu, eta horietatik seik daukate derrigortasun-data, lanpostuen %85ek (67/2003 Dekretuaren arabera %80k izan behar dute). Sei lanpostu horietatik hirutan langileek lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dute, bi lanpostutan langileek ez dute hizkuntza-eskakizuna egiaztatu eta lanpostu bat hutsik dago. Hilabete gutxitan egoera aldatu egingo da hutsik dagoen lanpostua eta aipatutako beste bi lanpostuetatik bat hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten langileek beteko dituzte, hartara 5 profesional elebidun izango dira unitatean. Bestalde, Uribe eskualdeko Euskara Planak euskara erabiltzeko jarraibide batzuk ditu ezarrita. Horien arabera, herritar batek Osakidetza euskaraz jotzen duenean langileak euskaraz ez badaki, ahal izanez gero langile elebidun bati eskatuko dio une horretan laguntzeko. Epe laburrean batzarra egingo dugu Unitateko langileekin eta Leioako osasun zentroko Unitate-buruarekin kexaren berri eman eta jarraibideak gogorarazteko.</i>
Esp. Zenb.:	7-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA
Arrazoia:	Donostia Ospitalean urtarrilaren 1ean jaso behar izan zituen zerbitzu guztiak gaztelania hutsean jaso zituen: harrera, sendagilea eta erizainarekiko hartu-eman, baita sendagilearengana joateko eman zioten agiria ere.
Erantzuna:	DONOSTIA OSPITALEKO ZUZENDARI GERENTEA: <i>2006an ospitaleko euskara plana abian jarri zenetik gure ahalegina, erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak errespetatzea eta gure zerbitzuaren kalitatea hobetzea izan da. Horrela, lehentasuna eman zaie bezeroak atenditzeko unitateei, aurrez aurreko harremana dutenei eta telefonoz aritzen direnei. Horrelako egoerei erantzuteko euskararen erabileraren irizpideak triptiko batean zehaztuta ditugu, eta joan den uztaillean ospitaleko langile guztiei banatu zitzairen gerentearen gutun batekin. Tamalez, aitortu beharra daukagu hainbat esparrutan oraindik bide luze daukagula egiteko, baina arlo honek duen garrantziaz ohartuta, langileen euskararen ezagutzan eta erabileran ahalegina egiteko asmo sendoari eusten diogu.</i>

Esp. Zenb.:	34-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA
Arrazoia:	Lezako Ospitalean Gabonetan bi-orrikoa argitaratu zuten pazienteei Gabonak zoriontzeko. Azaleko zorion mezua 8-10 hizkuntzatan zegoen, baina ez euskaraz.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	35-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA
Arrazoia:	Lezako Ospitalean pazienteei Gabonetako menua jakinarazteko banatu zieten orria gaztelania hutsean zegoen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	150-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA
Arrazoia:	Herritarra Tolosako osasun-zentrora joan da ekainaren 6an 11:00ak aldera eta harreran zegoen langilea ez zen euskalduna. Beraz, gazteleaniaz aritu behar izan du.
Erantzuna:	GIPUZKOA ESKUALDEKO PERTSONALEKO ZUZENDARIA: <i>Osakidetzan euskara erabiltzeko Dekretuak eta Eskualdeko Euskara Planak zenbait jarraibide ezarri zituen, neurri positiboan bidez, euskararen erabilera bultzatzeko, eta horiekiko konpromisoa berritzeko eskualdeko Zuzendaritzak erabilera irizpideak onartu eta langileen artean zabaldu zituen, lan jardunean kontuan hartzeko. Kexan ez zaigu argitzen herritarrak zergatik gaztelaniaz hitz egin behar izan zuen, langileak gaztelaniaz erantzun ziolako?, ez ziolako langile elebidun batekin hitz egiteko aukera eskaini?, herritarrak ez zuelako arreta euskaraz eskatu?,... Bezeroa hartu zuen langileak irizpideei jarraitu ez bazien, oker egin zuen, eta Zuzendaritza honek bere esku dagoen guztia egingo du, eskualdeko langile guztiak irizpideei jarrai diezaieten. Hala ere, egun horretan eta ordu horretan, bost langile zeuden arreta emateko unitatean, lau elebidunak eta bosgarrena euskaraz esaten zaiona ulertzeko gai den arren euskaraz mintzatzeko gaitasunik ez duena. Honek, baina, onekin kexaren berri eman eta jarraibideak gogorarazteko. skararen erabilera irizpideak. Beraz, herritarrak arreta euskaraz jaso nahi bazuen, bazeukan euskaraz nork erantzun, baita berak euskaraz mintzatzeko aukera ere.</i>
Esp. Zenb.:	175-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA
Arrazoia:	Otsailean SAN JOSE OSPITALEAN ingresaturik egon ondoren, etxera bidali zioten gutuna eta asebetetze inkesta gaztelania hutsean zeuden.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	176-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA
Arrazoia:	Osakidetzako 902 telefonora deitu zuen txanda hartzeko otsailaren 21ean goizeko 11:00ak aldera. Erantzungailuarekin ongi aritu ondoren, honek euskaraz jarraitzeko aukera eskaini zion eta herritarrak hau aukeratuzuen. Aranbizkarrako Osasun Zentroko langileak euskaraz ezin zuela egin esan zion. Herritarrak aurrekoa azalduta, langileak erantzun zion: <i>Sí, pero eso con la máquina</i> . Hori horrela, gaztelaniaz egin behar izan zuen.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.: 177-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Herritarrak otsailaren 27an Zarauzko anbulatoriora deitu zuen hitzordua eskatzeko. Erantzungailua gaztelania hutsean aritu zen, ez zion euskaraz egiteko aukerarik eman, lehen egiten zuen bezalaxe. *Osakidetza egun on, buenos días. Si desea ser atendido en euskara, diga euskara o pulse 1. Si desea ser atendido en castellano, diga castellano o pulse 2* zioen mezuak.

Erantzuna: GIPUZKOA ESKUALDEKO PERTSONALEKO ZUZENDARIA: *Osakidetza Kanala Anitzeko Osasun Zerbitzuen Zentro bat sustatu du, herritarren eta osasun-sistemaren arteko harremana errazteko. Zentro horren zerbitzuetako bat administrazio-prozedurak automatizatzea da, sare korporatiboan dauden Osasun Zentroetara herritarrek egindako dei guztiei erantzuteko. Mezuen hizkuntzari dagokionez, deia egiten den telefonotik eskatzen den hizkuntza-aukera memorizatzeko diseinatuta dago sistema. Kexa egin duen herritarren telefonoaren kasuan, litekeena da lehentasunezko hizkuntzat gaztelania identifikatua izatea, eta, horregatik, euskaraz aritzeko aukerarik ez eskaintzea.*

Esp. Zenb.: 238-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Martxoaren 1ean Gasteizko Santiago ospitaleko Gaixo eta Erabiltzaileen Sorospen Zerbitzuan ezin izan zuen herritarrak euskaraz egin, bertan zegoen langileak euskaraz ez zekielako.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 239-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Gasteizko Santiago ospitaleko Gaixo eta Erabiltzaileen Sorospen Zerbitzuko errotuluak akatsa du, *Zorospen* ageri da *Sorospen* beharrean.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 298-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Debagoieneko ospitalearen eraikuntza berria erakusteko antolatutako bisita batzuetan elastikoak banatu dituzte. Elastikoan ageri diren testuak gaztelania hutsean idatzita daude: *Organización Sanitaria Integrada Alto Deba.*

Erantzuna: DEBAGOIENEN ESIKO ZUZENDARI-GERENTEA: *Jabetzen gara lege urraketaz, eta barkamena eskatzen dugu herritarrenganako eskubideen eta beste hainbat lege-urraketa traketsengatik. Aurrerantzean izango ditugun komunikazio ekintzetan horrelako lege urraketarik gerta ez dadin arreta handiagoz lan egingo dugu.*

Esp. Zenb.: 342-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Uztailaren 3an arratseko 15:00ak aldera Debagoieneko Ospitaleko harreratik sartu zen eta harreran zegoen langileari larrialdietara nondik joan behar zuten galdetu zion. Honek *en erdara, por favor* erantzun zien eta herritarrak gaztelaniaz egin behar izan zuen.

Erantzuna: DEBAGOIENEN ESIKO BEZEROAREN ARRETA ZERBITZUA: *Debagoieneko ESiko hizkuntzaren normalizaziorako planaren arabera harrerako langile euskaldunen kopuruak %80koa izan behar du gutxienez. Helburua betetzen da gure kasuan, baina kontuan izanda pertsona bakarreko lanpostua dela txanda batzuetan nahitaezkoa da atentzioa ez-euskalduna izatea txanda horretan lanean ari den pertsona zerbitzuko erdaldun bakarra bada.*

Esp. Zenb.:	348-2012
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA
Arrazoa:	Herritarrak Donostiako bere osasun-etxean otorrinoarekin hitzordua eskatzerakoan mediku euskalduna nahi zuela adierazi zuen. Osasun-etxean esan zioten beraiek ez zekitela zein medikuk egiten zuen euskaraz. Uztailearen 3an Groseko Anbulategira joan zen egokitu zitzaion otorrinoarengana: M ^a Eugenia Salazar Ruckauer andrea. Honek herritarraren txostena gaztelaniaz zuen eta gaztelaniaz galdetu zion zer gertatzen zitzaion. Herritarrak euskaraz erantzun zion. Medikua eta erizainak esan zioten gaztelaniaz egin behar zuela eta bestela, handik joateko. Medikua segurtasun arduradunaren bila joan zen eta erizainak tarte horretan herritarrari aitortu zion bera euskalduna zela. Segurtasun arduraduna ere ez zen euskalduna. Honek arreta zerbitzura lagundu zuen herritarra. Arreta zerbitzuko arduradunak itzultzaile lana egitea eskaini zion herritarrari eta honek onartu egin zuen, baina medikuak ez, ordea, eta ondorioz, herritarra kontsulta pasa gabe gelditu zen.
Erantzuna:	<p>1. erantzuna: DONOSTIA UNIBERTSITATE-OSPITALEKO PERTSONALEKO ZUZENDARIA: <i>Kexan aipatzen den unitatea Groseko anbulatorioko otorrinolaringologiako unitatea da, ospitalez kanpoko arreta espezializatuaren baitan dagoena. Unitate hau Euskara Planean 3. lehentasuna duten unitateen artean dago, eta beraz, litekeena da zerbitzua osatzen duten langileek euskaraz lan egiteko gaitasunik ez izatea. Herritarrak proposatzen duen moduan, egokia litzateke hitzordua ematen duten harreretan medikuaren euskara-ezagutzaren datua ikusgarri izatea, eta une honetan horretarako aukerarik ez badago ere, horrela izan dadin neurriak bideratzeko konpromisoa hartzen dugu, mediku euskalduna eskatzen dutenei ahal den neurrian zerbitzua euskaraz emateko. Bestalde, Donostia Unibertsitate ospitaleko zuzendaritzak euskararen erabileraren irizpideak zehaztu ditu eta triptiko batean jaso ditu. 2011ko uztailean ospitaleko langile guztiei banatu zitzaien triptikoa gerentearen gutun batekin. Herritarrak deskribatzen duen egoerak ez du zerikusirik azpimarratu nahi dut Osakidetzan ez zaiola eskatzen langileen ehuneko ehunari elebidun izatea, eta elebakar bat izatea nahikoa dela aipatzen den gertaeraren moduko beste hainbat sortzeko.araz mintzatzeko aukera ere.</i></p> <p>2. erantzuna: DONOSTIA UNIBERTSITATE-OSPITALEKO ZUZENDARI MEDIKOA: <i>Behar beste informazio jaso ondoren, sortutako egoera horrekiko nahigabea adierazi besterik ezin dut egin, jakin baitakigu herritarrak nahi duen hizkuntzan artatua izateko eskubidea duela. Egoera zuzentzekoa denez, berehala hartu behar ditugu eskubide hori bermatzeko behar diren neurriak, eta hala jakinarazi diot aipatutako ORLko Zerbitzuaren buruari. Bestalde, egia izanik ere profesional guztiek ez dutela arreta kliniko egokia euskaraz emateko behar den maila, egia da, hitzordua hartu eta pazientea kontsultara joaten bada, bi aukera eman behar zaizkiola haren hautuaren arabera, beste hitzordu bat hartzea edo itzultzaile gisa jardungo duen profesional bat aurkitzea. Kasu honetan bistakoa da gauzak ez direla behar bezala egin, Ospitaleak bai baititu espezialitate-zentro hartan euskara dakiten profesionalak.</i></p>

Esp. Zenb.: 395-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Amezketako kontsultategian dagoen ordezko familia-medikua ez denez euskalduna, herritarrek ezin dute harekin euskaraz aritu eta harengandik zerbitzua euskaraz jaso.

Erantzuna: GIPIZKOAKO ESKUALDEKO PERTSONALEKO ZUZENDARIA: *Amezketako kontsultategiko sendagile plazak 2008ko ekainaren 1etik du hizkuntza-eskakizuna betetzeko derrigortasuna. Ondorioz, titularren ordez kontratatzen diren sendagileek derrigor bete behar dute bigarren hizkuntza-eskakizuna. Uztailean zenbait egunetan hizkuntza-eskakizunik gabeko 2 mediku izan ziren Amezketan. Horren arrazoia zera izan zen: garai horretan aldi baterako kontratazio zerrendetan hizkuntza-eskakizuna zuen medikurik ez zegoela libre. Horren aurrean bi aukera zeuden: plaza hutsik utzi eta herritarrak beste osasun zentro batera bideratu, edo elebiduna ez den sendagilea bidali; nabarmena denez, bigarrenaren alde egin zen. Horrez geroztik, beste zenbait egunetan egon dira Amezketan ordezko sendagileak eta hizkuntza-eskakizuna dutenak izan dira. Izan ere, kontratazio zerrendetan hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten langileak daudenean, langile elebidunak kontratatzen dira derrigortasun-data iraungita duten plazak betetzeko.*

Esp. Zenb.: 420-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Apirilaren 19 goizean OSAKIDETZAREN *Orain* zerbitzura deitu zuen herritarrak, 944.203.020 telefonora. Grabatutako mezua gatzelaniaz zegoen: *Osakidetza, egun on, buenos días. Si desea ser atendido en euskera, diga euskara o pulse 1. Si desea ser atendido en castellano, diga castellano o pulse 2.*

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 422-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Herritarra Tolosako anbulategiko familia-medikuarendako txanda hartzera joan zen apirilaren 10ean eta harreran zegoen pertsona ez zen euskalduna. Herritarra euskaraz zuzendu zitzaion momentu oro eta langileak gatzelaniaz erantzun zion.

Erantzuna: GIPIZKOA ESKUALDEKO PERTSONALEKO ZUZENDARIA: *Osakidetzan euskara erabiltzeko Dekretuak eta Eskualdeko Euskara Planak zenbait jarraibide ezarri zituen, neurri positibo bidez, euskararen erabilera bultzatzeko, eta horiekiko konpromisoa berritzeko eskualdeko Zuzendaritzak erabilera irizpideak onartu eta langileen artean zabaldu zituen, lan jardunean kontuan hartzeko. Bezeroa hartu zuen langileak irizpideei jarraitu ez bazien, oker egin zuen, eta Zuzendaritza honek bere esku dagoen guztia egingo du, eskualdeko langile guztiek irizpideei jarrai diezaieten. Dena den, herritarrak berak adierazten duenez, ez zuen inolako eragozpenik izan behar zuen zerbitzua jasotzeko berak aukeratutako hizkuntza erabilia, artatu zuen langileak ongi ulertu baitzion. Ondorioz ezin da esan herritarrak osasun erakundearekin daukan harremanean hizkuntza aukeratzeko daukan eskubidea urratu zenik, inork ez baitzion eragotzi euskara erabiltzea, ezta beste hizkuntza batean mintzatzeko eskatu ere, behar zuen zerbitzua jasotzeko. Amaitzeko, azpimarratu nahi dut Osakidetzan ez zaiola eskatzen langileen ehuneko ehunari elebidun izatea, eta elebakar bat izatea nahikoa dela aipatzen den gertaeraren moduko beste hainbat sortzeko.*

Esp. Zenb.: 424-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Apirilaren 9an OSAKIDETZako zenbait zerbitzu jaso zituen. Ondoren zehaztuko den bezalaxe, bisitatu behar izan zituen zazpi zerbitzuetatik batean besterik ezin izan zuen euskaraz egin: Beasaingo anbulatorioan, harreran euskaraz egin zuen baina artatu zuen guardia-medikuarekin gaztelaniaz egin behar izan zuen. Zumarragako Ospitalean, harrerako langilearekin, erizainarekin, zeladorearekin, erradiologoarekin eta larrialdietako medikuarekin gaztelaniaz egin behar izan zuen.

Erantzuna: GOIERRI-UROLA GARAICO ESIKO PERTSONALEKO ZUZENDARIA: *Zinez sentitzen dugu horrelako egoerak gertatzea. Osakidetzan ahaleginak egiten ari gara euskaraz gure zerbitzuetan dagokion tokia izan dezan. Hori dela eta, euskara plana abian jarri ondoren, bertan adierazitakoa ezarri genuen gure zentroetan, eta horrela eskatu dugu enplegu publikoko eskaintzetan. Dena den, badaude arazo batzuk, gaur egun konponezinak. Besteak beste, zenbait denboralditan gertatzen dena, hau da, behar den adina profesional ez egotea, ez euskalduna, ezta erdaldunik ere. Hori larria izaten da medikuen kasuan batik bat, eta hori da udako eta aste santuko oporraldietan maiz gertatzen dena; apirilaren 9an gertatu zena hain zuzen ere.*

Esp. Zenb.: 443-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Osakidetzako BOMS/RSMB zerbitzuak Osakidetzako langileei lanerako behar duten *Larrialdietan Jokatzeko Gida* izeneko liburuxka banatu zien. Gida gaztelania hutsean dago, aurkezpena eta izenburuak izan ezik.

Erantzuna: BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREKO PERTSONALEKO ZUZENDARIA: *Osakidetzako euskara planean komunikazio idatzia dela-eta, jasota dauden helburuetan argi eta garbi bereizten dira zerbitzu-hizkuntzari dagozkionak eta lan hizkuntzari dagozkionak. Kexan aipatzen dena lan-hizkuntzari dagokio. Bizkaiko Osasun Mentaleko sarean lehenetsunak ezarri ditugu eta horregatik zerbitzu-hizkuntzari eta pertsonalarekiko harremanei dagozkionak lehenesten dira, lan-hizkuntzari dagozkionen aurretik. Larrialdietan jokatzeko gida, mediku lantalde batek adostu duen lan-gida izanik, bigarren mailakotzat jotzen dugu lehenetsuna. Horrek ez du esan nahi garrantzirik ez duenik, baina plan batean aldiak daude eta helburuak mailakatu egin behar izaten dira.*

Esp. Zenb.: 543-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Apirilaren 18an Txagorritxuko Ospitaleko sarreran dagoen informazio-gunean euskaraz egin zuen galdera herritarrak. Langileak paperak begiratu eta *vaya a admisiones* erantzun zion. Harrera lekuan ere, ezkerreko mahaiaren zegoen langileari galdera euskaraz egin zion, baina hark gaztelaniaz eman zizkion azalpenak.

Erantzuna: ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEKO KUDEAKETA SANITARIOAREN UNITATEKO ZERBITZUBURUA: *Informazio Unitateko eta Harrera Nagusiko arduradunekin bilera izan dugu, eta haien diotenaren arabera hainbat faktore eman ziren erabiltzaileari bere hizkuntza-eskubidea erabiltzeko traba egin ziotenak. Alde batetik, informazio gunean adinagatik euskara jakitetik salbuetsita dagoen langilea zegoen eta, bestetik, Harrera Unitatean egun horretan (baimen bat tarteko) hizkuntza-eskakizuna duen langilerik ez zegoen. Halako egoerarik berriro gerta ez dadin zirkuitu bat ezarri da, erabiltzaile batek euskarazko arreta eskatzen badu eta arretan dagoen pertsonak euskaraz ez badaki, bere arduradunari dei diezaion, honek hizkuntza-eskakizuna daukan langilea bila dezan.*

Esp. Zenb.: 648-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Osakidetzako medikuarekin txandak Internet bidez hartzeko ohitura du herritarrak; maiatza arte ez du inoiz arazorik izan. Sistema berria jarri zutenetik, baina, ezinezkoa da txanda euskaraz hartzea. Jaioteguna eskatzen du eta euskarazko bertsioan, data euskaraz jarri edo gaztelaniaz jarri, berdin dio, beti esaten du data gaizki dagoela. Ondorioa: ezin denez txanda hartu, gaztelaniazko bertsiora jo behar da.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 649-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Maiatza bukaeran Osakidetzaren web orrian sartu zen kexa bat bidali asmoz, baina ezin izan zuen euskarazko orriaren bidez egin, kexen atalean klikatu eta orriak ez zuelako aurrera egiten.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 771-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Maiatzaren 31n Eibarko anbulatoriora deitu zuen sendagilearekin txanda hartzeko. Programa automatikoaren ahotsak euskaraz esan zuen gauza bakarra *Egun on* izan zen, *buenos días*-ekin batera, jakina, eta hortik aurrerako azalpen guztiak gaztelaniaz izan ziren. Programak ez zion hizkuntza aukeratzeko aukerarik eman. Azkenean langile batekin hitz egitea lortu zuen, eta hark azaldu zion programak arazo teknikoak zituela.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 772-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Osakidetzak txanda telefonoz emateko duen programa automatikoan hitzordua euskaraz zein gaztelaniaz har daiteke teoriarik, baina telefono zenbaki batetik pertsona batek egindako hautua lotesle bihurtzen du hiru hilabeterako, hizkuntza aldatzeko aukerarik eman gabe.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 776-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Errenteriako Iztietako anbulatorioan 3 pediatra daude. Horietatik inork ez daki euskaraz. Norbaitek *ireki ahoa* eta antzekoak esaten badaki, baina elkarrizketa bat euskaraz izateko ez da inor gai.

Erantzuna: GIPIZKOA ESKUALDEKO PERTSONALEKO ZUZENDARIA: *Zoritxarrez, Iztietako hiru pediatretako inork ez daki euskaraz eta, momentuz, egoera hori ezin da konpondu. Pediatra euskaldun bat esleitzea nahi izanez gero, Beraungo osasun-zentroan egin beharko litzaioke esleipena.*

Esp. Zenb.: 888-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoa: Durangoko Herriko Gudarien kaleko osasun etxean, erradiologia aldean hainbat kartel eta errotulu gaztelania hutsean idatzita daude. *Si cree estar embarazada, dígalo antes de hacerse la radiografía* edota *No se realizará ninguna placa sin volante*. Duela bi urte antzeko kexa egin zuen herritarrak eta ohar batzuk aldatu zituzten, baina aipatutakoek gaztelania hutsean jarraitzen dute.

Erantzuna: GALDAKAO-USANSOLO OSPITALEKO ZUZENDARI-GERENTEA: *Osakidetzan ahaleginak egiten ari gara euskarak gure zerbitzuetan dagokion tokia izan dezan. Bide horretan, Euskara Plana abiatu zenetik hasita, ustez beharrezko neurriak hartu ditugu eta hartzen ari gara euskararen erabilera normalizatzeko. Zentro honetan Euskara Plana egoki garatzeko asmoz Galdakao-Usansoloko Ospitaleak komunikatu bat zabaldu zuen duela 5 urte euskararen idatzizko erabilerari buruzko irizpideak jakinarazteko. Hala ere, batzuetan arau nagusiaren salbuespenak gertatzen direla ohartuta, 2011ko uztailean ospitaleak jakinarazpen bat helarazi zien langile guztiei, besteak beste ospitale barruko seinaleei eman behar zaien tratamendua gogoraraziz. Kexan ematen den informazioa egiaztatu dugu, eta oro har, anbulatorio horretako ormetan dauden errotulu gehienak ele bitan daude. Kexan aipatzen diren kartelei dagokienez, ahalik eta arinen konpontzen saiatu gara, eta dagoeneko elebidun jarri ditugu. Nolanahi ere, ahaleginak egingo ditugu horrelakorik berriro gerta ez dadin.*

Esp. Zenb.: 974-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoa: Uztailaren 17an 15:00etan OSAKIDETZAren 943.203.020 zenbakira deitutakoan ondorengo mezua atera zaio: *Arratsalde on, Buenas tardes. Si desea ser atendido en euskera, diga euskera o pulse uno. Si desea ser atendido en castellano, diga castellano o pulse dos. (...) Por favor, si desea (...)*. Ez dago mezua euskaraz entzuterik.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1049-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoa: Deustuko anbulatorioko harrera gunera joan zen abuztuaren 7an eguerdiko ordu biak aldera. Euskaraz egin eta, normalena balitz bezala, gaztelaniaz erantzun zion bertan zegoen langileak.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1051-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoa: Deustuko anbulatorioko harrera gunera joan zen abuztuaren 9an eguerdiko ordu bata aldera. Euskaraz egin eta, bertan zegoen langileak *no, no, en euskera no* esan zion eta gaztelaniaz jarraitu behar izan zuen. Nazkatuta dago, orain arte sekulan ez baitiote harrera euskaraz egin Deustuko anbulatorioan.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1060-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoa: Herritarra irailaren 11n Gurutzetako Ospitaleko webgunean gaixotasun bati buruzko informazioa lortzen saiatu zen, alabaren ikastetxera eramateko beharrezkoa baitzuen. Aipatu informazioa gaztelaniaz baino ez dago: http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-gkhcru02/eu/contenidos/informacion/hcru_ped_espasmos/eu_hcru/gurutzetako_ospitalea.html?R01HPortal=v19&R01HPage=hcru0002&R01HLang=eu

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1088-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoa: Hondarribiko osasun-etxea berritu dutenetik 943.007.640 telefonora deitu eta okupatuta badago mezu bat entzuten da telefonoa okupatuta dagoela jakinarazteko. Mezua gaztelaniaz dago. Ez du euskarazko bertsiorik.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1224-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoa: Getariako herritarrak Zumaira joan behar izan zuen uztailean haurdunaldia dela eta Osakidetzak antolatutako ikastaroak egitera. Ez dago ikastaroaren eskaintza euskaraz eta beraien kasuan zehazki, emagina euskalduna izan arren eta bertaratutako gehienak ere bai, ikastaroa gaztelaniaz izan zen.

Erantzuna: GIPUZKOA ESKUALDEKO PERTSONALEKO ZUZENDARIA: *Sentitzen dugu horrela artatu izana. Gure asmo eta betebeharren artean dago osasun zerbitzuen erabiltzaileekin ditugun jarduera eta harremanetan euskara erabiltzea. Hala ere, zenbait gairen inguruan, saio klinikoan edo nolabaiteko konplexutasuna duten gaien aurkezpenetan, agian gure formazioan euskarak izan duen presentzia urriaren ondorioz, euskaraz aritzeko kikildu egiten garela onartzen dugu. Adinean aurrera egiteak, eta hainbat materialak eskatzen duten etengabeko berrikuntzak sortutako lanak, zail egiten dute euskara txertatzeko lana ere aurrera eramatea, are gehiago gai hertsiki mediko-obstetrikotan.*

Esp. Zenb.: 1225-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoa: Getariako herritarrari umea izan ondoren egokitu zaion pediatria ez da euskalduna. Beraz, gaztelaniaz hitz egitera behartuta daude.

Erantzuna: GIPUZKOA ESKUALDEKO PERTSONALEKO ZUZENDARIA: *Gaur egun Osakidetzan lehen mailako atentzian pediatria plazak betetzeko arazo larria dugu, are gehiago pediatria elebidunak aurkitzeko. Egun Zestoak eta Getariak elkarbanatzen duten pediatria plazaren aurreko jabea lekuz aldatu eta lanpostua hutsik geratu zenean ere, euskarazko 2. hizkuntza-eskakizuna zuen peditrari ez zegoen libre kontratazio zerrendetan. Dena den, egin berri den lekualdatze lehiaketan, beharrezko hizkuntza-eskakizuna duen pediatria bati esleitu zaio plaza hori eta 2013ko urtarril-otsailean aldaketa gauzatzea espero dugu.*

Esp. Zenb.: 1278-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoa: Osakidetzak semeen peditraren aldaketa jakinarazi dio herritarrari. Herritarrak pediatria berria ea euskalduna den galdetuta, ezetz erantzun diote, Irun Erdialdeko Zentroan ez dagoela pediatria euskaldunik. Herritarrak aurrekora bueltatzeko eskatu du eta ez diote ziurtatu, erreklamazioa jarri behar baitu eta aztertuko egin behar baitute.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1327-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Osakidetzako familia-medikuek Osabide programa informatikoa erabili behar izaten dute beren jarduketan nondik norakoak jasotzeko: pazienteen historia klinikoak, alta eta baja parteak, nahiz bestelakoak. Programa gaztelania hutsean dago eta ez du euskaraz lan egiteko aukerarik eskaintzen. Familia-mediku batek Debagoieneko ESI n eskabidea aurkeztu zuen apirilean Osabide aplikazioa euskaraz nahi zuela jakinaraziz. Abenduan gauden arren ez du inolako erantzunik jaso bere eskaeraren inguruan.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1386-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Herritarrak euskaraz idatzitako erreklamazioa aurkeztu zuen Debagoieneko ospitalean. Gaztelania hutsean jaso zuen abenduaren 11n Osakidetzak hari erantzunez bidali zion jakinarazpena.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1313-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: B+I+O EUSKO FUNDAZIOA

Arrazoia: Osasun Berrikuntzarako Euskal Erakundeak gaztelaniazko zein euskarazko testuinguruetan darabilen irudi korporatiboa gaztelania hutsean dago: *o+berri / Instituto Vasco de Innovación Sanitaria / Fundación Vasca de Innovación e Investigación Sanitarias*.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1314-2012

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: B+I+O EUSKO FUNDAZIOA

Arrazoia: B+I+O EUSKO FUNDAZIOAK gaztelaniazko zein euskarazko testuinguruetan darabilen irudi korporatiboa gaztelania hutsean dago: *Osasun Ikerketaren Euskal Erakundeak o+iker / Instituto Vasco de Investigaciones Sanitarias / Fundación Vasca de Innovación e Investigación Sanitarias*.

Erantzuna:

4.10. Nafarroako Parlamentua

EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA

Esp. Zenb.:	56-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Ogasun sailetik gaztelania hutsean bidali dizkiote euskaraz lan egiten duen erakunde bati lehen hiruhilekoko PFEZ aitorpena egiteko agiriak.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	547-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Ogasun sailetik gaztelania hutsean bidali zizkioten euskaraz lan egiten duen elkarte bati lehen hiruhilekoko PFEZ aitorpena egiteko agiriak.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	548-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Ogasun sailetik gaztelania hutsean bidali zizkioten apirilaren hasieran euskaraz lan egiten duen erakunde bati lehen hiruhilekoko PFEZ aitorpena egiteko agiriak.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	549-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Zerga Ogasunak PFEZ aitorpenaren inprimakiak bidaltzeko erabiltzen dituen gutunazaletako idazpen guztiak gaztelania hutsean ageri dira: <i>Gobierno de Navarra, Hacienda Navarra, España, Franqueo pagado, Cartas</i> .
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	747-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko errotulua, Carlos III. etorbidean dauden bulegoetako, gaztelania hutsean dago. Honela dio: <i>Departamento de Economía y Hacienda</i> .
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	775-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Ogasun Departamentuaren egoitzan dauden bi errotuluak gaztelania hutsean daude: <i>Departamento de Economía y Hacienda</i> .
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	973-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Ekainaren 20an 13:45ean errenta aitorpena egiten izan ziren NAFARROAKO OGASUNAK Barañainen egokitutako bulegoan. Harrerako langileari euskaraz egin zioten eta gaztelaniaz egiteko eskatu zien. Errenta aitorpena egiteko 4 gestore zeudela ikusita, euskaraz zekienik ote zen galdetu zioten harrerakoari, baina ezetz erantzun zien. Beraz, ezin izan zuten errenta aitorpena euskaraz egin.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.: 987-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA

Arrazoa: Nafarroako Gobernuko Ogasun sailetik gaztelania hutsean bidali dizkiote euskaraz lan egiten duen erakunde bati hirugarren hiruhilekoko PFEZ aitortpena egiteko agiriak.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1025-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA

Arrazoa: Irailaren 12an Nafarroako Gobernuko Ogasun Zerbitzuan herritarrari luzatu zizkioten agiriak gaztelania hutsean zeuden. Bi agiriak herritarrak ordezkatzeko duen erakundea Ogasunarekin egunean dagoela ziurtatzeko agiriak dira.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1026-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA

Arrazoa: Herritarrek Nafarroako Gobernuko Ogasun Zerbitzuan txanda hartzeko hartu beharreko papertxoak gaztelania hutsean dago: *Hacienda Navarra. Su turno. Mostrador. Son las 11:40 del día 12/09/12*

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1027-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA

Arrazoa: Nafarroako Gobernuko Ogasun Zerbitzuko hizkuntza-paisaia osoa gaztelania hutsean dago.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1143-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA

Arrazoa: Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Idazkaritza Tekniko Orokorrek herritarrari urriaren 9an luzatutako bi ziurtagiriak gaztelania hutsean zeuden. Aipatu agiritan herritarrak ordezkatzeko duen erakundea Ekonomia eta Ogasun Departamentuarekin egunean zegoela ziurtatzen zen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1332-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA

Arrazoa: Nafarroako Ogasunean zergak telematikoki aurkezteko bi bide daude, aplikazioa eta web orria. Aplikazioa erabiliz euskaraz nahiz gaztelaniaz egin daiteke, baina zergak aurkezteko epemuga baino 3 egun lehenago helbideratu behar dira. Horrela egiten ez bada, ordainketa gutuna inprimatu eta bankura joan behar da. Baina bankura joatea ongi ez datorkienentzat, beste aukera bat dago: ogasunaren web orrian sartu, zerga-aitortpena hautatu eta hortik helbideratzeko agintzea. Web orriak euskara hautatzeko aukera ematen du itxura batean, baina bertan klikatuta ere, orriak gaztelaniaz jarraitzen du. Urrats horretatik aurrera hizkuntzaren aukera desagertu egiten da eta gaztelaniaz agertzen da dena.

Erantzuna:

GIZARTE POLITIKA, BERDINTASUN, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA

Esp. Zenb.:	18-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: GIZARTE POLITIKA, BERDINTASUN, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Legeak ezarritako eremu mistoan kokatutako Nafarroako Gobernuaren enpresa publiko batean lan egiten duen herritarrak ez zuen euskaraz jaso abenduaren 28an Gizarte-Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Kontseilariak sinatutako e-mezua, <i>Boletín Sphera nº 11 (Diciembre 2011)</i> izeneko. Mezuan zuzeneko lotura duen buletina ere gaztelaniaz baino ez dago idatzia.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	160-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: GIZARTE POLITIKA, BERDINTASUN, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuak Iruñeko Orreaga etorbidean zabaldu duen Kontsumitzaileen bulegoko errotulazioa gaztelania hutsean dago.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	241-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: GIZARTE POLITIKA, BERDINTASUN, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Familia eta Berdintasunerako Nafar Institutuak emakumeen eguna zela eta hitzaldi baterako gonbitea bidali zion posta elektronikoko bidez martxoaren 5ean. Gonbidapena gaztelania hutsean idatzita zegoen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	243-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: GIZARTE POLITIKA, BERDINTASUN, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Barañaingo herritarrak ez du euskaraz jaso <i>Agencia Navarra para la Dependencia</i> delakotik igorri dioten jakinarazpena, aitzineko dependentsia mailaren balorazio-epea bukatzeaz dela eta hurrengo balorazioa noiz eginen dioten jakinarazteko idazkia; gaztelania huts-hutsean da.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	244-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: GIZARTE POLITIKA, BERDINTASUN, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Barañaingo herritarrak ez du euskaraz jaso Arreta Goiztiarreko Zentrotik hurrengo hitzordua noiz duen jakinarazteko gutuna; gaztelania huts-hutsean da.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.: 624-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: GIZARTE POLITIKA, BERDINTASUN, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Otsaila bukaeran Mendekotasunerako Nafarroako Agentziaren gutuna jaso zuten Barañaingo herritarrek; alabaren mendekotasun-mailaren balorazioa egiteko hurrengo hitzordua noiz izanen zen eta horretarako etxean elkarrizketa eginen zietela jakinarazi zitzairen. Gutuna ez dago euskaraz idatzia, gaztelania hutsean baizik. Gutun-azala ere, Gobernuaren logoa, Departamentua, postaren zigilua, helbidea, ere gaztelaniaz baino ez daude.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 625-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: GIZARTE POLITIKA, BERDINTASUN, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Barañaingo herritarrek Arreta Goiztiarreko Zentroko gutuna jaso zuten apirilean, hurrengo hitzorduaren berri emateko. Gutuna ez dago euskaraz idatzia, gaztelania hutsean baizik.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 814-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: GIZARTE POLITIKA, BERDINTASUN, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Ekainean Barañaingo herritarrek ez du euskaraz jaso Agencia Navarra para la Dependencia delakotik igorri dioten jakinarazpena. Bertan dagoeneko ez duela mendekotasunik jakinarazi diote gaztelania huts-hutsean.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 979-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: GIZARTE POLITIKA, BERDINTASUN, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Barañaingo herritarrek ez zuen euskaraz jaso Nafarroako Mendekotasun Agentzietatik bidali zioten dokumentazioa: Ebazpena, ordainketa gutunak eta ordaintzeko bideak izeneko orria gaztelania huts hutsean zeuden. Eskabidea egin zuen agiri horiek euskaraz eskatuz eta ebazpena euskaratuta jaso bazuen ere, beste bi agiriak gaztelania hutsean helarazi zizkioten berriz ere.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1054-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: GIZARTE POLITIKA, BERDINTASUN, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Barañaingo herritarrek Agencia Navarra para la Dependencia delakoari eskaera aurkeztu zioten, gaztelaniaz jaso zituzten agiriak euskaraz igortzeko eskatuz. Iraila hasieran idazki berriak jaso dituzte herritarrek: Ebazpena euskaraz dago, baina ordainketa-gutunen 3 inprimakiak eta Ordainketa-bideak izeneko orria ez daude euskaraz.

Erantzuna:

Esp. Zenb.:	155-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: GIZARTE POLITIKA, BERDINTASUN, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO GAZTERIAREN INSTITUTUA
Arrazoia:	Otsailean Nafarroako Gazteriaren Institutuak gazteei begira argitaratzen duen aldizkaria gaztelania hutsean bidali zuten legeak ezarritako eremu euskalduneko udaletara, inolako azalpenik eman gabe.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	174-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: GIZARTE POLITIKA, BERDINTASUN, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO GAZTERIAREN INSTITUTUA
Arrazoia:	Otsailera arte Nafarroako Gazteriaren Institutuak argitaratzen duen aldizkaria ele bieran jasotzen zuen posta elektronikoz. Gaztelania hutsean bidaltzen hasi ziren eta zergatia galdetu zuenean, murrizketak zirela medio hala erabaki zutela jakinarazi zioten. Herritarra legeak ezarritako eremu mistokoa da.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	341-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: GIZARTE POLITIKA, BERDINTASUN, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO GAZTERIAREN INSTITUTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gazteriaren Institutuak legeak ezarritako eremu mistoko herritar bati bidalitako poste elektronikoa gaztelania hutsean dago. Mezu hau Nafarroa osoko jendeari heltzen zaio. Den-dena, izena, helbidea, mezua... gaztelania hutsean dago. Mezua: <i>Hola a tod@s, a partir de ahora el e-mail de contacto con nuestro servicio es este, el buzón del Dime Teléfono Joven va a ...</i>
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	621-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: GIZARTE POLITIKA, BERDINTASUN, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO GAZTERIAREN INSTITUTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gazteriaren Institutuak maiatza hasieran Agoizko herritarrari bidalitako e-posta, <i>Boletín Juvenil</i> , gaztelania hutsean dago. Mezuari atxikita Nafarroako aterpetxeei buruzko bi dokumentu daude; euskarazko dokumentuak ez du gaztelaniazkoak adina orrialde.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	622-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: GIZARTE POLITIKA, BERDINTASUN, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO GAZTERIAREN INSTITUTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gazteriaren Institutuak maiatza hasieran Agoizko herritarrari bidalitako e-postan, <i>Boletín Juvenil izenekoa</i> , sinaduran agertzen diren izendapen ofizial guztiak gaztelania hutsean daude.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	647-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: GIZARTE POLITIKA, BERDINTASUN, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO GAZTERIAREN INSTITUTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gazteriaren Institutuak maiatzeko 2. hamabostaldian Agoizko herritarrari bidalitako e-posta, <i>Información últimos cursos ENAJ 2º cuatrimestre</i> , gaztelania hutsean dago: informazioa, sinadura ofiziala...
Erantzuna:	

Esp. Zenb.:	690-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: GIZARTE POLITIKA, BERDINTASUN, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO GAZTERIAREN INSTITUTUA
Arrazoa:	Nafarroako gazteriaren Institutuak posta elektronikoko bidezko mezua bidali zion ENAJek 2. lauhilekoan antolatutako azken ikastaroen berri emateko: <i>Charla: Alimentacion y Ejercicio Físico. Curso: Competencias profesionales valoradas en el mundo laboral. Curso gratuito: Personal Branding para la inserción profesional</i> . Informazio guztia gaztelania hutsean heldu zen. Mezu mota hau Nafarroa osoko herritarrei bidaltzen zaie.
Erantzuna:	

HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Esp. Zenb.:	53-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoa:	Hezkuntza Departamentuak urtarrilaren 26an Departamentuaren buletin elektronikoa bidali zien langileei. Buletina gaztelania hutsean zegoen. Lehen, euskaraz bistartzeko aukera iradokitzen zuen buletinak, nahiz eta gero edukiak gaztelaniaz egon. Orain ezta hori ere.
Erantzuna:	<i>MODERNIZAZIO ATALA: Hezkuntza Departamentuko buletin digitala albiste bilduma bat da eta haren bitartez Nafarroako hezkuntza komunitateko kideentzako interesgarriak gerta daitezkeen berriak hedatzen dira. Aurrealdea gaztelaniaz ageri bada ere, ia berri guztiak euskaraz ere irakur daitezke albistearen barnean sartuz gero. Hau da, erabiltzaileek albisteetara iritsi nahi badute, izenburuan klikatu behar dute, eta hortik jo euskarazko edukira. Saguaren erakuslea buletinaren goialdetik pasatzen bada (posta elektronikoa eta telefonoa dauden lekutik), hori adierazten duten "para leer el contenido en euskera acceda a la noticia" hitzak ageri dira. Bestetik, Hezkuntza Departamentuko buletin elektronikoa Nafarroako Gobernuak atarian argitaratutako berriei, informazioei eta zerbitzuei hornitzen da. Atari hori plataforma eleaniztun batean oinarritzen da eta hizkuntza batean baino gehiagotan argitaratzen da. Albiste horietako asko euskaraz ere badaude. Gainera, beste webgune batzuetatik ere hartzen dira interesgarriak gerta daitezkeen berriak. Hala denean, gerta daiteke eduki horiek hizkuntza bakarrean idatzirik egotea, baina kasu horretan berri horiek argitaratu dituen unitatearen ardura da berri horiek euskaraz ere argitaratzea. Nolanahi ere, zerbitzu hobea emate aldera, webgune horien arduradunei jakinarazi zaie webgune horietan azaltzen diren eduki guztiak euskaraz ere azaldu behar direla.</i>
Esp. Zenb.:	131-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoa:	NAFARROAKO GOBERNUAK otsailaren 23an 2011/2012 Hezkuntza Bereziko Bekak eta Laguntzen deialdia argitaratu zuen Nafarroako Aldizkari Ofizialean (38. Aldizkaria). Eskaera-orría gaztelania hutsean zegoela ikusita D ereduko ikastetxe batetik Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Behar Berezietako Atalarekin harremanetan jarri ziren telefonoz, eskaera-orría euskaraz behar zutela adieraziz. Erantzuna: azken urteetan gaztelania hutsean egon dela eta ez zirela konturatu; saiatuko zirela itzulpena lehenbailehen egiten, baina ezin zutela ziurtatu ikasturte honetarako epeen barruan egonen zenik. Dokumentazioa aurkezteko azken eguna martxoaren 23a zenez, eskaera-orría gaztelania hutsean eman behar izan zieten gurasoei.
Erantzuna:	AUKERA BERDINTASUNAREN, HEZKUNTZAKO PARTE-HARTZEAREN, ETA IRAKASLEENTZAKO ARRETAREN ATALEKO ZUZENDARIA: Halaxe da, inprimakia egiten ari zen eskaera egin zuten momentuan. Hala ere, euskaratutako agiria epeak agortu aurretik (martxoaren 23an) eskura jartzeko ahalegina egingo zela jakinarazi zitzaizkien eskatzaileei. Eta halaxe izan zen, martxoaren 12an eskaini zen euskarazko bertsioa Nafarroako Gobernuak www.navarra.es atariaren bidez. Nahi izanez gero herritarrek eskabidea nahi zuten moduan aurkezteko aukera izan zuten.

Esp. Zenb.:	230-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Hezkuntza Departamentuak otsailaren 29an legeak ezarritako eremu mistoko herritar bati bidalitako posta elektronikoa, Beatriz Ayerra Gamboak bidalia, gaztelania hutsean zegoen. Postaren gaia: <i>Concurso de traslados de ámbito autonómico para el personal funcionario de los cuerpos docentes no universitarios 2011/2012.</i>
Erantzuna:	GIZA BALIABIDEEN ZERBITZUKO ZUZENDARIA: <i>18/1986 Foru Legea garatzen duen 29/2003 Foru Dekretuaren bidez arautzen da euskararen erabilera Nafarroako Administrazio Publikoetan. Dekretuko 15.1.artikuluari xedatzen da egoitza eremu mistoan duten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko zerbitzuetatik eremu euskalduneko pertsona fisiko nahiz juridikoei igortzen zaizkien komunikazio eta jakinarazpenak gaztelaniaz aginen direla, non eta interesdunak espresuki euskara erabiltzea hautatzen ez duten, orduan ele bitan egiten ahalko direlarik. Horrenbestez zehaztapen hori eremu euskalduneko hartzaileei bidaltzen zaizkien komunikazio edo jakinarazpenei soilik dagokie. Kexan kexa egilea eremu mistoan bizi dela besterik ez da esaten. Era berean, ez da esaten interesdunak euskara espresuki erabiltzea eskatu zuen ala ez. Beraz, eskura ditugun datuen arabera ez dira 18/1986 Legeak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak urratu, eta ez da 29/2003 Foru Dekretuan agindutakoa bete gabe utzi. Behatokiaren oharra: Erantzun honetan aipatzen den 29/2003 Dekretuko 15.1. artikulua epai irmo bidez baliogabetuta dago.</i>
Esp. Zenb.:	231-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Hezkuntza Departamentuak otsailaren 29an legeak ezarritako eremu mistoko biztanle bati bidalitako posta elektronikoa, Jesús M ^a Pastor de Luis jaunak bidalia, gaztelania hutsean zegoen. Postaren gaia: <i>Reunión en el Departamento de Educación.</i>
Erantzuna:	HEZKUNTZA ANTOLAMENDUAREN ETA BERRIKUNTZAREN ZERBITZUKO ZUZENDARIA: <i>Zerbitzu honek Departamentuaren egoitzan bilera egiteko deia egin zuen. Bidalitako komunikazioa gaztelaniaz egin zen, herritarrek adierazi bezala, baina kontuan hartu behar da komunikazioak premia handia zuela eta hura egiteko denbora gutxi zegoela. Gainera, pertsona ezberdinak deitu behar izan ziren erabilgarri zeuden euskarrien bidez. Bestetik, eremu mistoko biztanleei zuzendutako posta elektronikoak edo baliokideak diren komunikazioak itzuli gabe bidal daitezke. Ez da beraz legea urratu.</i>
Esp. Zenb.:	264-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Hezkuntza Departamentuko Giza-baliabideen zerbitzuko zuzendariak ez du euskaraz igorri ikastetxe eta sindikatuetera <i>Actos Públicos de Personal Docente</i> izeneko iragarkia. Hezkuntza Departamentuaren logoa eta helbidea ere gaztelaniaz baino ez daude.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	265-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	2012-2013 ikasturterako irakasleen lantokiak esleitzeko ekitaldiei buruzko informazioa zintzilikatzeko fitxa sortu dute www.educacion.navarra.es webgunean. Oraindik ez dute datei buruzko informaziorik txertatu, baina dagoen informazioa gaztelaniaz baino ez dago. Bertzeak bertze, eskuragarri jarri duten inprimaki bakarra.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.:	307-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Hezkuntza Departamentuko Deialdien Saileko buruak martxoaren 1ean Iruñeko biztanle bati bidalitako posta elektronikoa gaztelania hutsean zegoen. Postaren gaia: <i>Resolución 501/2012 de 28 de febrero.</i>
Erantzuna:	GIZA BALIABIDEEN ZERBITZUKO ZUZENDARIA: <i>Giza Baliabideen Zerbitzuko Deialdien Ataleko Buruak posta elektronikoko mezua bidali zuen otsailaren 28an, Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetara, Bigarren Hezkuntzako Institutuetara, Hezkuntza Departamentuko langileen helbideetara, eta erakunde sindikaletara, Departamentuaren web orrian 501/2012 Ebazpena argitaratu zela jakinaraziz. Deialdien atalak goian adierazitako organoei soilik bidaltzen dizkie mezu horiek, inoiz ere ez norbanakoei. 18/1986 Foru Legea garatzen duen 29/2003 Foru Dekretuaren bidez arautzen da euskararen erabilera Nafarroako Administrazio Publikoetan. Dekretuko 14.1. artikulua xedatzen du, eremu mistoko administrazio publikoek eta haiei lotutako zuzenbide publikoko entitateek elkarri edo eremu euskaldunekoei igortzen dizkieten agiri, jakinarazpen edo komunikazio administratiboak ele bitan izan ahalko dira, euskarri bakarrean, baina gaztelaniaz izan beharko dute hizkuntza bakarra erabiliz gero. Beraz, eskura ditugun datuen arabera ez dira 18/1986 Legeak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak urratu, eta ez da 29/2003 Foru Dekretuan agindutakoa bete gabe utzi.</i>
Esp. Zenb.:	357-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Hezkuntza Departamentuko Deialdien Saileko Buruak martxoaren 28an Iruñeko biztanle bati bidalitako posta elektronikoa eta atxikitako dokumentua gaztelania hutsean zeuden.
Erantzuna:	GIZA BALIABIDEEN ZERBITZUKO ZUZENDARIA: <i>Giza Baliabideen Zerbitzuko Deialdien Ataleko Buruak posta elektronikoko mezua bidali zuen martxoaren 27an, Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetara, Bigarren Hezkuntzako Institutuetara, Hezkuntza Departamentuko langileen helbideetara, eta erakunde sindikaletara, Departamentuaren web orrian 501/2012 Ebazpena argitaratu zela jakinaraziz. Deialdien atalak goian adierazitako organoei soilik bidaltzen dizkie mezu horiek, inoiz ere ez norbanakoei.</i>
Esp. Zenb.:	426-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Hezkuntza Departamentuko Deialdien Saileko Buruak apirilaren 2an Nafarroako sindikatuei bidalitako posta elektronikoa gaztelania hutsean zegoen. Postaren gaia: <i>Listados provisionales personal contratado docente acreditado y no acreditado perfiles específicos.</i>
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	427-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Hezkuntza Departamentuko Deialdien Saileko Buruak apirilaren 2an Nafarroako sindikatuei bidalitako posta elektronikoa gaztelania hutsean zegoen. Postaren gaia: <i>Resolución definitiva del Concurso de traslados de maestros y profesores de EE.MM.</i>
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	526-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketako zerbitzuak herritarrari bidalitako gutun-azaleko logo eta helbide guztiak gaztelania hutsean zeuden.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.: 527-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Hezkuntza Departamentuko appsmail@educacion.navarra.es helbide elektronikotik apirilaren 4an Iruñeko erakunde euskaldun bateko ordezkariari bidalitako informazioa gaztelania hutsean zegoen, mezuaren goiko aldean euskara esteka agertzen bada ere. Gaia: *Hezkuntza Departamentuko buletina* .

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 601-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak buletin elektronikoa bidali zion apirilaren 20an hezkuntzako erakunde bati. Buletina gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 604-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak gaztelania hutsean bidali zion sindikatu bati apirilaren 20ko NAOn argitaratuko zen ebazpena iragartzeko mezu elektronikoa.

Erantzuna: *GIZA BALIABIDEEN ZERBITZUKO ZUZENDARIA: 18/1986 Foru Legea garatzen duen 29/2003 Foru Dekretuaren bidez arautzen da euskararen erabilera Nafarroako Administrazio Publikoetan. Dekretuko 15.1. artikuluan xedatzen da egoitza eremu mistoan duten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko zerbitzuetatik eremu euskalduneko pertsona fisiko nahiz juridikoei igortzen zaizkien komunikazio eta jakinarazpenak gaztelaniaz aginen direla, non eta interesdunak espresuki euskara erabiltzea hautatzen ez duten, Orduan ele bitan egiten ahalko direlarik. Horrenbestez, zehaztapen hori eremu euskalduneko hartzaileei bidaltzen zaizkien komunikazio edo jakinarazpenei soilik dagokie. Kexan kexa egilea eremu mistoan bizi dela besterik ez da esaten. Era berean, ez da esaten interesdunak euskara espresuki erabiltzea eskatu zuen ala ez. Beraz, eskura ditugun datuen arabera ez dira 18/1986 Legeak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak urratu, eta ez da 29/2003 Foru Dekretuan agindutakoa bete gabe utzi. Behatokiaren oharra: Erantzun honetan aipatzen den 29/2003 Dekretuko 15.1. artikulua epai irmo bidez baliogabetuta dago.*

Esp. Zenb.: 605-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak gaztelania hutsean bidali zion sindikatu bati, maisu-maistren kidegoko espezialitateen inguruan apirilaren 20ko NAOn argitaratuko zen ebazpenari buruzko mezua. Mezuan ebazpenaren edukia aurreratzen zen. Mezuari atxikitako fitxategian ebazpena heldu zen, hura ere gaztelania hutsean.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 609-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak gaztelania hutsean bidali zion sindikatu bati posta elektronikoa bidez 801/2012 Ebazpenaren aurrerapena.

Erantzuna: GIZA BALIABIDEEN ZERBITZUKO ZUZENDARIA: *18/1986 Foru Legea garatzen duen 29/2003 Foru Dekretuaren bidez arautzen da euskararen erabilera Nafarroako Administrazio Publikoetan. Dekretuko 15.1. artikuluan xedatzen da egoitza eremu mistoan duten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko zerbitzuetatik eremu euskalduneko pertsona fisiko nahiz juridikoei igortzen zaizkien komunikazio eta jakinarazpenak gaztelaniaz aginen direla, non eta interesdunak espresuki euskara erabiltzea hautatzen ez duten, Orduan ele bitan egiten ahalko direlarik. Horrenbestez zehaztapen hori eremu euskalduneko hartzaileei bidaltzen zaizkien komunikazio edo jakinarazpenei soilik dagokie. Kexan kexa egilea eremu mistoan bizi dela besterik ez da esaten. Era berean, ez da esaten interesdunak euskara espresuki erabiltzea eskatu zuen ala ez. Beraz, eskura ditugun datuen arabera ez dira 18/1986 Legeak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak urratu, eta ez da 29/2003 Foru Dekretuan agindutakoa bete gabe utzi.* Behatokiaren oharra: Erantzun honetan aipatzen den 29/2003 Dekretuko 15.1. artikulua epai irmo bidez balio gabetuta dago.

Esp. Zenb.: 615-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak gaztelania hutsean bidali zizkion sindikatu bati maiatzaren 1ean Hezkuntzako web orrian argitaratzekoa zen 2012-2013 ikasturtean aldi baterako kontratazioari eta hornitze zaileko lanpostuei alde aurretik uko egitearen inguruko informazioa jakinarazteko mezu elektronikoa eta atxikitako fitxategia.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 616-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak buletin elektronikoa bidali zion apirilaren 23an hezkuntzako sindikatu bati. Buletina gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 627-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak gaztelania hutsean bidali zion apirilaren 26an mezu elektronikoa irakaskuntzako sindikatu bati.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 637-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko lan deialdien ataleko buruak gaztelania hutsean bidali zion sindikatu bati apirilaren 30ean iragarki oholean eta Departamentuaren web-orrian argitaratutakoen berri ematen zuen mezu elektronikoa.

Erantzuna: GIZA BALIABIDEEN ZERBITZUKO ZUZENDARIA: *18/1986 Foru Legea garatzen duen 29/2003 Foru Dekretuaren bidez arautzen da euskararen erabilera Nafarroako Administrazio Publikoetan. Dekretuko 15.1. artikuluan xedatzen da egoitza eremu mistoan duten Nafarroako Foru Komunitateko Administraziozko zerbitzuetatik eremu euskalduneko pertsona fisiko nahiz juridikoei igortzen zaizkien komunikazio eta jakinarazpenak gaztelaniaz aginen direla, non eta interesdunak espresuki euskara erabiltzea hautatzen ez duten, Orduan ele bitan egiten ahalko direlarik. Horrenbestez zehaztaper hori eremu euskalduneko hartzaileei bidaltzen zaizkien komunikazio edo jakinarazpenei soilik dagokie. Kexan kexa egilea eremu mistoan bizi dela besterik ez da esaten. Era berean, ez da esaten interesdunak euskara espresuki erabiltzea eskatu zuen ala ez. Beraz, eskura ditugun datuen arabera ez dira 18/1986 Legeak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak urratu, eta ez da 29/2003 Foru Dekretuan agindutakoa bete gabe utzi. Behatokiaren oharra: Erantzun honetan aipatzen den 29/2003 Dekretuko 15.1. artikulua epai irmo bidez baliogabetuta dago.*

Esp. Zenb.: 657-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak gaztelania hutsean bidali zien Nafarroako ikastetxe publikoetako zuzendariari hezkuntza alorrean gastu publikoa murrizteko premiazko neurriak ezartzen dituen 14/2012 Errege Dekretua aztertzen ari zirela, eta DBHko, formazio-ziklo eta prestakuntza ikastaroko ikasleak onartzeko prozesua eta egutegia aldi baterako baliogabetuta zeudela jakinarazteko mezu elektronikoa.

Erantzuna: **ESKOLATZE-ARLOKO KOORDINATZAILEA:** *Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak gaztelaniaz bidali zien mezu elektronikoa Nafarroako ikastetxe publikoetako zuzendariari, Hezkuntzako Zuzendari nagusiak emandako 128/2012 Ebazpenean ezarritako ikasleak onartzeko egutegia aldi baterako bertan behera uzten zela jakinaraziz, hezkuntza arloko gastu publikoa murrizteko premiazko neurriak ezartzen zituen 14/2012 Errege Dekretua argitaratu izanagatik. Bat bateko egoerari erantzun beharrak ez zuen erraztu ikastetxeei informazioa bi hizkuntzetan helaraztea. Hala ere, Eskolatzeko Arloak jakinarazi nahi du bi hizkuntzetan bidali zuela egutegia berrabiarazi zela jakinarazteko mezua, eta Eskolatzeko Arloaren ohiko jardunean bi hizkuntzak erabiltzen direla herritarrekin, bai ahozko, bai idatzizko komunikazioan. Nolanahi ere, Hezkuntza Departamentuko Estola Arloak ahalegina egingo du kexan salatutakoa bezalako egoerak berriz ez gertatzeko.*

Esp. Zenb.:	658-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak gaztelania hutsean bidali zion maiatzaren hasieran hezkuntzako eragile bati hezkuntza departamentuaren berripaper elektronikoa.
Erantzuna:	<i>MODERNIZAZIO ATALA: Hezkuntza Departamentuko buletin digitala albiste bilduma bat da eta haren bitartez Nafarroako hezkuntza komunitateko kideentzako interesgarriak gerta daitezkeen berriak hedatzen dira. Aurrealdea gaztelaniaz ageri bada ere, ia berri guztiak euskaraz ere irakur daitezke albistearen barnean sartuz gero. Hau da, erabiltzaileek albisteetara iritsi nahi badute, izenburuan klikatu behar dute, eta hortik jo euskarazko edukira. Saguaren erakuslea buletinaren goialdetik pasatzen bada (posta elektronikoa eta telefonoa dauden lekutik), hori adierazten duten "para leer el contenido en euskera acceda a la noticia" hitzak ageri dira. Bestetik, Hezkuntza Departamentuko buletin elektronikoa Nafarroako Gobernuko atarian argitaratutako berriez, informazioez eta zerbitzuez hornitzen da. Atari hori plataforma eleaniztun batean oinarritzen da eta hizkuntza batean baino gehiagotan argitaratzen da. Albiste horietako asko euskaraz ere badaude. Gainera, beste webgune batzuetatik ere hartzen dira interesgarriak gerta daitezkeen berriak. Hala denean, gerta daiteke eduki horiek hizkuntza bakarrean idatzirik egotea, baina kasu horretan berri horiek argitaratu dituen unitatearen ardura da berri horiek euskaraz ere argitaratzea. Nolanahi ere, zerbitzu hobea emate aldera, webgune horien arduradunei jakinarazi zaie webgune horietan azaltzen diren eduki guztiak euskaraz ere azaldu behar direla.</i>

Esp. Zenb.:	689-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak buletin elektronikoa bidali zion maiatzaren 18an hezkuntzako eragile bati. Buletina gaztelania hutsean zegoen.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.:	692-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoa:	Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko lan deialdien ataleko buruak gaztelania hutsean bidali zion sindikatu bati maiatzaren 21ean iragarki oholean eta Departamentuaren web-orrian argitaratuko zenaren berri ematen zuen mezu elektronikoa.
Erantzuna:	<p>GIZA BALIABIDEEN ZERBITZUKO ZUZENDARIA: 18/1986 Foru Legea garatzen duen 29/2003 Foru Dekretuaren bidez arautzen da euskararen erabilera Nafarroako Administrazio Publikoetan. Dekretuko 15.1. artikuluan xedatzen da egoitza eremu mistoan duten Nafarroako Foru Komunitateko Administraziozko zerbitzuetatik eremu euskalduneko pertsona fisiko nahiz juridikoei igortzen zaizkien komunikazio eta jakinarazpenak gaztelaniaz aginen direla, non eta interesdunak espresuki euskara erabiltzea hautatzen ez duten, Orduan ele bitan egiten ahalko direlarik. Horrenbestez zehaztaper hori eremu euskalduneko hartzaileei bidaltzen zaizkien komunikazio edo jakinarazpenei soilik dagokie. Kexan kexa egilea eremu mistoan bizi dela besterik ez da esaten. Era berean, ez da esaten interesdunak euskara espresuki erabiltzea eskatu zuen. Beraz, eskura ditugun datuen arabera ez dira 18/1986 Legeak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak urratu, eta ez da 29/2003 Foru Dekretuan agindutakoa bete gabe utzi. Behatokiaren oharra: Erantzun honetan aipatzen den 29/2003 Dekretuko 15.1. artikulua epai irmo bidez baliogabetuta dago.</p>

Esp. Zenb.:	781-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	2011-12 ikasturte hasieran Zizurko Institutuko DBHko Espainiar hizkuntza eta Literaturako irakasleak (tutorea ere bazen) baja hartu zuen ikasturte hasieran. Denbora luze bat pasa eta gero, ordezeko irakaslea bidali zuten, erdalduna bera, nahiz eta Institutua D eredukoa izan. Ikasturte osoan istiluak sortu dira irakaslearen eta bere ikasleen artean. Irakasle honen ustez, ikasleek bere aurrean euskaraz hitz egitea errespetu falta da.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	905-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak irailean herritarrari sinatzeko luzatu zion kontratua eta honen bukaeraren berri ematen zion jakinarazpena gaztelania hutsean zeuden.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	968-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Hezkuntza Departamentuak irailaren 24an hezkuntzaKO eragile bati bidalitako posta elektronikoa eta honi erantsitako dokumentuak gaztelania hutsean zeuden. Aipatu dokumentuetan erabilitako logoak eta zigiluak ere gaztelania hutsean zeuden. Gaia: <i>elaboración BBRR y Convocatoria</i> .
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1078-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Herritarrak gaztelania hutsean jaso zituen Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Gaikuntza Profesionalen atalak bidalitako inkesta eta haren inguruko azalpenak ematen zituen jakinarazpena.
Erantzuna:	<i>LANBIDE HEZIKETAKO ZERBITZUKO ZUZENDARIA: Kexan aipatzen den inkesta agiri osagarria eta borondatezkoa da, gaitasun profesionala egiaztatze prozeduran parte hartu duten pertsonen prozedurari buruz duten iritzia ezagutzeko sortutakoa. Egiaztatze prozedura horren deialdia Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Unibertsitate Zuzendari Nagusiaren abenduaren 14ko 313/2011 Ebazpenaren bidez egin zen. Lanbide ezberdinetako profesionalei zuzendua zen eta Nafarroa osoan aplikatzekoa. Egiaztatze prozedurak burutzeko izendatutako ikastetxeetako batzuk eremu euskaldunean zeuden (IES Lekaroz-Elizondo BHI, IES San Miguel de Aralar II-Aralarko Mikel Donea II BHI, IES Adaptación Social eta Iturrondo Ikastetxea). Alabaina, horrek ez du esan nahi haien eragin eremuko eskaera soilik hartu behar zutenik, berez, oinarri arautzaileen eta eskatzaileen baremaziorako sistemaren ondorioz, gerta zitekeen Tuterako pertsona batek prozedura Elizondon burutu behar izatea, edo Altsasuko herritarrak Azkoienara joan behar izatea, gertatu ere gertatu zelarik antzeko kasurik. Prozesuko agiri guztiak, bai nahitaezkoak zein borondatezkoak, gaztelania hutsean idatzi ziren. Kexan aipatzen den agiria, ordea, ez zen ofiziala, hartzaileak borondatez bete beharrekoa baizik. Bukatzeko, galdetegia erantzuteko gurutze bat markatu behar zen 1etik 4ra zenbatutako laukitxoetan. Bestelako iruzkinak egiteko aukera eskaintzen zen.</i>

Esp. Zenb.:	1136-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuak irailean Barañaingo herritarrari sinarazi zion kontratua gaztelania hutsean zegoen. Herritarrak galdetu zuen euskarazko bertsiorik zegoen eta ezetz erantzun zioten. Beraz, hori sinatu behar izan zuen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1137-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuak irailean Barañaingo herritarrari luzatu zion <i>Ficha informativa</i> delako agiria gaztelania hutsean zegoen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1155-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Hezkuntza Departamentuko Ana Luengo Benedicto andreak Nafarroako hezkuntzako eragile bati urriaren 18an bidalitako posta elektronikoa gaztelania hutsean zegoen. Postaren gaia: <i>Cambio de fecha mesa de padres y madres.</i>
Erantzuna:	HEZKUNTZAKO PARTE-HARTZEAREN, IRAKASLEENTZAKO ARRETAREN ETA BIZIKIDETZAREN ATALEKO BURUA: <i>Gurasoen Mahaiko kide desberdinei aurretik bidalitako mezu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita zeuden, baita erantsitako agiriak ere. Kexaren xede zen mezua presaz bidali zen, eta arrazoi teknikoak direla medio, gaztelaniaz bakarrik bidali zen. Bestetik, federazioari bidalitako erantzuna euskara hutsean zegoela egiazta daiteke, eta horrek kexa eragin duen egintzan ez dela dolorik izan frogatzen du. Hala ere barkamena eskatzen dugu eta, beti bezala, euskaldunen eskubideak aintzat hartzen jarraituko dugu.</i>
Esp. Zenb.:	1156-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako hezkuntzako eragile batek urriaren 17an Hezkuntza Departamentutik secinnedu@cfnavarra.es jasotako posta elektronikoa gaztelania hutsean zegoen. Postaren gaia: Ayudas en favor de federaciones de asociaciones de padres de alumnos.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1208-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Hezkuntza Departamentuak urriaren 17an Nafarroako hezkuntzako eragile bati idazteko erabili duen gutun-azalaren logoa (<i>Gobierno de Navarra</i>) eta inprimakiaren logoak (<i>Gobierno de Navarra-Departamento de Educación. Secretaría General Técnica</i>) gaztelania hutsean zeuden. Gutun-azaleko helbidea ere (<i>Pamplona</i>) gaztelania hutsean zegoen.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.: 1209-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Tekniko Orokorrak urriaren 17an Nafarroako hezkuntzako eragile bati bidalitako jakinarazpena gaztelania hutsean zegoen. Jakinarazpenaren gaia: *Ayudas en favor de federaciones de asociaciones de padres y madres alumnos 2012.*

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1220-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Hezkuntza Departamentuak Nafarroako hezkuntzako eragile bati aldiro bidaltzen dion aldizkari elektronikoaren (*Boletín Educación noticias*) azal osoa gaztelania hutsean dago. Euskaraz irakurri ahal izateko berri bakoitzaren estekan zapaldu behar da. Lehenengo irudian ez da euskaraz ezer agertzen.

Erantzuna: HEZKUNTZAKO PARTE-HARTZEAREN, IRAKASLEENTZAKO ARRETAREN ETA BIZIKIDETZAREN ATALEKO BURUA: *Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren boletín Educación Noticias buletinaren azala gaztelaniaz dator, salbu eta euskarazko legenda bat, zeinean azaltzen den nola jo daitekeen euskarazko berrietara. Ez dugu lege urraketarik egiten eta garrantzitsuena da dokumentua bi hizkuntzetan egon badagoela.*

Esp. Zenb.: 1226-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Hezkuntza Departamentuko Parte-hartzearen, Irakasleentzako Arretaren eta Bizikidetzaren Ataleko buruak Nafarroako hezkuntzako eragile bati urriaren 22an bidalitako posta elektronikoa gaztelania hutsean zegoen. Gaia: *Reunión mesa de padres y madres 24 octubre.*

Erantzuna: HEZKUNTZAKO PARTE-HARTZEAREN, IRAKASLEENTZAKO ARRETAREN ETA BIZIKIDETZAREN ATALEKO BURUA: *Gurasoen Mahaiko kide desberdinei aurretik bidalitako mezu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita zeuden, baita erantsitako agiriak ere. Kexaren xede zen mezua presaz bidali zen, eta arrazoi teknikoak direla medio, gaztelaniaz bakarrik bidali zen. Bestetik, federazioari bidalitako erantzuna euskara hutsean zegoela egiazta daiteke, eta horrek kexa eragin duen egintzan ez dela dolorik izan frogatzen du. Hala ere, barkamena eskatzen dugu eta, beti bezala, euskaldunen eskubideak aintzat hartzen jarraituko dugu.*

Esp. Zenb.: 1280-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Hezkuntza Departamentuak igortzen duen buletinean, gaztelaniazko bertsioan sartu ezean, ezinezkoa da berriak euskaraz irakurtzea.

Erantzuna: HEZKUNTZAKO PARTE-HARTZEAREN, IRAKASLEENTZAKO ARRETAREN ETA BIZIKIDETZAREN ATALEKO BURUA: *Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren boletín Educación Noticias buletinaren azala gaztelaniaz dator, salbu eta euskarazko legenda bat, zeinean azaltzen den nola jo daitekeen euskarazko berrietara. Legea betetzen ari gara eta garrantzitsuena da dokumentua bi hizkuntzetan egon badagoela.*

Esp. Zenb.: 1286-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Hezkuntza Departamentuko Irakasleriari Laguntzeko Zentroak (CAP) azaroaren 15ean ikastetxeetara bidalitako posta elektronikoko dokumentua gaztelania hutsean zegoen. Gaia: *Convocatoria curso grabación audiovisual digital.*

Erantzuna: 1. erantzuna: IRAKASLERIARI LAGUNTZEKO ZENTROKO IDAZKARITZA: *Egia da deialdi hori gaztelaniaz bidali zela, baina handik egun gutxira euskarazko bertsioa berbidali zen.* 2. erantzuna: PRESTAKUNTZA ETA KALITATE ATALEKO BURUA: *Kexan aipatzen den ikastaroa Iruñean burutu zen. 29/2003 Foru Dekretuak euskararen erabilera Nafarroako Administrazio Publikoetan arautzen duenak, II. Tituluan, euskara administrazioan delakoan, xedatzen da Eremu Mistoan eremu mistoko pertsona fisiko edo juridikoek erabiltzeko inprimaki eta formularioetan, gaztelaniaz edo ele bietan idatzitako agiriak erabili ahalko direla, eta 16. artikulua dio, Xedapenak, oharrak, argitalpenak, iragarkiak eta mota guztietako publizitatea gaztelaniaz izanen direla. Hala ere, 16. artikulua 3. atalean xedatzen da, aurreko idatz-zatian ezarritakoa galarazi gabe, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko zerbitzu nagusiek biztanle guztientzat egiten dituzten informazio foiletoak, kanpainetako material grafikoa, argitalpenak edo antzeko idazkiak gaztelania hutsean, edo edizio bakar elebidunean, edo gaztelania eta euskarazko edizio bereizietan idatzita egon ahalko direla, kasuen arabera, argitalpenaren arduraren duen Departamentuko kontseilari titularren erabakiari jarraikiz. Ikus-entzunezko grabazio digitala ikastaroaren kasuan deialdia euskaraz eta gaztelaniaz egin zen. Amaitzeko, ohartarazi nahi dugu Hezkuntza Departamentuak antolatutako eta eremu mistoan burutzen diren formazio-jardueren deialdi guztiak euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzen direla beti.*

Esp. Zenb.: 1288-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Hezkuntza Departamentuko Baliabide ekonomikoen zerbitzuko zuzendariak azaroaren 8an Nafarroako Ikastetxeetara bidalitako dokumentua, non egoera ekonomikoaren berri eskatzen zitzairen, gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna: BALIABIDE EKONOMIKOEN ZERBITZUKO ZUZENDARIA: *159/1988 Foru Dekretuak arautzen du Nafarroako Irakaskuntza ez unibertsitarioan euskararen eta euskarazko irakaskuntza sartzea, eta bertan xedatzen da Nafarroako Hezkuntza Administrazioak eta haren menpeko ikastetxe publikoek bi hizkuntzak erabili ahal izango dituztela haien arteko barne harremanetan, eta ez du inolako betebeharririk ezartzen bata zein bestearen erabilerari dagokionez. Kasu honetan, eskaera premiazkoa zenez gaztelaniaz soilik bidaltzea erabaki zen. Hala ere, beste kasu batzuetan jakinarazi izan den bezala, kasu batzuetan sortu ziren zalantzak ikusita, telefonozko harremana euskaraz egin zuten ikastetxeetako ordezkariak euskaraz egin zieten arreta Departamentuko langileek. Beraz, gure iritziz, ez da inongo legerik urratu.*

Esp. Zenb.: 1414-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: HEZKUNTZA kontseilariak 2012ko Gabonak zoriontzeko abenduaren 20an bidalitako posta elektronikoa gaztelania hutsean zegoen. Mezuaren gaia: *FELIZ NAVIDAD!*

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1433-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Hezkuntza Departamentuak herritarra kontratatu zuen. Luzatu zioten kontratua eta ikastetxean aurkeztu beharreko fitxa gaztelania hutsean zeuden. Herritarrak honen inguruko kexa jarri zuen, euskaraz idatzita kexa bera ere. Hezkuntza Departamentuak abenduaren 7an kexari emandako erantzuna gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1436-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Hezkuntza Departamentuko Deialdien Ataleko buruak Nafarroako sindikatuei abenduaren 21ean bidalitako posta elektronikoa gaztelania hutsean zegoen. Gaia: 2747/2012, abenduaren 10eko ebazpenaren aldaketa.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1437-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Hezkuntza Departamentuko Deialdien Ataleko buruak Nafarroako sindikatuei abenduaren 21ean bidalitako posta elektronikoa erantsita zuen loturak gaztelaniazko informazioa besterik ez zuen ematen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1513-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: D ereduan ikasi nahi duten legeak ezarritako Nafarroako eremu ez-euskalduneko ikasle askok beren herritik kanpora joan behar dute eta gurasoek beren gain hartu behar dituzte garraio eta jantokiko gastuak.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 614-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA. ESKOLA KONTSEILUA

Arrazoia: Nafarroako Eskola Kontseiluak gaztelania hutsean bidali zion apirilaren 25ean hezkuntzako eragile bati Eskola Kontseiluaren XIII. Jardunaldien berri ematen zuen mezu elektronikoa.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 656-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA. ESKOLA KONTSEILUA

Arrazoa: Nafarroako Eskola Kontseiluak gaztelania hutsean bidali zion sindikatu bati XIII. Jardunaldia maiatzaren 19an eginen zela jakinarazteko mezu elektronikoa. Mezuan, informazioa zabaltzeko eskaera egiten zitzaien.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 721-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA. ESKOLA KONTSEILUA

Arrazoa: Erakunde bateko ordezkariak pasa den maiatzean Nafarroako Eskola Kontseiluak antolaturiko *Factores para el éxito escolar* jardunaldiak iragartzeko jaso zuen kartela gaztelania hutsean zegoen, euskarazko bertsioa egon bazegoen, arren.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 784-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA. ESKOLA KONTSEILUA

Arrazoa: Nafarroako Eskola Kontseiluak consejo.escolar@cfnavarra.es posta elektronikotik hezkuntzako eragile bati ekainaren 6an bidalitako posta gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 785-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA. ESKOLA KONTSEILUA

Arrazoa: Nafarroako Eskola Kontseiluak consejo.escolar@cfnavarra.es posta elektronikotik hezkuntzako eragile bati irailaren 3an bidalitako posta (petición datos INSE 11/12) eta betetzekoa zen erantsitako dokumentua gaztelania hutsean zeuden.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 909-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA. ESKOLA KONTSEILUA

Arrazoa: Nafarroako Eskola Kontseiluak Nafarroako hezkuntzako eragile bati irailaren 3an bidalitako posta elektronikoa eta bete beharreko dokumentua gaztelania hutsean zeuden. Gaia: *petición datos INSE 11/12*.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1289-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA. ESKOLA KONTSEILUA

Arrazoa: Nafarroako Eskola Kontseiluak azaroaren 13an hezkuntzako eragileei bidalitako posta elektronikoa gaztelania hutsean zegoen. Gaia: *Jornada participación de los padres*.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1290-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA. ESKOLA KONTSEILUA

Arrazoa: Nafarroako Eskola Kontseiluak azaroaren 8an hezkuntzako eragileei bidalitako posta elektronikoa eta erantsita zegoen gonbidapena gaztelania hutsean zeuden. Gaia: *Carta invitación jornadas*.

Erantzuna:

Esp. Zenb.:	670-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA. PABLO SARASATE KONTSERBATORIOA
Arrazoa:	Pablo Sarasate kontserbatorioko zuzendariak Eskolarteko I. Musika Topaketarako gonbidapena helarazi zion maiatzaren erdialdean Nafarroako parlamentari bati.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1044-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA. EOIDNA
Arrazoa:	EOIDNaren (Urrutiko Hizkuntza Eskola) webgunean sartu da herritarra eta bi hizkuntzatan bistartzeko aukera ematen duen arren, euskarazkoan klikatuz gero, ez da inolako aldaketarik ematen. Informazioa gaztelania hutsean dago batean zein bestean.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1166-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA. IRUÑEKO PLANETARIOA
Arrazoa:	Iruñeko Udaletxe plazan dagoen turistendako informazio puntuan ezin izan zuen euskaraz eskuratu <i>Date un baño de estrellas en el Planetario</i> esku-orria.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1245-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA. IRUÑEKO PLANETARIOA
Arrazoa:	Herritarrak Iruñeko Planetarioan azaroaren 10ean ikusitako erakusketako kartel askok mota askotako akatsak zituzten: gramatikalak, semantikoak...
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	292-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA. ALTSASUKO BHBI INSTITUTUA
Arrazoa:	Maiatzaren 18an Altsasuko Aralarko Mikel Donea Institutuko Batxilergoko 1. mailako letretako D ereduko eta A ereduko taldeak elkarrekin joan ziren Estibalizko monasterioa eta Gasteizko katedrala bisitatzera. Estibalizko monasterioko gidaria azalpenak euskaraz ematen hasi zen. Institutuko irakasle batek euskaraz ulertzen ez zuten ikasleak bazirela eta gaztelaniaz egiteko eskatu zion. Ondorioz, handik aurrerako azalpen guztiak gaztelaniaz jaso zituzten. Gasteizko katedralean, berriz, bi talde egin zituzten, baina D ereduko ikasleak gehiago zirenez, haietako batzuk A ereduko ikasleekin batu zituzten gaztelaniaz gidatutako bisita egiteko.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1351-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA. ALTSASUKO BHBI INSTITUTUA
Arrazoa:	Altsasuko Aralarko Mikel Donea Institutuan Nafarroako historiaren inguruko hitzaldia antolatu zuten abenduaren 4an, DBH4ko eta Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleentzat. Ikasle gehienak euskaldunak izan arren, hitzaldia gaztelaniaz eman zen antolatzaileek D eta A ereduko ikasleak elkartzea erabaki zutelako. Ikasleei galderak euskaraz egiteko aukera eskaini zitzaizen, baina ez gehiago.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.: 93-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA. NUP

Arrazoa: Nafarroako Unibertsitate Publikoko Sario eraikinean dagoen kafetegira joan da bi astez, egunero. Euskaraz eskatu eta gaztelaniaz egitera behartu dute, nahiz eta ulertu beharreko bakarra *kafesne bat, mesedez* edo *zenbat* ? besterik ez izan.

Erantzuna: IRAKASKUNTZAKO ERREKTOREORDEA: *Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta unibertsitateko langileek ez dute Sario kafetegiko zerbitzua ematen. Ostalaritzan aritzen den eta unibertsitatearekin zerbitzu hori emateko kontratua duen merkataritza-erakunde batek ematen du zerbitzua. Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskararen erabileraren normalizazioa bermatzeko Unibertsitateak onetsitako araudiaren aplikazio-eremua mugatua da, bere langileengan baitu eragina eta zuzenean kudeatzen dituen zerbitzuetan, eta unibertsitatearekin lan loturirik ez duten langileak dituzten hirugarrenek emandako zerbitzuak ez daude araudiaren aplikazioaren eremuan. Hala ere, Unibertsitateak kafetegiko zerbitzua ematen duen enpresari kexa helarazteko eta harekin batera aztertzeke konpromisoa hartzen du, zerbitzua hobetzeko jarduerak garatzeko.*

Esp. Zenb.: 94-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA. NUP

Arrazoa: Nafarroako Unibertsitate Publikoko Sario eraikinean dagoen kafetegiko errotulu gehienak gaztelania hutsean idatzita daude.

Erantzuna: IRAKASKUNTZAKO ERREKTOREORDEA: *Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta unibertsitateko langileek ez dute Sario kafetegiko zerbitzua ematen. Ostalaritzan aritzen den eta unibertsitatearekin zerbitzu hori emateko kontratua duen merkataritza-erakunde batek ematen du zerbitzua. Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskararen erabileraren normalizazioa bermatzeko Unibertsitateak onetsitako araudiaren aplikazio-eremua mugatua da, bere langileengan baitu eragina eta zuzenean kudeatzen dituen zerbitzuetan, eta unibertsitatearekin lan loturirik ez duten langileak dituzten hirugarrenek emandako zerbitzuak ez daude araudiaren aplikazioaren eremuan. Hala ere, Unibertsitateak kafetegiko zerbitzua ematen duen enpresari kexa helarazteko eta harekin batera aztertzeke konpromisoa hartzen du, zerbitzua hobetzeko jarduerak garatzeko .*

Esp. Zenb.: 1105-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA. NUP

Arrazoa: Nafarroako Unibertsitate Publikoak herritarrari urriaren 1ean agiria luzatu zion. Bertan herritarrak egindako lan batengatik jaso behar zuen saria azaltzen zen, gaztelania hutsean idatzia. Inprimakiaren logoa ere gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna:

KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA

Esp. Zenb.:	11-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Legeak ezarritako eremu mistoan lan egiten duen herritarrak NAFARROAKO GOBERNUKO ARGITALPEN FUNTSetik abendu bukaeran igorritako e-mezua jaso zuen: <i>Regala un libro</i> . Mezua bera gaztelania hutsean egoteaz gain, proposatutako liburuen artean ez da bat bera ere euskaraz idatzia.
Erantzuna:	ARGITALPEN ZERBITZUKO KOMUNIKAZIO-ARDURADUNA: <i>Argitalpen berri bat kaleratzen denean laburpen edo iruzkin bat prestatu ohi dugu, gaztelaniaz argitaratutako argitalpenentzat, eta euskaraz euskaraz argitaratutakoentzat. Kexan aipatzen duzuen mezuan zenbait liburu proposatzen ziren Gabonetako opari gisa, baina euskarazkorik ez zegoen, euskaraz argitaratutako azken argitalpenetatik bat bakarrik ere ez zelako oparitzeko modukoa, kasu batzuetan liburu teknikoak zirelako, beste batzuetan informaziozkoak, baina bakarra ere ez oparitzeko modukoa. Nolanahi ere, mezuaren goiburua euskaraz idaztea pentsatu genuen, baina ez zitzaigun egokia iruditu goiburua euskaraz eta gainerako guztia gaztelaniaz idaztea. Horixe da mezua gaztelaniaz egin izanaren arrazoi bakarra. Oparitzeko moduko euskarazko argitalpen berririk egon izan balitz, euskarazko mezua zabalduko genukeen, horren gastua huskeria bailitzatekeen.</i>
Esp. Zenb.:	48-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Iruñeko Condestablearen Jauregian Liburutegiko txartela egiten izan da herritarra. Erabiltzaileek betetzeko eman dioten inprimakian bete beharreko datuen goiburuak gaztelania hutsean adierazita daude. Lege-oharra eta Mailegu kolektiboari buruzko oharrak ere gaztelania hutsean luzatu dizkiote.
Erantzuna:	LIBURUTEGIEN ZERBITZUKO ZUZENDARIA: <i>Gaztelania hutsezko inprimakia luzatu izana, akats edo gertaera puntual baten ondorio besterik ez daiteke izan, eskabide-eredu elebiduna ere badelako. Gainera, Condestablearen jauregiko liburutegi zerbitzuko langileek eskabide elebidunak badituztela egiaztatu digute eta kexan aipatzen diren gainerako agiriak euskaraz ere badaudela erabiltzaileen eskura.</i>
Esp. Zenb.:	314-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	NAFARROAKO GOBERNUAk Lizarrako Antzinako Musikaren Astearen 43. edizioa antolatu du abuztuaren 27tik irailaren 9ra bitartean. Ikastaro guztiak gaztelaniaz izateaz gain, esku-orrian informazioa gaztelaniaz baino ez dago; ez da hitz bat bera ere euskaraz.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	383-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Orokorrek uztailearen 16an legeak ezarritako eremu mistoko udal bati bidalitako posta elektronikoa gaztelania hutsean dago. Gaia: <i>Aclaración sobre Convocatorias Cultura 2012.</i>
Erantzuna:	

Esp. Zenb.:	666-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Herritarrak <i>Navarra te recibe gratis</i> promozioiko bonoa jaitsi zuen internetetik. Bonoaren gordekinarekin batera posta elektronikoz bidali zioten mezua gaztelania hutsean zegoen. Deskontu-bonoen testu guztiak gaztelania hutsean zeuden, halaber, eta bonoa non eta nola erabili azaltzeko argibide guztiak ere bai.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	809-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Ekaina hasieran Iruñeko hotel batean bezeroen eskura <i>Museos y colecciones museográficas permanentes de Navarra</i> izeneko esku-orria zegoen. Aipatu esku-orria ez dago euskaraz eta <i>Roncal</i> dago idatzia, baina ez Erronkari.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	824-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Herritarrak ekainean Iruñeko Udaletxe plazako turistendako informazio-etxolan <i>Sistemas de Museos de Navarra</i> zerbitzuak argitaratutako <i>Museos y colecciones museográficas permanentes de Navarra</i> esku-orria aurkitu zuen; gaztelania hutsean zegoen. Euskarazko bertsiorik ez zegoen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	900-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuak antolatutako <i>Música para Órgano en Navarra</i> zikloa iragartzeko argitaratu duen kartela gaztelania hutsean dago.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	931-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuak Kultura, Turismo eta Erakundeeikiko Harremanetarako Departamentuak antolatutako <i>CULTUR</i> ziklo barruan ospatutako kontzertuan, Sinfonietta Académica-k eskaini zuena, ez zegoen esku-orririk euskaraz. Herritarrak eskatu zuen eta ez zegoela erantzun zioten.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	954-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	<i>Música para Órgano en Navarra</i> zikloarekin lotutako ikastaroa iragartzeko publizitatea gaztelania hutsean zegoen. Euskarazko bertsiorik ez zegoen.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.:	958-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Herritarrak Sanduzelaiko CIVIVOXen aurkitu zuen Nafarroako Gobernuak antolatutako <i>FESTIVAL INMEDIACIONES</i> iragartzeko publizitatea gaztelania hutsean zegoen. Euskarazko bertsiorik ez zegoen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1092-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Herritarra irailaren 28an arratsaldeko hirurak aldera Tuterako turismo bulegoan izan zen informazio eske. Inork ez zekien euskaraz eta gaztelaniaz egiteko eskatu zioten.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1164-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Museo barneko errotulazio guztia gaztelania hutsean dago. Herritarrak dioenez, plaka elebidunak biltegian gordeta daude.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1167-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Iruñeko Udaletxe plazan dagoen turistendako informazio puntuan ezin izan zuen euskaraz eskuratu Biblioteca Nacional de Españak antolatu eta Nafarroako Museoan erakusgai egon ziren <i>El sueño de la razón produce monstruos</i> eta <i>Retrato del Marqués de San Adrián</i> margolanen inguruko esku-orria.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1181-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuak gaztelania hutsean argitaratu zuen abuztuaren 27tik irailaren 9ra Lizarran antolatu zuen Antzinako Musikaren 43. astea iragartzeko kartela.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1308-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Herritarrak ezin izan zituen Nafarroako Liburutegi Nagusian azaroaren 23an Nafarroako Liburutegi Publikoetako internet bidezko katalogoari buruzko informazio-orriak euskaraz eskuratu paperezko euskarrian. Bai sarreran eta bai 2. solairuan gaztelaniazko aleak baino ez zeuden herritarren eskura.
Erantzuna:	LIBURUTEGIEN ZERBITZUKO ZUZENDARIA: <i>Itzulpenak eginda katalogora internet bidez sartzeko informazio-gida berriak argitaratuko ditugu.</i>

Esp. Zenb.:	1309-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Herritarrak azaroaren 28an Nafarroako Liburutegi Publikoetako katalogoaren webgunean sartu (www.navarra.es/AppsExt/opac/) eta Berriak atalera jo zuen hondarreko hilabetean eskuratu ziren baliabideei buruzko kontsulta egiteko. Eskuratu diren 50 ale berrietatik bakarra baino ez da euskaraz.
Erantzuna:	LIBURUTEGIEN ZERBITZUKO ZUZENDARIA: <i>Lehenik eta behin argitu nahi dut Nuevas Adquisiciones/Berriak ez dela erosten diren liburu berrien zerrenda, katalogoan berriki sartu diren tituluena baizik, lehendik erosita baina sistema informatikoan katalogatu gabe zeuden tituluak ere hartzen baititu. Hori horrela, gerta daiteke liburutegi batean berkatalogatzen ari diren aleak lehen 50 tituluaren artean agertzea, eta aldiz erosi berriak direnak ez agertzea, eskuratzen diren tituluaren irudi desitxuratua emanez. Agian egokiagoa litzateke link horri Azken gehitzeak deitzea Berriak beharrez. Nafarroako liburutegi publikoaren kudeaketa-sistemaren datu basean jasotako datuen arabera, 2012ko urtarrilaren 1az geroztik euskarazko 6271 ale gehitu dira Nafarroako liburutegi publikoaren sarean, 2475 helduentzat, eta 3796 haur eta gazteei zuzenduak.</i>
Esp. Zenb.:	1343-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Herritarra Arguedasko liburutegi publikora joan zen irailaren 27an eta gaztelaniaz egin behar izan zuen langilea ez baitzen euskalduna.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1344-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Herritarra Bardeetako turismo-bulegora joan zen irailean hiru egunez jarraian, goizeko 11:00ak aldera. Hiruretan euskaraz hitz egiten saiatu zen baina, langile desberdinak egon arren, gaztelaniaz egin behar izan zuen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1345-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuak Nafarroa hegoaldean, Aragoiko mugan, ongi etorria emateko hainbat seinale jarriak ditu. Seinaleak hainbat hizkuntzatan daude, euskaraz izan ezik. Seinaleek honela diote: <i>Bienvenidos. Bienvenus. Welcome. Willkommen. Benvenuti. Reyno de Navarra Tierra de diversidad.</i>
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	540-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA. BALUARTE
Arrazoia:	Iruñeko Baluarte batzar jauregian <i>Los clics invaden Pamplona</i> erakusketa egon zen ikusgai martxoaren 19tik apirilaren 20ra bitartean. Erakusketan ikusgai zegoen informazio guztia gaztelania hutsean zegoen. Ez zen hitz erdirik ageri euskaraz. Erakusketa iragartzeko kartelak ere gaztelania hutsean zeuden.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.:	1307-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Herritarrak Nafarroako Liburutegi Nagusiko sarreran NAFARROAKO FILMOTEKAREN azaroko egitaraua eskuratu zuen azaroaren 23an. Egitaraua euskaraz idatzia ez egoteaz gain, programatutako 14 filmetatik bakarra ikusi ahal izan da euskaraz. Gainerako 13ak ez dira ez euskaraz entzuten eta ez azpigituluak euskaraz irakurriko.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	118-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA. INAAC
Arrazoia:	Pasa den otsailan Kultura Departamentuan eskura zeuden INAAC-ek argitaratutako <i>Seminario Internacional PUNTO DE VISTA</i> iragartzeko esku-orri guztiak gaztelania hutsean zeuden.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	225-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA. INAAC
Arrazoia:	Otsailan ospatu behar zen INAAC-en Seminario internacional Punto de Vista iragartzeko CIVIVOX Condestablen herritarren eskura zeuden esku-orri guztiak gaztelania hutsean zeuden.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	748-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA. INAAC
Arrazoia:	Nafarroako filmotekan izan zen maiatzean eta luzatu zioten sarrera gaztelania hutsean zegoen. <i>Pamplona. Mayo 2012. Filmoteca de Navarra. Entrada libre</i> eta pelikulen izenburuak eta datak.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1442-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA. INAAC
Arrazoia:	NAFARROAKO FILMOTEKAK hileroko programazioaren berri emateko argitaratzen dituen liburuxketan euskarari eskaintzen dion tarte oso-oso murrizta izaten da. Horretaz gain, erabiltzen duen Nafarroako Gobernuaren logoa ez dago ele bietan.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1443-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA. INAAC
Arrazoia:	NAFARROAKO FILMOTEKAK herritarrari hileroko programazioaren berri emateko bidaltzen dion posta elektronikoa beti gaztelania hutsean dago.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.: 1383-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA

Arrazoia: Abenduaren 19an Baluartan banatutako egitarauan ikus daitekeenez ORQUESTA SINFÓNICA DE NAVARRA-PABLO SARASATE-ren izen korporatiboa eta logoa gaztelania hutsean daude. Egitaraua ele bietan zegoen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1384-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA

Arrazoia: ORQUESTA SINFÓNICA DE NAVARRA-PABLO SARASATE-ren webguneko euskarazko bertsiok hizkuntza-akatsak ditu eta eduki gehienak gaztelaniaz daude. <http://www.orquestadenavarra.es>

Erantzuna:

LANDA GARAPENA, INDUSTRIA, ENPLEGU ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUA

Esp. Zenb.:	60-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LANDA GARAPENA, INDUSTRIA, ENPLEGU ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Abeltzaintza Zerbitzutik jakinarazpena bidali zioten urte hasieran legeak ezarritako eremu euskalduneko herritarrari, gogoraziz urtero bezala derrigorrez aurkeztu behar dituela azienden errolda eguneratzeko datuak. Jakinarazpena gaztelania hutsean idatzita zegoen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	61-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LANDA GARAPENA, INDUSTRIA, ENPLEGU ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Abeltzaintza Zerbitzutik urte hasieran inprimakiak bidali zizkieten legeak ezarritako eremu euskalduneko herritarrari, derrigorrez bete beharreko azienden errolda eguneratzeko datuak bidaltzeko. Inprimakia gaztelania hutsean idatzita zegoen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	62-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LANDA GARAPENA, INDUSTRIA, ENPLEGU ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuak gutun azal berriak inprimatu ditu gobernuaren berrantolaketaren ondorioz. Bada, gutun azaleko testu guztiak gaztelania hutsean daude. Baita posta frankeoko zigilukoak ere.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1123-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LANDA GARAPENA, INDUSTRIA, ENPLEGU ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentuak argitaratzen duen <i>Entornos de Navarra</i> aldizkariak aspaldian ez du euskaraz ezer argitaratzen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	364-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LANDA GARAPENA, INDUSTRIA, ENPLEGU ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA
Arrazoia:	NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUAN, Arcadio M ^a Larraona kalean dagoen bulegoan, martxoan eman zioten langabetu txartela, iradokizun orria eta publikoaren aurrean zeuden beste inprimaki batzuk gaztelania hutsean zeuden.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.: 365-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LANDA GARAPENA, INDUSTRIA, ENPLEGU ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA

Arrazoia: NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA, Arcadio M^a Larraona kalean dagoen bulegoan, eman zioten ikastaroen zerrenda eta izena emateko jarraibideak gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 458-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LANDA GARAPENA, INDUSTRIA, ENPLEGU ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA

Arrazoia: Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Arrotxapean duen bulegoan eskatu zuen *lan eskaera egiteko eta berritzeko txartela* euskaraz jasotzea apirilean eta hau heldu zitzaionean ohartu zen txartelaren aurrealdea gaztelaniaz zegoela.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 459-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LANDA GARAPENA, INDUSTRIA, ENPLEGU ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA

Arrazoia: Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Arrotxapean duen bulegoak apirilean bidali zion gutun-azalean eta gutunean bertan erabilitako logoa eta zigiluaren testuak gaztelania hutsean daude. Nafarroako Gobernuaren logoa, Enplegu Zerbitzuaren logoa baita Nafarroako Gobernuko irudia eta zerbitzuarena duen zigilua ere.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 907-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LANDA GARAPENA, INDUSTRIA, ENPLEGU ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA

Arrazoia: Nafarroako Enplegu Zerbitzuak gaztelania hutsean idatzitako mezua bidali zion herritarrari telefonora. Gaia: *Oferta de empleo para profesores en Olazagutia*.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 908-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LANDA GARAPENA, INDUSTRIA, ENPLEGU ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA

Arrazoia: Nafarroako Enplegu Zerbitzuak herritarrari irailean telefonora bidalitako gaztelaniazko mezuan *OLAZAGUTIA* herri izena ageri zen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 982-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LANDA GARAPENA, INDUSTRIA, ENPLEGU ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA

Arrazoia: NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUAren Iruñeko Larraona kaleko bulegoan txanda hartzerakoan jasotzen den papertxoan ez da hitz bat bera ere euskaraz: *Buenos días, bienvenidos al (...) Su turno para Inscripción (...) Son las (...) Hay xxx personas esperando*. Horrez gain, herritarrei zuzendutako ohar ugari daude folioetan idatzita; bada, bakar bat ere ez dago euskaraz.

Erantzuna:

Esp. Zenb.:	983-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LANDA GARAPENA, INDUSTRIA, ENPLEGU ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA
Arrazoia:	Uztailaren 27an Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Iruñea-Yamaguchi bulegoan izan zen. Herritarrak ezin izan zuen euskaraz aritu, egokitu zitzaion langilea ez zelako euskalduna.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	984-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LANDA GARAPENA, INDUSTRIA, ENPLEGU ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA
Arrazoia:	Uztaila bukaeran Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Iruñea-Yamaguchi bulegoan ez zizkioten euskaraz eman <i>Instrucciones de acceso a la oficina electrónica</i> izeneko informazio-orria eta <i>Comunicación de contraseña para la gestión de la Demanda de Empleo a través de Internet</i> izenekoa. Lehendabizikoa www.navarra.es -en ere badago, baina ez dago euskaraz: http://www.navarra.es/home_es/Temas/Empleo+y+Economia/Empleo/PreviaOfiElect.htm
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	985-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LANDA GARAPENA, INDUSTRIA, ENPLEGU ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA
Arrazoia:	Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren webguneak, www.enpleo.navarra.es , ez du euskarazko bertsiorik, ondorioz herritarrek ezin dituzte izapideak eta kontsultak euskaraz burutu.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1079-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LANDA GARAPENA, INDUSTRIA, ENPLEGU ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA
Arrazoia:	Barañaingo herritarrak Nafarroako Enplegu Zerbitzuak helarazitako jakinarazpena jaso zuen abuztuaren 22an. Bai gutunazala eta bai jakinarazpena bera ere, Hezkuntza Departamentuko lan-eskaintza bati buruzkoa, ez zeuden euskaraz idatziak.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1165-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LANDA GARAPENA, INDUSTRIA, ENPLEGU ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA
Arrazoia:	Nafarroako Enplegu Zerbitzuak lan eskaintza baten berri bidali zion herritarrari. Jakinarazpena bera nahiz gutun azaleko idazpen guztiak gaztelania hutsean zeuden.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1219-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LANDA GARAPENA, INDUSTRIA, ENPLEGU ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA
Arrazoia:	Nafarroako Enplegu zerbitzuak urriaren 3an Barañaingo herritarrari bidalitako mezu elektronikoa gaztelania hutsean zegoen. Testua: SNE info: <i>Ud. está en lista profesor música en euskera del Dpto Educación. Vea tablón anuncios web empleo.navarra.es hasta 5 octubre.</i>
Erantzuna:	

LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA

Esp. Zenb.:	13-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuak urtarrilaren 23ko 15. NAO n argitaratu du 12/2012 Foru Agindua, Nafarroako politikari eta kudeaketa publikoari buruzko 2012ko <i>Martin Azpilkueta IX.</i> sarirako dei egiten duena. Deialdiaren hirugarren oinarriko 5. idatz-zatian ondokoa dakar: <i>Lanak gaztelaniaz, euskaraz edo Europar Batasuneko hizkuntza ofizial batean aurkeztuko dira (azken bi kasuetan, gaztelaniazko itzulpenarekin batera)</i> . Ezin da euskara hutsean lana aurkeztu.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	79-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Urtarrilean zenbait egunez Nafarroako Gobernuaren http://publicaciones.navarra.es/TiendaPublicaciones loturan sartu zen eta ezin izan zuen zerbitzua euskaraz jaso.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	146-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Otsailaren 16an elkarretaratzea egin zuten hezkuntzako eragileek Hezkuntza Departamentuaren atarian. 707 foruzainak hurbildu eta identifikatzeko eskatu zion herritarrari. Bere izena esan eta nortasun agiria aldean ez zuenez, zenbakiz zenbaki esaten hasi zitzaion, euskaraz. <i>Agenteak en castellano, por favor</i> erantzun zion. <i>¿No sabes contar hasta 10 en euskara?</i> galdetu zion herritarrak. Agenteak nahi beste kontatzen zekiela erantzun zion, oraingoan euskaraz. Orduan herritarrak zenbakiak emateari ekin zion, berriz ere euskaraz, eta agenteak gaztelaniaz egiteko eskatu zion, beste hiruzpalau aldiz, nahiz eta herritarrak ez ziola gaztelaniaz eginen adierazi.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	180-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Ekainaren 6an Sakanako autobian Iruñeko norakoan zihoan Foruzainen Z-3083 autoa gaztelania hutsean errotulaturata zegoen. <i>Policía Foral</i> zioten idazpen guztiek. Ez zen euskarazko ordainik ageri.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	187-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Gobernu Irekiaren ataletik mezu elektronikoa bidali zioten otsailaren 13an, lanpostu guztietan Libre Office sorta ofimatikoa ezartzen ari zirela jakinarazteko. Mezua gaztelania hutsean idatzita zegoen.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.: 226-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Otsailaren 21ean Tokiko Administrazio Zuzendaritza Orokorrak herritarrari bere lanean erabiltzeko bidalitako txartela eta honekin batera zetorren gutuna gaztelania hutsean idatzita zeuden. Ez diote eskaini aipatu txartela euskaraz egiteko aukerarik.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 255-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA

Arrazoia: www.navarra.es webgunean euskarazko bertsioa gaztelaniazkoaren bertsio murriztua da. Bigarren nabigazio mailatik aurrera ez dago informaziorik euskaraz, ezta Departamentuei buruzkoa ere.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 331-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Herritarra martxoaren 22an interneten bidez Nafarroako Gobernuko Ogasun zerbitzuetan datu fiskalak eskatzeko ahaleginetan aritu zen. Sistemak hasiera batean euskaraz egiteko aukera ematen duela dirudien arren, ezin izan zuen prozesu osoa euskaraz burutu, bukaeran gaztelania hutsean baitago.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 461-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Yolanda Barcina, Nafarroako Gobernuko Lehendakariak, Nafarroako parlamentari euskaldun bati bidalitako gonbidapena gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 668-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko lehendakariak eta Martzillako alkateak Martzillako gazteluaren inaugurazio ekitaldira joateko gonbidapena helarazi zioten maiatzaren erdialdean Nafarroako parlamentari bati. Gonbidapena gaztelania hutsean idatzita zegoen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.:	711-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Administrazio Publiko eta Barne Departamentuak maiatzaren 13an prentsa-oharra argitaratu zuen www.navarra.es webgunean, Administrazio Publikoen zerbitzura diharduten langileei 25 milioi euro aurrezteko aplikatuko zaizkien premiazko neurrien lege-proiektuaren berri emanaz. Prentsa-oharra gaztelania hutsean argitaratu zen.
Erantzuna:	<i>KOMUNIKAZIO ZERBITZUKO ZUZENDARIA: Nafarroako Arartekoak Nafarroako Gobernuaren administrazio elektronikoaren inguruan herritarrek dituzten hizkuntza-eskubideei buruzko txostenean honako iradokizuna egin zuen: Bigarrena: Bereziki, gutxienez ere eremu euskalduneko herritarrentzat garrantzitsuenak diren edo interes sozial handiena duten informazioak eta albisteak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren jardueran sortzen direnak, bai eta berariaz eremu euskaldun horretako udalei buruzkoa den informazioa ere, web atariaren euskarazko bertsioan argitaratzea gaztelaniazko edizioan argitaratzen diren luzera eta sakonera berarekin, eta argitalpen hori aldi berean egitea, Nafarroako eremu horretan bi hizkuntzen koofizialtasunaren printzipioa gauzatze aldera. Nafarroako web atariko eduki instituzionalen arduradun den Kontseilariak oroigarri eta iradokizunak onartu egin zituen, gaineratuz, informazio garrantzitsuenak eta eremu euskalduneko udalerriei buruzkoak, aldi berean, bi hizkuntzatan argitaratzeko politika Nafarroako Gobernuko Prentsa Bulegoko ohiko jarduera dela. Kasu zehatz honetan, maiatzaren 13an, Prentsa Bulegoak 13 informazio argitaratu zituen gaztelaniaz. Prentsa Bulegoak horietako 4 euskaratu zituen. Hain zuzen, euskararekin zerikusia zuten bi albiste itzuli ziren, bata Sakanari buruzkoa, eta bestea hizkuntza honen sustapenaren ingurukoa; baita informatiboki oihartzun handiagoa zuten beste bi berri ere, lehena tokiko erakundeei 40 milioi euroko diru-laguntza emateko akordioa eta bigarrena egun batzuk lehenago Nafarroako Gobernuko Komunitateko gizarte eragile eta enpresekin abian jarritako "Buelta eman nahi diogu" kanpainaren ingurukoa. Langile publikoen sailean egingo den aurrezpenaren inguruko informazioa ez zen itzulia izan gaurkotasun txikiagoa zeukalakoan. Izan ere, ekimena otsailaren 15ean aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuak publikoki eta xehetasunez, eta egun hartan berriaren inguruko informazio zabala argitaratu zen bi hizkuntzatan. Maiatzeko albisteak ez zuen eduki berririk eskaini, berritasun bakarra izapideari buruzkoa zen.</i>
Esp. Zenb.:	717-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko lehendakariak Vianako Printzea sari-banaketako ekitaldira joateko gonbidapena helarazi zion Nafarroako parlamentari bati. Gonbidapena gaztelania hutsean idatzita zegoen; ez zen hitz erdirik ageri euskaraz.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	845-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak ekainean sindikatu bati bidalitako posta elektronikoa baita erantsitako dokumentua ere gaztelania hutsean zeuden.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.:	903-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Lehendakariak Nafarroako legebiltzarkideei irailean luzatutako gonbidapena, VIII. Bi Nafarroen Mintzaldiko programan parte hartzekoa, gaztelania hutsean zegoen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	906-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak herritarrari irailean bidali dion gutun-azaleko logo guztiak gaztelania hutsean daude.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	921-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Uztailaren 5ean Iruñeko Bideko Amabirjina ospitaleko sarreran zeuden hesietan gaztelania hutsean ageri zen Nafarroako Gobernuaren irudi korporatiboa.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1019-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Uztailaren 2an 21:00ak aldera Foruzainek Iruñeko Gazteluko plazan duten bulegora jo zuen herritarrak bizikleta baten lapurreta salatzea. Ezin izan zuen zerbitzua euskaraz jaso euskaraz zekien inor ez zegoelako.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1020-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Uztailaren 2an 21:00ak aldera Foruzainek Iruñeko Gazteluko plazan duten bulegora jo zuen bizikleta baten lapurreta salatzea. Bulegoko hizkuntza-paisaia gaztelania hutsean zegoen eta herritarrari erreklamazioa idazteko luzatu zioten inprimakia ere bai. Euskarazko bertsiorik ez zeukatela esan zioten.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1021-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Uztailaren 2an 21:00ak aldera Foruzainek Iruñeko Gazteluko plazan duten bulegora jo zuen bizikleta baten lapurreta salatzea. Salaketaren akta izeneko orria euskaraz bete zuen herritarrak. Hala ere, gaztelania hutsean luzatu zizkioten salaketa penalaren agiria eta kaltetuari edo irainduari bere eskubideen berri emateko orria.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.: 1022-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Uztailan Foruzainek Iruñeko Gazteluko plazan duten bulegoan lapurreta baten salaketa egin zuen herritarrak. Salaketa egiteko eman zioten inprimakia euskaraz bete zuen. Hala ere, egun batzuetara, salaketa tramitatuko zutela jakinarazteko deitu ziotenean, gaztelaniaz hitz egin zioten.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1114-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Abuztuaren 2an Foruzaingotik deitu zioten euskaraz artatu ez zutelako egin zuen kexa baten inguruko argibideak eskatzeko. Oraingoan ere gaztelaniaz zuzendu zitzaizkion, eta gaztelaniaz eman behar izan zituen azalpenak.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1126-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Herritarrak Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentutik bidalitako jakinarazpena jaso zuen abuztuaren hasieran. Gutunazaleko idazpen guztiak, bai inprimatuta daudenak, bai zigiluz ezarritakoak, gaztelania hutsean daude. Herritarraren helbidea ere gaztelania hutsean adierazita dago.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1127-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Uztailaren amaieran Foruzaingoak bidalitako jakinarazpena jaso zuen hil horren hasieran aurkeztu zuen erreklamazioari erantzunez. Herritarrak euskaraz aurkeztu zuen erreklamazioa. Hala ere, gaztelaniaz jaso zuen erantzuna.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1128-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Abuztuaren 8an Foruzaingoaren 948.202.920 zenbakira deitu zuen herritarrak. Euskaraz egin nahi zuela jakinarazi zuen, baina ezin izan zuen telefonoaren arretan zegoenak euskaraz ez zekielako.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 371-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALA

Arrazoia: Nafarroako Aldizkari Ofizialeko alerta deitutako zerbitzuak gaztelania hutsean bidaltzen dizkio mezuak herritarrari, maiatzaren 23an eta 24an jaso zituenak esaterako.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 628-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALA

Arrazoia: Nafarroako Aldizkari Ofizialak gaztelania hutsean bidali zion irakaskuntzako eragile bati apirilaren 24an Hezkuntza Departamentuko xedapenei buruzko alerta.

Erantzuna: NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALAREN ZERBITZUKO ZUZENDARIA: *Nafarroako Aldizkari Ofizialaren Zerbitzuak, Nafarroako Aldizkari Ofiziala gaztelaniaz eta euskaraz argitaratzeko eskumena baitu, bai eta Euskarari buruzko Legean aurreikusitako Itzulpen Unitate Ofizialak ere, etengabe dihardute herritarren hizkuntza-eskubideei dagozkien zenbait arlotan. Legez ezarritako NAOz gainera, aipa daitezke Nafarroako Gobernuaren webguneko Zerbitzuen Katalogoa, lege-testuen separatak, gaztelaniaz eta euskaraz argitaratuak, eta, duen garrantziagatik, berriki herritarren esku jarritako LEXNAVARRA webgunearen ataria euskaraz. Bertan biltzen da foru arautegia, gaurkoturik.*

Esp. Zenb.: 629-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALA

Arrazoia: Nafarroako Aldizkari Ofizialak gaztelania hutsean bidali zion apirilaren 26an harpidedun bati Hezkuntza Departamentuko xedapenei buruzko alerta.

Erantzuna: NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALAREN ZERBITZUKO ZUZENDARIA: *Nafarroako Aldizkari Ofizialaren Zerbitzuak, Nafarroako Aldizkari Ofiziala gaztelaniaz eta euskaraz argitaratzeko eskumena baitu, bai eta Euskarari buruzko Legean aurreikusitako Itzulpen Unitate Ofizialak ere, etengabe dihardute herritarren hizkuntza-eskubideei dagozkien zenbait arlotan. Legez ezarritako NAOz gainera, aipa daitezke Nafarroako Gobernuaren webguneko Zerbitzuen Katalogoa, lege-testuen separatak, gaztelaniaz eta euskaraz argitaratuak, eta, duen garrantziagatik, berriki herritarren esku jarritako LEXNAVARRA webgunearen ataria euskaraz. Bertan biltzen da foru arautegia, gaurkoturik.*

Esp. Zenb.: 186-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN INSTITUTUA – NAPI

Arrazoia: Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak gaztelania hutsean bidali zion otsailaren 15ean Nafarroako Gobernuko langileari Nafarroako Administrazio Publikoetan kalitate praktika egokiak hedatzeko jardunaldiaren berri ematen zuen mezu elektronikoa.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 228-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN INSTITUTUA – NAPI

Arrazoia: Herritarrak otsailaren 28an bere laneko helbide elektronikoan *INAP COMUNICACION*-ek bidalitako mezua jaso zuen eta ohi den bezalaxe, gaztelania hutsean zegoen. Postaren gaia ondokoa zen: *Invitación Ciclo conferencias: 28 de febrero.*

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 569-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA. AGENCIA NAVARRA DE EMERGENCIAS - ANE

Arrazoia: Apirilaren 13an gaueko ordu bietan 112 zerbitzura deitu zuen. Gaztelaniaz hitz egin behar izan zuen harrera egin zion pertsonak euskaraz ez zekielako. Hurrengo egunean goizeko 10:00etan deitu zuen, eta espresuki galdetu zuen ea euskaraz jaramon egingo zion norbait bazegoen. Ezetz erantzun zioten.

Erantzuna: *BABES ZIBILEKO ZUZENDARIA: SOS Navarrak apirilaren 13an Salan goizaldeko 1:30etatik 02:30etara sartu ziren deiak aztertu ditu eta ez du kexan aipatzen den deirik aurkitu. Apirilaren 14an goizeko 9:30etatik 10:30etara jasotako grabazioak ere berraztertu ditu, eta kasu honetan ere ez du kexan aipatzen den deiaren inguruko arrastorik aurkitu. Nolanahi ere, Nafarroako Larrialdi-Agentziak Nafarroan ohikoak diren hizkuntzen ezagutza eta gaitasuna (euskara edo ingelesa) sustatzen du bertako operadoreen artean. Era berean, Nafarroako Foru Erkidegoko 112 zerbitzuko txanda guztietan egon ohi dira erabiltzaileei arreta euskaraz egiteko gai diren langileak.*

Esp. Zenb.: 1006-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA. AGENCIA NAVARRA DE EMERGENCIAS - ANE

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko ANEK Iruñeko herritarrari bidalitako gutun-azalean Nafarroako Gobernuko eta Agentziako logoak eta helbidea gaztelania hutsean zeuden.

Erantzuna:

OSASUN DEPARTAMENTUA

Esp. Zenb.:	782-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUN DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak Iruñeko Kale Nagusiko 62. zenbakiko botikara publikoaren aurrean jartzeko bidali zuen <i>Farmacias de Guardia</i> orria gaztelania hutsean zegoen. Maiatzaren 14tik 20ra bitarteko orria zen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1068-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUN DEPARTAMENTUA. OSASUN PUBLIKOAREN INSTITUTUA
Arrazoia:	Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuko hizkuntza-paisaia osoa gaztelaniaz dago. Bai kalean dauden kartelak, baita barruko oharrak eta kartelak ere.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1120-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUN DEPARTAMENTUA. OSASUN PUBLIKOAREN INSTITUTUA
Arrazoia:	Agoizko herritarrak Nafarroako Gobernuko Osasun Publikoko Institutuak mamografiaren emaitzen berri emateko bidalitako gutuna jaso zuen urrian. Gutunean ez zegoen hitz erdirik euskaraz; gaztelania hutsean zegoen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1121-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUN DEPARTAMENTUA. OSASUN PUBLIKOAREN INSTITUTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Osasun Publikoko Institutuak erabiltzen dituen gutun-azalak eta gutunetako logoak, sinadurak eta helbideak gaztelania hutsean daude. Halaxe daude Agoizko herritarrari urrian bidalitako gutunean.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	9-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Goizeko 10:00etan Bideko Ama erietxeko zentralitara deitu du, 848.429.400 zenbakira. Telefonoa hartu dion langileari euskaraz hitz egin dio eta hark, sentitzen duela, baina ez dakiela euskaraz esan dio. Herritarrak orduan, ea ez dagoen euskaraz dakien langilerik galdetu dio eta langileak ezetz, bere lankideak ere ez dakiela euskaraz. Beraz, herritarrak ezin izan du euskaraz mintzatu.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	28-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Urtarrilaren 11n ospitaleratze-ziurtagiria eskatu zuen herritarrak Nafarroako Ospitaleko kardiologia zerbitzuko idazkaritzan. Agiria gaztelaniaz luzatu zioten. Euskaraz egingo zioten galdetu eta ezin zutela erantzun zioten, gaztelaniazko eredia bakarrik zutela.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.:	42-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Iruñeko Ospitalean eman zioten ziurtagiria, ginekologia kontsultan izan zela adierazten zuena, gaztelania hutsean zegoen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	102-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Maiatzaren 8an Iruñeko Iturramako osasun-etxera deitu zuen, 948.198.360 zenbakira. Ez zegoen bera artatzeko langile euskaldunik.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	152-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Herritarrak otsailaren 6an Iturramako osasun-etxera deitu zuen goizeko 8:45 aldean, 948.198.363 telefonora, eta euskaraz artatua izatea nahi zuen arren, gaztelaniaz egin behar izan zuen ez baitzegoen langile euskaldunik.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	172-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Sakanako herritarrak otsailaren 16an gaztelania hutsean jaso zuen etxean Erradiologia Zerbitzuak bidalitako galdetegia.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	173-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Sakanako herritarrak otsailaren 14an gaztelania hutsean jaso zuen telefonoan mezua. Testua: <i>D/Dñ. XXX Recuerde su cita el 15.02.12. Si no puede acudir llame al 848429605 de 08:00 a 15:00 para anularla o cambiarla .</i>
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	252-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Herritarrak martxoaren 2an 10:45ean Iturramako osasun-etxera, 948.198.360 telefonora, deitu zuen eta ezin izan zuen euskaraz egin.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	312-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Martxoaren 7an Vianako Printzea kontsulta zentroan izan zen, traumatologian. Kontsulta guztietako ateetan zeuden kartelak (<i>Por favor, llamen a la puerta y esperen. Muchas gracias</i>) gaztelania hutsean zeuden. Hortaz gain, informazio gunean izan zen eta langileak ez zeuden euskalduna. Beste langile euskaldunik ote zegoen galdetu zuen eta ezetz esan zioten.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.: 330-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA

Arrazoa: Herritarrak martxoaren 22an 11:00etan Iturramako osasun-etxera, 948.198.360 telefonora, deitu zuen eta ezin izan zuen euskaraz egin.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 334-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA

Arrazoa: Agoizko herritarrak gaztelania hutsean jaso zuen martxoan OSASUNBIDEAK bidalitako txartel berria eta honekin batera zetorren gutuna. Horretaz gain, bere helbide osoa eta gutun-azalean agertzen den T.I.S. bulegokoa ere gaztelania hutsean zeuden.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 335-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA

Arrazoa: Agoizko herritarrak OSASUNBIDEAko 848.42.90.19 telefonora deitu zuen txartel berria eta gutuna gaztelania hutsean jaso zituelako. Gaztelaniaz egin behar izan zuen euskaldunik ez zegoelako eta ez zelako goiz osoan izango. Horretaz gain, azpimarratu nahi du hizkuntza hautatzeko aukera eman zioten arren, Agoizko herritarrei ez zaiela inoiz aukera honen berri eman eta Osasunbideak dena gaztelania hutsean bidaltzen duela beti.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 418-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA

Arrazoa: Herritarrak apirilaren 30ean 10:00etan Iturramako osasun-etxeko 948.198.360 telefonora deitu zuen. Ea langile euskaldunik bazegoen galdetu zuen eta osasun-etxe horretan inork ez duela euskaraz egiten erantzun zioten.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 419-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA

Arrazoa: Apirilaren 23an goizeko 09:55 aldera Iturramako osasun-etxeko 948.198.360 telefonora deitu zuen herritarrak. Telefonoa hartu zuen langilea ez zen euskalduna. Herritarrak langile euskaldunik bazegoen galdetu zuen eta ezetz erantzun zioten. Horiek horrela gaztelaniaz egin behar izan zuen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 530-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA

Arrazoa: Iruñeko herritarrak martxoaren 19an Osasun Txartela jaso zuen gutun bidez. Osasunbideak txartelarekin batera bidalitako jakinarazpena gaztelania hutsean idatzita zegoen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 611-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA

Arrazoa: Medikuak baja-agiria luzatu zion apirilaren 30ean legeak ezarritako eremu euskalduneko herritarrari. Agiria gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.:	743-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Herritarrak ekainaren 5ean Iturramako osasun-etxeko 948.198.360 telefonora deitu zuen eta ezin izan zuen euskaraz aritu.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	744-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Herritarrak ekainaren 26an Iturramako osasun-etxeko 948.198.360 telefonora deitu zuen eta ezin izan zuen euskaraz egin une horretan euskaldunik ez zegoelako.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	755-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Iruñeko bizilagunak Alde Zaharreko osasun-etxean jasotako zitazioa gaztelania hutsean zegoen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	897-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Agoizko herritarrak duela egun batzuk mamografia egiteko ordua jakinarazteko jaso zuen gutuna gaztelania hutsean zegoen. Inprimakian eta gutun-azalean erabilitako Osasun Publikoaren Institutuaren logoak, helbideak eta <i>Prevención cáncer de mama</i> delako logoa ere gaztelania hutsean zeuden.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	910-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	gutuna gaztelania hutsean zegoen. Horretaz gain, inprimakian eta gutun-azalean erabilitako Osasun Publikoaren Institutuaren logoak, helbideak eta <i>Prevención cáncer de mama</i> delako logoa ere gaztelania hutsean zeuden.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	918-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Iruñeko Bideko Ama Birjina ospitalean, endoskopiak egiten diren geletako ate guztietan ondoko oharra dago gaztelania hutsean: <i>No entre con joyas ni gafas, déselas a su acompañante</i> .
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	920-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Herritarra Iruñeko Bideko Amabirjinaren Ospitalean izan zen uztailaren 5ean goizeko 12:00ak aldera. Amaetxeko informazio gunera jo eta <i>euskaraz?</i> galdetuta, bi langileak begira gelditu zitzaizkion erantzun gabe. Berriz errepikatu zuen: <i>euskaraz?</i> Orduan, <i>no</i> erantzun zioten.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.: 1036-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA

Arrazoia: Legeak ezarritako eremu euskalduneko herritarrak Uharte-Arakilgo osasun etxera deitu zuen abuztuaren 1ean kontsultarako txanda hartzeko. Langilearengana euskaraz zuzendu arren, hark gaztelaniaz erantzun zion.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1037-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA

Arrazoia: Uharte Arakilgo osasun-etxeak oharra jarri zuen Ihabarko Kontsultako atarian, uztailearen 25ean, zaindariaren eguna zela eta, kontsultategia itxita egongo zela eta larrialdi kasuan Irurtzungo osasun-etxera jotzeko jakinaraziz. Oharra gaztelania hutsean idatzita zegoen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1055-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA

Arrazoia: Agoizko herritarra irailaren 9an Nafarroako Ospitale Gunean izan zen eta traumatologia kontsulta izan ondoren luzatu zioten txostena gaztelania hutsean zegoen. Finkoak diren logoak, helbidea eta esaldia ere gaztelania hutsean zeuden. Herritarren helbidea ere gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1084-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA

Arrazoia: Abuztuaren 6an goizeko 10:00ak aldera herritarrak Osasunbideako Hertz Osasuneko sailera deitu zuen, 848.429.234 zenbakira. Gaztelaniaz hitz egin behar izan zuen arreta eskaini zion pertsonak euskaraz ez zekielako.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1085-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA

Arrazoia: Abuztuaren 6an UBARMIN klinikara deitu zuen herritarrak. Gaztelaniaz hitz egin behar izan zuen arreta egin zion pertsonak euskaraz ez zekielako.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1086-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA

Arrazoia: Abuztuaren 1ean Iturramako osasun-etxera deitu zuen goizeko 10:25 aldera. Gaztelaniaz hitz egin behar izan zuen arreta euskaraz egingo zion inor ez zegoelako.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1087-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA

Arrazoia: Abuztuaren 3an Iturramako osasun-etxera deitu zuen herritarrak goizeko 12:15ean. Gaztelaniaz hitz egin behar izan zuen arreta euskaraz egingo zion inor ez zegoelako.

Erantzuna:

Esp. Zenb.:	1112-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Odol emaile txartela jaso zuen etxean uztailaren amaieran. Txartelaren aurrealdeko <i>Carnet de Donante de Sangre</i> eta <i>Donante</i> testuak gaztelania hutsean ageri dira.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1113-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Uztailaren amaieran Odol emaile txartel berria bidali zioten Nafarroako Odol eta Ehun Bankutik. Txartelarekin batera zetorren jakinarazpena ele bietan zegoen arren, <i>NUEVO CARNÉ</i> izenburua gaztelania hutsean zegoen eta euskarazko bertsioaren azken paragrafoa ulertezina zen. Gaztelaniazko bertsiora jo ezean ez zegoen ulertzerik zer esan nahi zuen, akats gramatikalez josia baitzegoen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1140-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Herritarrak Iruñeko Bideko Ama Birjinaren Ospitalean irailaren bukaeran aurkitutako esku-orri guztiak gaztelania hutsean zeuden. Euskarazko bertsiorik ote zen galdetu zuen eta ezetz esan zioten. Esku-orriak <i>Servicio de urgencias</i> erabiltzeko arauak zehazten zituzten.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1162-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Urriaren 23an Zugarramurdiko medikuaren kontsultan izan zen. Ordezko medikua zegoen eta ez zen euskalduna. Ondorioz, herritarrak ezin izan zuen zerbitzua euskaraz jaso.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1192-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Herritarra odola ematera joan zen urriaren 17an Nafarroako Odol Transfusiorako Zentrora. Txanda hartzeko tiketa gaztelania hutsean zegoen. Testua: <i>Fecha. Hora. Donación normal. Válido para aparcar en plazas reservadas (max. 2 horas).</i>
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1193-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Herritarra odola ematera joan zen urriaren 17an Nafarroako Odol Transfusiorako Zentrora. Odola eman aurretik galdetegi bat betetzeko eskatu zioten eta gaztelania hutsean zegoen. Euskarazkorik zuten galdetu zuenean, galdetegi berria zela eta itzultzen ari zirela erantzun zioten. Herritarrak dioenez, hau ez da gertatzen den lehen aldia, galdetegia aldatu eta euskarazko bertsioa askoz ere beranduago heltzen da beti.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.:	1194-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Herritarra odola ematera joan zen urriaren 17an Osasunbideako Nafarroako Odol Transfusiorako Zentrora. Zalantza bat argitzeko gaztelaniaz hitz egin behar izan zuen, langile euskaldunik ez baitzegoen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1277-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Barañaingo herritarrek Osasunbidearen informazio-gutuna jaso zuten azaro erdialdean. Bi orri zeuden bertan: 1) "Gure Osasun Etxea hobetzea, denon ardura" izenekoa, euskaraz. Eta 2.a osasun-etxera noiz deitu behar den, nork arta zaitzakeen etab. azaltzen duena, gaztelaniaz. 2. orri hori euskaraz jaso nahi izanez gero, osasun-etxera bertaratu behar dela ageri da, 1. orrian.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1387-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Azaroaren 30ean Osasunbideak semearen Osasun txartela helarazi zion Iruñeko herritarri. Txartelarekin zetorren eskutitza gaztelania hutsean idatzita zegoen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1399-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Arrotxapeako osasun-etxean alabarentzako pediatria euskalduna eskatu badute ere, erdalduna izendatu diete.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1359-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: BARAÑAINGO EMAKUMEEN ARRETARAKO ZENTROA
Arrazoia:	Barañaingo emakumeen arretako zentroko erizainak herritarri azaroaren 30ean eman zion utero lepoko minbiziari buruzko informazio-orria (txertoari buruzko publizitatea) ez zegoen euskaraz. Glaxo Smith Kline-rena da aipatu orria.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1099-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: ETXARRI-ARANAZKO EMAKUMEEN ARRETARAKO ZENTROA
Arrazoia:	Etxarri Aranazko Emakumearen Arretarako Zentrotik, 948.567.061 telefonotik, deitu zioten hitzordua finkatzeko. Deitu zuen pertsonak ez zekien euskaraz eta gaztelaniaz aritu behar izan zuen herritarrek.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1149-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: ETXARRI-ARANAZKO EMAKUMEEN ARRETARAKO ZENTROA
Arrazoia:	Herritarrek gaztelaniaz aritu behar izan nuen Etxarri Aranazko Emakumearen Arretarako Zentroko ginekologoarekin, honek ez baitzekien euskaraz.
Erantzuna:	

SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUA

Esp. Zenb.:	29-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Urtarrilaren 12an A-10 autobidean Iruñeko noranzkoan goizeko 8:50ean Izurdiaga parean dagoen argizko panelean gaztelania hutsean ageri zen gidariei zuzendutako oharra: <i>Con niebla modere velocidad.</i>
Erantzuna:	<p><u>1. erantzuna:</u> HERRI LANETAKO ZUZENDARI NAGUSIA: <i>Gertaera sortu zen lekua eremu euskaldunean egonik, idazkia bidali zaio AUDENASARI, akatsa zuzentzeko eskatuz.</i></p> <p><u>2. erantzuna:</u> AUDENASAKO USTIAPEN ZUZENDARIA: <i>Agindua eman dugu ezaugarri horiek dituzten paneletan testuak ele bietan ager daitezen, horrekin Administrazio Publikotik egiten zaigun eskaera betetzen dugun ustean. Orain arte horrela jokatu ez izanaren arrazoia da, uste genuela 18/1986 legeak ez zigula zuzenean eragiten. Horregatik orain arte trafikoari mezuak eraginkortasunez helaraztea izan da gure lehentasuna. Eraginkortasun horrek lotura zuzena du mezua argi eta xume ematearekin, bai eta mezua bistaratzeko denborarekin, are gehiago, kasu honetan bezala, panelak lerro bakarra badu.</i></p> <p><u>3. erantzuna:</u> AUDENASAKO ZUZENDARI NAGUSIA: <i>Mezu berriak prestatu ditugu. Orain laburragoak dira baina elebidunak, eta beraz, legeak ezarritakoarekin bat datoz.</i></p>

Esp. Zenb.:	76-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Urtarrilaren egun batzuetan lainoa zela eta, bideko autobian dauden Erreniagako tunelen inguruan eta bi norabideetan dauden panel elektronikoak piztuta zeuden eta irakurri ahal ziren mezu guztiak gaztelaniaz zeuden. Mezuak hauexek ziren: <i>Precaución niebla, circule con prudencia, mantenga la distancia de seguridad,</i> besteak beste.
Erantzuna:	<p><u>1. erantzuna:</u> BIDE SEGURTASUNEN ETA KONTROL ZENTROKO ATALEKO BURUA: <i>Kexan aipatzen diren seinaleztapen aldakorrek kartelak ez daude eremu euskaldunean. Mezu aldakorrek panelak ez dira herri-hasiera edo amaiera adierazten duten kartelak. Nafarroako Gobernuak 2006ko irailaren 25ean onetsitako Akordioa da kasu honetan aplikatu beharrekoa. 2.d. atalean honela dio: Nafarroako Errepide sareko gainerako seinaleztapen elementu eta testuak seinale finko eta aldagarrien gainean idatziko dira, era honetan: ... Gaztelaniaz eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunean. Beraz, izaera eta kokapena kontuan hartuta, mezu aldakorrek paneletan testuak gaztelania hutsean emanda, Nafarroako Gobernuaren akordioak ezarritakoa bete da, eta ez dago inolako aldaketarik egin beharrik. A: Mezu berriak prestatu ditugu. Orain laburragoak dira baina elebidunak, eta beraz, legeak ezarritakoarekin bat datoz.</i></p> <p><u>2. erantzuna:</u> HERRI LANETAKO ZUZENDARI NAGUSIA: <i>Kexan aipatzen diren tunelak ez daude eremu euskaldunean, eta ondorioz, Nafarroako errepide sareko errotulazioari buruzko jarraibidea onesten duen 2006ko irailaren 25eko Nafarroako Gobernuaren Akordioak 1. atalaren arabera ez da derrigorrezkoa paneletan euskarazko testua sartzea.</i></p> <p><u>3. erantzuna:</u> HERRI LANETAKO ZUZENDARI NAGUSIA: <i>Nafarroako Arartekoak 2010 urtean elebitasuna eta herritarren hizkuntza eskubideen egoerari buruz eginiko txosten berezituko 5. iradokizunari dagokionez, berretsi nahi dugu Nafarroako Errepide Sareko gaztelaniazko eta euskarazko errotulazioaren gaineko jarraibidea ematen duen Nafarroako Gobernuaren 2006ko irailaren 25eko Akordioak indarrean jarraitzen duen bitartean, Departamentu hau hura betetzera behartuta dagoela. Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuari dagokio Nafarroako Arartekoak aipatu txostenean egiten duen iradokizuna onartu edo ez onartzea.</i></p>

Esp. Zenb.:	153-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Otsailaren 9an Noaindik Irunberrirako bidean argizko bi panel zeuden eta bietan informazioa gaztelania hutsean ageri zen: <i>Puerto Belagua cerrado</i> eta <i>Viento lateral</i> .
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	154-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Otsailaren 8an eta 9an goizeko 8:50ak aldera A-10 autobidean Iruñerako noranzkoan Izurdiaga parean dagoen argizko panelean ageri zen testua gaztelania hutsean zegoen: <i>Temperaturas bajo cero. Riesgo de hielo</i> .
Erantzuna:	<u>1. erantzuna:</u> HERRI LANETAKO ZUZENDARI NAGUSIA: <i>Gertaera sortu zen lekua eremu euskaldunean egonik, idazkia bidali zaio AUDENASARI, akatsa zuzentzeko eskatuz.</i> <u>2. erantzuna:</u> AUDENASAKO USTIAPEN ZUZENDARIA: <i>Agindua eman dugu ezaugarri horiek dituzten paneletan testuak ele bietan ager daitezen, horrekin Administrazio Publikotik egiten zaigun eskaera betetzen dugun ustean. Orain arte horrela jokatu ez izanaren arrazoia da, uste genuela 18/1986 legeak ez zigula zuzenean eragiten. Horregatik orain arte trafikoari mezuak eraginkortasunez helaraztea izan da gure lehentasuna. Eraginkortasun horrek lotura zuzena du mezua argi eta xume ematearekin, bai eta mezua bistaratzeko denborarekin, are gehiago, kasu honetan bezala, panelak lerro bakarra badu.</i> <u>3. erantzuna:</u> AUDENASAKO ZUZENDARI NAGUSIA: <i>Mezu berriak prestatu ditugu. Orain laburragoak dira baina elebidunak, eta beraz, legeak ezarritakoarekin bat datoz.</i>
Esp. Zenb.:	157-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	AP-15 autobidean, Iruñeko norakoan, goizeko 8:45 aldera, Izurdiaga parean dagoen argizko panelean gaztelania hutsean egon zen otsailaren 27tik martxoaren 3ra gidariei ezkerreko erreia tarte batean itxita zegoela jakinarazteko oharra: <i>Carril izquierdo cortado Km. 100 a Km. 98</i> .
Erantzuna:	<u>1. erantzuna:</u> HERRI LANETAKO ZUZENDARI NAGUSIA: <i>Gertaera sortu zen lekua eremu euskaldunean egonik, idazkia bidali zaio AUDENASARI, akatsa zuzentzeko eskatuz.</i> <u>2. erantzuna:</u> AUDENASAKO USTIAPEN ZUZENDARIA: <i>Agindua eman dugu ezaugarri horiek dituzten paneletan testuak ele bietan ager daitezen, horrekin Administrazio Publikotik egiten zaigun eskaera betetzen dugun ustean. Orain arte horrela jokatu ez izanaren arrazoia da, uste genuela 18/1986 legeak ez zigula zuzenean eragiten. Horregatik orain arte trafikoari mezuak eraginkortasunez helaraztea izan da gure lehentasuna. Eraginkortasun horrek lotura zuzena du mezua argi eta xume ematearekin, bai eta mezua bistaratzeko denborarekin, are gehiago, kasu honetan bezala, panelak lerro bakarra badu.</i> <u>3. erantzuna:</u> AUDENASAKO ZUZENDARI NAGUSIA: <i>Mezu berriak prestatu ditugu. Orain laburragoak dira baina elebidunak, eta beraz, legeak ezarritakoarekin bat datoz.</i>
Esp. Zenb.:	626-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Maiatza hasieran Ollokiko sarreran trafiko-seinale berriak jarri zituzten. Laranja eta horiak dira eta guzti-guztiak gaztelaniaz baino ez daude idatzita: <i>En toda la urbanización, Atención en toda la urbanización</i> (zutikakoak 3) eta <i>Cuidado (horizontala 1)</i> .
Erantzuna:	

Esp. Zenb.:	1262-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Azaroaren 10ean arratsaldeko 17:30ean PA-30 errepidean Esteribarko dermioan kokatua dagoen kartel elektronikoak horrela zioen, gaztelania hutsean: <i>Pavimento deslizando por lluvia.</i>
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	31-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUA. NASUVINSA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoa den VINSak hainbat etxabe ditu salgai Sarrigurenen, Tracasaren atzealdean. Salgai daudela adierazteko jarrita dauden kartelak gaztelania hutsean idatzita daude. <i>VINSA. Viviendas de Navarra S.A. Se vende diote.</i>
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	32-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUA. NASUVINSA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoa den VINSak gaztelania hutsean du webgunea.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	33-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUA. NASUVINSA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoa den VINSaren web orrian adierazten den 948220819 zenbakira deitu du galdera bat egiteko. Telefonoaren lokuzioa gaztelania hutsean dago.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	531-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUA. AUDENASA
Arrazoia:	Otsailean autopistarako eskatu zuen txartela bidali zion Audenasak postaz herritarrari. Txartelarekin batera zetorren jakinarazpena gaztelania hutsean idatzita zegoen.
Erantzuna:	AUDENASAKO ZUZENBIDE DEPARTAMENTUA: <i>18/1986 Foru legea, Euskarari buruzkoa, ez da aplikagarria Merkataritzako Elkarre ez publikoa garelako, eta Euskarari buruzko legeak Administrazio Publikoetako euskararen erabilera arautzen duelako.</i>
Esp. Zenb.:	835-2012
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUA. AUDENASA
Arrazoia:	AUDENASAK herritarrari gaztelania hutsean idatzitako gutuna bidali ondoren, honek ekainaren 6an eskatu zuen berak jaso behar zuen dokumentazio guztia euskaraz izatea. Hasiera batean baietz esan bazioten ere, ondoren ezetza eman zioten. Telefonoz deitu zuen argitzeko eta inongo betebeharririk ez dutela azaldu zioten eta beraz, ez dutela egingo.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.: 891-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUA. AUDENASA

Arrazoia: Irailaren 14an AUDENASAK herritarrari luzatutako *Justificante retiro* delako agiria gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna: AUDENASAKO ZUZENBIDE DEPARTAMENTUA: *18/1986 Foru legea, Euskarari buruzkoa, ez da aplikagarria Merkataritzako Elkartea ez publikoa garelako, eta Euskarari buruzko legeak Administrazio Publikoetako euskararen erabilera arautzen duelako.*

Esp. Zenb.: 1287-2012

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUA. AUDENASA

Arrazoia: AUDENASAK Sarasan herritarrari azaroaren 7an luzatutako agiria, *Justificante retiro* delakoa, gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna: AUDENASAKO ZUZENBIDE DEPARTAMENTUA: *18/1986 Foru legea, Euskarari buruzkoa, ez da aplikagarria Merkataritzako Elkartea ez publikoa garelako, eta Euskarari buruzko legeak Administrazio Publikoetako euskararen erabilera arautzen duelako.*

NAFARROAKO ARARTEKOA

Esp. Zenb.:	1407-2012
Erakundea:	NAFARROAKO ARARTEKOA
Arrazoia:	Nafarroako Arartekoak abenduaren 13an herritarrari bidalitako posta elektronikoko mezua gaztelania hutsean zegoen. Arartekoak herritarrari emandako erantzuna, berriz, euskaraz zegoen. Postako mezua: Estimado Sr.: Adjunto le remitimos escrito relacionado con el expediente XXXX. Un saludo, Oficina del Defensor del Pueblo de Navarra C/ Emilio Arrieta, 12 bajo 31002 Pamplona Tel: 948 20 35 71 / Fax: 948 20 35 49. C/ Emilio Arrieta, 12 bajo. 31002 Pamplona. Tel: 948 20 35 71 / Fax: 948 20 35 49. www.defensornavarra.com .
Erantzuna:	NAFARROAKO ARARTEKOA: <i>Legeak ez agindu arren, ARARTEKOAk euskaraz erantzuten die euskaraz zuzentzen diren herritarrei. Kasu honetan berdin egin zuen. Posta elektronikoa zergatik bidali genuen gaztelania hutsean ez dakigu. Aurrerantzean aintzat hartuko dugu eta, ahal den neurrian, hizkuntza hori hautatzen duten herritarrekin harreman osoa euskaraz edukitzen saiatuko gara .</i>

NAFARROAKO PARLAMENTUA

Esp. Zenb.: 966-2012

Erakundea: NAFARROAKO PARLAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako hezkuntzako eragile batek irailaren 20an Nafarroako Gobernuako Parlamentuko posta helbidetik jaso zuen posta elektronikoa eta honi erantsitako akordioa gaztelania hutsean zeuden. Gaia: *Acuerdo mesa parlamento de navarra Sesión.....*

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1144-2012

Erakundea: NAFARROAKO PARLAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Parlamentuak Nafarroako hezkuntzako eragile bati irailean bidalitako deialdia gaztelania hutsean zegoen. Deialdi horretan Parlamentuan burutzekoa zen lan-saio baten berri ematen zitzaion.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1145-2012

Erakundea: NAFARROAKO PARLAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Parlamentuak Nafarroako hezkuntzako eragile bati irailean posta elektronikoz bidalitako jakinarazpena gaztelania hutsean zegoen. Jakinarazpen horretan Parlamentuan burutzekoa zen lan-saio batera sartzeko beharrezkoa zenaren berri ematen zitzaion. Dokumentuen izenburuak: *Comunicación previa de asistentes y Resolución de la Presidencia del Parlamento de Navarra de 10 de marzo de 2008, por la que se aprueban las normas sobre el desarrollo de las sesiones de trabajo y de las visitas autorizadas por la Mesa del Parlamento de Navarra.*

Erantzuna:

5. FORU ALDUNDIAK

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Esp. Zenb.: 143-2012

Erakundea: ARABAKO FORU ALDUNDIA

Arrazoia: Arabako udala batek Plan Orokorraren espediente osoa bidali du Arabako Foru Aldundira, onespena eman diezaioten. Hirigintza zerbitzutik euskara hutsean bidalitako dokumentuak gaztelaniaz bidaltzeko eskatu diete.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 359-2012

Erakundea: ARABAKO FORU ALDUNDIA

Arrazoia: Gasteiztik Miñaoko parke teknologikora doan autobusak aurreko aldean daroan errotuluak honela dio euskaraz: *Vitoria-Gasteiz-Arabako Teknoligi Parkea*. Hau da, *teknoligi* ageri du *teknologi* beharrean. Autobusak Arabako diputazioaren irudi korporatiboa daroa.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 834-2012

Erakundea: ARABAKO FORU ALDUNDIA

Arrazoia: Herritarrak ekainean egin zuen errenta aitortpena Foru Aldundiak, Félix M^a Samaniego kalean duen bulegoan. Informazioan zegoen langilearekin ezin izan zuen euskaraz egin. Ondoren, errenta aitortpenarekin zerikusia zuten zalantza batzuk argitzeko asmoz, zegoen leihatila bakarrera bidali zuten eta han ere ezin izan zuen euskaraz egin bere aitortpena euskaraz egin baitzuen eta langileak ez zuelako ulertzen. Azkenean, *ventanilla única* deitzen denera bidali zuten.

Erantzuna: OGASUN ZUZENDARIA: *Errenta kanpainarako informaziorako langileak zein errenta kanpainako langileak kontratatzerakoan, oro har, bermatu egiten dugu Foru Aldundira datozen pertsonak bai ahoz, bai idatziz, bai beste bideren batez beren hizkuntza eskubideak erabili ahal izatea. Horretarako, kontratatzen diren guztietatik behar besteko kopuru batek eskubide hori betearazteko nahitaezko hizkuntza-eskakizuna edo horren baliokidea den titulazioa edukitzea exijitzen dugu. Ez dakigu zer gertatu zen kasu jakin horretan, ezustekoren bat gertatu zen eta horren ondorioz une hartan hain justu inor ez zegoen zergadunari euskaraz erantzuteko, hasiera batean behintzat. Kexa irakurrita, ezin da ondorioztatu leihatila bakarrean euskaraz erantzun zitzaien. Hala ere, horrek esan nahi du langileak hasiera batean euskaraz erantzun ezin izan zion arren, horretarako gaitasuna zuen beste batengana bideratu zuela. Hortaz, berehala izan ez bazen ere, aukeratutako hizkuntza ofizialean behar bezala erantzun egingo zitzaien zergadunari. Euskaraz erantzun zitzaien ala ez argi ez badago ere, barkamena eskatu nahi diogu zergadunari.*

Esp. Zenb.: 938-2012

Erakundea: ARABAKO FORU ALDUNDIA

Arrazoia: N-240 errepidean, Gasteiztik Otxandiorako norabidean, Billerle-Legutiano herrigunera sartu orduko, Guardia Zibilaren kuartela zegoen inguruan, obretako seinaleak zeuden irailaren 19an. Testua duen bakarra erdara hutsean dago: *Atención / Salida de camiones*.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1217-2012

Erakundea: ARABAKO FORU ALDUNDIA

Arrazoia: ARABAKO ARKEOLOGI MUSEOAK herritarrari urriaren 26an luzatu zion inprimakia (*Devolver a: intercambio*) gaztelania hutsean zegoen. Herritarrak gehitzen duenez, museoaren erabiltzailea da eta museoak ez du euskara askorik erabiltzen euren argitalpenetan, ez aldizkarietan ezta bere gutunetan ere.

Erantzuna: MUSEO ETA ARKEOLOGIA ZERBITZUAREN BURUA: *Akatsa zuzentzeko neurriak hartu ditugu. Kanpora egindako jakinarazpen guztiak ofizialak diren bi hizkuntzetan egiten ahalegintzen da Museo eta Arkeologia Zerbitzua. Argitalpenei dagokienez, oro har araua da gida guztiak, material didaktikoa eta erakusketako materiala, gela-orriak eta abar bi hizkuntzetan argitaratzea. Argitalpen zientifikoetan egileak hautatzen ditu argitalpenaren hizkuntza edo hizkuntzak.*

Esp. Zenb.: 1317-2012

Erakundea: ARABAKO FORU ALDUNDIA

Arrazoia: N-240 Legutiano-Gasteiz errepidetik Luku herrira (Arratzua-Ubarrundia udalerrria) zein Lukuko ordainlekura (AP-1 Gasteiz-Eibar) heltzeko biribilgune inguruan bada gaztelania hutsean den bide-seinale bat: *ATENCIÓN / Control de gálbo.*

Erantzuna:

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Esp. Zenb.:	106-2012
Erakundea:	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
Arrazoia:	Herritarrak Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko 902.540.110 telefonora deitu zuen eta langileak gaztelaniaz egiteko esan ondoren telefonoa eskegi egin zuen. Herritarrak bi dei gehiago egin behar izan zituen eta azkenean ez zuen lortu euskaraz artatua izatea, langile euskaldunik ez zegoelako.
Erantzuna:	<i>GIZARTE EKINTZAKO FORU DIPUTATUA: Tramiteak egin ditugu kexan aipatzen den gertaera zein unetan edo egoeratan gertatu zen zehazteko, baina ditugun datuekin ezin izan dugu jakin. Zugaztel enpresa publikoa arduratzen da Gizarte Ekintza Sailaren laguntza telefonikoa emateaz, lehenengo mailatik. Arazoaren berri eman diogu enpresari, eta deiak egin ziren egun eta orduari buruzko daturik ez dagoenez, ezin da zehazki aztertu zer gertatu zen kasu honetan. Edonola ere, Zugaztelen laguntza telefonikoa ematen duten pertsonak elebidunak dira, eta, kasu gehienetan, euskara erabiltzen dute ohiko komunikazio-hizkuntza gisa. Horrez gainera, Zugaztelek euskara plan bat dauka laguntza telefonikorako. Dena dela, kexa ikusita, konpromisoa hartu dute gora-behera hori kalitate-sisteman erregistratzeko eta lan prozedurak berrikusi eta sendotzeko. Bestalde, jakinarazi nahi dizuegu lanean ari garela herritarrentzako laguntza telefonikoa hobetzeko. Hori dela eta, 2012. urteko azken hiruhilekoan, jarri den zenbaki bakarraren bidez kontsultak egitean, pertsonen emango zaien lehenengo aukera hizkuntza hautatzea izango da, beren hizkuntza eskubideak bermatuta gera daitezen.</i>

Esp. Zenb.:	460-2012
Erakundea:	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
Arrazoia:	Herritarrak errenta aitortpena beti euskaraz egiten duen arren, Bizkaiko Foru Ogasunak apirilaren 2an bidali zion posta elektronikoa <i>Clave renta 2011</i> gaztelania hutsean zegoen.
Erantzuna:	<i>ZERGADUNARENTZAKO INFORMAZIO ETA LAGUNTZA ZERBITZUA: Gai horren inguruan barkamenik zintzoena eskatu nahi dugu eta gainera jakinarazi ataleko zein zerbitzuko arduradunarekin harremanetan jarri garela telefonoz, mota horretako jakinarazpenak zuzentzeko bidezko neurriak har ditzaten.</i>

Esp. Zenb.:	463-2012
Erakundea:	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
Arrazoia:	Getxoko Chopos etorbidea 61. zenbakian kokatuta dauden bi trafikoko seinaleak gaztelania hutsean idatzita daude.
Erantzuna:	<i>BIDE AZPIEGITUREN ZUZENDARI NAGUSIA: Bizkaiko Foru Aldundiko Errepideak Kontserbatzeko Zerbitzuek egiaztatu dute baietz, seinale bi zeudela Carga y descarga sólo residentes. Tiempo máximo 10 minutos adierazpenarekin, eta testua gaztelaniaz bakarrik zegoela. 10/1982 Legearen 10.2. artikulua betearazteko, seinale bertikal egokiak jarri dira.</i>

Esp. Zenb.: 816-2012

Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Arrazoia: Irailaren 5ean eguerdian, BI-633 errepidean (Abadiño-Ondarroa), Gerediaga auzoko Euskoil gasolindegia eta Berriz herrira sartzeko lehen irteeraren artean, obretako bide-seinale horia zegoen gaztelania hutsean. *Atención, maquinaria pintando* edo antzeko testua zuen.

Erantzuna: BIDE AZPIEGITUREN ZUZENDARI NAGUSIA: *Bizkaiko Foru Aldundiko Herri lan Saileko Kontserbazio Zerbitzuak lan horiek egiten dituen enpresari indarrean dagoen araudia bete dezan eskatu dio, eta, hortaz, aurrerantzean obra guztietako seinaleak bi hizkuntza ofizialetan jarri beharko dituela, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz.*

Esp. Zenb.: 853-2012

Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Arrazoia: Bizkaiko Foru Aldundiak gaztelania hutsean bidali zion Lea-Artibai eskualdeko herritar bati Familien barruko Zaintzetarako Prestazioen inguruko jakinarazpenari atxikitako Ebazpen-proposamena.

Erantzuna: GIZARTE EKINTZAKO FORU DIPUTATUA: *Oro har, foru-aginduak eta dagozkien txosten teknikoak programa informatiko baten bitartez egiten dira, hizkuntza bitan, 10/1982 Legearen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera. Hala ere, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen ondoriozko prestazioen arloan, eta oso bereziki familia inguruko zaintzetarako prestazio ekonomikoari buruzko gaietan, etengabe aldaketak sortzen ari dira gai horren arauketan, batez ere prestazio horiek berriak direlako eta estatu mailan egungo krisiak eraginda onetsi diren aldaketen ondorioz. Horrek guztiorrek eragin du administrazio jarduera horren oinarri den programa informatikoa arautegi berri horri egokitu beharra. Eta pilotutako espediente guztiak asko zirenez gero, eta pertsona onuradunei erraztasunak eskaini nahian, espedienteen kudeaketa luzatzea onuradunen interesen kalterako izango litzatekeelako, kasu batzuei buruzko aginduak eskuz egin ziren, gaztelaniaz. Egun egoera bideratuta dago programa informatikoaren bitartez eta Bizkaiko Foru Aldundiko itzulpen zerbitzuaren bitartez.*

Esp. Zenb.: 864-2012

Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Arrazoia: Irailaren 11n goizeko 11:00ak aldera BI-633 errepidean Ondarroako norabidean, Iruzubieta parean, obretako bide-seinalea gaztelania hutsean zegoen: *Atención, maquina pintando* zioen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 875-2012

Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Arrazoa: Herritarrak internetez eskatu zituen ekainaren 24an Bilboko Bizkaia frontoian jokatu zen eskuz banakako pilota partidarako sarrerak. Ticketea.com-ek mezu elektronikoa bidali zion sarrerak inprimatzeko adieraziz eta eserlekuen kokapenak zehaztuz. Mezua gaztelania hutsean jaso zuen. Hitz erdirik ere ez zeukan euskaraz.

Erantzuna: KIROLLEN ETA GAZTERIAREN ZUZENDARI NAGUSIA, KULTURAKO FORU DIPUTATUA: *Kirolen eta Gazteriaren Zuzendaritza Nagusiaren zuzeneko eskumenetik kanpo dagoen alor pribatuko harreman baten ingurukoa da kexa hau, eta administrazioaren erantzukizun publikotik at dagoela deritzogu. Bizkaia Frontoiaaren titularra Azpiegiturak SAU sektore publikoko enpresa da. Beronek kontratua dauka Giroa-Custom Sport enpresen elkarte tenporalarekin, azpiegitura horren kudeaketa eta ustiapenerako. Enpresa esleipendun honek, Aspe eta Asegarce pilotari enpresei alokatzen die frontoia, berauek partidak antola ditzaten, eta beraz, sarrerak sal ditzaten. Dena den, erantzukizun eta eskumen zuzenik izan ez arren, Bizkaiko Foru Aldundiak gestioak egin ditu Azpiegiturak eta Giroa-Custom enpresekin hizkuntza-trataera zuzena bermatze aldera. Izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren jardura esparruan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen 22/2009 Foru Dekretuaren 16. artikuluan honako hau xedatzen da: 1. Kontratu bidez emandako jarduerak edo zerbitzuak Foru Aldundiak berak emanak izango balira bezala jasotzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei, hizkuntzaren eretzean. 2. Kontratuaren bidez eman beharreko zerbitzuaren prestazioak dakartzanean zuzeneko harremanak herritarrekin, orduan baldintza hauek beteko dira: a) Enpresa adjudikaziodunak prestazioa eman beharko du, herritarrek bi hizkuntza ofizialetan hartuak izateko duten eskubidea errespetatuz. Enpresa adjudikaziodunari frontoia partida jakin batzuk antolatzeke alokatzen dioten enpresek sarreren salmentarako dituzten web bidezko hornitzaileen arazoa Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumenetik harago badoa ere, Bizkaiko Foru Aldundiak konpromisoa hartu du Aspe eta Asegarce enpresei jarraipena egiteko beraiantzat eta kontsumitzaileentzat onuragarria ez ezik galdatzeko moduko eskubidea den hori hainbat arinen egikaritu ahal izan dadin. Horiek horrela, Aspek eta Asegarcek harremanak hasi dituzte Ticketea.com eta Ticketmaster.com-ekin, hurrenez hurren, euskara erabiltzaileen hizkuntzen artean txertatu dezaten.*

Esp. Zenb.: 893-2012

Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Arrazoa: lurretan kamioiak pisatzeko baskularen ondoko eraikintxoko errotoia gaztelania hutsean dago: *Excepto servicios oficiales*. Aipatu baskula N-634 errepidean dago, Smurfit-Nervi3n paper-fabrikaren parean.

Erantzuna: GARRAIOEN ZUZENDARI NAGUSIA: *Irailaren 15ean zuzendu da testua, eta beste seinalea kendu egin da.*

Esp. Zenb.:	894-2012
Erakundea:	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
Arrazoia:	Lurretan kamioiak pisatzeko baskularen ondoko eraikintxoan dagoen errotuluak horrela dio: <i>Herrilan Saila eta Garraio</i> . Aipatu baskula N-634 errepidean dago, Smurfit-Nervi3n paper-fabrikaren parean.
Erantzuna:	GARRAIOEN ZUZENDARI NAGUSIA: <i>Irailaren 15ean zuzendu da testua, eta beste seinalea kendu egin da.</i>
Esp. Zenb.:	923-2012
Erakundea:	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
Arrazoia:	Maiatzaren 30ean Bizkaiko Ogasunak San Mames ondoan duen bulegora joan zen errenta aitortpenari buruzko informazioa eskatzera. Lau langilerekin egon zen orotara, eta guztien artetik bakarrak zekien euskaraz, eta hark ere hain trakets ezen azkenean gaztelaniaz jardun behar izan baitzuten elkar ulertuko bazuten.
Erantzuna:	ZERGADUNARENTZAKO INFORMAZIO ETA LAGUNTZA ZERBITZUA: <i>Recursonet zerbitzuko arduradunarekin jarri gara harremanetan eta hark azaldu digu Recursonet zerbitzuan lan egiten duten likidatzaileak 40 bat direla, astero txandaka aritzen direnak. Likidatzaile horien artean hizkuntza bietan, euskaraz eta gaztelaniaz, lan egiteko gai diren pertsonak daude; beste batzuek, ordea, gaztelaniaz bakarrik egin dezakete. Zerbitzuko arduradunak esan digu zerbitzua antolatzeke orduan kontuan hartu ohi dela txanda guztietan zergadunari hizkuntza bietan atenditzeko gai diren pertsonak egotea. Horrela, Recursonet Zerbitzura hurreratzen diren pertsoneri ausaz edo zoriz (ticket sistema erabilia, ilararen arabera) gerta dakieke elebiduna ez den teknikari batek atenditzea, baina horrelakoetan euskaraz atenditzea nahi dutela esan dezakete eta gaitasuna duten teknikariengana bideratuko dituzte.</i>
Esp. Zenb.:	937-2012
Erakundea:	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
Arrazoia:	Irailaren 5ean BI-633 foru-errepidean (Abadi3o-Ondarroa) Gerediaga auzoko (Abadi3o) Euskoil gasolindegia eta Berriz herrira sartzeko lehen irteeraren artean herritarrak ikusitako obretako bide-seinale horia gaztelania hutsean zegoen. Kartelak <i>Atenci3n, maquinaria pintando</i> edo antzeko testua zuen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	989-2012
Erakundea:	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
Arrazoia:	Uztailaren 6an Malmasingo Mugikortasuna Kudeatzeko Zentroa delakoaren sarbideetan, Malmasingo tunelaren parean, A8 autobidean sartzeko galarazten zuten seinaleak zeuden gaztelania hutsean bai Bilborako noranzkoan, bai Donostiarakoan: <i>Excepto personal de servicio</i> zioten.
Erantzuna:	BIDE AZPIEGITUREN ZUZENDARI NAGUSIA: <i>Euskararen erabileraren inguruko araudiak zer ezartzen duen aintzat hartuta, eta, bereziki, araudi horrek ezarritakoa Euskal Autonomia Erkidegoko bide publikoetako seinale eta karteletan nola aplikatu behar den kontuan hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiko Kontserbazio Zerbitzuak seinale horiek biak aldatu ditu, haien testua autonomia-erkidegoko hizkuntza ofizial bietan ager dadin.</i>

Esp. Zenb.:	1042-2012
Erakundea:	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
Arrazoia:	Bilbon, Artxandako Tuneletan jarrita dauden seinale batzuetan <i>PEAJE/TOLL</i> irakurtzen da, baina euskarazko ordainik (<i>BIDESARIA</i>) ez da ageri.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1318-2012
Erakundea:	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
Arrazoia:	BI-633 Markina-Ondarroa errepideko noranzko bietan, Urberuaga inguruan (Markina-Xemein), obretako seinale bana dago, gaztelania hutsean: <i>Salida de camiones</i> diotenak.
Erantzuna:	BIDE AZPIEGITUREN ZUZENDARI NAGUSIA: <i>Herri Lan eta Garraioen Zerbitzuak obra batzuk baimendu zituen herritar baten alde, eta herritarrari dagokio seinaleztatzean hizkuntza araudia betetzea.</i>
Esp. Zenb.:	1341-2012
Erakundea:	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
Arrazoia:	Herritarra urriaren 26an goizeko 10ak aldera Bizkaiko Foru Aldundiaren liburutegira joan eta sartzeko nortasun agiria erakutsi behar izan zuen. Postu horretan zegoen langileak ez zekien euskaraz. Geroztik sarritan errepikatu da egoera berbera.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1417-2012
Erakundea:	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
Arrazoia:	Abenduaren 10ean Durango-Elorrio eta Elorrio-Arrasate errepideek bat egiten duten biribilgunean -San Agustin auzoa, Elorrio- bi seinale zeuden gaztelania hutsean, honela ziotenak: <i>ATENCIÓN / SALIDA DE CAMIONES.</i>
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1439-2012
Erakundea:	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
Arrazoia:	Lekeitioko ur-araztegiaren inguruan badira pare bat bide-seinale <i>araztegi</i> berba ageri dutenak, <i>araztegia</i> beharrean.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.: 1012-2012

Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. ALHONDIGA BILBAO

Arrazoa: Bilboko Alhondiga liburutegian, umeen gune berezian eskaintzen diren liburu, ipuin, komiki eta abarretan gaztelaniazkoen eta ingelesezkoen eskaintza zabalagoa da euskarazkoena baino.

Erantzuna: BEZEROEN ARRETARAKO KOORDINTZAILEA: *Alhondiga Bilbaoko mediatekak diziplina anitzeko fondoa dauka. Fondoak izaera bikoitza du: batetik, bilduma orokorra dauka; eta bestetik, zentroaren egitarauarekin eta jardurekin du zerikusia. Bildumaren oinarria gaurkotasanak, multimedia euskarriek eta bilduma bereziek osatzen dute. Horrela, hautaketa eta eskuratze politikaren lehentasunezko helburuetako bat atzera begirako izaerarik gabeko titulu berriak eta berritasun editoriakl gehitzea da. Argitalpen hizkuntzei dagokienez, euskararen kasuan, fikziozko narrazioa eskuratzea bultzatzen da, bai eta, Euskal Herriko geografia, historia, soziologia, demografia nahiz gai zientifiko-teknikoak ere. BBK Mediateka ireki zenetik, euskarazko tituluek funtsen %20 osatzen dute, eta egindako maileguen %5,5. Gaur egun, Alhondiga Bilbao BBK Mediatekan 5.500 titulu daude euskaraz, eta, horietatik, 2.000 haurrei zuzenduta daude. Zentzu horretan zein besteren batean izan ditzakegun gabeziei irtenbidea aurkitzeko lanean jarraitzen dugu, eta kontuan hartzen ditugu BBK Mediatekako erabiltzaileek eros ditzakegun liburuen gainean egiten dizkiguten iradokizunak.*

Esp. Zenb.: 1013-2012

Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. ALHONDIGA BILBAO

Arrazoa: Bilboko Alhondiga liburutegian liburuak ordenagailuz hartzen dira maileguan. Ordenagailuak luzatzen duen txartelean liburua hartu duzun egunaren data euskaraz azaltzen da, baina maileguaren muga egunari dagokiona gaztelaniaz.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1402-2012

Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. ALHONDIGA BILBAO

Arrazoa: Herritarra abenduaren 7an Bilboko Alhondigako ariketa fisikoaren eremura joan zen, informazio eske, euskaraz. Langileak gaztelaniaz erantzun zion eta herritarrak euskaraz jarraitu zuen ohartu arte. Orduan, gaztelaniaz jarraitu behar izan zuen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1485-2012

Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. ALHONDIGA BILBAO

Arrazoa: Bilboko Alhondigako ikastaroetan izena ematean luzatzen dituzten ordainagiriak gaztelania hutsean daude, eta zinemako sarrerekin ere gauza bera gertatzen da.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1254-2012

Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. BEC

Arrazoa: Barakaldoko BEC-en, azaroaren 10ean izandako Becatu festibalean, edarien eta janarien prezioak iragartzeko kartelak gaztelania hutsean zeuden.

Erantzuna: KALITATE ETA EROSKETA SAILAREN ZUZENDARIA: hornitzaileekin hitz egin ondoren, nahiz eta lehendik zeuden kartelak kendu ez bazituzten ere, Becatu Festibalerako ireki ziren barra orotan euskarazko kartelak jarri zirela esan digute. Honetaz gain, langile euskaldunak kontratatu ziren espresuki lan honetarako. Becatu festibalean neurri bereziak hartu ziren, jendearen aurrean lanean zebiltzan langile guztiek euskara jakin zezaten eta honetara konprometitu zen BEC antolatzailearekin. Konpromiso hori betetzat eman dugu bai BEC-ek bai Abarrek (antolatzaileak) ere.

Esp. Zenb.: 1338-2012

Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. BEC

Arrazoia: BEC Bilbao Exhibition Centre-k *Deia* eta *El Correo* egunkarietan azaroaren 29an Exponatur iragartzeko jarritako iragarkia gaztelania hutsean zegoen. Azokaren babesle moduan Bizkaiko Foru Aldundia ageri da.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1276-2012

Erakundea: BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA

Arrazoia: Herritarrak Barik txartela atera ondoren, San Inazioko metroan erregistratu zuen euskaraz. Txartelaren datuak ikusi eta kudeatzeko bidali zioten mezua gaztelania hutsean zegoen. Horretaz gain, webguneko eduki batzuk ere gaztelania hutsean daude eta helbidea gaztelania hutsean sartu zioten bertan. Webgunean agertzen den publizitatea ere *barik es más. a aué esperas. hazte barik. solícitala. puente colaante* gaztelaniaz dago.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1434-2012

Erakundea: BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA

Arrazoia: Bizkaiko Garraio Partzuergoak *BARIK* txartelaz facebook-en sare sozialean zabaldutako orrialdea gaztelania hutsean dago. Deskribapena zein eduki guztiak.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 680-2012

Erakundea: GARBIKER

Arrazoia: Durangoko garbigunera joaten den aldiro gaztelaniaz hitz egin behar izaten du herritarrak, bertako langileak ez baitaki euskaraz.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 924-2012

Erakundea: METRO BILBAO

Arrazoia: Herritarrak euskaraz utzi zuen iradokizuna Bilboko metroaren webgunean. Metro Bilbaok gaztelania hutsean bidali zion iradokizuna jaso zutela egiaztatzeko mezua. Honela zioen: *Tu sugerencia en Metro Bilbao se está procesando.*

Erantzuna: ZUZENDARI NAGUSIA: *Metro Bilbaok elebitasuna errespetatzen du jendearentzat ateratzen dituen inprimaki, ohar eta komunikazio guztietan; euskaraz eta gaztelaniaz egiten dira denak, bezeroekiko harremana bi hizkuntza ofizialetan bermatuz. Web-orri berria dugu orain, eta ziurrenik probatzen ari ginenean gertatuko zitzaion hori. Izan ere, martxan jartzean, hasieran, hainbat arazo tekniko izan genituen, besteak beste, mezu horiekin. Arazo teknikoaz ohartu eta zuzendu egin zen, eta erantzun-mezu hori euskaraz ematen da aspaldi.*

Esp. Zenb.: 1151-2012

Erakundea: METRO BILBAO

Arrazoia: Herritarrak 2011n salatutakoak, berdin jarraitzen du: Etxebarriko metroko aparkalekuaren barruan badaude bide-seinale bi azpian honako errotilu bana ageri dutenak: *Excepto bus/autobusak ezik*. Bada euskarazko testua ez da zuzena, *autobusak izan ezik* behar luke.

Erantzuna: BEZEROEN INFORMAZIO ETA ARRETA SAILA: *Hasteko barkamena eskatu nahi dugu lehenago ere jakinarazi zitzaigun eta bigarren kexa eragin duen akatsa zuzentzeko atzerapena. Seinale berriak erosi ditugu Etxebarriko metro-geltokiaren ondoko aparkalekurako.*

Esp. Zenb.: 1253-2012

Erakundea: METRO BILBAO

Arrazoia: Herritarrak 2011n salatutako egoerak bere horretan dirau 2012ko azaroaren 6an: Etxebarriko metroko aparkalekuaren barruan dauden bide-seinale bi azpian honako errotilu bana ageri dutenak: *Excepto bus/autobusak ezik*. bada euskarazko testua ez da zuzena, *autobusak izan ezik* behar luke.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 858-2012

Erakundea: MALLABIAKO INDUSTRIALDEA S.A.

Arrazoia: Mallabiako Industrialdea SA sozietate publikoak iragarkia argitaratu zuen ekainaren 22an *Deia* egunkariko 35. orrialdean. Irargarkia gaztelania hutsean zegoen. Euskarazko egunkarian (*Berrian*), ez zuen iragarkirik ipini, ez euskaraz, ez elebidun.

Erantzuna: MALLABIKO INDUSTRIALDEA, S.A.ren GERENTEA: *DEIA egunkarian agertutako iragarkia gaztelaniaz bakarrik agertu zen akats bategatik. Abuztuan ateratako iragarkia ele bietan atera zen. BERRIA egunkarian iragarkia ez ateratzeagatik jarritako kexarekin ezin gara ados egon, horrelako interpretazioak Arlo Publikoaren Kontratuen legea urratuko lukeelako.*

Esp. Zenb.: 860-2012

Erakundea: MALLABIAKO INDUSTRIALDEA S.A.

Arrazoia: *Mallabiako Industrialdea S.A* . izena ez da zuzena, *Mallabiko Industrialdea S.A* . beharko luke izan.

Erantzuna: MALLABIKO INDUSTRIALDEA, S.A.ren GERENTEA: *Euskaltzaindiaren 145. Araua ikusita, argi dago txarto idatzita dagoela. Baina ezin dugu ahaztu Euskaltzaindiak araua 2005ean onartu zuela eta sozietate hau 2000ko azaroaren 30ean eratu zela. Beraz, izena jarri zenean ez zegoen araututa. Hau dela eta, izena Erregistroan aldatu ez denez, errespetatu behar dugu Merkataritza erregistroan agertzen den izena. Nolanahi ere, Okamikako Industrialdea, BA-arekin bat egitea onartu zenez, izen hori desagertuko da eta ez da berriro erabiliko.*

Esp. Zenb.: 859-2012

Erakundea: OKAMIKAKO INDUSTRIALDEA S.A.

Arrazoia: Okamikako Industrialdea S.A. sozietate publikoak iragarkia argitaratu zuen ekainaren 22an *Deia* egunkariko 35. orrialdean. Irargarkia gaztelania hutsean zegoen. Euskarazko egunkarian, gainera, ez zuen iragarkirik ipini, ez euskaraz, ez elebidun.

Erantzuna:

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Esp. Zenb.: 805-2012

Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Arrazoa: Herritarrak errenta aitortpena euskaraz egin zuen Gipuzkoako Foru Aldundian. Dirua itzultzean bankutik helarazi zioten transferentzi abonuan gaztelaniaz ageri ziren ia kontzeptu guztiak: *DFG RM, plaza de Guipuzcoa, CAMP de Guipuzcoa y San Sebastian, Sucursal institucional, DFG-Devoluc. Hacienda*. Herritarrak behin baino gehiagotan helarazi dio kexa bera Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Erantzuna: OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUKO FORU-DIPUTATUA: *Urtarrilaren 27ko 4/2009 Foru Dekretuak hizkuntza ofizialen erabilera arautzen du Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardura esparruan. 1. artikuluan zerbitzu hizkuntzak zehazten dira. Horren arabera euskara eta gaztelera herritarrei zerbitzua emateko hizkuntzak izango dira Gipuzkoako Foru Aldundiko atal eta jardura esparru guztietan. Aldundiak herritarrekin dituen harreman mota guztietan bermatu beharko da bi hizkuntzon erabilera, betiere herritarren nahiak kontuan harturik. Irizpide horietan oinarrituta, aipatu diguzuen egoera kontuan hartu eta zuzentzeko lanean ari gara. Lehenik eta behin, banku entitateak Ogasun Departamentutik informatikoki jaso eta bere abonu transferentzi dokumentuan zuzenean islatzen dituen datuak bi hizkuntza ofizialetan helaraziko zaizkio. Bestalde, banku-entitateari ere eskaera luzatuko zaio, abonu transferentzi dokumentuko kontzeptuetan jartzen dituen datuak bi hizkuntza ofizialetan jartzeko ahalegina egin dezan.*

Esp. Zenb.: 975-2012

Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. BIDEGI

Arrazoa: Uztailaren 6an goizeko 9:50ak aldera Bidegik Arrasateko irteeran duen ordainketa lekuan eskubiko kobralekuan 40-50 urte inguruko langilea zegoen kobratzaile. Kotxea gelditu eta bi txartelak eskuratzearekin batera *agiria, mesedez* adierazi zion herritarrak kobratzaileari. Imintzioka sumatu zuenez berriro *agiria, mesedez* esan zion eta kobratzaileak *no tengo por qué saber euskera, ya sé castellano...* erantzun zion.

Erantzuna: USTIAPEN ZUZENDARIA: *Ustekabea izan da guretzat herritarrak salatzen duen gertaera, eta barkamena eskatu nahi dugu, ulertezina iruditzen baitzaigu langileak ahalik eta atseginean eta arduratsuenan izan behar duelako bere eginkizunean. Hori horrela, gure operadorea den BIDE LAN-i honelako kasu bakanak berriro gerta ez daitezen hartu beharreko neurriak lehenbailehen hartzeko agindua eman diogu, gertatutakoa ez baita BIDE GIK bere erabiltzaileei igorri nahi diena.*

Esp. Zenb.: 21-2012

Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. FICOBA

Arrazoa: FICOBAk abenduaren 22an *BERRIA* n jarritako iragarkiak, Gabonetako haur-parkea iragartzen zuena, akatsak zituen. Fundazioko patronatuko kideak ondokoak dira: Eusko Jaurlaritza, Donostiako Udala, Irungo Udala, Gipuzkoako Bazkundera, Bidasoako Erakustazoka SA, Baiona-Euskal Herriko Merkataritza ganbara eta Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 22-2012

Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. FICOBA

Arrazoa: FICOBAko Gabonetako haur-parkearen webgunearen euskarazko bertsioan hainbat akats ageri dira.

Erantzuna:

6. EUROPA

EUROPA

Esp. Zenb.: 350-2012

Erakundea: EUROPAKO BATZORDEA

Arrazoia: Herritarrak martxoan Loiuko aireportuan erabiltzaileen eskura aurkitu zuen *Derechos de los pasajeros aéreos. Sus derechos como pasajero aéreo. Lo que necesita saber* esku-orria, Europako Batzordeak argitaratua, gaztelaniaz besterik ez zegoen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 347-2012

Erakundea: EUROPEAN C. EURAXESS

Arrazoia: Herritarrak gaztelania hutsean aurkitu zuen martxoan *La Carta Europea del Investigador y el Código de Conducta para la Contratación de Investigadores ¿Qué son?* Iruñean Aipatutako esku-orria EUROPEAN COMMISSION - EURAXESS-ek argitaratua da.

Erantzuna:

7. UDALAK

ARABAKO UDALAK

Esp. Zenb.:	115-2012
Erakundea:	GASTEIZKO UDALA
Arrazoia:	Otsailaren 25ean Europa biltzar-etxean egitekoa zen Guraso Eskolen XVI. topaketa iragartzeko Gasteizko Udalak ikastolaren bidez seme-alabei emandako informazio-orrian ondorengo ageri zen: <i>Heziketa zen onetik abiatuta - La educación desde el sentido común.</i>
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	167-2012
Erakundea:	GASTEIZKO UDALA
Arrazoia:	Gasteizko Udalak utzi egin dio udal liburutegi eta gizarte-etxeetarako <i>Berria</i> euskarazko kazeta erosteari. Ondorioz, ez da euskarazko kazetarik irakurtzeko aukerarik izango.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	326-2012
Erakundea:	GASTEIZKO UDALA
Arrazoia:	Gasteizko Udalaren El Pilar haur eskolako atezaina ez da euskalduna.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	655-2012
Erakundea:	GASTEIZKO UDALA
Arrazoia:	Gasteizko Udalak hiriko trafiko gorabeherei buruzko Twitter kontuan, http://twitter.com/VG_trafico , gaztelania hutsean argitaratzen ditu txioak.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1098-2012
Erakundea:	GASTEIZKO UDALA
Arrazoia:	Herritarrak Udalak antolatutako dantza ikastaro batean eman zuen izena, ikastaroa euskaraz izango zela iragarrita baitzegoen. Iaz gertatu zitzaion bezalaxe, ikasle asko ez dira euskaldunak. Irakaslea askotan gaztelaniaz hitz egitera behartuta dago eta herritarra bera ere bai, egokitzen zaion bikotea euskalduna ez delako.
Erantzuna:	<i>GIZARTE ETXEEN ZERBITZUBURUA: Euskaraz ematen diren ikastaroetan irakasleak euskara erabili behar du azalpen guztietan, eta ezinbesteko baldintza hori Udalak bermatu behar du. Egia da, ordea, ikastaro hauetan izena eman ohi duten pertsonen euskara maila oso desberdina izan ohi dela. Gizarte-etxeetako eta kirol-instalazioetako jarduera-programan jasotzen dugun bezala, Udalaren eskaintza euskaldunei ez ezik euskalduntzeko bidean dauden pertsona guztiei zuzentzen zaie, hau da, euskara ikasten ari diren edo euskara erabat menperatzen ez dutenei ere, hain zuzen ere euskararen erabilera bultzatzeko. Horren ondorioz, gerta daiteke ikasle batzuk erdaraz jardutea haien artean, edo erosoago sentitzea erdaraz egiten dutenean, baina ikasleek hizkuntzarekiko duten jarrera nekez behartu dezakegu. Hori bai, irakasleak azalpen guztiak euskaraz eman behar ditu. Dantza ikastaro honetako irakaslearekin hitz egin dugu eta baieztatu digu klaseak euskara hutsez ematen dituela. Halaber esan digu ez duela uste ikasle batzuen euskara maila oztupoa denik ikastaroa aurrera eramateko. Gizarte-etxeeko kultur teknikariak urriaren 19ko saioan talde honetako ikasle guztien aurrean azaldu zituen ikastaroaren hizkuntza-ezaugarriak.</i>

Esp. Zenb.: 1406-2012

GASTEIZKO UDALA

Udaleko kontrol ofizialek CAITB agiria lortzeko prozesua jarri zuen abian Gasteizko Udalak abenduaren 21ean. Hori lortzeko, langileek froga bat egin behar dute eta ikasteko Udalak

Erakundea: eman duen dokumentazio gehiena gaztelania hutsean dago.

Arrazoiak:

Erantzuna:

BIZKAIKO UDALAK

Esp. Zenb.:	25-2012
Erakundea:	BILBOKO UDALA
Arrazoia:	Bilboko udaltzaingoaren egoitza nagusian ibilgailuetarako sarbidean badira seinale bi edozeinen ibilgailua sartzea debekatua dagoela diotenak. Sarreraren aldamen bietan daude eta honako idatzia dute azpian: <i>Baimenduak ezik/Excepto autorizados.</i>
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	81-2012
Erakundea:	BILBOKO UDALA
Arrazoia:	Arratsaldeko 7ak aldera Bilboko Udaltzainen bulegora, udaletxean bertan dagoenera, joan behar izan zuen herritarrak salaketa bat jartzera. Artatu zuen udaltzainak euskaraz ez zekienez, gaztelaniaz bideratu behar izan zuen salaketa.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	129-2012
Erakundea:	BILBOKO UDALA
Arrazoia:	Bilboko Udaleko Zirkulazio eta Garraio Ataletik otsailaren 24an gaztelaniaz erantzun diote euskara hutsean bidalitako e-mezuari.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	246-2012
Erakundea:	BILBOKO UDALA
Arrazoia:	Ekainaren 1ean Bilboko Udalaren Euskara Sailak euskaraz aritzen den erakunde bati gaztelania hutsean bidali zizkion dokumentu batzuk.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	360-2012
Erakundea:	BILBOKO UDALA
Arrazoia:	Bilboko Udaltzaingoaren webgunea gaztelania hutsean dago: www.euskalnet.net/bilbaopol/page4.html
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	466-2012
Erakundea:	BILBOKO UDALA
Arrazoia:	Derion Bilboko Udal Hilerriko zenbait kartel gaztelania hutsean daude.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	523-2012
Erakundea:	BILBOKO UDALA
Arrazoia:	Bilboko Udalak BBK-rekin batera uztailan antolatu zuen 2012ko BILBAO BBK LIVE iragartzeko kartela gaztelania hutsean zegoen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	829-2012
Erakundea:	BILBOKO UDALA
Arrazoia:	BILBAO BERRI udal erakundea Bilboko Abandoibarra pasealekuan herri-lanak egiten ari da. Bertan jarritako lan-segurtasun oharretako seinaleak gaztelania hutsean daude.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.:	964-2012
Erakundea:	BILBOKO UDALA
Arrazoa:	Bilboko Udalarena den Erriberako merkatuko merkatari-elkartearen http://www.mercadodelaribera.net webguneak ez du euskarazko bertsiorik. Erosketak on-line egin daitezke bertan.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1007-2012
Erakundea:	BILBOKO UDALA
Arrazoa:	Bilboko Trenbidearen etorbidean, Zankoeta kalearen parean jarrita dagoen bide-seinalea <i>Excepto Bilbobus</i> dioena, gaztelania hutsean dago.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1053-2012
Erakundea:	BILBOKO UDALA
Arrazoa:	Bilboko Udalak berriki ireki duen Unamuno Institutuko aparkalekuko hizkuntza-paisaian gaztelania nagusi da: Kanpoko izena (<i>Parking Unamuno</i>), barruko errotulu batzuk, ordainagiria... Horretaz gain, langilea ez da euskalduna.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1061-2012
Erakundea:	BILBOKO UDALA
Arrazoa:	Bilboko Alondegian luzatzen dituzten tiket guztiak gaztelania hutsean daude. Herritarrak jaso duen azkena irailekoa da, kirol ikastaro batean izena eman zueneko.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1094-2012
Erakundea:	BILBOKO UDALA
Arrazoa:	Herritarra Bilboko Udalak Bilborock aretoan antolatutako hitzaldira joan zen. Hitzaldia, Euskara Sailak antolatuta, Kanadan lan egiteari buruzkoa zen. Kanadan duten hizkuntza politika, elebitasuna hain zuzen, behin eta berriro goraiatu arren, hitzaldia gaztelania hutsean izan zen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1095-2012
Erakundea:	BILBOKO UDALA
Arrazoa:	Bilboko Udalaren webgunean euskararen erabileraren inguruko kexa jarri zuen urriaren 9an eta erantzuna gaztelania hutsean jaso zuen. Hau ez da lehen aldia, beste batzuetan ere gertatu zaio. Mezua: <i>Zure Udalak aditzen dizu. Gracias por enviarnos esta queja. Todas las mañanas, de lunes a viernes, a primera hora, se recogerán las peticiones recibidas y se remitirán al departamento municipal competente en el tema para su valoración.</i>
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1342-2012
Erakundea:	BILBOKO UDALA
Arrazoa:	Zinebi - Bilboko Zine Dokumental eta Laburmetraia Nazioarteko Zinemaldiaren sarien banaketa-egunean gaztelania hutsera itzultzen zituzten ohol gainean zeuden atzerritarren hitzak. Bestalde, filmen euskarazko azpitoluak oso urriak izan ziren. Zehazki, jatorrizko bertsioa gaztelaniaz zenean soilik agertzen ziren euskaraz, ez bestela.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.: 134-2012
 Erakundea: ABADIÑOKO UDALA
 Arrazoa: Abadiñoko Udalak antolaturiko aurtengo San Blasetako azokako hainbat eta hainbat salmahaitako kartel, errotulu eta idatziak gaztelania hutsean zeuden.
 Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1444-2012
 Erakundea: AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA
 Arrazoa: Amorebieta-Etxanoko alkateak 2012ko Gabonetan DEIAn, *Hemendik Durangaldean* gehigarrian, argitaratu zuen mezua gaztelania hutsean zegoen. Testuaren amaierako zoriontze-esaldian baino ez darabil euskara. *Hemendik Durangaldea* astekaria osteguneko DEIArekin batera banatzeaz gainera, Durangaldeko eta Zornotzako hainbat tokitan ere banatzen dute dohainik.
 Erantzuna: AMOREBIETA-ETXANOKO UDALEKO ITZULTZAILEA: *Amorebieta-Etxanoko udalaren prentsa-ohar guztiak elebidunak izaten dira, eta ondorioz, baita intzidentzian aipatzen duzuen hori ere. Egunkarian agertutako mezu bera ikusgai dago Amorebieta-Etxanoko web orrian, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz. Ondorioz, DEIA egunkariak mezua gaztelania hutsean argitaratu izanaren ardura ezin zaio Amorebieta-Etxanoko Udalari leporatu.*

Esp. Zenb.: 63-2012
 Erakundea: BARAKALDOKO UDALA
 Arrazoa: Herritarrak Barakaldoko Herritarren Arretarako Zerbitzuko iradokizun postontzitik bidalitako mezua jaso du. Mezua euskaraz idatzita dago, baina akats ortografikoz josita.
 Erantzuna:

Esp. Zenb.: 652-2012
 Erakundea: BARAKALDOKO UDALA
 Arrazoa: Maiatzaren 27an Barakaldoko Udaltzaingotik deitu zuten herritarrak abisu bat emana baitzuen lehenago. Herritarra euskaraz hasi zen eta udaltzainak gaztelaniaz egiteko eskatu zion. Euskaraz ulertzen ote zuen galdetuta esaldi batzuk besterik ez zekiela erantzun zion euskaraz, eta gaztelaniaz egiteko eskatu zion berriro. Herritarrak halabeharrez gaztelaniaz egin behar izan zuen.
 Erantzuna:

Esp. Zenb.: 830-2012
 Erakundea: BASAURIKO UDALA
 Arrazoa: Basauriko Udalak Landa Doktorearen etorbidean jarritako trafiko seinalea gaztelania hutsean dago. Seinalean *EXCEPTO DESCARGA BASURAS* irakur daiteke.
 Erantzuna:

Esp. Zenb.: 842-2012
 Erakundea: BERRIZKO UDALA
 Arrazoa: Berrizen Sanpedroak zirela eta hainbat bide-seinale ipini zituzten zirkulazioa aldatzeko; baziren *sahiesbidea* ziotenak saihesbidea beharrean.
 Erantzuna: EUSKARA TEKNIKARIA: *Errotulu berriak egiteko agindua eman dugu.*

Esp. Zenb.: 1161-2012

Erakundea: BERRIZKO UDALA

Arrazoa: Berrizko Udalak urrian garbitzaile posturako bigarren aldiz kontratatutako pertsonak ez du postu honek duen euskarazko eskakizuna betetzen, HE1-a, 2010eko lanpostu deialdian zehazten zena hain zuzen.

Erantzuna: *ALKATEA: Premiazkoak diren kontratazioetarako, gehienak asteburuetan eta eguneko edo orduko kontratuak dira, 2010eko EPetik sortutako lan-poltsa erabili ohi da. Lan-poltsa agortuta dagoela esan daiteke, aipatutako premiazko zerbitzuak betetzeko ezezko erantzuna jaso ohi baita. Hortaz, beharrak ase ahal izateko, EPEaren aurretik egondakoak eta Gizarte Zerbitzuetatik proposaturiko pertsonak kontratatu izan dira, hizkuntza-eskakizuna betetzen duten ala ez kontuan izan gabe. Kontratazioa behar bezala egin ez dela aitortuz, Berrizko Udala konponbideak aztertzen ari da: lan-poltsa berria osatzea da aukera bat, eta, bestea, enpresa baten bidez garbitzaileak kontratatzea. Kasu batean zein bestean hizkuntza-eskakizuna bermatuta duten pertsonak izango lirateke.*

Esp. Zenb.: 1231-2012

Erakundea: BERRIZKO UDALA

Arrazoa: Berrizko Udalak euskararen eskakizuna betetzen ez duten garbitzaileak kontratatu ditu.

Erantzuna: *ALKATEA: Premiazkoak diren kontratazioetarako, gehienak asteburuetan eta eguneko edo orduko kontratuak dira, 2010eko EPetik sortutako lan-poltsa erabili ohi da. Lan-poltsa agortuta dagoela esan daiteke, aipatutako premiazko zerbitzuak betetzeko ezezko erantzuna jaso ohi baita. Hortaz, beharrak ase ahal izateko, EPEaren aurretik egondakoak eta Gizarte Zerbitzuetatik proposaturiko pertsonak kontratatu izan dira, hizkuntza-eskakizuna betetzen duten ala ez kontuan izan gabe. Kontratazioa behar bezala egin ez dela aitortuz, Berrizko Udala konponbideak aztertzen ari da: lan-poltsa berria osatzea da aukera bat, eta, bestea, enpresa baten bidez garbitzaileak kontratatzea. Kasu batean zein bestean hizkuntza-eskakizuna bermatuta duten pertsonak izango lirateke.*

Esp. Zenb.: 1283-2012

Erakundea: BERRIZKO UDALA

Arrazoa: Herritarrak salatutako egoerak, Berrizko Udalak euskararen eskakizuna betetzen ez duten garbitzaileak kontratatu zituela, bere horretan dirau.

Erantzuna: *ALKATEA: Premiazkoak diren kontratazioetarako, gehienak asteburuetan eta eguneko edo orduko kontratuak dira, 2010eko EPetik sortutako lan-poltsa erabili ohi da. Lan-poltsa agortuta dagoela esan daiteke, aipatutako premiazko zerbitzuak betetzeko ezezko erantzuna jaso ohi baita. Hortaz, beharrak ase ahal izateko, EPEaren aurretik egondakoak eta Gizarte Zerbitzuetatik proposaturiko pertsonak kontratatu izan dira, hizkuntza-eskakizuna betetzen duten ala ez kontuan izan gabe. Kontratazioa behar bezala egin ez dela aitortuz, Berrizko Udala konponbideak aztertzen ari da: lan-poltsa berria osatzea da aukera bat, eta, bestea, enpresa baten bidez garbitzaileak kontratatzea. Kasu batean zein bestean hizkuntza-eskakizuna bermatuta duten pertsonak izango lirateke.*

Esp. Zenb.: 1291-2012

Erakundea: BERRIZKO UDALA

Arrazoia: Herritarrak urriaren 31n bidalitako kexa berretsi nahi du. Kexak honela zioen: *Berrizko Udalak euskararen eskakizuna betetzen ez duten garbitzaileak kontratatzen ditu.* Herritarrak dioenez, azaroaren 25ean, Berrizko kultur etxean eta eskoletan lan egiteko kontratatutako garbitzaileak ez du euskara-eskakizuna betetzen.

Erantzuna: *ALKATEA: Premiazkoak diren kontratazioetarako, gehienak asteburuetan eta eguneko edo orduko kontratuak dira, 2010eko EPetik sortutako lan-poltsa erabili ohi da. Lan-poltsa agortuta dagoela esan daiteke, aipatutako premiazko zerbitzuak betetzeko ezezko erantzuna jaso ohi baita. Hortaz, beharrak ase ahal izateko, EPEaren aurretik egondakoak eta Gizarte Zerbitzuetatik proposaturiko pertsonak kontratatu izan dira, hizkuntza-eskakizuna betetzen duten ala ez kontuan izan gabe. Kontratazioa behar bezala egin ez dela aitortuz, Berrizko Udala konponbideak aztertzen ari da: lan-poltsa berria osatzea da aukera bat, eta, bestea, enpresa baten bidez garbitzaileak kontratatzea. Kasu batean zein bestean hizkuntza-eskakizuna bermatuta duten pertsonak izango lirarteke.*

Esp. Zenb.: 123-2012

Erakundea: DURANGOKO UDALA

Arrazoia: Durangoko Udalak Arrasoloeta kaleak Arriluzea kalearekin eta Hegoalde etorbidearekin bat egiten duen biribilgunean jarritako bide-seinaleak gaztelania hutsean daude: batak *Precaución: carretera cortada* dio; besteak, *Cortada por obras*.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 189-2012

Erakundea: DURANGOKO UDALA

Arrazoia: Gran Hotel Durango ostatuan obrak egin zituzten otsailean, eta espaloia oinezkoendako moztuta egon zen inguruan. Horren berri emateko ipini zen seinalea euskaraz txarto idatzita zegoen. *Ezpaloia* zioen *espaloia* beharrean.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 215-2012

Erakundea: DURANGOKO UDALA

Arrazoia: Durangoko Udalak TAO ordaintzeko makinei eranskailu bat ipini zien otsailaren erdialdean. Eranskailuko testua gaztelania hutsean zegoen *Conectada con dispositivo de alarma* zioen.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 216-2012

Erakundea: DURANGOKO UDALA

Arrazoia: Plateruena kafe-antzoikiaren eta Landako erakustazokaren eremura Ibaizabal auzunetik sartzeko bidean ipinita dagoen bide-seinalea gaztelania hutsean dago. Honela dio: *Acceso restringido*.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 217-2012

Erakundea: DURANGOKO UDALA

Arrazoia: Otsailaren hasieran Larresoloeta kaleak Arriluzea kalearekin eta Hegoalde etorbidearekin bat egiten duen biribilgunean pare bat bide-seinale jarri zituen udalak, biak gaztelania hutsean. Batak *Precaución: carretera cortada* zioen, eta besteak *Cortada por obras*. Handik egun batzuetara bide-seinaleotako baten gainean euskarazko testua zegoen paperean idatzita, baina euskara traketsen: *BIDE MOZTUTA* zioen *BIDEA MOZTUTA* beharrean.

Erantzuna:

Esp. Zenb.:	1234-2012
Erakundea:	DURANGOKO UDALA
Arrazoa:	Azaroaren 1a zela eta, Durangoko Larrasoloeta kalean, Juan Itziarkoaren auzunean eta inguruko kaleetan trafikoa bideratzeko hesiak jarri dituzte. Hesiak geziak ageri dituzte, <i>KANPOSANTU/CEMENTERIO</i> hitzek lagunduta, <i>Kanposantua/Cementerio</i> beharrez.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1319-2012
Erakundea:	DURANGOKO UDALA
Arrazoa:	Azaroaren bukaeran Durangoko Ezki kalean obrak egiten ari zirela eta Urki kalean jarritako <i>errepide itxita/carretera cortada</i> bide-seinalea gaizki idatzita zegoen euskaraz. <i>Errepide</i> hitza jarri beharrez, <i>errepidea</i> agertu behar baitzen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1320-2012
Erakundea:	DURANGOKO UDALA
Arrazoa:	Durangoko Montorreta kalean, Sabeco hipermerkatuaren aldetik Montorretara, Durangoranzko norabidean, sartzeko aldean aspalditik jarrita dagoen bide-seinalea gaztelania hutsean dago. Seinaleak dio: <i>Atención. Carretera cortada</i> .
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	513-2012
Erakundea:	ELORRIOKO UDALA
Arrazoa:	Elorrioko Udalak Bake Epaile berri gisa euskaraz ez dakien pertsona proposatu du kargu horretarako.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	465-2012
Erakundea:	ERANDIOKO UDALA
Arrazoa:	Erandioko udal zabor-bilketa kamioietan jarrita dauden ohar eta segurtasun oharrak gaztelania hutsean idatzita daude.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	828-2012
Erakundea:	ERANDIOKO UDALA
Arrazoa:	Erandioko Udalak Jose Luis Goyoaga etorbidean jarritako bi trafiko seinaleak gaztelania hutsean daude. Bi seinaleetan <i>CENTRO URBANO</i> irakur daiteke.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	259-2012
Erakundea:	ERRIGOITIKO UDALA
Arrazoa:	Errigoitiko zinegotziek udalari galderak eta eskakizunak euskaraz zuzentzen dizkioten arren, erantzunak gaztelania hutsean jasotzen dituzte.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	554-2012
Erakundea:	GERNIKAKO UDALA
Arrazoa:	Apirilera arte Gernikako Udalaren Twitter kontuan, http://twitter.com/AytGernika , gaztelania hutsean botatzen zituzten txioak.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.: 555-2012

Erakundea: GERNIKAKO UDALA

Arrazoia: Gernikako Bakearen Museoaren Twitter kontuan, <http://twitter.com/museodelapaz>, gaztelaniaz eta ingelesez daude txio guztiak; euskaraz ez dago bat ere. Kontuaren deskribapena ere gaztelania hutsean dago. Facebook orrialdeko www.facebook.com/MuseodelaPazdeGernika sarrerak gaztelania hutsean izan ohi dira.

Erantzuna: GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA FUNDAZIOKO ZUZENDARIA: *Gernikako Bakearen Museoko eta bertan lan egiten dugun langile guztien lan-hizkuntza euskara da eta, horrexegatik, gure eguneroko lanak zein beste ekintzak euskaraz eta museoak lanerako erabiltzen dituen beste hizkuntzetan (gaztelera, ingelesa eta frantsesa) izaten dira. Horrela, museoko informazio guztia lau hizkuntza horietan agertzen da (liburu, foileto, web orrialdeetan eta barretan). Kexan gure Facebook orrialdea gaztelania hutsean izaten dela esaten da, eta hori ez da horrela. Facebook lau hizkuntzetan dugu (horrek suposatzen digun lanarekin lan talde txiki batentzat) eta noski euskaraz agertzen dira berri eta gauza guztiak. Twitter da sare sozialetatik bakarra ez dagoena euskaraz idatzita, hori bai, norbaitek euskaraz idatziz gero erantzuna euskaraz izaten da. Twitter euskaraz ez egotearen arrazoia zera da: Twitter museoak gutxien erabiltzen duen sare soziala da, berez informazio gutxi sartzen dugu, agertzen den gehiena Facebook-etik automatikoki pasatzen dena da eta, bestalde gure jarraitzaile gehienak gaztelera edo ingelesez komunikatzen zirenez, horrela egitea erabaki genuen. Dena dela, eta adibide gisa, orain dela gutxi proiektu pilotu bat egin genuen EITBrekin Twitter-en bitartez Gernikako bonbardeoaren kontaketa bat egiteko eta, proiektu osoa euskaraz eta gaztelaniaz izan zen (eduki guztiak guk prestatu genituelarik bi hizkuntza horietan).*

Esp. Zenb.: 682-2012

Erakundea: GETXOKO UDALA

Arrazoia: Maiatzaren 13an EXTREME MAN nazioarteko triatloi proba egin zen Getxon. Probaren berri emateko argitaratu zen triptikoa erdara hutsean zegoen. Getxoko Udala probaren babesle izan zen.

Erantzuna: KALITATEA GETXO KIROLAK: *Kexa onartzen dugu. Egia esanda, argitalpen guztiak ez genituen kontrolatu. Dena den, hurrengorako saiatuko gara karteldegia guztia erdaraz eta euskaraz egon dadin.*

Esp. Zenb.: 1207-2012

Erakundea: GETXOKO UDALA

Arrazoia: Herritarra Getxoko Udaleko Kontsumitzaileen Bulegoan izan zen irailaren 6an eta ezin izan zuen euskaraz aritu, inork ez baitzekien.

Erantzuna: KOMUNIKAZIO ARLOKO ARDURADUNA: *Ezinezkoa zaigu kexari erantzun irmoa ematea, ez baitugu kexa aurkeztu duen pertsonaren nortasuna ezagutzen. Hala ere, KIUB dagoen bulegoetan irailaren 6an zeuden pertsonak euskaraz hitz egiten dute eta, zehazki, erakusmahaiaren jendea artatzen zegoen pertsonak euskaraz hitz egiten du. Bestalde, KIUB dagoen bulegoetan eta KIUBen erakusmahai artatu zuen langileari ez zion inork euskaraz artatua izateko eskaera espliziturik egin. Gertatu zen gorabehera bakarra (hala izenda badaiteke) gazte batek protagonizatu zuen (haserretu egin zen); beste udalerriko KIUBera jo behar duela errekamazioa aurkeztera. Baina gazte hau euskaraz komunikatu zen eta halaxe erantzun zitzaion.*

Esp. Zenb.: 1043-2012

Erakundea: GORDEXOLAKO UDALA

Arrazoa: Gordexolako Sandamendi auzoan, Ibarrabide delakoan dauden seinale batzuk gaztelania hutsean ageri dute testua: *Paso Elevado 25 m.*

Erantzuna: GORDEXOLAKO ALKATEA: *2012ko irailaren 17an (astelehena) gaztelaniazko testua agertzen zuten seinale guztiak kendu genituen eta gaur egun herrian ez dago testu hori agertzen duen seinalerik.*

Esp. Zenb.: 865-2012

Erakundea: ISPASTERKO UDALA

Arrazoa: Ispaster herri sarreran bada seinale bat abiadura 30 Km/h-tara mugatu behar dela dioena. Gaztelania hutsean ageri du *En toda la travesía* testua.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1299-2012

Erakundea: ISPASTERKO UDALA

Arrazoa: Herritarrak Isparteko Udalak antolatutako lehiaketa-oposizio batean aurkeztu zuen bere burua. Frogak irailean hasi ziren eta gertatutakoa salatu nahi du: lehen frogan, irailaren 12koan, gaztelania hutsean eman zituzten azalpenak, edota lehen gaztelaniaz eta ondoren, euskaraz. Azterketa euskaraz egin nahi zuela esplizitatu behar izan zuen; nahiz eta, prozesuan izena emateko eskabidean hala zehaztu zuen. Azterketa euskaraz egin nahi zuela esan zuenean, ea ziur zegoen galdetu zioten, azterketa udaletxean bertan euskaratua zegoela, e.a. Azterketa praktiko idatzian, azaroaren 14an, egoera berbera errepikatu zen: azalpenak gaztelaniaz eman eta azterketa-orriak gaztelania hutsean banatu zituzten. Herritarrak berriro eskatu behar izan zuen euskarazko alea. Luzatu zionak hauxe esan zion: *Ziur zaude? Zeren aurrekoan aldrebes egin zenuen*. Herritarrak ez zuen hau ulertu baina denen aurrean egin zuenez, isildu zen. Horretaz gain, euskarazko alea luzatu zionean, gaztelaniazkoa ere badaezpada ere utziko ziola esan zuen pertn dena da eta, bestalde gure jarraitzaile gehienak gaztelera edo ingelesez komunikatzen zirenez, horrela egitea erabaki genuen. Dena dela, eta adibide gisa, orain dela gutxi proiektu pilotu bat egin genuen EITBrekin Twitter-en bitartez Gernikako bonbardeoaren kontaketa bat egiteko eta, proiektu osoa euskaraz eta gaztelaniaz izan zen (eduki guztiak guk prestatu genituelarik bi hizkuntza horietan). tarik batean. Bukatzeko, azaroaren 21ean azterketa praktikoaren emaitzak jakinarazi zituzten, gaztelania hutsean, udalaren webgunean.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 856-2012

Erakundea: IURRETAKO ELIZATEKO UDALA

Arrazoa: Iurretako Udalak hainbat hesi ipini zituen ekainaren amaieran Andaparape kalean zirkulazioa eten eta aparkatzea galarazteko. Hesietan jarritako oharrak gaztelania hutsean zeuden: *Estacionamiento reservado. Prueba deportiva* zioten.

Erantzuna: ALKATEA: *Iurretako Udalak Euskal Autonomia Erkidegoko 10/1982 legeak xedatzen duenari jarraiki, hizkuntza ofizial biak erabiltzen ditu hitzez nahi idatziz. Bidalitako idazkian aipatzen dena kasu puntuala izan zen eta udalak antzeman zuenean zegozkion neurriak hartu zituen zuzentzeko eta berriro errepika ez dadin. Gaur egun udalerrian dauden seinale guztiak bi hizkuntzetan daude. Iurretako Udalak beti izan du konpromisoa herritarrek Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetan artatuak izateko duten eskubidea betetzen, eta saiatuko da holakorik berriro gerta ez dadin. Oharra: Kexa egin zuen herritarra ez dator bat Alkatearen adierazpenekin. Kasu puntuala zela esaten baitu, baina herritarrak bestelako inpresioa du, irailean bertan N-634ko biribilgune inguruetan gaztelania hutsean idatzitako seinaleak baitzeuden.*

Esp. Zenb.: 866-2012

Erakundea: IZURTZAKO UDALA

Arrazoia: Izurtzako herriko plazan obrak egiten ari dira eta pareko errepidean obretako bide-seinale horiak ipini dituzte. Irailaren 12an eguerdiko 14:40 aldera behin-behineko semaforo baten bitartez ari ziren trafikoa erregulatzen eta *Carril cortado* gaztelania hutsean zioen bide-seinalea egon zen ipinita Durangotik Mañarirako norabidean. Duela aste batzuk ere, gaztelania hutsean idatzitako obretako bide-seinaleak ikusi zituen herritarrak toki berean.

Erantzuna: ALKATEA: *Udal honen helburua euskaldunak administrazio honetan behintzat harremana euskaraz izatea bermatzea da, ahoz zein idatziz. Hemendik aurrera kontuan izango da Euskal Autonomi Erkidegoko 10/1982 legeak dioena euskararen erabilerari buruz.*

Esp. Zenb.: 939-2012

Erakundea: IZURTZAKO UDALA

Arrazoia: Herritarrak Izurtzako herriko plazan irailaren 19an ikusitako bide-seinalea (obretakoa, hori kolorekoa) gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna: ALKATEA: *Udal honen helburua euskaldunak administrazio honetan behintzat harremana euskaraz izatea bermatzea da, ahoz zein idatziz. Hemendik aurrera kontuan izango da Euskal Autonomi Erkidegoko 10/1982 legeak dioena euskararen erabilerari buruz.*

Esp. Zenb.: 1015-2012

Erakundea: MALLABIKO UDALA

Arrazoia: BI-633 errepidetik Mallabiko hainbat auzo-bidetara sartzeko sarbideetan noranzko debekatua adierazten duten seinaleak daude eta euskarazko testu akastuna ageri dute *Auzokoak ezik* baitiote *Auzokoak izan ezik* beharrean.

Erantzuna:	<i>FINANTZA ZUZENDARIA: Orokorrean HOTELES Y TERMAS, S.A. enpresan erabiltzaileen hizkuntza-eskubideen alde gaude eta hori lortzen saiatzen gara, horregatik gure langileak, ehuneko ehunean ez baldin bada ere, gehienak elebidunak dira eta une batean elebiduna ez den langile bat tokatuz gero, beti dago norbait euskaraz egiteko prest. Kasu honetan harrerako pertsonaren jarrera ere kontutan hartzekoa da eta askotan eragin handia izaten du horrelako egoeretan. Horrela bada, jasotako kexari Erantzuna: eman diogu eta aurrerantzean gure esku dagoena egiten saiatuko gara, hau berriro gerta ez dadin.</i>	
Esp. Zenb.:	544-2012	
Erakundea:	SENDAVIVA	NAF
Arrazoia:	Sendavivak gutuna helarazi zion apirilaren erdialdean Iruñeko euskaltegi bati, talde zein elkarteei zuzendutako eskaintzaren berri emanez. Informazio guztia gaztelania hutsean zegoen; ez zen hitz erdirik ageri euskaraz.	
Erantzuna:	<i>SENDAVIVA, ZUZENDARI BETEARAZLEA: Lehenik eta behin barkamena eskatzea eginiko akatsagatik, ziurrenik zonaldeko komertziala okertu eta informazioa euskaraz bidali beharrean gaztelaniaz bidali zuelako. Izan ere, Sendavivak asko zaintzen du hizkuntza bere ekintzetan, ez soilik publikazio edo bidalketetan, deskontua duten ekintza promozional, ferietako ekintza komertzial, ekitaldi edo Euskal Herri osoan egiten duen publizitatean ere bai. Horrez gain, parke barnean nahiz kanpoan eskaintzen duen banakako arretan, egoerak eskatzen duenera egokitzen du hizkuntza. Telefono komertzialean, parkeko barne-atentzioan eta elkarte nahiz ikastetxeen berariazko bisitetan zerbitzu elebiduna eskaintzen du, bezeroek horrela eskatzen badute.</i>	

ARGITALPENAK

Esp. Zenb.:	790-2012	
Erakundea:	DENAK ARGIAN	IEH
Arrazoia:	Senpereko etxeetan parrokiak banatu <i>DENAK ARGIAN</i> aldizkariaren udako alean artikulua bat salbu, gainerako guziaz frantses hutsean da: <i>Des vacances pour tisser des liens</i> .	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	159-2012	
Erakundea:	PLANETA DE AGOSTINI	NAF
Arrazoia:	Iruñeko herritarrak PLANETA DE AGOSTINI argitaletxeak argitaratutako <i>La Cocina de mi Abuela</i> liburuaren publizitatea aurkitu zuen otsailaren hasieran etxeko postontzian. Orria gaztelania hutsean idatzita zegoen. Ez zen hitz erdirik ageri euskaraz.	
Erantzuna:		

HEDABIDEAK

Esp. Zenb.:	1340-2012	
Erakundea:	DEIA	EAE
Arrazoia:	Herritarrak azaroaren 30ean <i>DEIA</i> egunkarira deitu zuen eta erredakzioko hiru kiderekin hitz egin ondoren, gaztelaniaz egin behar izan zuen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	161-2012	
Erakundea:	DIAGONAL	NAF
Arrazoia:	Madrilgo <i>DIAGONAL</i> hamabostekariak aldizkariaren berri emateko Iruñean zabaldu zuen publizitate-orria eta harekin batera heldu zen harpidetze-orria gaztelania hutsean idatzita zeuden.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	288-2012	
Erakundea:	DIARIO DE NOTICIAS	NAF
Arrazoia:	Martxoaren 20an <i>DIARIO DE NOTICIAS</i> era deitu zuen herritarrak kazetari batekin hitz egin nahi zuelako. Telefonoa hartu zuenari euskaraz zuzendu eta hark honela erantzun zion: <i>¿Me puedes hablar en castellano, por favor?</i>	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1403-2012	
Erakundea:	DIARIO DE NOTICIAS	NAF
Arrazoia:	Nafarroako <i>Diario de Noticias</i> egunkarian, edizio digitaleko titularrean, ez da Etxauri herriaren izen ofiziala errespetatzen. (213/1992 FORU DEKRETUA): <i>Rescatado un joven de Hondarribia en estado grave tras caerse en el Alto de Echauri.</i>	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	640-2012	
Erakundea:	DOT – DURANGALDEKO ALKIZKARIA	EAE
Arrazoia:	Apirilaren 27an <i>GURE DOT - Durangaldeko egunkaria</i> banatzen aritu ziren Landako osasun-etxearen atarian. Iragarki apur batzuk kenduta, aldizkari osoa gaztelania hutsean zegoen. Gainera, <i>Durangaldeko egunkaria</i> emendailua okerra da, berez hilabetekaria baita, eta data bera ere trakets adierazita dago, <i>Apirilak 2012</i> ageri da.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1428-2012	
Erakundea:	DOT – DURANGALDEKO ALKIZKARIA	EAE
Arrazoia:	Herritarrak lehen ere salatutako egoera berretsi nahi du. Durangon luzatu zioten azaroko <i>GURE DOT - Durangaldeko egunkaria</i> gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1430-2012	
Erakundea:	DOT – DURANGALDEKO ALKIZKARIA	EAE
Arrazoia:	<i>GURE DOT - Durangaldeko egunkaria</i> ren azaroko zenbakian <i>azaroak 2012</i> idatzita zegoen, <i>2012ko azaroa</i> beharrean. Beste alde batetik, argitalpena hilabete behin kaleratzen denez, <i>egunkaria</i> hitza ez da zuzenena, <i>hilabetekaria</i> baizik.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	361-2012	
Erakundea:	GARA BAIGORRI ARGITALETXEA	
Arrazoa:	GARA egunkariarekin batera erositako puzzlearen liburuxka gaztelania hutsean zegoen. <i>Amaiur, el castillo a través de los siglos</i> .	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	382-2012	
Erakundea:	GARA BAIGORRI ARGITALETXEA	
Arrazoa:	Martxoan GARA egunkariak eginiko kanpaina burutzeko kaleratutako publizitatea gaztelania hutsean zegoen. <i>El nuevo iPad. Cartilla de participación</i> .	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	969-2012	
Erakundea:	GARA BAIGORRI ARGITALETXEA	
Arrazoa:	Irailaren 16ko alean, GARA egunkariak irailaren 28an <i>El tiempo de las luces</i> (Arnaldo Otegi eginiko elkarrizketa liburua) kaleratuko duela jakinarazi zuen, baina liburuaren euskarazko bertsioa eskuratu nahi dutenek azaroaren 1a arte itxoin beharko dutela ohartarazi zuen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	401-2012	
Erakundea:	GENTE aldizkaria	NAF
Arrazoa:	GENTE aldizkariak Nafarroan banatzen duen aldizkaria gaztelania hutsean dago.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	406-2012	
Erakundea:	GENTE aldizkaria	EAE
Arrazoa:	GENTE aldizkariak ez du VITORIA-GASTEIZ izendapen-ofiziala errespetatzen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	584-2012	
Erakundea:	LA SEMAINE DU PAYS BASQUE	IEH
Arrazoa:	Apirilean <i>ENTRE-DEUX</i> aldizkariaren 2. zenbakia jaso zuen. Bertan argitaratu diren artikuluguziak frantses hutsean ziren.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	367-2012	
Erakundea:	MEDIASET ESPAÑA S.A.-TELE5	
Arrazoa:	Gipuzkoa lurraldearen izendapen ofiziala <i>GIPUZKOA</i> izan arren, TELE 5 katearen teleberrietan <i>GUIPÚZCOA</i> izendapena agertzen da.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1134-2012	
Erakundea:	NAVARRA TELEVISION	NAF
Arrazoa:	Navarra Televisionek parlamentari euskaldunen interbentzioak estali egiten ditu gainetik itzultzaileen ahotsa jarriz. Parlamentariak euskaraz egiten dituzten interbentzioak gaztelaniaz entzuten dira ondorioz.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	399-2012	
Erakundea:	PETICIÓN PÚBLICA	NAF
Arrazoa:	PETICIÓN PÚBLICA konpainiak Iruñeko herritarrari bidalitako posta elektroniko guztiak gaztelania hutsean daude. Martxoaren 30etik maiatzaren 2ra bost mezu bidali zaizkio.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1460-2012	
Erakundea:	SUD OUEST	IEH
Arrazoa:	Martxoaren 31n Baionan antolatu Deiadar manifestaldiaren komunikazio kanpainaren kariatara antolatzaileei <i>SUD OUEST</i> egunkarian iragarkia pasaraztea ez zitzaien onartu, euskara hutsean zelako.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	980-2012	
Erakundea:	URBIKO COMUNICACION HOY S.L.	EAE
Arrazoa:	URBIKO COMUNICACION HOY S.L.k argitaratzen duen <i>Arrigorriaga hoy</i> egunkariak oso leku gutxi eskaintzen dio euskarari. Azken aurreko alean 27 albistetik 3 soilik zeuden euskaraz idatzita; azkenekoan, berriz, bat bera ere ez.	
Erantzuna:		

KIROLA

Esp. Zenb.:	797-2012	
Erakundea:	ARTEKA OCÉAN	IEH
Arrazoia:	ARTEKA OCÉAN lerra kirol anitzen zentroak, lerra kirolen inguruko ikastaroak proposatzen ditu. Ikastaroen prezioen berri emateko banatu duen esku-orria frantses hutsean da.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	221-2012	
Erakundea:	BIZKAIKO SASKIBALOI FEDERAZIOA	EAE
Arrazoia:	Bizkaiko Saskibaloï Federazioaren web-guneak euskarazko bertsioa duela iradokitzen duen arren, edukietara joz gero, ia guztia gaztelania hutsean dago.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	837-2012	
Erakundea:	BIZKAIKO TXIRRINDULARITZA FEDERAKUNDEA	EAE
Arrazoia:	Bizkaiko Txirrindularitza Federakundeak ekainaren 22an <i>DEIA</i> egunkarian argitaratutako iragarkia gaztelania hutsean zegoen. Bestalde, federazioaren webguneak euskarazko bertsioa duela iradoki arren, informazioa gaztelania hutsean dago: www.febici.org	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	838-2012	EAE
Erakundea:	BIZKAIKO TXIRRINDULARITZA FEDERAKUNDEA	
Arrazoia:	Bizkaiko Txirrindularitza Federakundeak ekainaren 22an <i>DEIA</i> egunkarian argitaratutako iragarkian BIZKAIKO idatzi beharrean BIZKAIAKO jartzen zuen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	798-2012	
Erakundea:	CLUB ATHLÉTICO OSASUNA	NAF
Arrazoia:	OSASUNAK ekainean bazkideei bidalitako lehendakari ohiaren gutuna eta 2012-2013ko denboraldirako txartela berritzeko argibideak, gaztelania hutsean zeuden.	
Erantzuna:	OSASUNA, LEHENDAKARITZA: <i>kexan aipatu gutuna lehendakari ohiak bidali zuenez, orain Lehendakaritzan daudenek ez dute inongo ardurarik eta Osasunak euskararen normalizazioaren alde lan egiten du.</i>	
Esp. Zenb.:	240-2012	
Erakundea:	EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA	EAE
Arrazoia:	Otsailaren 29tik martxoaren 4ra estatuko autonomi erkidegoen arteko emakumeen areto-futboleko txapelketa jokatu zen Gasteizen. Txapelketa osoan gaztelania hutsean eman ziren bozgorailu bidezko mezuak.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	725-2012	
Erakundea:	FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE YOGA SATSANGA	NAF
Arrazoia:	Iruñeko ikastetxe batean aurkitu zuen esku-orria gaztelania hutsean zegoen. Gaia: <i>Bienal de Yoga Satsanga Siete</i> .	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1133-2012	
Erakundea:	FEDERACIÓN NAVARRA DE PELOTA VASCA	NAF
Arrazoia:	Nafarroako Euskal Pilotako Federazioak trinketeko munduko txapelketa antolatu zuen Iruñean abuztuaren 28tik irailaren 1era. Txapelketaren berri emateko kartelak gaztelania hutsean argitaratu zituen. <i>Iruña</i> zen euskaraz agertzen zen hitz bakarra.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	376-2012	
Erakundea:	FUNDACIÓN OSASUNA	NAF
Arrazoia:	Osasuna Fundazioak <i>CAMPUS DE FUTBOL. Verano 2012</i> iragartzeko argitaratu zituen esku-orriak gaztelania hutsean zeuden.	
Erantzuna:	OSASUNA FUNDAZIOA, MARKETING ARDURADUNA: <i>sentitzen dugu egoera hau gertatu izana. Onartzen dugu Fundazioak gaztelania hutsean argitaratu zituela aipatu esku-orri horiek. Beste alde batetik jarduera honetarako argitaratutako kartelak eta bestelako esku-orriak, biak ele-bietan daude.</i>	
Esp. Zenb.:	643-2012	
Erakundea:	FUNDACIÓN OSASUNA	NAF
Arrazoia:	Sanduzelaiko CIVIVOXen, maiatzaren hasieran, gaztelaniaz bakarrik zegoen herritarren eskura Osasuna fundazioak Udako Futbol Campusa iragartzeko argitaratutako esku-orria. Ez zegoen euskarazko alerik, ezta elebidunik ere.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	674-2012	
Erakundea:	FUNDACIÓN OSASUNA	NAF
Arrazoia:	Osasuna Fundazioak gaztelania hutsean bidali zion jakinarazpena udako Futbol Campusean plaza-erreserba egin zuen herritarri. Jakinarazpenarekin batera herritarrak bete beharreko fitxa igorri zioten, hura ere gaztelania hutsean.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	737-2012	
Erakundea:	FUNDACIÓN OSASUNA	NAF
Arrazoia:	Herritarrak maiatzean Iruñeko ikastetxe batean aurkitutako OSASUNA FUNDAZIOAren publizitatea gaztelania hutsean zegoen. Bertan, <i>Campus de Futbol, Verano 2012</i> iragartzen zen eta Nafarroako Gobernu eta Iruñeko Udala laguntzaileak ziren.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	953-2012	
Erakundea:	FUNDACIÓN OSASUNA	NAF
Arrazoia:	Herritarrak Sanduzelaiko CIVIVOXen irailaren 10ean aurkitutako FUNDACIÓN OSASUNAren publizitatea gaztelania hutsean zegoen. <i>Escuela de fútbol de Fundación Osasuna. Temporada 2012-2013</i> .	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	262-2012	
Erakundea:	GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA	EAE
Arrazoa:	Martxoaren 19an eskola-kiroleko partida pare bat bertan behera uzteko Gipuzkoako Futbol Federaziora deitu zuen telefonoz, eta gaztelaniaz hitz egin behar izan zuen euskaraz eginda ez baitzioten ulertzen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	27-2012	
Erakundea:	GIPUZKOAKO SASKIBALOI FEDERAZIOA	EAE
Arrazoa:	Martxoaren 17an Astigarraga eta Soraluze BKE aldearen arteko saskibaloia partida jokatu zen Astigarragan. Epailak falta teknikoa pitatu zion Soraluze BKE taldeko jokalarari bati, eta jokalaria epailearengana joan zen partida amaieran azalpenak eskatzera. Euskaraz egin zion epaileari eta hark gaztelaniaz hitz egiteko eskatu zion. Soraluze BKE taldeko beste jokalarari batek ikasteko esan zion eta orduan epaileak fitxa erretiratu zion bigarren jokalarari honi. Federazioak fitxa itzuli dio baina hurrengoan zerbait egiten badu fitxa kenduko diotela ohartarazita.	
Erantzuna:	<i>GIPUZKOAKO SASKIBALOI FEDERAZIOA: adierazi nahi dugu partida horretako akta berrikusita eta partidako epailearekin hitz egin ondoren, jokalarari horren kanporaketa modu sutuan protesta egiteagatik gertatu zela soilik. Talde berdineko beste jokalarari bat ere epaileari lotsagabe deitu ziolako kanporatua izan zen, eta Gipuzkoako Saskibaloia Federazioak Lehiaketa Batzordeak bi jokalarariak ohartarazpen batekin zigortu zituen. Gipuzkoako Saskibaloia Federazioak euskarari buruzko arautegi guztia betetzen du eta selekzionatzaile edo hautatzaileak izendatzeko garaian derrigorrezko baldintza da euskara menderatzea. Hautatzaile horiei gainera aproposena jokalariekin euskaraz aritzea dela jakinarazten zaie. Horretaz gain, GKP entrenatzaile izateko ikastaroak antolatu eta sustatzen ditu Gipuzkoako Saskibaloia Federazioak, eta ikastaro horiek euskara hutsean izaten dira. Denek nahiko genuke euskara izatea federazioa osatzen duten guztien arteko harremanetarako hizkuntza, baina erabilera zabaltzeko aurrerapauso garrantzitsuak eman diren arren, errealitatean Federazioan Gipuzkoako gizartean dagoen etorkinen portzentajeak ere bere isla du, eta batzuetan gustukoak ez diren gertakariak suertatzen dira. Guri dagokigunez, barkamena eskatzen dugu norbait iraindua sentitu bada, eta baliabide guztiak jartzen jarraituko dugu euskara sustatzeko ekintzetan laguntzeko.</i>	
Esp. Zenb.:	710-2012	
Erakundea:	HYDRA ARTEA	EAE
Arrazoa:	Getxoko herritarrek HYDRARTEAREN esku-orria jaso zuen maiatzaren 22an etxeko postontzian. Bertan ikastaroak eskaintzen zituzten ume, familia eta haurdun dauden emakumeentzat. Esku-orria gaztelania hutsean zegoen. Webgunera jo zuen informazio gehiagoren bila eta han ere ez zegoen informaziorik euskaraz.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	981-2012	
Erakundea:	PEÑA TXURI SURF ESKOLA	EAE
Arrazoia:	PEÑA TXURI surf eskolak VI. Billabong Sopelana Pro Junior txapelketa antolatu zuen uztailaren 26an goiz osoan zehar txapelketako saioak egin ziren Arrietara-Atxabiribil hondartzan. Bozgorailuetatik hitz bakar bat ere ez zuten esan euskaraz goiz osoan. Orain urte batzuk, gaztelania hutsean egiteko aitzakia zen ez zuela merezi gauza bera bi hizkuntzatan esatea. Egun horretan, ordea, ingelesa eta gaztelania izan ziren hizkuntza nagusiak, eta horiez gain frantsesez eta portugesez ere aritu zen hizlaria.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1322-2012	
Erakundea:	REAL MADRID C.F.	NAF
Arrazoia:	REAL MADRID C.F.-k Nafarroako Olazti herriko Musika Eskolara bidalitako publizitatea, <i>Aprende, sueña, recuerda</i> , gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	607-2012	
Erakundea:	UNIPUBLIC	NAF
Arrazoia:	Espainiako itzuliaren 67. edizioaren hasiera iragartzen duten kartelak jarri dituzte Iruñeko kaleetan. Kartelak gaztelania hutsean daude; ez da hitz erdirik ageri euskaraz.	
Erantzuna:		

KULTURA

Esp. Zenb.:	1182-2012	
Erakundea:	AGRUPACIÓN FOTOGRÁFICA DE NAVARRA – AFCN	NAF
Arrazoa:	Agrupación Fotográfica de Navarrak Guilhem Senges-en azken lanen erakusketa antolatu zuen abuztuaren 31tik irailaren 28ra. Erakusketaren berri emateko argitaratu zuen kartela gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1476-2012	
Erakundea:	BAIONAKO EUSKAL MUSEOA	IEH
Arrazoa:	BAIONAKO EUSKAL MUSEOra deitu du urriaren 19an eta informazioa euskaraz galdegin du, hain zuzen ere, norbaitekin euskaraz hitz egitea. Erantzuna gaztelaniaz eskaini zaio lehenik. Herritarrak frantsesez galdegin behar izan dio langileari zergatik ari zityaion gaztelaniaz hitz egiten eta hark ihardetsi dio pentsatzen zuela, euskaraz hitz egin zuelako, gaztelaniaz erantzutea nahiago zuela. EUSKAL MUSEOAK, beraz, ez du bermatu euskarazko harrera zerbitzua.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1454-2012	
Erakundea:	BIG FESTIVAL	IEH
Arrazoa:	Biarritzen uztailaren 18a eta 22a bitartean antolatu BIG FESTIVALen txartelak, egitarauak, baso berrietako lemak, harrerako eta ostatuetako jendearen hizkuntza... Guzia frantses hutsean zen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1480-2012	
Erakundea:	CONSERVATOIRE MAURICE RAVEL ET ORCHESTRE RÉGIONAL BAYONNE CÔTE BASQUE	
Arrazoa:	MAURICE RAVEL kontserbatorioaren 2012-2013ko denboraldiko <i>Arts in situ</i> gaia iragartzeko esku-orria frantses hutsean da.	IEH
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1478-2012	
Erakundea:	ENTRACTES ORGANISATION	IEH
Arrazoa:	ENTRACTES ORGANISATIONS erakundeak zabaldu duen Midi aretoaren 2012-2013 denboraldiaren egitaraua frantses hustean da.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1453-2012	
Erakundea:	ERROBIKO FESTIBALA	IEH
Arrazoa:	Itsasun iragaiten den Errobi festibalaren komunikazio euskarrietan euskararen presentzia murriztu da. Webguneak euskarazko sarbidea proposatzen badu ere, ez da guzia euskaratua (www.errobikofestibala.fr).	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	1511-2012	
Erakundea:	FESTIVAL BIARRITZ AMERIQUE LATINE	IEH
Arrazoia:	Urtero bezala Amerika latinetako festibala iragan da Miarritzen irailaren 24tik 30era. Karia horretara plazaratu komunikazio euskarrietan eta webgunean, www.festivaldebiarritz.com, frantsesaz gain gaztelania ere agertzen da, euskara ez ordea.	
Erantzuna:	ELKARTEKO LEHENDAKARIA: <i>Komunikazio arduradunekin hutsune hori nola konpondu aztertuko dugu. Festibal horren zailtasunetariko bat Amerika latindarreko hizkuntza-aniztasuna islatzea da. Adibide gisa, esan portugesa ez dela erabiltzen komunikazioan, Portugesa delarik espainolaren ondoan Hego Ameriketan hitz egiten den hizkuntza nagusietariko bat.</i>	
Esp. Zenb.:	1119-2012	
Erakundea:	FUNDACIÓN ARKEOLAN FUNDAZIOA	EAE
Arrazoia:	ARKEOLAN Fundazioak euskarari eskaintzen dion tartea argitalpenetan, aldizkarietan, gutunetan etab. ez da oso handia.	
Erantzuna:	1.: ARKEOLAN FUNDAZIOA, ZUZENDARIA: <i>harrituta gelditu gara kexa jasotzean eta hori ez da bidezkoa, salatzen dena ez delako egia. Izan ere, hemen lan egiten dugun guztiok euskaltzaleak gara, jende aurrean lehen hitza beti euskaraz izaten da, euskaraz idazten digunak euskaraz jasotzen du erantzuna, euskaraz hitz egiten duenari beti egiten diogu euskaraz, Fundaziotik ateratzen diren idatziak normalean euskaraz eta gaztelaniaz idazten dira, baina kasu batzuetan frantsesez, ingelesez, euskaraz edo gaztelaniaz soilik idazten dira, jasotzailearen arabera. Horretaz gain, Arkeolan aldizkari hura aspaldian ez da argitaratzen, baina argitaratu ziren aleetan garbi dago euskararen presentzia Euskal Herriko egunkarietan agertzen denaren tamainakoa dela (Berria egunkarikoak izan ezik). Webgunea ere euskaraz eta gaztelaniaz idatzita dago. Arkeolan buletina, 2003. urtetik aurrera argitaratua, ikerketen emaitzak sare akademikoan txertatzeko eta gure liburutegia handitzeko asmoz argitaratzen dugu. Plazaratutako aleetatik bi heren trukean banatzen dira: Arkeologia arloko aldizkariak jasotzen ditugu gure buletina bidali ondoren, batez ere Espainiakoak. Gure erakundea pribatua denez, ez ditugu diru iturri handiak lan egiteko, eta ezin dugu euskara hutsean beste edizio bat egin.</i> 2.: ARKEOLAN FUNDAZIOko zuzendaria: <i>bidali duzun galdetegiaren kopiarekin gauzak argitzen ari dira. Dokumentu hori erakunde batek jaso du eta Arkeolan buletinaren 16. alearen inguruko gauzez ari gara. Ale honen inguruan herritarrek jaso duten gutuna ele bietan bidali da (eta kopia bidaltzen digu). (...) Salaketa egin duen herritarrek gaztelaniaz jaso zuen formularioa, hain zuzen ere gurekin argiltapen-trukea egiten duen erakundeak gaztelaniaz argitaratzen duelako guk jasotzen dugun aldizkaria (gerta daiteke nahasketa bat izatea eta okerreko galdetegia sartzea gutun-azalean...)</i>	
Esp. Zenb.:	224-2012	
Erakundea:	FUNDACIÓN HUARTE BULDAIN	NAF
Arrazoia:	Herritarrek otsailean CIVIVOX Condestablen aurkitu zituen HUARTE BULDAIN FUNDAZIOAK antolatutako <i>Taller de encuadernación artística</i> iragartzeko esku-orri guztiak gaztelania hutsean zeuden.	
Erantzuna:	FUNDACIÓN HUARTE BULDAIN: <i>Benetan asko sentitzen dugula pertsona honek helarazitako kexa, eta ez dakigu momentu horretan zergatik ez zegoen euskaraz egindako kartelik Civivox-en. Guk tailerraren bi kartel egin genituen, erdaraz eta euskaraz. Ikus dezazuen, gehitzen den dokumentuan euskarazko kartela bidaltzen dizuegu. Eskerrik asko abisua helarazteagatik.</i>	

Esp. Zenb.:	1408-2012	
Erakundea:	FUNDACIÓN MENCHU GAL	EAE
Arrazoia:	Herritarra MENCHU GAL FUNDAZIOAK EHuko Bizkaia aretoko Baroja gelan antolatutako erakusketara joan zen abenduaren 16an. Luzatu zioten liburuxka eta erakusketako koadroetako azalpen guztiak gaztelaniaz zeuden. Erakusketak KUTXA eta EUSKALTElen laguntza jaso zuen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1459-2012	
Erakundea:	IBARRUNGO BESTA KOMITEA	IEH
Arrazoia:	Irailaren 28tik urriaren 1a bitartean Senpereko Ibarrun auzoko bestak iragan dira. Komunikazio gehiena euskaraz ere egin bada ere, ostiralean, irailaren 28an, Inharrian antolatu esne-txerri dastatzea iragartzeko banderola frantses hutsean zen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1452-2012	
Erakundea:	IPARRALDEKO DANTZARIEN BILTZARRA	IEH
Arrazoia:	Iparraldeko dantzarien biltzarraren webguneak euskarazko sarbidea proposatzen du, baina hutsez betea da.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	578-2012	
Erakundea:	IRUÑEKO KATEDRALA - MUSIKA KAPERA - AURELIO SAGASETA	NAF
Arrazoia:	Iruñeko Katedralean Aste Santuko musika egitarauaren berri ematen zuten esku-orriak jarri zituzten apirilean herritarren eskura. Esku-orria gaztelania hutsean idatzita dago; ez da hitz bat bera ere agertzen euskaraz.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	817-2012	
Erakundea:	ITINERARIO MUSEALÍSTICO VITORIA-GASTEIZ. IMVG. LA CIUDAD PINTADA	EAE
Arrazoia:	Itinerario Musealístico de Vitoria-Gasteiz, La Ciudad Pintada erakundeak ekainaren 22an <i>Noticias de Álava</i> egunkarian argitaratutako iragarkiak akats larriak ditu euskarazko bi esaldietan.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	927-2012	
Erakundea:	OPERA DE CAMARA DE NAVARRA	NAF
Arrazoia:	OPERA DE CAMARA DE NAVARRAK antolatutako <i>El guardián de los cuentos</i> ikuskizuna iragartzeko argitaratu zuen kartela gaztelania hutsean zegoen. Aipatu jarduerak Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	928-2012	
Erakundea:	OPERA DE CAMARA DE NAVARRA	NAF
Arrazoia:	OPERA DE CAMARA DE NAVARRAK abuztuan Iruñean antolatutako <i>Soirée de Ópera</i> ikuskizuna iragartzeko argitaratu zuen kartela gaztelania hutsean zegoen. Aipatu jarduerak Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren laguntza jaso zuen.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	1490-2012	
Erakundea:	ORCHESTRE REGIONAL COTE BASQUE	IEH
Arrazoa:	Abenduaren 21ean Donibane Lohizuneko Ravel entzutegian <i>“La chèvre de monsieur Seguin”</i> gaiaren inguruko eguberriko kantaldia antolatu da. Kantaldia iragartzen duen afitxa frantses hutsean da.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1486-2012	
Erakundea:	SCÈNE NATIONALE BAYONNE	IEH
Arrazoa:	Donibane Lohizuneko Saint-Jean-Baptiste elizan abenduaren 14an SCENE NATIONALE erakundeak, Donibane Lohizuneko Herriko Etxearekin partaidetzan antolatu gospel kantaldia iragartzeko afixa eta horren berri ematen duen e-maila frantses hutsean da. Gospel kantaldi hori Elsa Harris & The Victory Gospel Singers taldeak eskaini zuen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1449-2012	
Erakundea:	THEATRE DES CHIMERES	IEH
Arrazoa:	LES TRANSLATINES antzerki festibalaren kariatara <i>“Phèdre et autres grecques”</i> antzezlana iragartzeko zabaldu esku-orrian euskararen presentzia segurtatua da, baina ez osoki.	
Erantzuna:		

ASEGURU-ETXEAK

Esp. Zenb.:	386-2012	
Erakundea:	CPAM	IEH
Arrazoa:	CPAM erakundeak herritarrari helarazi informazio-gutuna frantses hutsean da: <i>Ma lettre, mon parcours d'assuré.</i>	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	323-2012	
Erakundea:	LAGUN ARO	NAF
Arrazoa:	LAGUN ARO Aseguru etxearekin harremanak euskaraz nahi dituela esana duen Iruñeko bezeroak gutuna jaso zuen erreziboa kobratuko ziotela jakinaraziz. Kontratatuta dituen estalduren gaineko informazio guztia gaztelania hutsean ageri zen. Gutuna Marcelo Zelaieta etorbideko bulegotik bidali zioten.	
Erantzuna:	LAGUN ARO, BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUKO ZUZENDARIA: <i>Aipatzen duzun dokumentua polizaren muga-eguna iritsi baino lehen bidaltzen dugun kobrantza-agiria dela ematen du. Hala, jakinarazi nahi dizugu une honetan Automobilen eta Etxeen arloko muga-eguneko abisuen dokumentuak elebidunak direla guztiz. Gainerako arloak elebidunak dira halaber, kontratatutako estaldurei dagokien atala izan ezik. Hala ere, 2012ko azarotik aurrera dokumentazio guztia elebidun egoteko prestatzen ari gara.</i>	
Esp. Zenb.:	813-2012	
Erakundea:	LAGUN ARO	EAE
Arrazoa:	Ekainaren 21ean autoan matxura izan zuen eta LAGUN ARO aseguru-etxeko laguntza telefonora deitu zuen. Gaztelaniaz egin zioten harrera. Aseguru hartzaileak hala ere euskaraz eman zituen azalpenak eta langileak gaztelaniaz egiteko exijitu zion. Herritarrak langile euskaldunarekin hitz egin nahi zuela jakinarazi zuen orduan, eta hark ez zela posible erantzun zion.	
Erantzuna:	LAGUN ARO, BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUKO ZUZENDARIA: <i>Emandako azalpenekin ezin izan dugu deia kokatu, ez baitakigu gure bezeroak zein telefono zenbakitara deitu zuen edo zein telefono zenbakitatik deitu zuen, ezta elkarrizketa zein ordu bitartetan izan zen ere. Edonola ere, jakinarazten dizugu Laguntzako zerbitzuetako jarduketa-protokoloak berrikusten ari garela, etorkizunean horrelako egoerak gertatzea ekiditeko.</i>	
Esp. Zenb.:	819-2012	
Erakundea:	LAGUN ARO	NAF
Arrazoa:	Xulapaingo bezeroak bere etxean jaso zuen LAGUN AROren <i>Lasai, Tu Revista</i> aldizkariaren ekaineko zenbakia gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	390-2012	
Erakundea:	MACIF	IEH
Arrazoa:	MACIF erakundeak herritarrari helarazi <i>Tous Sociétaires</i> aldizkariaren urtarrileko zenbakia, 6. zenbakia, eta berekin zihoan <i>Macif avantages & services</i> esku-orria, baita <i>Bleu Anis</i> , banku zerbitzua azaltzeko liburuxka frantses hutsean banatu dira Senperen.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.: 610-2012

Erakundea: MUTUA UNIVERSAL

NAF

Arrazoia: Herritarrak gaztelania hutsean jaso zuen MUTUA UNIVERSALEk apirilaren 24an e-posta bidez helarazitako informazioa. Bertan legediaren berrikuntza eta Mutuaren albisteak jakinarazten zizkioten.

Erantzuna:

FINANTZAK

Esp. Zenb.:	1190-2012	NAF
Erakundea:	BANCO POPULAR	
Arrazoia:	Herritarra Iruñeko Gaztelu Plazako BANCO POPULARren egoitzan izan zen urriaren 17an diru-sarrera bat egiteko. Gaztelaniaz aritu behar izan zuen langile euskaldunik ez baitzegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1191-2012	NAF
Erakundea:	BANCO POPULAR	
Arrazoia:	Herritarra Iruñeko Gaztelu Plazako BANCO POPULARren egoitzan izan zen urriaren 17an diru-sarrera bat egiteko. Eragiketa burutzeko luzatu zioten inprimakia, <i>Entrega de efectivo</i> izenekoa, gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	677-2012	NAF
Erakundea:	BANKINTER	
Arrazoia:	BANKINTERrek herritarrarekin harremanetan jartzeko sistemaren aldaketen berri emateko e-maila bidali zion Iruñeko bezeroari maiatzaren 8an. Mezua gaztelania hutsean idatzita zegoen; ez zen inolako azalpenik ageri euskaraz.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1304-2012	NAF
Erakundea:	CAJA RURAL DE NAVARRA	
Arrazoia:	CAJA RURAL DE NAVARRAk Agoizko herritarrari azaroan etxera bidali zion publizitatea, <i>Los ovnis en el espacio</i> , gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1425-2012	NAF
Erakundea:	CAJA RURAL DE NAVARRA	
Arrazoia:	CAJA RURAL DE NAVARRAk Agoizko herritarrari abenduan etxera bidalitako gutuna gaztelania hutsean zegoen. Gaia: <i>Acuerdo con Mundomóvil</i> .	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	43-2012	EAE
Erakundea:	CITIBANK	
Arrazoia:	Goizeko 11:00ak aldera CITIBANKEko deia jaso zuen. Herritarrak euskaraz hitz egin nahi zuela azaldu zionean, hauxe izan zen langileak eman zion erantzuna: <i>A ver si aprendes un poco de cultura, que si no, no vas a llegar a nada en la vida</i> .	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	111-2012	NAF
Erakundea:	EUSKADIKO KUTXA	
Arrazoia:	Herritarrak urtarrilaren 31n diru transferentzia bat egin ondoren jaso zuen posta elektronikoa gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	191-2012	
Erakundea:	EUSKADIKO KUTXA	EAE
Arrazoia:	EUSKADIKO KUTXAren Landako auzoko (Durango) bulegoko mostradorean gaztelania hutsean ipinita eduki zituzten otsailaren erdialdean Wii baten zozketaren berri ematen zuten fotokopia-orriak, bulegoaren zigilua ipinita.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	297-2012	
Erakundea:	EUSKADIKO KUTXA	NAF
Arrazoia:	EUSKADIKO KUTXAK Iruñeko Marzelo Zelaieta etorbideko 88. zenbakian duen bulegoko langile euskaldun bakarra falta denean ezin izaten da zerbitzua euskaraz jaso. Bi aldiz gertatu zitzaion ekainaren 11tik 17ra bitarteko astean.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	558-2012	
Erakundea:	EUSKADIKO KUTXA	NAF
Arrazoia:	EUSKADIKO KUTXAK gaztelania hutsean igorri zion apirilaren 2an eragiketa euskaraz burutu zuen bezeroari atzerriko transferentzia burutu zela egiaztatzeko mezu elektronikoa.	
Erantzuna:	EUSKADIKO KUTXA, BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA: <i>Zuen ekarpenak dagokion Areara bideratu ditugu, hauen berri izateko eta etorkizuneko proiektuetarako kontuan har ditzaten. Gure aldetik, eskerrak eman nahi dizkizuegu egindako ekarpenengatik, egunetik egunera bezeroari eskaini beharreko zerbitzuak hobetzeko baliagarriak izango zaizkigulako. Zuen aurrean kexa aurkeztu duenari gertaera horrek eragozpenak sortu badizkio, zinez sentitzen dugula adierazi nahi dugu.</i>	
Esp. Zenb.:	563-2012	
Erakundea:	EUSKADIKO KUTXA	NAF
Arrazoia:	Euskadiko Kutxak gaztelania hutsean igorri zion apirilaren 17an eragiketa euskaraz burutu zuen bezeroari atzerriko transferentzia burutu zela egiaztatzeko jakinarazpen elektronikoa.	
Erantzuna:	EUSKADIKO KUTXA, BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA: <i>Zuen ekarpenak dagokion Areara bideratu ditugu, hauen berri izateko eta etorkizuneko proiektuetarako kontuan har ditzaten. Gure aldetik, eskerrak eman nahi dizkizuegu egindako ekarpenengatik, egunetik egunera bezeroari eskaini beharreko zerbitzuak hobetzeko baliagarriak izango zaizkigulako. Zuen aurrean kexa aurkeztu duenari gertaera horrek eragozpenak sortu badizkio, zinez sentitzen dugula adierazi nahi dugu.</i>	
Esp. Zenb.:	630-2012	
Erakundea:	EUSKADIKO KUTXA	NAF
Arrazoia:	Euskadiko kutxak Iruñeko Sarasate pasealekuko sukurtsalean gaztelaniaz bakarrik zeukan bezeroen eskura Lagun Aro aseguru-etxearen <i>Solicita presupuesto para tu seguro de coche</i> inprimakia.	
Erantzuna:	EUSKADIKO KUTXA, BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA: <i>Zuen ekarpenak dagokion sukurtsalera bideratu ostean, komentatu digute egindako iradokizuna kontuan izango dutela eta hemendik aurrera aipatutako dokumentua elebitan egongo dela. Gure aldetik, eskerrak eman nahi dizkizuegu egindako ekarpenengatik, egunetik egunera bezeroari eskaini beharreko zerbitzuak hobetzeko baliagarriak eta ezinbestekoak izaten baitira. Zuen aurrean kexa aurkeztu duenari gertaera horrek eragozpenak sortu badizkio, zinez sentitzen dugula adierazi nahi dugu.</i>	

Esp. Zenb.:	632-2012	
Erakundea:	EUSKADIKO KUTXA	NAF
Arrazoia:	Euskadiko Kutxak SMS-mezua bidali zion bezeroari errenta aitortpena egina zuela jakinarazteko. Herritarrak harremanetarako aukeratu duen hizkuntza euskara izan arren, gaztelania hutsean jaso zuen mezua. Honela zioen: <i>Su declaración de la renta ya está confeccionada. Póngase en contacto con su gestor. Gracias .</i>	
Erantzuna:	EUSKADIKO KUTXA, BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA: <i>Euskadiko Kutxaren helburuen artean, Entitatearen esparru guztietan gure hizkuntza garatu eta hedatzearen alde lan egitea eta lankidetzan aritzea dago. Dena den, helburu hori erdiesteko entitateak egiten dituen ahaleginak garrantzitsuak badira ere, aintzat hartu behar dugu lankide guztiek ez dituztela erabat betetzen ezarrita eta adostuta dauden hizkuntza irizpideak, inoiz lankideren baten ezagutza maila komeniko litzatekeena baino baxuagoa delako. Zuen ekarpenak dagokion Areara bideratu ditugu, hauen berri izateko eta etorkizuneko proiektuetarako kontuan har ditzaten. Gure aldetik, eskerrak eman nahi dizkizuegu egindako ekarpenengatik, egunetik egunera bezeroari eskaini beharreko zerbitzuak hobetzeko baliagarriak izango zaizkigulako. Zuen aurrean kexa aurkeztu duenari gertaera horrek eragozpenak sortu badizkio, zinez sentitzen dugula adierazi nahi diogu.</i>	
Esp. Zenb.:	746-2012	
Erakundea:	EUSKADIKO KUTXA	NAF
Arrazoia:	Euskadiko Kutxak gaztelania hutsean igorri zion ekainaren 1ean eragiketa euskaraz burutu zuen bezeroari atzerriko transferentzia burutu zela egiaztatzeko jakinarazpen elektronikoa.	
Erantzuna:	EUSKADIKO KUTXA, BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA: <i>Zuen ekarpenak dagokion Areara bideratu ditugu, hauen berri izateko eta etorkizuneko proiektuetarako kontuan har ditzaten. Gure aldetik, eskerrak eman nahi dizkizuegu egindako ekarpenengatik, egunetik egunera bezeroari eskaini beharreko zerbitzuak hobetzeko baliagarriak izango zaizkigulako. Zuen aurrean kexa aurkeztu duenari gertaera horrek eragozpenak sortu badizkio, zinez sentitzen dugula adierazi nahi diogu.</i>	
Esp. Zenb.:	863-2012	
Erakundea:	EUSKADIKO KUTXA	EAE
Arrazoia:	Euskadiko Kutxarekin dituen harremanetarako hizkuntza euskara dauka hautatuta bezeroak. Euskadiko Kutxako txartela erabiltzen duenean euskaraz agertzen zaio kutxazaineko interfazea. Alabaina, beste erakunde bateko txartela erabiliz gero, interfazea gaztelaniaz agertzen zaio eta ez dio aukerarik ematen hizkuntza aldatzeko.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	878-2012	
Erakundea:	EUSKADIKO KUTXA	EAE
Arrazoia:	Euskadiko Kutxak Durangoko Landako auzoan duen bulegoan, uztailean, gaztelania hutsean ipini zuten ohar bat leihatilan: <i>Pago de recibos no domiciliados / de 8:30 a 10:30</i> . Herritar honek Landako auzoko bulego honi antzeko beste kexa bat ipini zion urte hasieran.	
Erantzuna:	EUSKADIKO KUTXA, BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA: <i>zuen ekarpena dagokion sukurtsalera bideratu ostean, iradokizuna kontuan izango dugu eta hemendik aurrera aipatutako dokumentua elebitan egongo da. Gure aldetik, eskerrak eman nahi dizkizuegu egindako ekarpenengatik, egunetik egunera bezeroari eskaini beharreko zerbitzuak hobetzeko baliagarriak izango zaizkigulako. Zuen aurrean kexa aurkeztu duenari gertaera horrek eragozpenak sortu badizkio, zinez sentitzen dugula adierazi nahi diogu.</i>	

Esp. Zenb.:	932-2012	
Erakundea:	EUSKADIKO KUTXA	NAF
Arrazoia:	Herritarrak irailaren 10ean EUSKADIKO KUTXAren Barañaingo Kirol etorbideko sukurtsalean hartutako <i>Ahorro NOMINA</i> esku-orria gaztelania hutsean zegoen; euskarazko bertsiorik ez zegoen.	
Erantzuna:	EUSKADIKO KUTXA, BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA: <i>Zuen ekarpenak dagokion sukurtsalera bideratu ostean, komentatu digute egindako iradokizuna kontuan hartu dutela eta hemendik aurrera aipatutako dokumentua euskaraz ere egongo dela. Gure aldetik, eskerrak eman nahi dizkizuegu egindako ekarpenengatik, egunetik egunera bezeroari eskaini beharreko zerbitzuak hobetzeko baliagarriak eta ezinbestekoak izaten baitira. Zuen aurrean kexa aurkeztu duenari gertaera horrek eragozpenak sortu badizkio, zinez sentitzen dugula adierazi nahi diogu.</i>	
Esp. Zenb.:	1310-2012	
Erakundea:	EUSKADIKO KUTXA	EAE
Arrazoia:	Herritarra Euskadiko Kutxako bezeroa da eta harremana euskaraz izan nahi duela adierazita dauka bertan. Bada, mailegu kitapena egin ondoren, kartilan agertutako kontzeptua gaztelaniaz zegoen: <i>AMORT. ANTICIPADA</i> .	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1416-2012	
Erakundea:	EUSKADIKO KUTXA	EAE
Arrazoia:	Herritarrak abenduaren 13an Durangoko Euskadiko Kutxaren Landako auzoko bulegoko kutxazain-automatikoak erabili zuen. Bertan, ohar idatzi bat zegoen jarrita gaztelania hutsean: <i>Libretas / No funciona</i> . Herritarrak lehen ere hau bezalako beste kexa batzuk bidali ditu.	
Erantzuna:	EUSKADIKO KUTXA, BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA: <i>Zuen ekarpenak dagokion sukurtsalera bideratu ostean, komentatu digute egindako iradokizuna kontuan izango dutela. Gure aldetik, eskerrak eman nahi dizkizuegu egindako ekarpenengatik, egunetik egunera bezeroari eskaini beharreko zerbitzuak hobetzeko baliagarriak eta ezinbestekoak izaten baitira. Zuen aurrean kexa aurkeztu duenari gertaera horrek eragozpenak sortu badizkio, zinez sentitzen dugula adierazi nahi diogu.</i>	
Esp. Zenb.:	1422-2012	
Erakundea:	EUSKADIKO KUTXA	EAE
Arrazoia:	Herritarra abenduaren 26an EUSKADIKO KUTXAren Eibarko Elgeta kaleko bulegora joan zen erreklamazio bat egitera. Nahiz eta erreklamazioa euskaraz egin, eta kartilak ere euskaratuak izan, bidali zioten mezua gaztelania hutsean zegoen. Mezua: <i>Ya te hemos ingresado en la cuenta los 40€ que te habían quedado en el cajero de Unzaga. Leire Goenaga Fernández.</i>	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	12-2012	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoia:	Urtarrila arte www.kutxabank.es webgunera sartzean gaztelaniazko bertsio azaltzen zen lehena, nahiz eta nabigatzailean nabigatze-hizkuntza moduan euskara lehenetsia izan.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	17-2012	
Erakundea:	KUTXABANK - GIPUZKOA-DONOSTIA KUTXA	NAF
Arrazoia:	Gaztelania hutsean jaso dute KUTXaren gutuna; martxoaren 12tik aurrera Iruñeko bulegoaren helbide berria zein den adierazten da bertan.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	107-2012	
Erakundea:	KUTXABANK - BBK	EAE
Arrazoia:	Errenta aitortpena egiteko hitzordua hartu du BBKren Basauriko Kareaga Goikoa 111 zenbakiko bulegoan. Aitortpena euskaraz egiterik izango duen jakiteko idatzi dio BBKri. Errenta aitortpena euskaraz egin nahi izanez gero, Basauriko Lehendakari Agirre 58 zenbakiko bulegora joan behar duela erantzun diote. Hau da, zerbitzu hori eskaintzen duten BBKren Basauriko 4 bulegotatik bakarrean baino ez dago errenta aitortpena euskaraz egiterik. Gainera, hasierako hitzordua baino zenbait egun beranduago joan beharko luke.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	126-2012	
Erakundea:	KUTXABANK - BBK	EAE
Arrazoia:	BBKren San Antongo bulegoan jendaurreko mahaian lanean ari zen gizon bati euskaraz zuzendu zitzaion herritarra otsailaren 22an eta haren erantzuna <i>No te entiendo</i> izan zen. Herritarrak: <i>¿No me entiendes?</i> eta hark <i>No</i> .	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	257-2012	
Erakundea:	KUTXABANK - GIPUZKOA-DONOSTIA KUTXA	NAF
Arrazoia:	Martxoaren 13an KUTXaren Iruñeko Marzelo Zelaieta etorbideko bulegoan herritarrari harrera egin zion langileak ez zekien euskaraz. Jendearen eskura jarrita zeuden esku-orri guztiak ere gaztelania hutsean zeuden.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	287-2012	
Erakundea:	KUTXABANK - BBK	EAE
Arrazoia:	KUTXABANK - BBKtik gutuna bidali zioten martxoaren amaieran herritarraren 10 urteko semeari. Gutuna gaztelania hutsean zegoen eta bertan, 15 eguneko epean eurekin harremanetan jarri ezean kontua bahituko ziotela adierazten zioten.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	423-2012	
Erakundea:	KUTXABANK - GIPUZKOA-DONOSTIA KUTXA	EAE
Arrazoia:	Herritarra KUTXaren Tolosako Nafarroako etorbideko bulegora joan zen apirilaren 10ean eta ezin izan zuen euskaraz egin artatu zuen langilea ez baitzen euskalduna.	
Erantzuna:	KUTXA, BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUKO ZUZENDARIA: <i>Tolosako bulego horretako zuzendariarekin harremanetan jarri gara eta ziurtatu digunez, bezeroei nahi duten hizkuntzan arreta eskaintzeko jarraibideak kontu handiz betetzen dituzte. Halaber, jakinarazi digu duela gutxi, Euskal Autonomia Erkidegokoak ez diren pertsona batzuk, oraindik euskaraz ez dakitenak, bulego horretan lanean hasi direla. Hala eta guztiz ere bulego horretan harrera euskaraz egiten duten hamaika langile daude.</i>	

Esp. Zenb.:	475-2012	
Erakundea:	KUTXABANK - GIPUZKOA-DONOSTIA KUTXA	EAE
Arrazoia:	Herritarra apirilaren 26an KUTXaren Donostiako Egia kaleko bulegoan izan zen eta ezin izan zuen euskaraz egin. Batzuetan langile euskalduna libre egon arte itxarotea tokatu zaiou baina honetan ez. Askotan joaten da bulego honetara eta egoera behin eta berriro errepikatzen da.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	524-2012	
Erakundea:	KUTXABANK - BBK	EAE
Arrazoia:	BBK-k Bilboko Udalarekin batera uztailean antolatu duen <i>BILBAO BBK LIVE</i> iragartzeko kartela gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	681-2012	
Erakundea:	KUTXABANK - BBK	EAE
Arrazoia:	BBKtik SMS mezua bidali zioten maiatzaren 9an kopako finaleko sarreraren zozketan parte hartzeko gonbidapena luzatuz. Mezua gaztelania hutsean zegoen, eta euskarazko mezurik ez zuen jaso nahiz eta BBK-ko bezero egin zenetik txartela euskaraz duen eta internetez bidaltzen dizkioten mezu guztiak euskaraz jasotzen dituen.	
Erantzuna:	<i>KUTXABANK: SMS bidaltzeko tresnak espazio mugatuak dauzka, handitzeko aukerarik gabe, eta bi hizkuntzak berdintasunez aurkezteko aukerak ematen dituzten mezu elebidunetarako egokitzeko marjinarik gabe, ezinbestean bata bestearen atzetik joan beharko litzateke-eta. Kopa finalerako sarreraren zozketarako, orokorrean gehien erabiltzen den komunikabidea aukeratu zen, mezu argi eta zuzen batekin bezero-kopururik handienera heldu ahal zena eta horregatik, elebitasuna nahitaez sakrifikatu behar izan zen. Mota horretako komunikazioetan ezin dira berezi euskara beste zerbitzu batzuetarako aukeratu duten bezeroak. Mezua errepikatuta eta euskara hutsean bidaltzeak ere ez zituzkeen hartzaile guztiak pozik utziko eta kostuak handitu egingo zituzkeen.</i>	
Esp. Zenb.:	712-2012	
Erakundea:	KUTXABANK - BBK	NAF
Arrazoia:	BBKtik e-maila bidali zuten erakunde batera, bezeroaren eskariz eginiko transferentzia baten berri emanez. Mezua gaztelania hutsean zegoen, transferentzia agindua udal batek emana izan arren.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	812-2012	
Erakundea:	KUTXABANK - GIPUZKOA-DONOSTIA KUTXA	EAE
Arrazoia:	Herritarrak KUTXAk Tolosako Nafarroa etorbidean duen bulegora deitu zuen ekainaren 21ean, zalantza bat argitu nahirik. Telefonoa ez zioten euskaraz hartu eta nahiz eta berak euskaraz egin, harrera egin zion langileak ez zuenez ezer ulertzen gaztelaniaz jardun behar izan zuen. Ondoren, kudeatzaile bati pasatu zion deia, eta harekin ere gauza bera gertatu zitzaion, ez zen agurra euskaraz egiteko ere gai izan.	
Erantzuna:	KUTXABANK: <i>Gure sareko bulego batekin telefono bidez komunikatuz ezin da banku-zerbitzurik eskaini, ezta garatu ere; konfidentzialtasun eta segurtasun arrazoiengatik. Edozein negozio-konturi buruz telefono bidez aritzeko, Erakundeak "BBK telefonoz" zerbitzua eskaintzen du. Zerbitzu horretan bezeroak aldez aurretik aukeratu behar du arreta zein hizkuntzatan jaso nahi duen. Bukatzeko, Kutxabank beti ahalegindu da euskararen alde lan egiten eta lan horretan bi hizkuntza ofizialak erabiltzen jarraitzeko asmo sendoa dauka.</i>	
Esp. Zenb.:	840-2012	
Erakundea:	KUTXABANK - GIPUZKOA-DONOSTIA KUTXA	EAE
Arrazoia:	Ekainaren 26an herritarra KUTXAk Beasaingo Erauskin Plazan duen sukurtsalera joan zen eta langileari euskaraz egin zion. Langileak herritarrak eskatutako eragiketak egin arren, gaztelaniaz jarraitu zuen. Bitartean, telefono deia bat ere hartu zuen eta gaztelaniaz egiteko eskatu zion deitu zuen herritarrari.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	922-2012	
Erakundea:	KUTXABANK - BBK	EAE
Arrazoia:	BBK-k Juan de Ajuriagerra kaleko 36.ean duen bulegoan maiatzaren 30erako eman zioten errenta-aitorpena egiteko hitzordua. Herritarrak euskaraz egin zuen hasieratik, baina harrera egin zion langileak ez zekienez, gaztelaniaz jardun behar izan zuen halabeharrez.	
Erantzuna:	KUTXABANK: <i>Herritar guztiek aurretiazko hitzorduaren bitartez errenta euskaraz egiteko eskubidea daukatela babestu nahi dugu; errenta egiteko hitzordua eskatzen dutenean, bai euskaraz bai gaztelera egin ahal dutela eta hori egiteko hurbileko bulego eta udalerrien zerrenda adierazten diegu, argi eta garbi adieraziz zeinetan egin ahal duten euskaraz eta zeinetan gaztelera. Bilbon, Juan de Ajuriagerrako bulegoak ez du zerbitzua euskaraz eskaintzen, baina Kale Nagusia 23koak, aldiz bai.</i>	
Esp. Zenb.:	1089-2012	
Erakundea:	KUTXABANK - GIPUZKOA-DONOSTIA KUTXA	EAE
Arrazoia:	Herritarra KUTXAk Donostiako Egia kalean duen bulegoan izan zen abuztuaren 22an eta ezin izan zuen zerbitzua euskaraz jaso. Euskaraz hitz egiten hasi eta <i>¿Puedes hablarme en castellano?</i> erantzun zioten.	
Erantzuna:	GIPUZKOA-DONOSTIA KUTXA, ARDURADUNA: <i>Bulegoko zuzendariarekin harremanetan jarri gara eta hark aditzera eman digu EAEtik kanpoko bi langile hasi berri direla bulego horretan eta ez dutela hizkuntza menderatzen. Edonola ere, gaiari buruzko arduraren sailari helaraziko diegu zuen kexa, haren berri izan dezan eta konpondu beharrekoak lehenbailehen konpon ditzan.</i>	

Esp. Zenb.:	1221-2012	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoia:	KUTXABANKen Donostiako Bretxa sukurtsalean informazioa ematen jarri duten langilea ez da euskalduna. Herritarra azaroaren 2an goizean joan zen eta ezin izan zuen, bizitza osoan egin duen bezalaxe, euskaraz aritu.	
Erantzuna:	KUTXABANK: <i>Jaso dugun erreklamazioari dagokionez, orain arte azaldutakoari ezin diezaiokegu besterik erantsi, egoera horren gaineko xehetasunik ez dugulako, zuek emandakoez gain. Edozein kasutan, berriz ere diogu, gure sareak, nola ez, Erkidegoko hizkuntza ofizial bietan arta ditzake bezeroak.</i>	
Esp. Zenb.:	190-2012	
Erakundea:	LA CAIXA	EAE
Arrazoia:	LA CAIXA banketxeak gaztelania hutsean idatzitako propaganda zabaldu zuen otsailaren hasieran Durangoko postontzietan: <i>La Caixa/ Promoción al ingresar 2900/ Pack de 2 teléfonos inalámbricos Motorola Twin/ Desde el 6 al 24 de febrero.</i>	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	192-2012	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	LA CAIXAren Iruñeko Gazteluko Plazako bulegoak <i>Este pack de teléfonos Motorola te está llamando</i> izenburuko publizitate-orria banatu zuen Iruñeko Alde Zaharreko etxeetako postontzietan. Orria gaztelania hutsean idatzita zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	351-2012	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	Agoizko Nafarroako Kutxaren bulegoko hizkuntza-paisaia osoa gaztelaniaz dago.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	564-2012	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	Abuztuaren 3an CAIXABANK-ek ongi etorria emateko Agoizko bezeroari bidali zion gutuna gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:	LA CAIXA, NAFARROA IPAR PROBINTZIA EREMUKO ZUZENDARIA: <i>CAIXAko bezero guztiek entitate honetatik igorritako jakinarazpen eta gutunak zein hizkuntzatan jaso nahi dituzten aukera dezakete. Horretarako bere ohiko bulegora joan eta nahi duen hizkuntza aukera dezake.</i>	
Esp. Zenb.:	895-2012	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	CAIXABANK-en Agoitz herriko sukurtsaleko hizkuntza-paisaia osoa, kartelak, oharrak, esku-orriak eta abar gaztelania hutsean daude. Horretaz gain, irailaren 17an herritarrari luzatu zioten agiria, kontu korrante baten zenbakia eta honen jabea egiaztatzen zuena, gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	948-2012	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	Herritarra Berako Foruen Plazan dagoen CANeko sukurtsalera joan zen abuztuaren 30ean. Leihatilan zeuden bi langileak erdaldunak zirenez, egin beharrekoa langile euskaldun batekin egiteko eskatu zuen. Bide batez, erreklamazio-orria ere eskatu zuen. Langile euskalduna bere bulegotik atera arte itxoin behar izan zuen. Luzatu zioten erreklamazio-orria gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:	LA CAIXA, BEZEROA ARTATZEKO BULEGOKO ZUZENDARIA: <i>Gure entitateko langileak beti saiatzen dira bezeroek nahi duten hizkuntza ofizialean artatzen. Baina, batzuetan gure esku ez dauden arrazoiengatik, zail gertatzen da asmo hori beti betetzea. Erreklamazio orriei dagokienez, Nafarroako bulegoetan badira Nafarroako Gobernuko Kontsumo Atalak emandako orrialde elebidunak. Baina, gerta daiteke uneren batean bulegoren batean bukatzea, eta horixe da Berako 4705 bulegoan gertatutakoa. Gertakari hori guztiz ezohikoa izan da eta aurrerantzean berriz gerta ez dadin saiatuko gara. Arren barkatu sortutako enbarazua eta bidenabar eskerrik asko zure oharrak guri helarazteagatik.</i>	
Esp. Zenb.:	1057-2012	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	Agoizko CAIXABANKeko bezeroak irailaren 9an jasotako gutuna, bere banku mugimenduak azaltzen zituena, gaztelania hutsean dago; eduki guztiak, helbidea eta herriaren izena.	
Erantzuna:	LA CAIXA, NAFARROA IPAR PROBINTZIA EREMUKO ZUZENDARIA: <i>CAIXAko bezero guztiek entitate honetatik igorritako jakinarazpenak zein hizkuntzatan jaso nahi dituzten aukera dezakete. Uneren batean jakinarazpena bezeroak hautatua ez duen hizkuntzaren batean igorri bada, unean uneko erroren baten ondorio izanen da. Hizkuntza hautatzeko bezeroa La Caixaren edozein bulegotara joan daiteke.</i>	
Esp. Zenb.:	1077-2012	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	CAN-CAIXABANK-ek gaztelania hutsean bidali zion herritarrari Caja Navarraren eragiketak La Caixan integratzeko prozesuari buruzko informazioa emateko jakinarazpena.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1132-2012	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	CAN-CAIXABANK-ek gaztelania hutsean bidali zion Iruñeko herritarrari Caja Navarraren eragiketak La Caixan integratzeko prozesuari buruzko informazioa emateko jakinarazpena.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1187-2012	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	Herritarrak urriaren hasieran Iruñeko Sarasate pasealekuko LA CAIXAren egoitzan aurkitutako <i>Nómina multiEstrella</i> publizitate ale guzti-guztiak gaztelania hutsean zeuden; bat bera ere ez zegoen euskaraz.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	1188-2012	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	Iruñeko herritarra Iruñeko Sarasate pasealekuko La Caixaren egoitzan izan zen urriaren 16an diru-sarrera bat egiteko. Gaztelaniaz aritu behar izan zuen. Eragiketa burutzeko luzatu zioten inprimakia ere gaztelania hutsean zegoen. Aipatutako inprimakia <i>Factura de entrega</i> delakoa da.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1189-2012	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	Herritarra Iruñeko Sarasate pasealekuko La Caixaren egoitzan izan zen urriaren 16an. Gaztelaniaz aritu behar izan zuen langile euskaldunik ez baitzegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1198-2012	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	CAIXABANKEk urriaren 29an Agoizko herritarrari bidalitako posta-elektronikoa gaztelania hutsean zegoen. Gaia: <i>Conseguir uno de los 30 ordenadores portátiles...</i>	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1222-2012	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	CIVICANEK udazkenerako antolatu dituen ikastaro eta tailerren katalogoan ikus daitekeenez, antolatutako jarduera guztien artean ez da euskarazko eskaintzarik.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1223-2012	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	Herritarra urriaren 1ean CIVICANen izan zen eta ezin izan zuen udazkeneko katalogoa euskaraz lortu, ez baitzegoen; gaztelania hutsean zegoen katalogoa.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1235-2012	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	CAIXABANKEk Agoitzen dituen dirua ateratzeko kaleko bi kutxazainek ez dute eragiketarako euskaraz egiteko aukerarik eskaintzen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1370-2012	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	Herritarrak Agoizko LA CAIXAren kutxazainean abenduaren 5ean egindako eragiketa baten ondorioz jasotako agiria gaztelania hutsean dago: <i>Entidad. Oficina. Terminal. Fecha. Hora. Operación. Reintegro. Importe. Tarjeta activada automáticamente. Saldo disponible. Euros. Gracias por usar este servicio.</i>	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	1371-2012	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	LA CAIXAK Iruñeko herritarrari kreditu-txartel berria helarazteko urrian bidalitako gutuna gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1421-2012	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	Iruñeko herritarrak LA CAIXAren Sarasate pasealekuko bulegoan abenduan hartutako dokumentazioa gaztelania hutsean zegoen, ez zuen euskarazko alerik aurkitu. Aipatutako dokumentazioa: <i>Ayúdenos a mejorar el servicio</i> gutuna, <i>Cambiamos la realidad</i> eta <i>Nómina Multiestrella</i> publizitatea.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1446-2012	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	Abenduan ez zuen Iruñeko CIVICANen jardueren berri ematen zuen liburuxka euskaraz aurkitu. Horretaz gain, proposatutako jardueren artean ez zegoen bat ere euskaraz burutu ahal zenik. Cursos y talleres otoño 2012 - Cursos culturales 2012/2013.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	793-2012	
Erakundea:	LCL - CRÉDIT LYONNAIS	IEH
Arrazoia:	Pariseko Orly aireportuan kokatua den LCL- CREDIT LYONNAIS bankuak euskaraz idatzi txekea ez du onartu.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	49-2012	
Erakundea:	TRIODOS BANK	EAE
Arrazoia:	Urtarrilaren 23an TRIODOS BANK banketxearen mahai gaineko egutegia jaso zuen herritarrak etxeko postontzian. Egutegiko testuak gaztelania hutsean ageri dira. Hilan izenak soilik ageri dira euskaraz, eta gainera horien erdiak oker idatzita.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	50-2012	
Erakundea:	TRIODOS BANK	EAE
Arrazoia:	TRIODOS BANK banketxeak argitaratu duen 2012 urteko egutegian zenbait hilabeteren euskarazko izenak oker idatzita daude. Hala, martxoak, apirilak, uztailearen, azaroaren eta abenduaren ageri dira, martxoa, apirila, uztaile, azaroa eta abendua beharrean.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	880-2012	
Erakundea:	TRIODOS BANK	EAE
Arrazoia:	Herritarrak uztailearen 3an TRIODOS BANK banketxearen Bilboko bulegotik bidalitako mezua jaso zuen. Mezuaren gaia <i>Información Participaciones de Triodos Bank oficina de Bilbao</i> zen eta gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	1237-2012	
Erakundea:	TRIODOS BANK	EAE
Arrazoa:	Herritarrak TRIODOS BANKen Bilboko bulegoaren hizkuntza-paisaia salatu zuen 2011ko maiatzean eta egoera konponduko zutela erantzun zioten. 2012ko azaroaren 3an hizkuntza-paisaiaren aferak bere horretan dirau: Triodos Banken Bilboko Errekalde Zumarkaleko bulegoko kartelak gaztelania hutsean daude, baita Lertxundi kalekoak ere. Barruko hizkuntza-paisaia ere gaztelania hutsean dago, ordutegiaren berri ematen duen ateko errotilutxoa izan ezik.	
Erantzuna:		

ELIKADURA

Esp. Zenb.:	836-2012	
Erakundea:	CAFÉS BAQUÉ S.L.U.	EAE
Arrazoia:	Ekainetik hona hainbat tabernatan kafearekin ematen dituzten BAQUÉ kafearen gailetatxoek zorroak gaztelania hutsean idatzita daude. Testua: <i>Finitas de canela. Finitas de Baqué. Deliciosa galleta con sabor a canela. Producto no apto para celíacos.</i>	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1116-2012	
Erakundea:	CASA ECEIZA S.L.	EAE
Arrazoia:	CASA ECEIZAK ekoiztutako produktuen etiketak hainbat hizkuntzatan daude: gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta alemanez. Ez, ordea, euskaraz.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1411-2012	
Erakundea:	EMBUTIDOS GOIKOA.	NAF
Arrazoia:	EMBUTIDOS GOIKOA S.A.k ekoizten dituen produktuen etiketak gaztelania hutsean idatzita daude.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	664-2012	
Erakundea:	FERRERO IBÉRICA S.A.	NAF
Arrazoia:	Nutellak promozio bat egin zuen udaberrian, deskontu-txartel baten bidez. <i>Ahora con Nutella te ahorras 1€</i> zioen esku-orria gaztelania hutsean argitaratu eta banatu zuen Iruñeko saltokietan. Deskontu txartela ere gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1059-2012	
Erakundea:	HORNO ARTESANO	NAF
Arrazoia:	HORNO ARTESANO-ren Donibane auzoko Urdazubi Monasterioko saltokian luzatu ohi duten ordainagiria gaztelania hutsean dago.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1010-2012	
Erakundea:	OGIPAN	NAF
Arrazoia:	Agoizko OGIPAN okindegiak ordutegiaren kartela aldatu du berriki. Lehen ele bietan zeukan arren, oraingoa gaztelania hutsean dago.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	800-2012	
Erakundea:	PANASA	NAF
Arrazoia:	Herritarrak ekainean Tabernaren Iruñeko okindegi batean hartutako zozketarako txartela, <i>Gran tómbola de primavera</i> zioena, gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.: 1071-2012

Erakundea: SERUNION NAF

Arrazoa: SERUNION S.A.ren webguneak, www.serunion.com, ez duenez euskarazko bertsiorik, ezin da informazioa euskaraz eskuratu.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 301-2012

Erakundea: TXAKOLI.COM EAE

Arrazoa: Txakoli.com, sormarkadun txakolina saltzeko webgune ofiziala denak, ez du informaziorik eskaintzen euskaraz.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1412-2012

Erakundea: URKABE BENETAN EAE

Arrazoa: www.txakoli.com sormarkadun txakolina saltzeko webgune ofiziala denak, ez du informaziorik eskaintzen euskaraz.

Erantzuna:

OSTALARITZA

Esp. Zenb.:	1471-2012	
Erakundea:	APARTE	IEH
Arrazoia:	Baionan kokatua den APARTE jatetxearen aurkezpen esku-orria frantses hutsean da.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	285-2012	
Erakundea:	ASTARBE SAGARDOTEGIA	EAE
Arrazoia:	Astarbe sagardotegiko botilek gaztelania hutsean dituzte etiketak.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	363-2012	
Erakundea:	BOCATERIA NASSMA	NAF
Arrazoia:	BOCATERIA NASSMAk martxoan Iruñeko herritarrari etxeko postontzian sartutako publizitatea ez zegoen euskaraz, gaztelania hutsean baizik.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	182-2012	
Erakundea:	CERVECERÍA MEMORIAM SPORT	NAF
Arrazoia:	Herritarrak gaztelania hutsean jaso zuen MEMORIAM SPORT garagardotegiak otsailaren 10ean bere helbide elektronikora bidalitako informazio-buletina.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	78-2012	
Erakundea:	EAJ-PNV	EAE
Arrazoia:	Durangoko batzokiak, ohi duen moduan, gaztelania hutsean argitaratu du iragarkia urtarreko <i>Crónicas del Duranguesado</i> hilabetekarian.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	683-2012	
Erakundea:	EAJ-PNV	EAE
Arrazoia:	Elorrioko Batzokiak iragarkia txertatu zuen maiatzaren 17ko <i>Deia</i> egunkariaren <i>Hemendik Durangaldea</i> gehigarrian. Iragarkia gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	833-2012	
Erakundea:	EAJ-PNV	EAE
Arrazoia:	Ekainaren 6an Zornotzako batzokiak kalean jarritako kartela, bazkaltzeko menua iragartzen zuena, gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1251-2012	
Erakundea:	EAJ-PNV	EAE
Arrazoia:	EAJ alderdiaren batzoki askotan, besteak beste Zornotzakoan eta orain arte salatutako beste batzuetan, eguneko menua iragartzeko erabiltzen duten kaleko euskarria gaztelania hutsean jarri ohi dute.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	1302-2012	
Erakundea:	EAJ-PNV	EAE
Arrazoia:	Azaroaren 19an Zorrotzako (Bilbo) batzokiak <i>Deia</i> egunkarian argitaratutako iragarkia gaztelania hutsean zegoen. Herritarrak dioenez, behin baino gehiagotan gertatu da iragarkiak euskaraz ez argitaratzea.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1385-2012	
Erakundea:	EAJ-PNV	EAE
Arrazoia:	Durangoko Tabiratarra batzokiak egunero iragartzen duen menu-kartela gaztelania hutsean egoten da. Horretaz gain, Gabonetarako menu bereziak iragartzeko jarritako kartela ere gaztelania hutsean dago: <i>Menús especialidades fiestas 2012</i> .	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1424-2012	
Erakundea:	EAJ-PNV	EAE
Arrazoia:	Kastrexanako (Barakaldo) batzokiak gaztelania hutsean argitaratu du iragarkia DEIA egunkarian. Honela dio: BATZOKI DE KASTREXANA / Lotería de Navidad nº 45776 / Las participaciones (001-200) indican que son para el sorteo de Reyes (por un error de imprenta). Únicamente son válidas para el sorteo de Navidad a celebrar con fecha 22-12-12 / KASTREXANAKO EAJ-PNV.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1323-2012	
Erakundea:	GOIURIA ERRETEGIA	EAE
Arrazoia:	GOIURIA Erretegiak Durangoko etxeetan berriki banatutako publizitatea gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	188-2012	
Erakundea:	GRAN HOTEL DURANGO	EAE
Arrazoia:	GRAN HOTEL DURANGO ostatuaren webguneak, www.granhoteldurango.com , ez du euskarazko bertsiorik; gaztelania hutsean dago.	
Erantzuna:	GRAN HOTEL DURANGO, HARRERA DEPARTAMENTUA: <i>Eskertzen dugu gure webgunea bisitatu duen herritarraren iradokizuna, eta aldaketa prozesuan gaudenez, oso kontuan hartuko dugu.</i>	
Esp. Zenb.:	344-2012	
Erakundea:	HOTEL ALBRET	NAF
Arrazoia:	HOTEL ALBRETek martxoan egindako faktura gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	310-2012	
Erakundea:	LA TASCA DE DON JOSÉ	NAF
Arrazoia:	Otsailaren 29an LA TASCA DE DON JOSÉ tabernan emandako <i>¿Necesitas una excusa para salir?</i> izeneko esku-orria gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	1347-2012	
Erakundea:	LA TASCA DE DON JOSÉ	NAF
Arrazoa:	Uharteko JOSENEA SAGARDOTEGIA - LA TASCA DE DON JOSÉ jatetxean herritarrari azaroaren 21ean luzatutako ordainagiria gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	645-2012	
Erakundea:	OIANUME JATETXEA	EAE
Arrazoa:	Maiatzean Andoaingo Oianume jatetxean izan ziren herritarrak eta ez zuten karta euskaraz jaso, gaztelaniaz soilik zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	581-2012	
Erakundea:	OREKA SNACKING-TE SALOINA	IEH
Arrazoa:	Donibane Lohizuneko hondartza handiaren ondoan kokatua den OREKA jatetxe eta te saloiaren aurkezpen esku-orria eta herriaren sarreran ikusgai eman diren afixak frantses hutsean dira.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	139-2012	
Erakundea:	VIA FORA JATETXEA - ESPAI CATALUNYA TOPALEKUA	EAE
Arrazoa:	Maiatzaren 23an, VIA FORA Jatetxean sartu eta ebaki bat eskatu zion euskaraz zerbitzariari. Zerbitzariak herritarrak eskatutakoa gaztelaniaz errepikatu zuen eta herritarrak baietz euskaraz. Orduan, <i>¡Dímelo en castellano!</i> erantzun zion hark. Beste zerbitzari batek gaztelaniaz azaldu zion lankideari bezeroak zer eskatu zuen. Hala ere, <i>¡Que me lo digas en castellano!</i> errepikatu zion herritarrari. Herritarrak kafea beste taberna batean hartuko zuela esan zion eta kanpora zihoala hara non entzuten dion: <i>Sí, vete a tomar por el culo, anda!</i> Hori entzutean, herritarra azalpenak eskatzera itzuli zen eta eztabaidan kateatu ziren. Euskaraz egiten bazuen berak katalanez egingo zuela esan zion zerbitzariak builaka eta nahi zuena esango zuela. Herritarrak, nahi zuena esaten bazuen salaketa jarriko ziola jakinarazi zion. Zerbitzariak nahi zuena egiteko, baina salaketa jartzen bazuen espainolez jartzeko erantzun zion.	
Erantzuna:	ESPAI CATALUNYA TOPALEKUA, LEHENDAKARIA. RESTAURANTE VIA FORA, ARDURADUNA eta SUKALDEKO ARDURADUNA: <i>Atsekabea adierazi eta barkamena eskatzen dugu. Aurrera begira oso kontuan izango dugu gertatutakoa, berriro horrelakorik errepika ez dadin.</i>	

ALDERDI POLITIKOAK

Esp. Zenb.:	695-2012	
Erakundea:	ADOUR PAR COEUR	IEH
Arrazoia:	2012ko ekaineko legebiltzarreko hauteskunde kanpainaren kariatara, 5. hautesbarrutian hautagai gisa aurkeztu da Mortalena jauna. Kanpainan zehar erabili webgunea eta komunikazioa frantses hutsean ziren.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	696-2012	
Erakundea:	ALLIANCE ECOLOGISTE INDEPENDANTE	IEH
Arrazoia:	2012ko ekaineko legebiltzarreko hauteskunde kanpainaren kariatara, 5. hautesbarrutian AEI alderdiko hautagai gisa aurkeztu da Alexa Hilaire anderea. Kanpainan zehar erabili bloga frantses hutsean zen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	728-2012	
Erakundea:	ALLIANCE ECOLOGISTE INDEPENDANTE	IEH
Arrazoia:	2012ko ekaineko legebiltzarreko hauteskunde kanpainaren kariatara, 6. hautesbarrutian AEI alderdiko hautagai gisa aurkeztu da Christophe Lepretre. Kanpainan zehar erabili bloga frantses hutsean zen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	185-2012	
Erakundea:	AMAIUR	EAE
Arrazoia:	Amaiur koalizioak otsailaren erdialdean gaztelania hutsean helarazi zuen torturei buruzko prentsa-oharra euskara hutsean lan egiten duen hedabide batera.	
Erantzuna:	AMAIUR, PRENTSA BURUA: <i>Gure akatsa onartu eta aurrerantzean horrelakorik berriz gerta ez dadin baliabideak jartzeko konpromisoa hartzen dugu. Gertaera tamalgarri honek eragindako atsekabeagatik barkamena eskatzen du Amaiur koalizioak.</i>	
Esp. Zenb.:	941-2012	
Erakundea:	DIVERS DROITE	IEH
Arrazoia:	2012ko ekaineko legebiltzarreko hauteskunde kanpainaren kariatara, 6. hautesbarrutian DIVERS DROITE alderdiko hautagai gisa aurkeztu da Zunzarren jauna. Kanpainan zehar erabili komunikazio euskarriak, hala nola, fede aitortpena frantses hutsean ziren: <i>Le gaullisme a ses valeurs!</i> zioen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	697-2012	
Erakundea:	EBRT	IEH
Arrazoia:	2012ko ekaineko legebiltzarreko hauteskunde kanpainaren kariatara, 5. hautesbarrutian EBRT alderdiko hautagai gisa aurkeztu zen Stephane Bernard. Kanpainan zehar erabili webgunea frantses hutsean zen.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	587-2012	
Erakundea:	EELV	IEH
Arrazoia:	2012ko ekaineko legebiltzarreko hauteskunde kanpainaren kariatara, 4. hautesbarrutian Alice Leiciaguecahar EELV alderdiko hautagai gisa aurkeztu da. Kanpainan zehar erabili webgunea frantses hutsean zen. Komunikazio euskarriei doakienez, esaldi bakar batzuk agertzen ziren euskaraz.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	699-2012	
Erakundea:	EELV	IEH
Arrazoia:	2012ko ekaineko legebiltzarreko hauteskunde kanpainaren kariatara, 6. hautesbarrutian EELV alderdiko hautagai gisa aurkeztu da Philippe Etcheverry. Kanpainan zehar erabili webgunean laburpen bat irakur daiteke euskaraz. Haatik, gainerako guzia frantses hutsean da: biarritzecologie.com.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	945-2012	
Erakundea:	EAJ-PNB	IEH
Arrazoia:	2012ko ekaineko legebiltzarreko hauteskunde kanpainaren kariatara, 6. hautesbarrutian EAJ alderdiko hautagai gisa aurkeztu zen Jean Tellechea. Kanpainan zehar erabili komunikazio euskarrietan, hala nola, fede aitorpenean, euskarazko laburpen gisa esaldi bat agertzen da. Haatik, gainerateko informazioan frantsesa zen nagusi.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1301-2012	
Erakundea:	EQUO	EAE
Arrazoia:	EQUO Euskadi alderdi politikoaren webguneko interfazea gaztelania hutsean dago eta eduki asko ezin dira euskaraz irakurri ez daudelako euskaraz idatziak.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	870-2012	
Erakundea:	EZKER ABERTZALEA	EAE
Arrazoia:	Ezker Abertzaleak gaztelaniaz eta ingelesez argitaratu ohi du Boletín semanal de la Izquierda Abertzale delako agerkaria http://www.ezkerabertzalea.info webgunean; ez, ordea, euskaraz.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1213-2012	
Erakundea:	EZKER ANITZA	EAE
Arrazoia:	Ezker Anitza-IU alderdiaren webgunea gaztelania hutsean dago. Herritarrak orain dela urtebete salatu zuen eta oraingoan azpimarratu nahi du alderdi hau EAEko legebiltzarrerako hauteskundeetara aurkeztu dela. http://www.ezker-anitza.org/	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	588-2012	
Erakundea:	FRONT DE GAUCHE	IEH
Arrazoia:	2012ko ekaineko legebiltzarreko hauteskunde kanpainaren kariatara, 4. hautesbarrutian Robert Bareille FRONT DE GAUCHE alderdiko hautagai gisa aurkeztu da. Kanpainan zehar erabili webgunea eta komunikazio euskarriak frantses hutsean ziren.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	694-2012	
Erakundea:	FRONT DE GAUCHE	IEH
Arrazoia:	2012ko ekaineko legebiltzarreko hauteskunde kanpainaren kariatara, 5. hautesbarrutian, FRONT DE GAUCHE alderdiko hautagai gisa aurkeztu zen Bernadette Lavigne anderea. Kanpainan zehar erabili webgunea eta komunikazio euskarriak frantses hutsean ziren.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	700-2012	
Erakundea:	FRONT DE GAUCHE	IEH
Arrazoia:	2012ko ekaineko legebiltzarreko hauteskunde kanpainaren kariatara, 6. hautesbarrutian FRONT DE GAUCHE alderdiko hautagai gisa aurkeztu da Ivette Debarbieux. Kanpainan zehar erabili webgunea eta komunikazio euskarriak frantses hutsean ziren.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	943-2012	
Erakundea:	FN	IEH
Arrazoia:	2012ko ekaineko legebiltzarreko hauteskunde kanpainaren kariatara, 6. hautesbarrutian FN alderdiko hautagaiak kanpainan zehar erabili komunikazio euskarriak, hala nola, fede aitortpena frantses hutsean ziren: <i>Pour une assemblée vraiment nationale!</i> zioen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	944-2012	
Erakundea:	LO	IEH
Arrazoia:	2012ko ekaineko legebiltzarreko hauteskunde kanpainaren kariatara, 6. hautesbarrutian LO alderdiko hautagaiak kanpainan zehar erabili komunikazio euskarriak, hala nola, fede aitortpena frantses hutsean ziren.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	698-2012	
Erakundea:	MICHEL LAMARQUE	IEH
Arrazoia:	2012ko ekaineko legebiltzarreko hauteskunde kanpainaren kariatara, 6. hautesbarrutian hautagai gisa aurkeztu da Michel Lamarque hautagaia. Kanpainan zehar erabili webgunea eta komunikazio euskarriak frantses hutsean ziren.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	585-2012	
Erakundea:	MODEM - LE CENTRE POUR LA FRANCE	IEH
Arrazoia:	2012ko ekaineko legebiltzarreko hauteskunde kanpainaren kariatara, Jean Lasalle, 6. hautesbarrutian LE CENTRE POUR LA FRANCEko hautagai gisa aurkeztu da. Kanpainan zehar erabili webgunea eta komunikazio euskarriak frantses hutsean ziren.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	702-2012	
Erakundea:	MODEM - LE CENTRE POUR LA FRANCE	IEH
Arrazoia:	2012ko ekaineko legebiltzarreko hauteskunde kanpainaren kariatara, Marie Contraires, 6. hautesbarrutian LE CENTRE POUR LA FRANCEko hautagai gisa aurkeztu da. Kanpainan zehar erabili webgunea frantses hutsean zen. Komunikazio euskarriei doakienez, aurkeztu engaiamenduen izenburuak euskaratu dira, baina euskara eta frantsesaren arteko erabilera ez da orekatua izan.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	942-2012	
Erakundea:	NPA	IEH
Arrazoia:	2012ko ekaineko legebiltzarreko hauteskunde kanpainaren kariatara, 6. hautesbarrutian NPA alderdiko hautagai gisa aurkeztu da Sylvie Lapalace anderea. Kanpainan zehar erabili komunikazio euskarriak, hala nola, fede-aitorpena frantses hutsean ziren: <i>Aux capitalistes de payer leurs crises!</i> zioen.	
Erantzuna:		

SINDIKATUAK

Esp. Zenb.:	332-2012	
Erakundea:	CC.OO.	NAF
Arrazoa:	Martxoaren 29ko greba orokorrera deitzeko CC.OO. sindikatuak Iruñeko egoitzan paratutako mezua baita kaleetan ikusitako guztiak ere gaztelania hutsean zeuden.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	874-2012	
Erakundea:	CC.OO.	EAE
Arrazoa:	CC.OO. sindikatuak pasa den uztailean Traña-Matiena (Abadiño) auzoko Zubibitarte kalean jarritako pankarta gaztelania hutsean zegoen. Bertan, Transformados Ibaizabal eta La Magdalena enpresak aipatzen ziren.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1247-2012	
Erakundea:	CC.OO.	NAF
Arrazoa:	Nafarroako CC.OO. sindikatuak Olaztiko langileei ikastaroetan parte hartzeko bidalitako informazio osoa gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	88-2012	
Erakundea:	LAB SINDIKATUA	EAE
Arrazoa:	Otsailaren hasieran Bilboko zenbait saltegitan igande eta jai egunetan irekitzearen aurka sinadurak biltzeko LAB sindikatuak prestatutako orria topatu zuen herritarrak. Orria ele bietan dago, eta lehentasuna ematen zaio euskarari, baina euskarazko bertsioak akats ortografiko eta sintaktiko mordoak ditu.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	552-2012	
Erakundea:	LAB SINDIKATUA	NAF
Arrazoa:	Nafarroako LAB sindikatuak apirilaren 4an Iruñeko herritarrari bidalitako posta elektronikoa, Jangarria enpresako langile baten atxilotetaren berri ematen zuena, gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	841-2012	
Erakundea:	LAB SINDIKATUA	NAF
Arrazoa:	Herritarrak ekainaren 25ean Nafarroako LAB sindikatuak bidalitako posta elektronikoa jaso zuen. Ez zegoen euskaraz idatzia, gaztelania hutsean baizik. Posta nukleoadmnafarroa@labsindikatu.org helbidetik bidali zioten eta gaia ondokoa zen: Propuesta de orden foral de modificación de jornada.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	873-2012	
Erakundea:	LAB SINDIKATUA	EAE
Arrazoia:	LAB sindikatuak pasa den uztailean Traña-Matiena (Abadiño) auzoko Zubibitarte kalean jarritako pankarta gaztelania hutsean zegoen. Bertan, Transformados Ibaizabal eta La Magdalena enpresak aipatzen ziren.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	333-2012	
Erakundea:	UGT	NAF
Arrazoia:	Martxoaren 29ko greba orokorrera deitzeko UGT sindikatuak Iruñeko egoitzan paratutako mezua baita kaleetan ikusi dituen guztiak ere gaztelania hutsean zeuden.	
Erantzuna:		

ERLIJIOA

Esp. Zenb.:	206-2012	
Erakundea:	IRUÑEKO ETA TUTERAKO ARTZAPEZPIKUTZA	NAF
Arrazoia:	Iruñeko herritarrak Iruñeko eta Tuterako Artzapezpikutzak antolaturiko <i>72 años caminando a Javier</i> jarduera iragartzeko esku-orria gaztelania hutsean jaso zuen otsailean etxeko gutunontzian.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	490-2012	
Erakundea:	IRUÑEKO ETA TUTERAKO ARTZAPEZPIKUTZA	NAF
Arrazoia:	Iruñeko Katedralean apirilaren 10ean hartutako esku-orrian zeuden bi kantak gaztelania hutsean zeuden.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1115-2012	
Erakundea:	KARMAPA MIKYÖ DORJE ZENTRO BUDISTA	NAF
Arrazoia:	Karmapa Mikyö Dorje zentro budistak gaztelania hutsean argitaratu du 2012 urterako antolatutako ikastaroen berri emateko esku-orria.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1214-2012	
Erakundea:	SAN FAUSTE PARROKIA	EAE
Arrazoia:	Durangoko San Fauste Parrokiak urrian San Fauste auzoko etxe-atarietan zabaldutako gutuna gaztelania hutsean zegoen. Ez zituzten euskaldunak kontuan hartu.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1415-2012	
Erakundea:	ASOCIACIÓN SANTOS JUSTO Y PASTOR DE BILBAO	EAE
Arrazoia:	ASOCIACIÓN SANTOS JUSTO Y PASTOR DE BILBAO elkarteak antolatutako IV Feria Belenista Villa de Bilbao azokan jarritako karpan, kanpoaldean, gaztelania hutsean idatzitako mezua zegoen: <i>IV Feria Belenista Villa de Bilbao / Del 1 al 9 de diciembre</i> . Aipatutako jarduerak Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso zuen.	
Erantzuna:		

BESTELAKO ERAGILEAK

Esp. Zenb.:	378-2012	
Erakundea:	ACNUR	NAF
Arrazoia:	Iruñeko herritarrak gaztelania hutsean jaso zuen martxoan UNHCR-ACNUR elkarteak bidalitako publizitatea.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	372-2012	
Erakundea:	AFAN	NAF
Arrazoia:	AFAN elkarteak <i>Jornadas sobre la enfermedad de Alzheimer</i> iragartzeko argitaratu zuen esku-orria gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	662-2012	
Erakundea:	AFAN	NAF
Arrazoia:	AFAN elkarteak Alzheimer gaitzaren gaineko jardunaldiak antolatu zituen udaberrian. Jardunaldien egitarauaren berri ematen zuen esku-orria gaztelania hutsean argitaratu zuten.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	134-2012	
Erakundea:	ALCOHÓLICOS ANÓNIMOS	NAF
Arrazoia:	Alkoholiko Anonimoen elkarteak hainbat informazio-orri jarri zituen herritarren eskura Barañaingo osasun etxe berrian (<i>Alcohólicos Anónimos para la mujer, ¿Es Alcohólicos Anónimos para usted? Un principiante pregunta</i>) . Orri guztiak gaztelania hutsean zeuden.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	623-2012	
Erakundea:	ALTZIBARKO GAZTELEKUA	EAE
Arrazoia:	Oiartzungo Altzibar auzoko Gaztelekuko enagerraldia argitaratu da maiatzaren 10eko <i>Oarso-Bidasoako Hitza</i> n. Bertan, gaztelania hutsean dagoen mural batekin ageri dira.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1250-2012	
Erakundea:	APYMA STA LUISA DE MARILLAC	NAF
Arrazoia:	Barañaingo STA LUISA DE MARILLAC GURASO ELKARTEAK argitaratutako zozketarako txartelak gaztelania hutsean daude. <i>Viaje fin de curso 4º ESO</i> .	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	960-2012	
Erakundea:	ASOCIACIÓN CASCO ANTIGUO DE PAMPLONA	NAF
Arrazoia:	ASOCIACIÓN CASCO ANTIGUO DE PAMPLONAK irailaren 14ko jardueren berri emateko argitaratutako publizitatea, bi hitz kenduta, gaztelania hutsean zegoen. Jarduera honek Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren laguntza izan zuen.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	961-2012	
Erakundea:	ASOCIACIÓN CASCO ANTIGUO DE PAMPLONA	NAF
Arrazoia:	ASOCIACIÓN CASCO ANTIGUO DE PAMPLONA-ren webgunea gaztelaniaz bisita daiteke, ez ordea euskaraz.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	962-2012	
Erakundea:	ASOCIACIÓN CASCO ANTIGUO DE PAMPLONA	NAF
Arrazoia:	ASOCIACIÓN CASCO ANTIGUO DE PAMPLONA-ren blogean gaztelania hutsean argitaratzen dituzte mezuak.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	315-2012	
Erakundea:	ASOCIACIÓN CULTURAL LA CARACOLA	NAF
Arrazoia:	Maiatzaren 25etik uztailaren 1a bitartean <i>Mapamundistas 2012</i> izeneko topaketak antolatu ditu LA CARACOLA kultura-elkarteak. Topaketak iragartzeko esku-orriak gaztelaniaz baino ez ditu aurkitu Sanduzelaiko Civioxean ekainaren 11n eta 18an.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	822-2012	
Erakundea:	ASOCIACIÓN CULTURAL LA CARACOLA	NAF
Arrazoia:	LA CARACOLAK antolatutako <i>Mapamundistas 2012</i> iragartzeko eginiko esku-orriak gaztelania hutsean zeuden. Aipatu jarduera antolatzeko Iruñeko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso zuen elkarteak.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	823-2012	
Erakundea:	ASOCIACIÓN DE AMIGOS DEL CAMINO DE SANTIAGO EN NAVARRA	NAF
Arrazoia:	ASOCIACIÓN DE AMIGOS DEL CAMINO DE SANTIAGO EN NAVARRA elkarteak antolaturiko <i>XIX Concurso fotográfico Camino de Santiago</i> iragartzeko argitaratutako esku-orriak gaztelania hutsean daude.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	896-2012	
Erakundea:	ASOCIACIÓN DE AMIGOS DEL CAMINO DE SANTIAGO EN NAVARRA	NAF
Arrazoia:	Herritarrak Agoizko kultur etxean aurkitu dituen ASOCIACIÓN DE AMIGOS DEL CAMINO DE SANTIAGO EN NAVARRA elkarteak antolaturiko <i>XIX Concurso fotográfico Camino de Santiago</i> iragartzeko esku-orriak gaztelania hutsean daude.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	724-2012	
Erakundea:	ASOCIACIÓN DE EMPRESARIOS DE HOSTELERÍA DE NAVARRA	NAF
Arrazoia:	AEHN-k apirilean antolatutako <i>XIV semana del pincho</i> iragartzeko argitaratutako kartela, parte hartu zuten taberna guztietan paratu zena, gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	810-2012	
Erakundea:	ASOCIACIÓN DE EMPRESARIOS DE HOSTELERÍA DE NAVARRA	NAF
Arrazoia:	Ekaina hasieran Iruñeko hotel batean bezeroen eskura zegoen <i>Restaurants de Navarra</i> izeneko gida. Aipatu gidan ez dago hitz bat bera ere euskaraz; gaztelaniaz eta ingelesez idatzia dago. Horrez gain, ez dira zenbait herriren euskal izenak eman: <i>Ecay, Mutilva Baja, Berrioplano, Dicastillo, Lumbier, Yesa ...</i>	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	811-2012	
Erakundea:	ASOCIACIÓN DE EMPRESARIOS DE HOSTELERÍA DE NAVARRA	NAF
Arrazoia:	Ekaina hasieran Iruñeko hotel batean <i>Restaurants de Navarra</i> izeneko gida zegoen bezeroen eskura. Aipatu gida euskaraz ez egoteaz gain, ez dira zenbait herriren izen ofizialak errespetatu. <i>Vera de Bidasoa, Lesaca, Echalar, Ezcurra, Almándo, Burguete, Ochagavía, Roncal, Aoiz, Pamplona, Huarte, Villava, Echarri Aranaz, Zizur Mayor, Estella, Puente la Reina, Ayegi, Sangüesa, Olite, Arraiz, Espinal, Gorraiz, Oricain, Olave</i> eta <i>Esquiroz</i> ageri dira Bera, Lesaka, Etxalar, Ezkurra, Almandoz, Auritz, Otsagabia, Erronkari, Agoitz, Iruñea, Uharte, Atarrabia, Etxarri Aranatz, Zizur Nagusia, Lizarra, Gares, Aiegi, Zangoza, Erriberri, Arraitz, Aurizberri, Gorraitz, Orikain, Olabe eta Eskirotz beharrean.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	723-2012	
Erakundea:	ASOCIACIÓN ROCIERA LA BLANCA PALOMA	NAF
Arrazoia:	ASOCIACIÓN ROCIERA LA BLANCA PALOMAK HERMANDAD DE NUESTRA SEÑORA DEL ROCÍO DE NAVARRAREKIN batera Barañainen antolaturiko <i>El Rocío-6ª Fiesta Rociera</i> iragartzeko argitaratutako kartela gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1369-2012	
Erakundea:	ASPACE	NAF
Arrazoia:	ASPACEk azaroan Agoitzen jarritako <i>¿Te subes a nuestro carro?</i> izeneko kartelak gaztelania hutsean zeuden, guzti-guztiak.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	806-2012	
Erakundea:	ATEA	EAE
Arrazoia:	Animaliei tratu etikoa ematearen aldeko elkarteak gaztelania hutsean du webgunea. Ez du informaziorik eskaintzen euskaraz. Bestetik, ohar batean honakoa diote: <i>Ha asumido un deleznable uso del euskera como arma arrojadiza, comportamiento que creíamos desterrado de nuestra historia reciente.</i>	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	313-2012	
Erakundea:	BARAÑAIN ETA IPAR ETXABAKOITZEKO MERKATARIEN ELKARTEA – ACBEN	NAF
Arrazoia:	BARAÑAINGO ETA IPAR ETXABAKOITZEKO MERKATARIEN ELKARTEAK bertako kide diren saltokietan bezeroen eskura jarritako esku-orria, <i>¡Corre la voz! Tus compras tienen premio con tu tarjeta comercio</i> izeneko, ez dago euskaraz, gaztelania hutsean baizik.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	3-2012	
Erakundea:	BIDASOA BIZIRIK	EAE
Arrazoia:	BIDASOA BIZIRIK elkartetik Gabonetan bidalitako mezuaren euskarazko testuak akatsak zituen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	949-2012	
Erakundea:	BIZKAIKO ODOL EMAILEEN ELKARTEA	EAE
Arrazoia:	Euskadiko Odol Emaileen Elkarateak odol-ematearen inguruan duen Twitter eta Facebook kontuak gaztelania hutsean daude.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	30-2012	
Erakundea:	CARITAS	NAF
Arrazoia:	Herritarrak urtarrilaren 11 eguerdian eta urtarrilaren 12an goizean CARITASera deitu zuen. Euskaraz artatua izan nahi zuela adierazi arren, langile euskaldunik ez zutela erantzun zioten bietan. Hartara, ezin izan zuen euskaraz mintzatu.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	291-2012	
Erakundea:	CARITAS	NAF
Arrazoia:	CARITASek Iruñeko Sarasate pasealekuan jarritako tonbolan ohar eta kartel gehienak gaztelania hutsean daude: mezu solidarioak, murala, haur-festa iragartzeko kartelak... Horrez gain, boletoretan ere euskara ez da kontuan hartu eta megafonia bidezko ohar eta mezuak ere ez dituzte euskaraz ematen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1041-2012	
Erakundea:	CARITAS	NAF
Arrazoia:	Iruñeko CARITASek antolatzen duen tonbolako txartelak gaztelania hutsean daude. Ez dute inolako informaziorik ematen euskaraz.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1141-2012	
Erakundea:	CASA DE LA COMUNIDAD VALENCIANA EN NAVARRA	NAF
Arrazoia:	CASA DE LA COMUNIDAD VALENCIANA EN NAVARRA elkarteak urriaren 6an ospatu beharreko <i>XV Aniversario de la Casa de la Comunidad Valenciana en Navarra</i> jarduera iragartzeko argitaratutako kartela gaztelania hutsean zegoen. Aipatu jarduerak Iruñeko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso zuen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	120-2012	
Erakundea:	CEAPA	NAF
Arrazoia:	Otsailean legeak ezarritako Nafarroako eremu mistoko guraso elkarteei CEAPAK bidali zien <i>XII Concurso de actividades educativas realizadas por las APAS</i> delako esku-orria gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	571-2012	
Erakundea:	CENTRO ASTURIANO	NAF
Arrazoa:	Iruñeko CENTRO ASTURIANOK publizitate-orria banatu zuen apirilean Iruñeko Alde Zaharreko etxeetako postontzietan. Orria gaztelania hutsean idatzita zegoen; ez zen hitzik ageri euskaraz.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	899-2012	
Erakundea:	CLUB PESCADORES DEPORTIVOS RÍO ARGÁ	NAF
Arrazoa:	CLUB PESCADORES DEPORTIVOS RÍO ARGÁ antolatutako <i>XXI Concurso Nacional de Pesca Fluvial 2012</i> iragartzeko kartela gaztelania hutsean dago. Aipatu jarduerak Iruñeko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1117-2012	
Erakundea:	COFRADÍA DEL HONGO Y LA SETA	NAF
Arrazoa:	COFRADÍA DEL HONGO Y DE LA SETA DE NAVARRA elkarteak urriaren 7an Elgorriagan antolatutako <i>Día del hongo y la seta</i> iragartzeko argitaratutako kartelak eta zozketarako boletoak gaztelania hutsean zeuden. Aipatutako jarduerak Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso zuen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	876-2012	
Erakundea:	CONCAPA	NAF
Arrazoa:	CONCAPAk Familiaren XXX. Festa-eguna antolatu zuen ekainaren 3an Iruñeko Gotorlekuan. Egitarauaren berri emateko argitaratu zuen esku-orria gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1249-2012	
Erakundea:	EUSKAL ESPELEOLOGOEN ELKARGOA	EAE
Arrazoa:	Euskal Espeleologoek Elkargoak Nafar Espeleologia Batzordearekin batera urriaren CIVIVOX Condestablen antolatutako hitzaldia iragartzeko kartela gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	686-2012	
Erakundea:	EUSKAL HERRIKO NOTARIO-ELKARGOA	EAE
Arrazoa:	Agiri publikoak egiteko egileleak bere borondatea adierazi behar du lehendabizi Notarioaren aurrean. Herritarrak agiri horiek euskaraz izan daitezzen nahi du, baina Notarioa ez denez euskalduna, herritarrak urrats hori ahoz egin nahi izatekotan, gaztelaniaz adierazi behar du eta euskaraz egin nahi izanez gero, bere borondatea idatziz aurkeztu behar du.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1374-2012	
Erakundea:	FCN - FEDERACION DE COMERCIOS DE NAVARRA	NAF
Arrazoa:	FEDERACIÓN DE COMERCIOS DE NAVARRA-k abenduaren 5ean Iruñean herritarrari luzatutako <i>Club más por ti</i> txartela eta bete behar izan zuen inprimakia gaztelania hutsean zeuden. Herritarrak galdetu zuen euskaraz ote zegoen eta ezetz erantzun zioten.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	898-2012	
Erakundea:	FUNDACION DE VICTIMAS DEL TERRORISMO	NAF
Arrazoia:	FUNDACION DE VICTIMAS DEL TERRORISMO-k Iruñean antolatutako <i>IX Memorial Tomás Caballero</i> nesken futbol torneoa iragartzeko kartela gaztelania hutsean dago. Aipatu torneoa Iruñeko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	769-2012	
Erakundea:	FUNDACIÓN GOIENETXE	EAE
Arrazoia:	GOIENETXE Fundazioa eraikina egiten ari da Donostiako Antigua auzoan, Beriyon. Fatxadan duen plakako testua gaztelania hutsean dago. Honela dio: <i>Fundación Goyeneche de San Sebastian</i> . Goienetxe Fundazioak ituna du Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuarekin.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1107-2012	
Erakundea:	GIPUZKOAKO ERIZAINZTA KOLEGIO OFIZIALA	EAE
Arrazoia:	GIPUZKOAKO ERIZAINZAREN KOLEGIO OFIZIALAK gaztelania hutsean bidaltzen ditu posta elektronikoak eta gutunak. Horretaz gain, herritarrak bertako langileekin euskaraz egiten saiatu denean, ez du jarrera ona aurkitu.	
Erantzuna:	GIPUZKOAKO ERIZAINZTA KOLEGIO OFIZIALA, LEHENDAKARIA: <i>Egia da Kolegioko langileek idazten dituzten mezu elektroniko guztiak ez direla elebidunak, kanpoko itzulpen-zerbitzu batera bidali beharko genituzkeelako. Kolegiora mezu elektronikoak euskaraz idazten dituzten pertsonen euskaraz bidaltzen zaie erantzuna. Era berean, elkargoko kide batek arreta euskaraz jaso nahi badu, bai telefonoz, bai bertaratuta ere, langile euskaldunek egiten diote arreta. Ahalegin handia egiten ari gara ahalik eta jarduera gehien euskaraz eta gaztelera egiteko. "Bai Euskarari" hitzarmenean parte hartzen dugu eta hileko zirkularra euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzen dugu. Aurten, euskararen aldeko bi apustu garbi egin ditugu: Kolegioaren webgune osoa euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzea; eta administrazio-taldeari prestakuntza pertsonalizatua ematea, euskara-egagutza hobetzeko.</i>	
Esp. Zenb.:	675-2012	
Erakundea:	GOIZARTE	NAF
Arrazoia:	GOIZARTEK gaztelania hutsean helarazi zion herritarrari Eric Rolfek Lizasoko Flor de Vida landetxean abuztuaren 17, 18 eta 19an egin asmo zuen <i>La Medicina del Alma</i> mintegiaren inguruko mezu-elektronikoa eta hari atxikita heldu zen kartela.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1205-2012	
Erakundea:	GRUPO SCOUT 1º ESTRELLA SKAUT TALDEA	NAF
Arrazoia:	Barañaingo herritarrek 1º Estrella Eskaut Taldearen esku-orria jaso zuten urriaren 17an etxeko postontzian. Aipatu esku-orria ez zegoen euskaraz idatzia, gaztelania hutsean baizik.	
Erantzuna:	GRUPO SCOUT 1º ESTRELLA SKAUT TALDEA: <i>Estatutuetan euskararen aldeko apustu sendoa egin arren, gaur egun ez dugu taldean euskaldunik eta ezin dugu hau bete.</i>	

Esp. Zenb.:	71-2012	
Erakundea:	GURUTZE GORRIA	NAF
Arrazoa:	Irurtzungo taberna batean GURUTZE GORRIAK argitaratutako <i>En la carretera quiérete mucho</i> esku-orriak zeuden bezeroen eskura. Orria gaztelania hutsean idatzita zegoen; ez zen hitz erdirik ageri euskaraz.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	722-2012	
Erakundea:	HERMANDAD DE NUESTRA SRA DEL ROCÍO DE NAVARRA	NAF
Arrazoa:	HERMANDAD DE NUESTRA SEÑORA DEL ROCÍO DE NAVARRAK ASOCIACION ROCIERA LA BLANCA PALOMAekin batera Barañainen antolaturiko <i>El Rocío-6ª Fiesta Rociera</i> iragartzeko argitaratutako kartela gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	14-2012	
Erakundea:	IRACHE ASOCIACIÓN DE CONSUMIDORES DE NAVARRA	NAF
Arrazoa:	IRACHE kontsumitzaile elkarteak Agoizko udaletxeko sarreran kokaturiko kartela gaztelania hutsean dago.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	15-2012	
Erakundea:	IRACHE ASOCIACIÓN DE CONSUMIDORES DE NAVARRA	NAF
Arrazoa:	IRACHE kontsumitzaile elkarteak Agoizko udaletxean jende aurrean utzitako aldizkaria gaztelania hutsean dago, bi espazio txiki izan ezik.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1333-2012	
Erakundea:	IRACHE ASOCIACIÓN DE CONSUMIDORES DE NAVARRA	NAF
Arrazoa:	Herritarrak IRACHE Kontsumitzaileen Elkartera deitu zuen abuztuaren 3an goizeko 9:40etan. Ezin izan zuen zerbitzua euskaraz jaso langile euskaldunik ez zegoelako.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1038-2012	
Erakundea:	IRACHE ASOCIACIÓN DE CONSUMIDORES DE NAVARRA	NAF
Arrazoa:	IRACHE Kontsumitzaile Elkarteak jakinarazpena bidali zion bazkideari ekainaren amaieran, kuota bereziaren kobrantzaren berri emateko. Jakinarazpena gaztelania hutsean idatzita zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1039-2012	
Erakundea:	IRACHE ASOCIACIÓN DE CONSUMIDORES DE NAVARRA	NAF
Arrazoa:	IRACHE Kontsumitzaile Elkarteak Nafarroako Gobernuko Kontsumo Zerbitzuak hartutako erabakien berri emateko informazio-orria helarazi zien bazkideei ekainaren amaieran. Orri berean errenta aitorpenean kenkaria egiteko ziurtagiria eskuratzeko bete beharreko eskaera-orria zetorren. Biak ala biak gaztelania hutsean idatzita zeuden.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	1040-2012	
Erakundea:	IRACHE ASOCIACIÓN DE CONSUMIDORES DE NAVARRA	NAF
Arrazoia:	IRACHE Kontsumitzaile Elkartek erabiltzen dituen gutun-azaletan eta orrien idazpuruetan ez dira Nafarroako hainbat udalerriren izen ofizialak errespetatzen: <i>Pamplona , Estella , Alsasua , Aoiz , Olazagutia</i> herrien gaztelaniazko izenak soilik ageri dira. Bestetik <i>Baztán</i> ageri da, izen ofiziala Baztan bada ere, eta bazkidearen helbidea ematerakoan ez da herriaren izen ofizial errespetatu, <i>Yábar</i> agertzen baita lhabar beharrean.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	20-2012	
Erakundea:	JAED - JUNTA DE AYUDA A ENFERMOS DE DURANGO	EAE
Arrazoia:	Durangoko JAED elkarteak urtarrilaren 8an egin behar zuen zozketa iragartzeko argitaratu zituen kartelak gaztelania hutsean zeuden. Testua: <i>Los premios de la lotería de Navidad se pagarán a partir del 2 de enero en la caja Laboral (Ezkurdi).</i>	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1303-2012	
Erakundea:	LEIZAOLA ELKARGOA	EAE
Arrazoia:	LEIZAOLA ELKARGOAK azaroaren 18an DEIA egunkarian <i>Bake Bidean</i> jardunaldiak iragartzeko argitaratutako iragarkia gaztelania hutsean zegoen. Aipatu jardunaldiek Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren, Justizia eta Herri Administrazio sailaren eta EAEko Unibertsitate Publikoaren laguntza jaso zuten. Herritarrak ez du beste inongo egunkaritan euskarazko iragarkirik ikusi.	
Erantzuna:	LEIZAOLA ELKARGOA: <i>Bai gazteon KZ aldizkarian, baita ekintzaren berri emateko EHUko ikastetxeetan esekitako iragarkiak elebidunak izan dira, eta DEIA egunkariaren kasuan, publizitatea txertatzeko tarte txikia denez, euskarazko eta gaztelaniazko iragarkiak tartekatuta dituzte.</i>	
Esp. Zenb.:	1050-2012	
Erakundea:	MEDICUS MUNDI	NAF
Arrazoia:	Herritarrak abuztuaren hasieran MEDICUS MUNDI NAVARRAK bidalitako <i>El Sur</i> aldizkaria jaso zuen. Gaztelania hutsean idatzita zegoen hasieratik bukaeraraino.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	567-2012	
Erakundea:	NAFAR ATENEOA	NAF
Arrazoia:	NAFAR ATENEOAK erabiltzen dituen gutun-azalek helbidea gaztelania hutsean dute.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1248-2012	
Erakundea:	NAFAR ESPELEOLOGI BATZORDEA- FEDERACION NAVARRA DE ESPELEOLOGIA	NAF
Arrazoia:	NAFAR ESPELEOLOGIA BATZORDEAK EUSKAL ESPELEOLOGOEN ELKARGOAREKIN batera urriaren CIVIVOX Condestablen antolatutako hitzaldia iragartzeko kartela gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	1404-2012	
Erakundea:	LEA-ARTIBAI ETA URKIOLA LANDA GARAPENERAKO ELKARTEA	
Arrazoia:	OIZ EGIN ekimenak azaroaren 29ko <i>DEIA</i> egunkarian argitaratutako iragarkia gaztelania hutsean zegoen. Herritarrak ez zuen iragarki bera beste inongo egunkaritan, euskaraz edo ele bietan, ikusi.	
Erantzuna:	LEA-ARTIBAI ETA URKIOLA LANDA GARAPENERAKO ELKARTEA: www.oizegin.com ataria 2012ko ekainaren 4an aurkeztu eta urrira arte euskara hutsean plazaratu zen. Urritik aurrera ele bietan argitaratu zen, guretzat euskara baita hizkuntza nagusia. Lea-Artibai Landa Garapenerako Alkartea eta Urkiola Landa Garapenerako Alkartea pribatuak dira. 2012ko azaroan eta abenduan denda on-line bultzatzeko burututako marketin kanpaina nagusiki euskaraz burutu genuen. Azaroan, gure bi eskualdeetako hainbat hedabideetan bultzatutako kanpaina euskara hutsean zabaldu genuen, nagusiki euskal hedabideetan. Oiz egin ekimenak beti bultzatu du euskara. Etorkizunean euskara bultzatzen eta eguneroko jardunean erabiltzen jarraitzeko asmoa dute. Kexa jarri duenari barkamena eskatu nahi diogu ez baikin jabetu kasu horietan ezinbestekoa zenik ele bietan egitea.	
Esp. Zenb.:	1018-2012	
Erakundea:	SANTI SAPUHERRI AUZO ELKARTEA	EAE
Arrazoia:	Uztailaren 20an, Santi Sapuherrri auzo elkarteak Durangoko Juan Itziarko auzunean aparkaturik zeuden ibilgailuen haizetakoan ohar bana jarri zuen. Oharra gaztelania hutsean zegoen. Honela zioen: <i>Aviso. Con motivo de la festividad de Santiago, fiestas del barrio Juan Itziarko: Se prohíbe estacionar los vehículos desde las 17:00 horas del día 20 hasta las 17:00 horas del día 22. Disculpen las molestias. Asociación de vecinos Santi Sapuherrri. Se llamará a la grúa.</i>	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1495-2012	
Erakundea:	SURFRIDER FUNDATION 64	IEH
Arrazoia:	SURFRIDER fundazioaren tokiko bulegoaren bloga frantses hutsean da (www.surfrider64.com) eta azaroaren 18an itsasoa garbi atxikitze antolatutako ekintzaren komunikazio-euskarriak ere frantses hutsean ziren. <i>Bio euskarrien inbasioaz</i> euskarria da euskaraz atzeman daitekeen bakarra.	
Erantzuna:	SURFRIDER FUNDATION 64: <i>Pozten gara eragiten dugun interesaz. Haatik, Baionako bulegoan boluntarioak bakarrik ibiltzen dira eta horien artean ez da bat ere euskalduna. Horrez gain Euskoan engaiatu gara eta koadro horretan afixaketa elebiduna egiteko engaiamendua hartu dugu. Blogari dagokionez, ez dugu euskaratzeko gaitasunik, baina horretarako laguntzaileak atzematek ideia ona da eta zuzendaritzan eztabaidatuko dugu.</i>	
Esp. Zenb.:	901-2012	
Erakundea:	TIZA - ASOCIACIÓN PARA LA PROMOCIÓN DEL CÓMIC	NAF
Arrazoia:	TIZA - ASOCIACIÓN PARA LA PROMOCIÓN DEL CÓMIC-ek <i>Salón Internacional del Cómic de Navarra</i> iragartzeko argitaratu duen kartela gaztelania hutsean dago. Aipatu jarduerak Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren laguntza jaso du.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	608-2012	
Erakundea:	URBI AUZO ELKARTEA	NAF
Arrazoia:	Herritarrak gaztelania hutsean jaso zuen URBI auzo elkarteak e-posta bidez apirilaren 23an helarazitako prentsa-oharra.	
Erantzuna:		

ENERGIA HORNITZAILEAK

Esp. Zenb.:	319-2012	
Erakundea:	CAMPSA E.S.	NAF
Arrazoia:	Herritarrak martxoaren 10ean CAMPSAren Iruñeko Landabengo gasolindegian jasotako ordainagiria gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	720-2012	
Erakundea:	CEPSA	NAF
Arrazoia:	Herritarrari maiatzaren 2an CEPSA EE.SS.-ren Iruñeko Nafarroa etorbideko gasolindegian eman zioten ordainagiria gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	606-2012	
Erakundea:	DANAGAS S.L.	EAE
Arrazoia:	DANAGAS S.L. enpresak gasaren kontsumoa apuntatzeko orriak jartzen ditu Lekeitioko etxeetako atari guztietan. Orriak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita daude, baina orriaren goiko aldean eskuz jartzen dute orriaren bila zein egunetan pasatuko diren. Bada eskuz idatzitako testua gaztelania hutsean egoten da beti.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	74-2012	
Erakundea:	ELECNOR	NAF
Arrazoia:	ELECNOR eta GAS NATURALEk Garesko atari batean ohar idatzia jarri zuten bizilagunei bilkura batera dei eginez, etxeetara gas naturala eramateko eskaintzaren berri emateko. Kartela gaztelania hutsean idatzita zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	346-2012	
Erakundea:	ENDESA S.A.	NAF
Arrazoia:	ENDESAK otsailean Iruñeko bezeroari bidalitako publizitatea <i>Nueva tarifa despierta</i> gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1109-2012	
Erakundea:	EOLICAS DE EUSKADI	EAE
Arrazoia:	Berriozarko DECATHLON dendan azaroaren 29an herritarrari luzatutako ordainagiria gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	556-2012	
Erakundea:	DIA	NAF
Arrazoa:	Iruñeko Zaragoza etorbideko DIA saltegian gaztelaniaz baino ez zegoen bezeroen eskura <i>Pide tu tarjeta Club Dia%</i> esku-orria. Orriak ez dakar informazio izpirik euskaraz.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	557-2012	
Erakundea:	DIA	NAF
Arrazoa:	Iruñeko Zaragoza etorbideko DIA saltegian gaztelaniaz baino ez zegoen bezeroen eskura <i>Ya puedes venir a DIA sin dinero</i> esku-orria. Orriak ez dakar informazio izpirik euskaraz.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	193-2012	
Erakundea:	DOMINO'S PIZZA	NAF
Arrazoa:	DOMINO'S PIZZAK <i>El 2x1 se nos queda pequeño</i> izenburuko publizitate-orria banatu zuen otsailaren erdialdean Iruñeko Alde Zaharreko etxeetako postontzietan. Orria gaztelania hutsean idatzita zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	598-2012	
Erakundea:	ETAM	EAE
Arrazoa:	Martxoan ETAM katearen gutuna jaso zuen 10€ko kontsumo-txekea eskainiz leialtasun txartela izateagatik. Gutuna gaztelania hutsean zegoen. Ez zen hitz erdirik ageri euskaraz.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	393-2012	
Erakundea:	E.LECLERC VOYAGES	IEH
Arrazoa:	E.LECLERC VOYAGES saltegiak Senpereko etxeetan urtarrileko eskaintzen berri emateko banatu duen publizitate-aldizkaria frantses hutsean da.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	505-2012	
Erakundea:	E.LECLERC	IEH
Arrazoa:	E.LECLERC saltegiak Senpereko etxeetan urtarrila eta martxo bitarteko eskaintzen berri emateko banatu diren publizitate-aldizkariak frantses hutsean ziren: <i>Vive les petits prix...'</i>	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1263-2012	
Erakundea:	E.LECLERC	NAF
Arrazoa:	Barañaingo bizilagunek ez dute euskaraz jaso E.LECLERC saltokiak postontzian utzitako publizitatea, azaroaren 7tik 17ra bitarteko eskaintzei buruzkoa.	
Erantzuna:	E.LECLERC, IRUÑEA: <i>Ez dugu inongo legerik urratzen. Ez dugu uste inongo eskubiderik urratzen ari garenik eta ez dugu horrelakorik egiteko inongo asmorik; gure bezero gehienen hizkuntza erabiltzen dugu, besterik gabe. Gure bezeroen aniztasun kulturala dela eta, ez dugu baztertzen etorkizunean bestelako hizkuntzak ere erabiltzea, horien artean euskara.</i>	

Esp. Zenb.:	3-2012	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoia:	Herritarra EROSKI-BILBONDOKo informazio-gunera joan zen urtarrilaren 4an. Euskaraz hasi zitzaion postu horretako langileari eta honek erantzun zion: <i>Euskaraz egin ahal duzu, baina gaztelaniaz erantzungo dizut.</i> Ea baten batek euskaraz atenditu ahal zuen galdetu eta norbait topatu behar zuela esan zioten. Erreklamazio-orri ofiziala eskatu zuen eta arduradun baten zain gelditzeko esan zioten. Arduraduna heltzean hau esan zion: <i>Mundu honetan denetarik egon behar da, euskaraz egiten dutenak eta egiten ez dutenak.</i>	
Erantzuna:	EROSKI, EUSKARA PLANAREN KOORDINATZAILEA: <i>Barkamena eskatzen dugu. Argi dugu arduradunak emandako erantzuna ez dela batere egokia eta berarekin hitz egingo dugu. Informazio-gunean dauden pertsonak aztertuko ditugu eta euskaraz zerbitzua eskaintzeko aukera bermatzen den begiratuko dugu.</i>	
Esp. Zenb.:	84-2012	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoia:	Herritarrak EROSKI Taldeko Inbertitzaileen Klubetik gutuna jaso zuen urtarrilaren azken egunetan. Gutuna ele bietan egon arren, atxikita zekarren deskontu-txartela gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:	EROSKI, EUSKARA PLANAREN KOORDINATZAILEA: <i>Euskara Planaren barruan jasotzen da bezeroei zuzendutako komunikazio guztia ele bietan joan behar dela, baina oraindik ez dugu sistema informatiko zehatzei lotutako zerbitzuetan bermatzen. Sistema informatikoak aldatzea momentuz ez da posible, baina agian txartel hauek beste era batera egiteko aukera bila liteke eta horrela luzatu diogu arduradunari.</i>	
Esp. Zenb.:	384-2012	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoia:	Zarauzko EROSKIKo aparkalekuan jarri duten sistema berriak gaztelania hutsean ditu idatzizko zein ahozko mezuak.	
Erantzuna:	EROSKI, EUSKARA PLANAREN KOORDINATZAILEA: <i>Euskara planaren barruan jasotzen da bezeroei zuzendutako komunikazio guztia ele bietan joan behar dela. Zarauzko EROSKIKo aparkalekuan ditugun bisore guztiak itzali ditugu, hauek euskaraz jartzeko aukera izan arte. Bestalde, entzumenezko komunikazioari dagokionean, momentuz kendu egin dugu, beharrezkoa ez delako eta euskaraz izan arte ez zaigulako egokia iruditzen jartzea. Beraz, bi puntu hauek lantzen ari gara jadanik eta euskaraz eskaintzeko aukera izan bezain pronto, martxan jarriko ditugu.</i>	
Esp. Zenb.:	739-2012	
Erakundea:	EROSKI	NAF
Arrazoia:	Iruñeko herritarrak maiatzean EROSKIKo denda batean aurkitutako BELLE markaren publizitatea gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	844-2012	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoia:	EROSKIKo Inbertitzaileen Klubak herritarrari ekaina bukaeran bidalitako deskontu taloitegia ez zegoen euskaraz, gaztelania hutsean baizik.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	902-2012	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoa:	Eibarko EROSKIk kartel ugari ditu gaztelania hutsean. Arrandegian <i>Recetas de la pescatera</i> kartela eta errezetak, igogailua hondatzen denean jartzen dituzten kartelak, zozketak egiten direnean, igogailuan paratutako menu kartelak eta abar.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1062-2012	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoa:	Donostiako EROSKI denda batean uztaileen 28an erosketa egin ondoren herritarrari luzatu zioten <i>Rasca y gana</i> joko-txartela gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1103-2012	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoa:	EROSKIren Inbertitzaileen Klubetik herritarrari bidalitako urritik urtarrilera bitartean erabiltzeko deskontu-taloitegia gaztelania hutsean dago. Hau hiru hilero bidaltzen dute eta herritarrak kexa jarri arren eta erantzun positiboa eman arren, egoerak bere horretan dirau.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1146-2012	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoa:	Herritarra EROSKIren Azpeitiko Euskalerrria kaleko saltokiko txarkuterian izan zen urriaren 13an, eguerdian. Egokitu zitzaion langilearekin saiatu zen euskaraz hitz egiten, baina ezin izan zuen erdalduna zelako. Bertako arduradunari gertatutakoaren berri eman nahi izan zion eta honek erantzun zion: <i>Hori kexa al da?</i> Eta telefonoa eskura luzatuz oihukatu zion: <i>Hots egin, hots egin!</i> Herritarrak, arduradunak nola hartu zuen ikusita, etxetik egingo zuela erantzun zion.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1239-2012	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoa:	EROSKIk saltzen duen Aurum Ibérica markako garagardoetako etiketatze osoa gaztelania hutsean dago.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1275-2012	
Erakundea:	EROSKI	NAF
Arrazoa:	Barañaingo herritarrek ez dute euskaraz jaso EROSKIk azaroaren 8tik 14ra bitarteko eskaintzen berri emateko etxeko postontzian banatu duen publizitatea. <i>HiperOferta</i> izena du eta bertako eskaintzak Iruñea eta Tuterako saltokietan eskura daitezkeela diote.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	1281-2012	
Erakundea:	EROSKI	NAF
Arrazoia:	Arrotxapeako (Iruñea) EROSKik eta Travel Clubek gaztelania hutsean idatzitako eskaintza bidali zioten etxera herritarrari azaroan. Berak euskaraz jaso nahi du.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1364-2012	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoia:	Eibarko EROSKIn jarritako kartelak gaztelania hutsean daude, nahiz eta <i>EROSKI zurekin</i> jartzen duen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1365-2012	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoia:	Herritarra EROSKik online duen dendan ari zen erosketa egiten euskarazko bertsioan eta ezin izan zuen prozesu osoa euskaraz burutu; http://www.compraonline.grupoEROSKI.com/electroventa/actions/categorias.do?method=subcategorias&idCategoria=53&idGrupo=94&idSubgrupo=96 urratsean eteten zen eta gaztelaniaz jarraitzera behartzen zuen sistemak.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1367-2012	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoia:	Herritarra abenduaren 3an Eibarko Ipurua auzoko EROSKIren dendan izan zen eta gaztelania hutsean ikusi zuen igogailuan Kartel Txapelketa iragartzeko kartela. Kartelak <i>EROSKI zurekin</i> sinadura zeukan.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1368-2012	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoia:	Herritarrak Eibarko Ipurua auzoko EROSKIren dendan egiten ditu bere erosketak eta ematen dizkieten opari edo abantaila-kupoiak beti gaztelaniaz idatzita daude. Berriki eman dizkietenak 2012-12-30era artekoak dira.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1381-2012	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoia:	EAEko herritarrari abenduaren lehen egunetan supermerkatuei buruzko inkesta bat egiteko deitu zioten 911.820.800 telefonotik. Herritarraren ustez, EROSKik burututako inkesta izan liteke. Deitu zionak ez zion euskaraz hitz egiteko aukerarik eman.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1382-2012	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoia:	EROSKI etxeko produktuen etiketetan gero eta euskara gutxiago agertzen da, dendetan oso zaila da jakitea zein langilek hitz egiten duen euskaraz eta EROSKI-RED txarteleko telefonoan zaila izaten da euskaraz artatua izatea.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	1426-2012	
Erakundea:	EROSKI	NAF
Arrazoa:	Iruñeko Arrotxapea auzoko EROSKI CENTER-ek abenduan herritarrari etxera bidalitako publizitatea, <i>No ahorres en sonrisas ahorra con EROSKI</i> , gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	770-2012	
Erakundea:	EXPRESSO KAFETEGIA	EAE
Arrazoa:	Oiartzungo Alcampo merkataritza gunean dagoen EXPRESSO KAFETEGIAN sartu zen herritarra abuztuaren 24 goizean. Kafe bat eta te bat eskatu zituen euskaraz. Zerbitzariak kafe hutsa eta ebakia atera zizkion, euskalduna izan ez eta eskaera gaizki ulertuta. Herritarrak ebakia ez baino tea eskatu zuela azaldu zionean, herritarrari gezurtia deitu zion eta gainera, euskaraz egin zuela esan, frantsesez egin zezakeela azpimarratuz. Ez zuen onartu ebakiaren orde zatez tea ateratzea eta kafea eta ebakia, biak ordainarazi zizkion.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1258-2012	
Erakundea:	FAGOR	NAF
Arrazoa:	FAGOR enpresak urrian Nafarroako herritarrari bidalitako gutuna, eskaintza baten berri ematen zuena, gaztelania hutsean idatzia zegoen.	
Erantzuna:	FAGOR, KONTSEILU ERREKTOREAREN PRESIDENTEA: <i>Barkamena eskatu eta aurrerantzean halakorik gerta ez dadin dugun gogo eta borondatea adierazi nahi ditugu.</i>	
Esp. Zenb.:	1259-2012	
Erakundea:	FAGOR	EAE
Arrazoa:	FAGOR enpresak herritarrari gutuna bidali zion azaroan bere datuak hirugarren enpresa bati uzteko baimena eskatuz. Gutun hau gaztelania hutsean zegoen. Herritarrak erantzun zien esanez gutxienez ele bietan bidaltzeko edozein informazio. Erantzuna gaztelania hutsean	
Erantzuna:	FAGOR, KONTSEILU ERREKTOREAREN PRESIDENTEA: <i>Barkamena eskatu eta aurrerantzean halakorik gerta ez dadin dugun gogo eta borondatea adierazi nahi ditugu.</i>	
Esp. Zenb.:	1268-2012	
Erakundea:	FAGOR	EAE
Arrazoa:	Herritarrak FAGOR enpresak euskararekiko duen jarrera orokorra salatu nahi du. Kasu honetan, urriaren 11n bidalitako azken gutuna gaztelania hutsean baitzegoen.	
Erantzuna:	FAGOR, KONTSEILU ERREKTOREAREN PRESIDENTEA: <i>Barkamena eskatu eta aurrerantzean halakorik gerta ez dadin dugun gogo eta borondatea adierazi nahi ditugu. Gure enpresaren izena Fagor Etxetresna Elektrikoak, Koop. E. da.</i>	
Esp. Zenb.:	1269-2012	
Erakundea:	FAGOR	EAE
Arrazoa:	Herritarrak FAGOR enpresak euskararekiko duen jarrera orokorra salatu nahi du. Kasu honetan, urriaren 11n bidalitako azken gutunean herritarraren abizena idaztean ez dute euskarazko grafia errespetatu eta helbidearen zati bat gaztelaniaz idatzita zegoen.	
Erantzuna:	FAGOR, KONTSEILU ERREKTOREAREN PRESIDENTEA: <i>Barkamena eskatu eta aurrerantzean halakorik gerta ez dadin dugun gogo eta borondatea adierazi nahi ditugu. Gure enpresaren izena Fagor Etxetresna Elektrikoak, Koop. E. da.</i>	

Esp. Zenb.:	1270-2012	
Erakundea:	FAGOR	EAE
Arrazoia:	Herritarrak FAGOR enpresak euskararekiko duen jarrera orokorra salatu nahi du. Kasu honetan, FAGOR enpresak egindako tresna batzuen esku-liburuak 10-15-20 hizkuntzatan idatzita daudela. Ez, ordea, euskaraz.	
Erantzuna:	FAGOR, KONTSEILU ERREKTOREAREN PRESIDENTEA: <i>Barkamena eskatu nahi dugu eta hemendik aurrera kontuan hartuko dugu.</i>	
Esp. Zenb.:	404-2012	
Erakundea:	FNAC	IEH
Arrazoia:	FNAC saltegiak Senpereko etxeetan otsailaren 3tik 14ra bitarteko eskaintzen berri emateko banatu duen publizitate-aldizkaria frantses hutsean da: <i>Bons plans Fnac</i> .	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	565-2012	
Erakundea:	FNAC	EAE
Arrazoia:	Bilbon eta Donostian dendak izan arren, FNAC-en webguneak ez du euskarazko bertsiorik.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	75-2012	
Erakundea:	FORUM SPORT S.A.	EAE
Arrazoia:	Urtarrilaren 24an sms mezua bidali zioten Forum Sport-etik. Mezua gaztelania hutsean zegoen. Honela zioen: <i>Vale 20% dto. Adicional sobre precio ya rebajado presentando este SMS hasta 19/02/2012. Consulta condiciones en tu tienda. Baja publi: lopd@forumsport.es (Publi)</i> .	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	691-2012	
Erakundea:	FORUM SPORT S.A.	EAE
Arrazoia:	FORUM SPORTEk Koparen Finalerako sarreraren zozketan parte hartzeko e-maila bidali zion herritarrari maiatzaren 21ean. Mezua euskaraz eta gaztelaniaz zegoen arren, euskarazko bertsioiko <i>Parte hartu</i> botoia sakatuta agertzen zen webgunea gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1233-2012	
Erakundea:	FORUM SPORT S.A.	EAE
Arrazoia:	Durangoko herritarrak Forum Sport-en sms mezua gaztelania hutsean jaso zuen urriaren 31n. Mezuak honela zioen: <i>Acércate a nuestras tiendas y aprovecha los DESCUENTOS EXCLUSIVOS por ser socio de Forum Sport Club. Válido hasta 14/11/2012. No publi:</i>	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1325-2012	
Erakundea:	FORUM SPORT S.A.	EAE
Arrazoia:	Forum Sport-ek azaroaren 29an Durangoko herritarraren mugikorrera bidalitako mezua gaztelania hutsean zegoen. Mezua: <i>Vale 10€ de descuento solo hasta este sábado 01/12/12!! (...)</i> .	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	1373-2012	
Erakundea:	FORUM SPORT	NAF
Arrazoa:	Iruñeko FORUM SPORT dendan azaroaren 31n herritarrari luzatutako bezero-txartela gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	82-2012	
Erakundea:	GAES	EAE
Arrazoa:	Hernanin GAES taldeak gune bat ireki du Gudarien Enparantzan eta informazio eta errotulazio guztia gaztelania hutsean dute.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	807-2012	
Erakundea:	GAES	NAF
Arrazoa:	Donibane Kirol Elkarteko bazkideak udako aldizkariarekin batera GAES entzumen-zentroaren publizitate-orria jaso du. Ez dago hitz bat bera ere euskaraz.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	521-2012	
Erakundea:	GAMM VERT	IEH
Arrazoa:	GAMM VERT saltegiak Senpereko etxeetan otsailaren 29tik martxoaren 10era bitarteko eskaintzen berri emateko banatu duen publizitate-aldizkaria frantses hutsean da: <i>Top départ potager</i> .	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	394-2012	
Erakundea:	GÉANT CASINO	IEH
Arrazoa:	GÉANT CASINO saltegiak Senpereko etxeetan urtarrilaren 18tik 28ra bitarteko eskaintzen berri emateko banatu duen publizitate-aldizkaria frantses hutsean da: <i>Cumulez plus</i>	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	583-2012	
Erakundea:	GÉANT CASINO	IEH
Arrazoa:	GÉANT CASINO saltegiak otsaila eta martxoko eskaintzen berri emateko banatu dituen publizitate-aldizkariak frantses hutsean dira.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	515-2012	
Erakundea:	GIFI	IEH
Arrazoa:	GIFI saltegiak Senpereko etxeetan urtarrila eta martxoa bitarteko eskaintzen berri emateko banatu dituen publizitate-aldizkariak frantses hutsean dira.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	522-2012	
Erakundea:	GITEM	IEH
Arrazoa:	GITEM saltegiak Senpereko etxeetan martxoaren 2tik 24era bitarteko eskaintzen berri emateko banatu duen publizitate-aldizkaria frantses hutsean da: <i>Douceur du linge, douceur du prix</i> .	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	400-2012	
Erakundea:	HERMEX IBERICA S.A.	NAF
Arrazoa:	HERMEX IBERICA S.A. konpainiak Iruñeko herritarrari bidaltzen dizkion posta-elektronikoak gaztelania hutsean idatziak egon ohi dira.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	125-2012	NAF
Erakundea:	HIPER SIMPLY	
Arrazoa:	Nafar Mendi merkataritza guneko gasolindegian 30€ baino gehiagoren balioko erregaia sartuz gero ibilgailuari, bonu-txartela ematen dute Hiper Simply dendan erosketa egindakoan trukatzeko. Bada txartel hori ez dago euskaraz idatzia, gaztelania huts-hutsean baizik.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	970-2012	EAE
Erakundea:	IKEA	
Arrazoa:	IKEA merkataritza guneak saltzen dituen produktuen etiketak 31 hizkuntzatan agertzen dira, baina euskara ez dago horien artean.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	971-2012	EAE
Erakundea:	IKEA	
Arrazoa:	Barakaldoko IKEAn A-8 errepidera ematen duen publizitatea lehen ele bietan egon ohi zen, nahiz eta euskarazko bertsioa beti letra txiki eta argiagotetan emana egon. Orain berriz, ez da euskararen arrastorik ageri.	
Erantzuna:	IKEA NORTE, BEZEROENTZAKO ARRETA ZERBITZUA: <i>Iritzia eskertu eta aurrerago egingo ditugun gauzetarako kontuan hartuko dugu. IKEAn Euskal Autonomi Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzen ditugu eta bezeroei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzea da gure helburu nagusietako bat.</i>	
Esp. Zenb.:	498-2012	IEH
Erakundea:	INTERMARCHE	
Arrazoa:	INTERMARCHE saltegiak Senpereko etxeetan urtarrila eta martxoa bitarteko eskaintzen berri emateko banatu dituen publizitate-aldizkariak frantses hutsean dira: <i>Vos courses jusqu'à 2 fois moins cher, Vive les bébés, petits conseils entre maman ...</i>	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1479-2012	IEH
Erakundea:	INTERMARCHE	
Arrazoa:	INTERMARCHE saltegiak bere fideltasun-karta aurkezteko zabaldu duen esku-orria frantses hustean da.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	381-2012	NAF
Erakundea:	JOHNSON&JOHNSON	
Arrazoa:	Iruñeko herritarrak LISTERINE produktua erostean aurkitutako publizitate-eskaintza gaztelania hutsean zegoen. Testua: <i>3 meses de cobertura dental+1 limpieza gratis.</i>	
Erantzuna:	JOHNSON&JOHNSON, KONTSEILARI DELEGATUA: <i>Kontuan hartzen dugu iradokizuna eta eskertzen dugu jakinarazi izana. Hala ere, enpresa pribatua garen heinean, ez gaude euskararen inguruko inongo legerik betetzera behartuak.</i>	

Esp. Zenb.:	1265-2012	NAF
Erakundea:	KIABI	
Arrazoa:	Barañaingo bizilagunek ez dute euskaraz jaso KIABI saltokiak postontzian utzitako publizitatea, azaroaren 7tik 20ra bitarteko eskaintzei buruzkoa.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	392-2012	IEH
Erakundea:	LEADER PRICE	
Arrazoa:	LEADER PRICE saltegiak Senpereko etxeetan urtarriletik martxora bitarteko eskaintzen berri emateko banatu dituen publizitate-aldizkariak frantses hutsean dira: <i>Le marché frais à petits prix, -50% sur le 2ème, tout de suite sur une sélection de produits de grandes marques et de produits Leader Price, Maxi économies</i> zioten.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	496-2012	IEH
Erakundea:	LIDL	
Arrazoa:	LIDL saltegiak Senpereko etxeetan otsaileko eskaintzen berri emateko banatu dituen publizitate-aldizkariak frantses hutsean dira.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	525-2012	IEH
Erakundea:	MAISADOUR	
Arrazoa:	MAISADOUR saltegiak Senpereko etxeetan banatu duen publizitate-aldizkaria frantses hutsean da. Bertan otsailaren 22tik martxoaren 10era bitartean eskaini abantailen berri ematen zen: <i>J'aime ma jardinerie & pour ses conseils d'expert!</i> .	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	508-2012	NAF
Erakundea:	McDONALD'S	
Arrazoa:	McDONALD'S konpainiak Nafarroako Artiberrin duen establezimenduan apirilaren 4an emandako ordainagiria eta <i>Casa Ronald McDonald</i> esku-orria gaztelania hutsean zeuden.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	774-2012	EAE
Erakundea:	MAX CENTER	
Arrazoa:	Barakaldoko Max Center-en webgunea gaztelania hutsean dago, ez dago informaziorik	
Erantzuna:	MAX CENTER MERKATARITZA GUNEA, ZUZENDARIA: <i>Zuen proposamen adeitsua eskertzen dugu. Hemendik gutxira webgunea hobetu behar dugu eta jasotako iradokizunak kontuan hartuko ditugu.</i>	
Esp. Zenb.:	740-2012	NAF
Erakundea:	MEDIA MARKT	
Arrazoa:	Iruñeko herritarrak maiatzean etxeko postontzian jasotako MEDIA MARKTen publizitatea ez zegoen euskaraz idatzia, gaztelania hutsean baizik.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	407-2012	
Erakundea:	MICROSOFT IBERICA S.R.L.	NAF
Arrazoia:	MICROSOFT IBERICAK communications_msn_cs_esxl@microsoft.windowslive.com helbidearen bidez Iruñeko herritarrari bidalitako mezu elektronikoak gaztelania hutsean daude.	
Erantzuna:	MICROSOFT IBERICA, BEZEROENDAKO ARRETA ZERBITZUA: <i>Kontuan hartuko dugu herritarrak kexan azaldutakoa.</i>	
Esp. Zenb.:	514-2012	
Erakundea:	NETTO	IEH
Arrazoia:	NETTO saltegiak Senpereko etxeetan urtarrila eta martxoa bitarteko eskaintzen berri emateko banatu dituen publizitate-aldizkariak frantses hutsean ziren.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1363-2012	
Erakundea:	OKI	EAE
Arrazoia:	Herritarrak telebista aparailu bat erosi eta euskaraz konfiguratu zuen. Aparatua pizten den aldiro konfiguratu beharra dago. Aparailuaren etxeak erantzun du Telebista kateak aukeratzen duela zein hizkuntza lehenetsi. Horrez ondorioz, kate hori euskaraz entzuteko, pizten den aldiro konfiguratu egin behar da.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	162-2012	
Erakundea:	PERFUMERIAS IF	EAE
Arrazoia:	Otsailaren 9an sms mezua jaso zuen herritarrak If lurrindegietatik. Mezua gaztelania hutsean idatzita zegoen. Honela zioen: <i>Publi: En perfumerías If 20% DTO en todos los artículos de alta perfumería del 10 al 14/2. PÁSALO! Presenta sms. No acumulable. No publi: lopd if@perfumeriasif.com .</i>	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	163-2012	
Erakundea:	PERFUMERIAS IF	EAE
Arrazoia:	If lurrindegien webgunea, www.perfumeriasif.com, gaztelania hutsean dago.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	642-2012	
Erakundea:	PERFUMERIAS IF	EAE
Arrazoia:	If lurrindegiek gaztelania hutsean bidali zioten mezua apirilaren 30ean. Honela zioen: <i>Publi: En Perfumerias If AL MENOS 20% DESCUENTO en TODAS las fragancias de alta perfumería hasta 5/5. PASALO! No acumulable. No publi: lopd if@perfumeriasif.com</i>	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	1413-2012	
Erakundea:	PERFUMERIAS IF	EAE
Arrazoa:	IF IN FARADIS etxeak herritarrari azaroaren 30ean bidalitako sms-a gaztelania hutsean zegoen. Horretaz gain, aipatutako lurrindegien webgunea, http://www.perfumeriasif.com , ere gaztelania hutsean dago.	
Erantzuna:	PERFUMERIAS IF: <i>Gure garapen informatikoak bide horretatik ez joan arren, webguneari buruzko iradokizuna kontuan hartuko dugu. Mezuak gaztelaniaz bidaltzen ditugu Estatu osora bidaltzen dituglako eta karaktere kopuru mugatua erabili ahal dugulako.</i>	
Esp. Zenb.:	494-2012	
Erakundea:	PICARD SURGELÉS	IEH
Arrazoa:	PICARD saltegiak Senpereko etxeetan urtarrilaren 30tik otsailaren 26ra bitarteko eskaintzen berri emateko banatu duen publizitate-aldizkaria frantses hutsean da: <i>Les nouveautés et la sélection du mois</i> .	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	741-2012	
Erakundea:	PIZZA MOVIL	NAF
Arrazoa:	Iruñeko herritarrak maiatzean etxeko postontzian jasotako PIZZA MOVILen publizitatea gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1130-2012	
Erakundea:	PIZZA MOVIL	NAF
Arrazoa:	Barañaingo herritarrak PIZZA MOVILEk udan bidalitako sms mezua gaztelania hutsean jaso zuen: <i>La roja a un paso de la gloria! Disfruta de la mejor pizza de masa fresca con 3x1 y en casa solo 2€ más. Llama YA al 902 301 301!! PIZZA MOVIL. Somos la pizza</i> .	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1316-2012	
Erakundea:	SAMSUNG	EAE
Arrazoa:	SAMSUNG etxeko SAMSUNG GALAXY MINI Smarthphonea erosi berri du eta ez du euskaraz konfiguratzeke aukerarik ematen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	570-2012	
Erakundea:	STAPLES KALAMAZOO	NAF
Arrazoa:	Iruñeko herritarrak KALAMAZOOren <i>600 productos a precios imbatibles</i> izenburuko publizitate-aldizkaria jaso zuen apirilean etxeko postontzian. Aldizkaria gaztelania hutsean idatzita zegoen. Ez zen hitz erdirik ageri euskaraz.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	500-2012	
Erakundea:	SUPER U	IEH
Arrazoa:	Uztaritzeko SUPER U saltegian kasik afitxaketa guzua frantses hutsean emana da. Bestalde, herritarrek ez dezakete euskarazko zerbitzua jaso.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	57-2012	
Erakundea:	TABERNA (OKINDEGIA)	NAF
Arrazoia:	TABERNA OKINDEGiek erregeetako opilarekin batera ohituraren nondik norakoak azaltzeko banatzen duten ohar idatzia gaztelania hutsean dago. Ez da hitz erdirik ageri euskaraz.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	495-2012	
Erakundea:	TOYS'R'US	IEH
Arrazoia:	BABIES'R'US/TOYS'R'US saltegiak Senpereko etxeetan urtarrilaren 30etik otsailaren 26ra bitarteko eskaintzen berri emateko banatu duen publizitate-aldizkaria frantses hutsean da.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	753-2012	
Erakundea:	TRAVEL CLUB	NAF
Arrazoia:	TRAVEL CLUBek Iruñeko herritarrari bidalitako posta elektroniko guztiak gaztelania hutsean daude. Maiatzaren 8tik ekainaren 5era bitartean 3 posta jaso ditu.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	579-2012	
Erakundea:	TRAVEL CLUB	NAF
Arrazoia:	Travel Clubek atxikitako establezimenduetan bezeroen eskura jarri zuen <i>Viajes y más. Tus Compras de 15 años gratis</i> aldizkaria gaztelania hutsean zegoen. Travel Clubek ez du bere publizitate euskarrien euskarazko edo ele biko bertsiorik argitaratzen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	730-2012	
Erakundea:	TRIBORD	IEH
Arrazoia:	TRIBORD saltegiak ekainean Donibane Lohizuneko herritarrari banatu publizitate aldizkaria frantses hutsean da. Bertan ekainaren 23tik uztailaren 7ra bitartean eskaini abantailen berri ematen zen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1264-2012	
Erakundea:	TUCO	NAF
Arrazoia:	Barañaingo bizilagunek ez dute euskaraz jaso TUCO saltokiak postontzian utzitako publizitatea, abenduaren 31 bitarteko eskaintzei buruzkoa.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	499-2012	
Erakundea:	UNIVERT	IEH
Arrazoia:	UNIVERT saltegiak Senpereko etxeetan banatu duen publizitate-aldizkaria frantses hutsean da. Bertan otsailaren 20tik apirilaren 20ra bitartean eskaini abantailen berri ematen zen.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	1169-2012	
Erakundea:	ZESPRI INTERNATIONAL IBERICA S.L.	NAF
Arrazoa:	Iruñeko herritarrak Iruñeko denda batean urrian aurkitutako ZESPRI INTERNATIONAL IBERICAren publizitatea gaztelania hutsean zegoen: <i>Zespri regala 12 pagas extra</i> .	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1017-2012	
Erakundea:	ZUBIARTE MERKATARITZA GUNEA	EAE
Arrazoa:	Bilboko Zubiarte merkataritza gunearen webgunea gaztelaniaz besterik ezin da kontsultatu.	
Erantzuna:	CC ZUBIARTE, ZUZENDARIA: <i>Garapen Departamentuari igorri diogu kexa, web orria beste hizkuntza batean eskaintzearen bideragarritasuna azter dezaten.</i>	
Esp. Zenb.:	1440-2012	
Erakundea:	ZUBIARTE MERKATARITZA GUNEA	EAE
Arrazoa:	Bilboko Zubiarte Merkataritzaguneko hizkuntza-paisaia guztia ez dago ele bietan. Horra herritarrak bidalitako adibideak: <i>En las escaleras mecánicas no te sientes nunca en las escaleras / De subida o de bajada, bien atenta la mirada. Planta alta / Salida Lehendakari Leizaola, Planta puente / Salida Lehendakari Leizaola</i> .	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1441-2012	
Erakundea:	ZUBIARTE MERKATARITZA GUNEA	EAE
Arrazoa:	Zubiarte Merkataritza gunearen webguneak ez du euskarazko bertsiorik, gaztelania hutsean dago.	
Erantzuna:		

Merkataritza txikia

Esp. Zenb.:	760-2012	
Erakundea:	BEAUTY SUCCES	IEH
Arrazoia:	Amen eta aiten besten karietara maiatzean Senpereko etxeetan BEAUTY SUCCESS dendak helarazi gutuna eta opari txekearen esku-orria frantses hutsean ziren.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	518-2012	
Erakundea:	DE FOLIE EN BONHEUR	IEH
Arrazoia:	Altzarien relookinga eta zaharberritzea proposatzen duen DE FOLIE EN BONHEUR erakundearen aurkezpen esku-orria frantses hutsean banatu da otsailean Senpereko etxeetan.	
Erantzuna:	DE FOLIE EN BONHEUR: <i>Ez gaude hizkuntza eskubideen kontra, baina ez dugu ele bietan egiteko gaitasunik. Eskubide bat da, ez ordea betebeharrat. Horrez gain, ez dugu inongo itunik izenpetu eta ez gara elebidunak.</i>	
Esp. Zenb.:	1148-2012	
Erakundea:	EKODENDA EKIA	NAF
Arrazoia:	Iruñeko Ekia Ekodendaren web guneak ez du euskarazko bertsiorik, gaztelania hutsean dago.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	511-2012	
Erakundea:	EL LINGOTE - COMPRO ORO	NAF
Arrazoia:	Apirilean Iruñeko herritarrak etxeko postontzian EL LINGOTE - COMPRO OROren publizitatea gaztelania hutsean jaso zuen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	593-2012	
Erakundea:	ELECTRICIDAD IÑAKI	NAF
Arrazoia:	ELECTRICIDAD IÑAKI saltokian luzatu zioten ordainagiria gaztelania hutsean dago. <i>Eskerrik asko</i> da euskaraz ageri den esaldi bakarra.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	1375-2012	
Erakundea:	ESTHER LORADENDA	NAF
Arrazoia:	Narbarteko ESTHER loradendak Baztango herrietan gaztelania hutsean idatzitako oharra paratu zuen azaroaren 1erako. Bertan, loradendaren ordutegia, telefonoa eta eskura zitezkeen loreen berri ematen zen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	41-2012	
Erakundea:	EZPELETA	EAE
Arrazoia:	Herritarrak urtarrilean Ezpeleta etxearen web gunea bisitatu zuen eta ezin izan zuen euskaraz nabigatu; gaztelaniaz, portugesez, ingelesez, frantsesez eta txineraz zegoelako, ez ordea euskaraz.	
Erantzuna:		

Esp. Zenb.:	362-2012	
Erakundea:	LA SOLUCION COMPRA-VENTA DE ORO	NAF
Arrazoia:	LA SOLUCION COMPRA-VENTA DE ORO enpresak martxoan Iruñeko herritarren postontzian sartutako publizitatea gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	397-2012	
Erakundea:	LUMAIO	NAF
Arrazoia:	LUMAIOk apirilaren 27an Iruñeko herritarrari bidalitako posta-elektronikoa gaztelania	
Erantzuna:	LUMAIO: <i>Gaztelania Estatuko hizkuntza da. Ez dugu langile nahikorik euskaraz idazteko. Herritarrak mailing-a jasotzeari uko egin ahal dio.</i>	
Esp. Zenb.:	300-2012	
Erakundea:	MUEBLES MARTIN	EAE
Arrazoia:	MUEBLES MARTINEk Donostiako Zarautz hiribidean duen saltegiak publizitate-orria banatu du ekainaren amaieran Groseko etxeetako postontzietan, etxerako segurtasun sistemak eskainiz. Esku-orria gaztelania hutsean dago. Ez da hitz erdirik ageri euskaraz.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	425-2012	
Erakundea:	OPTICA JOAQUIN ALFORJA	NAF
Arrazoia:	OPTICA JOAQUIN ALFORJAK Iruñeko bezeroari martxoaren 20an bidalitako gutuna gaztelania hutsean dago, baita gutunazaleko helbidea ere.	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	510-2012	
Erakundea:	OPTICA JOAQUIN ALFORJA	NAF
Arrazoia:	Herritarrak apirilean OPTICA JOAQUIN ALFORJAn hartutako esku-orri guztiak gaztelania hutsean zeuden: <i>La visión y el ordenador , Baja visión y ayudas visuales , La visión y la presbicia .</i>	
Erantzuna:		
Esp. Zenb.:	391-2012	
Erakundea:	SUD LITERIE	IEH
Arrazoia:	SUD LITERIE saltegiak Senpereko etxeetan urtarrileko eskaintzen berri emateko banatu duen publizitate-aldizkaria frantses hutsean da: <i>Des prix qui font rêver</i> zioen.	
Erantzuna:		

9. ZORIONAK

ZORIONAK

Esp. Zenb.:	947-2012
Erakundea:	AGOUR GASNATEGIA
Arrazoia:	AGOUR GASNATEGIAren webguneak euskarazko sarbidea proposatzen du eta informazio anitz euskaraz dago.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1083-2012
Erakundea:	ANDORRA FREE MARKET
Arrazoia:	ANDORRA FREE MARKETek euskarazko interfazea du www.andorrafreemarket.com on-line saltegian.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1102-2012
Erakundea:	ARÇ CORREDORIA D'ASSEGURANCES SCCL
Arrazoia:	ARÇ CORREDORIA D'ASSEGURANCES SCCL konpainiaren webgunean euskarazko bertsioa badago.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	124-2012
Erakundea:	ARIZTIGAIN KANPINA
Arrazoia:	Sunbillako ARIZTIGAIN KANPINean menua berritu dute; nahiz eta ele bietan egon, euskarazkoa nabarmenago idatzia dago. Horrez gain, harrera euskaraz izan zuten otsailean, afaltzera joan zirenean.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	591-2012
Erakundea:	AZYSA
Arrazoia:	Apirilaren 15 goizean Donostia eta Bartzelonarako autobusen ordutegiari buruzko informazioa eskatu zuen herritarrak Iruñeko Autobus Geltokiko informazio orokorreko leihatilan. Euskaraz zuzendu zitzaion bertan zegoen langileari eta hark euskaraz eman zion eskatutako informazioa.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1458-2012
Erakundea:	BIARRITZ CULTURE
Arrazoia:	Miarritzen irailaren 7tik 16ra antolatu dantza maitaldiaren komunikazioa euskaraz ere agertzen da. Bestalde, Gare du Midi aretoan dantza ikusgarrien aurkezpena euskaraz ere egin da sistematikoki eta euskarari lehentasuna eman zaio.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1236-2012
Erakundea:	BLUSENS TECHNOLOGY
Arrazoia:	Galiziako Blusens Technology enpresak ekoiztutako telebistek euskaraz konfiguratzeko aukera eskaintzen dute.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.:	1508-2012
Erakundea:	CITE DE L'OCÉAN
Arrazoa:	Miarritzeko CITE DE L'OCÉAN museoaren webgunea, www.citedelocéan.com , euskaraz kontsultatu daiteke.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1267-2012
Erakundea:	CNT-AIT
Arrazoa:	CNT-AIT sindikatuak azaroaren 14an Bilbon antolatutako manifestazioan euskararen presentzia asko nabarmendu zuen. Banatutako esku-orriak euskarazko aldea erakutsiaz banatu zituzten eta manifestazioa amaiturik euskara lehenetsi zuten ahozko agerraldietan.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	758-2012
Erakundea:	CPIE LITTORAL BASQUE
Arrazoa:	CPIE Littoral Basque Euskal Itsasbazterra erakundeak 2012ko bigarren sei hileko natura ateraldiak aurkezteko argitaratu eta banatu duen liburuxkak euskararen presentzia bermatzen du, molde orekatuan eta tarteka berretsiz.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	537-2012
Erakundea:	DONIBANE PRODUKTIONS
Arrazoa:	Donibane Produktions izeneko kolektiboak bere azken ekitaldia iragartzeko egindako deialdia eta kartela euskara hutsean daude.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	474-2012
Erakundea:	DURANGOKO ELIZA EBANJELIKOA
Arrazoa:	Durangoko Eliza Ebanjelikoak apirilean Durangoko etxeetan banatutako publizitatea ele bietan zegoen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	967-2012
Erakundea:	EUSKADIKO KUTXA
Arrazoa:	Euskadiko Kutxak Iruñeko herritarrari irailaren 23an bidalitako posta elektronikoa euskara hutsean zegoen. Gaia: <i>Publi. Zure gustoko parfumeetan primerako deskontuak!</i>
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	883-2012
Erakundea:	EUSKAL HERRIA ESNEA
Arrazoa:	EUSKAL HERRIA ESNEA kooperatibak euskara hutsean etiketatzen du esnea.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	752-2012
Erakundea:	GOLEM
Arrazoa:	Iruñeko GOLEM zinemetako hizkuntza-paisaia ele bietan dago. Donibanen kokatutako zinemetan ahozko harrera ere euskaraz egiten dute.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.:	559-2012
Erakundea:	GOLEM LA MOREA
Arrazoia:	Golem La Moreako sarreretan, lehen ez bezala, hainbat kontzeptu euskaraz ere agertzen dira, hala nola, <i>Aretoa, Ilara, Eserlekua</i> .
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	742-2012
Erakundea:	HEALT CARE OIHANA
Arrazoia:	HEALT CARE OIHANA S.L.L. enpresak argitaratutako esku-orria (<i>Oihana-aitona</i>) ele-bietan aurkitu du Agoizko osasun-etxean.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1423-2012
Erakundea:	IRAZABAL HORTZ KLINIKA
Arrazoia:	Irazabal hortz-klinikak Durangon aldizkarian argitaratutako iragarkia, <i>Zinemako irribarreak</i> , euskara hutsean zegoen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	156-2012
Erakundea:	IZAR BIDE
Arrazoia:	Izar Bide Supermerkatuaren webgunea, www.izarbide.com , euskaraz kontsulta daiteke eta dendan bertan ere euskaraz artatzen dituzte bezeroak.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	26-2012
Erakundea:	KOMETA DENDA
Arrazoia:	Kometa dendak abenduan erositako <i>Ludanimo</i> jokoaren argibideak euskaratu zituen eta kutxa barruan sartu zituen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	37-2012
Erakundea:	LA CAIXA
Arrazoia:	LA CAIXAk Iruñean paratutako Rodinen erakusketaren inguruko informazio guztia euskaraz ere jarri zuen.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1380-2012
Erakundea:	LA CAIXA
Arrazoia:	LA CAIXAk abenduaren 19an Iruñeko Baluarte auditoriumean burututako <i>El Mesías</i> kontzertuaren egitaraua euskaraz zegoen, oso osorik.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1401-2012
Erakundea:	LARKA ARROPA DENDA
Arrazoia:	Altsasuko Larka arropa eta osagarrien dendan euskaraz egiten dute bezeroekin. Horretaz gain, apaingarrien eta jantzien izenak, prezioa eta beherapenaren zenbatekoa euskara hutsean daude.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.:	1282-2012
Erakundea:	MAHALA
Arrazoia:	Iruñeko supermerkatu batean Mahala etxeko limoi zaporeko jogurtak erosi zituen azaroan. Jogurtak biltzen zituen kartoian argibideak euskaraz idatziak zeuden.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1388-2012
Erakundea:	MASKARADA
Arrazoia:	MASKARADA, Lekunberriko txistorraren etiketa guztiz elebiduna da. Eduki gehienak ageri dira euskaraz eta gaztelaniaz.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	343-2012
Erakundea:	MEDICAL AUDITION
Arrazoia:	Propaganda euskaraz eman dute era orekatuan.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	542-2012
Erakundea:	MEDICAL OPTICA
Arrazoia:	MEDICAL AUDICION eta MEDICAL OPTICAK entzumenaren eta ikusmenaren berrikuspena doan egiteko txartelak banatu zituzten Iruñean apirilaren erdialdean. Txarteleko informazio guztia ele bietan dago.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1063-2012
Erakundea:	MICROSOFT
Arrazoia:	Microsoft-ek euskara hutsean bidali zion zerbitzu-hitzarmenetan aldaketa garrantzitsuak iragartzeko e-posta mezua.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	650-2012
Erakundea:	NATURGAS
Arrazoia:	Naturgas enpresak euskaratuta bidali dio kontratua. Telefono bidezko zerbitzua euskaraz ematen diete bezeroei eta webgunean informazioa euskaraz badago.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	324-2012
Erakundea:	OGI PAN
Arrazoia:	Agoizko Ogipanek okindegian ordutegia zehazteko paratu duen kartela ele bietan dago.
Erantzuna:	
Esp. Zenb.:	1135-2012
Erakundea:	ONCE
Arrazoia:	ONCE Fundazioak Iruñean egiten duen publizitatea ele bietan dago, gaztelaniaz eta euskaraz.
Erantzuna:	

Esp. Zenb.: 1266-2012
 Erakundea: OPTICALIA
 Arrazoa: OPTICALIAk Agoitzen ireki duen optika berrian langile euskalduna dago eta ordutegia iragartzeko kartela ele bietan dago.
 Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1279-2012
 Erakundea: OPTIMUS COWORKING
 Arrazoa: Optimus Coworking enpresak bidali dion publizitatea euskara hutsean dago.
 Erantzuna:

Esp. Zenb.: 336-2012
 Erakundea: OREBERRI OKINDEGIA
 Arrazoa: Sunbillako Oreberri Okindegiak etxeetan banatu zuen publizitatea euskara hutsean zegoen.
 Erantzuna:

Esp. Zenb.: 868-2012
 Erakundea: PARRA TABERNA
 Arrazoa: PARRA tabernaren webgunea euskaraz dago.
 Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1154-2012
 Erakundea: SCHLECKER
 Arrazoa: Agoizko SCHLECKER dendako langile bat euskalduna da eta beti egiten du euskaraz.
 Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1110-2012
 Erakundea: SEMILLAS BATLLE S.A.
 Arrazoa: SEMILLAS BATLLE S.A.k merkaturatzen dituen hazi-zorrotxoetan euskara eta euskaldunak kontuan hartzen ditu.
 Erantzuna:

Esp. Zenb.: 1462-2012
 Erakundea: SUHARI
 Arrazoa: SUHARI jateko prestatzailearen webguneak euskarazko bertsioa ere badu (www.suhari.fr).
 Erantzuna:

Esp. Zenb.: 879-2012
 Erakundea: TELETAXI SAN FERMIN
 Arrazoa: TELETAXI SAN FERMIN konpainiaren webgunean euskarazko bertsioa badago.
 Erantzuna:

Esp. Zenb.: 322-2012
 Erakundea: LA CASA DEL CAFÉ
 Arrazoa: Martxoan LA CASA DEL CAFÉ banatutako kafe poltsatxoak elebidunak ziren.
 Erantzuna:

Esp. Zenb.: 286-2012

Erakundea: TÜV RHEINLAND

Arrazoa: Martxoaren 27an TÜV Rheinland-ek kudeatzen duen Iruñeko Ibilgailuen Azterketa Teknikoko gunera deitu zuen eta langile euskaldunak artatu zuen. Behar zituen azalpen guztiak eman zizkion, euskararen ingurukoak ere bai.

Erantzuna:

Esp. Zenb.: 867-2012

Erakundea: ZUAITZO

Arrazoa: ZUAITZO EKOSALUZ SL konpainiaren webguneak, <http://www.zuaitzo.com>, euskarazko bertsioa du.

Erantzuna:

10. KONTSULTAK

KONTSULTAK

Esp. Zenb.:	5-2012
Kontsulta:	Errenteriako Udalak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu berri du, eta bertan, besteak beste, euskara lan hizkuntza izan dadin sustatzea jaso da. Orain arte gaztelaniaz edo euskaraz egiten ziren batzuk (kontratuak sinatu, esate baterako) ele bietan edo euskaraz izatea ari gara baloratzen, gaztelania hutsezkorik ez. Lege aholkulariari honako zalantza sortu zaio: Zilegi al da herritarrak (edo dena delakoak) ulertzen ez duen hizkuntza batean horrelako agiri bat sinatu behar izatea?
Esp. Zenb.:	16-2012
Kontsulta:	Barañaingo Udaleko plantilla organikoko lanpostuen ezaugarriak (euskararen ezagutzari dagozkionak) aldatzearen inguruko kontsulta juridikoa.
Esp. Zenb.:	23-2012
Kontsulta:	Elkargo profesionalen hizkuntza-betebeharren inguruko kontsulta.
Esp. Zenb.:	36-2012
Kontsulta:	Kontsulta juridikoa, deialdi baten legezkotasunari buruz.
Esp. Zenb.:	54-2012
Kontsulta:	Graduko ikasketako lanen inguruko kontsulta.
Esp. Zenb.:	92-2012
Kontsulta:	Nafarroako Artxiboetako langileen hizkuntza-profilari buruzko kontsulta.
Esp. Zenb.:	100-2012
Kontsulta:	Jaiotza-inskripzioa euskaraz burutzeari buruzko kontsulta.
Esp. Zenb.:	140-2012
Kontsulta:	Herritarrak tratu bidegabea jaso du ostalaritzako establezimendu batean. Salaketa egiteko dituen aukeren gaineko kontsulta.
Esp. Zenb.:	142-2012
Kontsulta:	Eskola Kontseiluan onetsitako hizkuntza-irizpidearen inguruko kontsulta.
Esp. Zenb.:	158-2012
Kontsulta:	Udal taldeak gaztelania hutsean jasotzen ditu batzordeetan lantzeko txostenak. Gaiaren inguruko kontsulta juridikoa, alegia, administrazioaren jardun mailan noraino iristen diren eskubideak.
Esp. Zenb.:	171-2012
Kontsulta:	Laudioko herritar batek testamentua euskaraz egin nahi du. Oso argi dauka Laudion egin nahi duela eta jakin nahi du ea notarioa behartu ahal duen euskaraz egitera.

Esp. Zenb.:	181-2012
Kontsulta:	Taberna baten esleipenean hizkuntza-betebeharrak ezartzeari buruzko kontsulta juridikoa.
Esp. Zenb.:	442-2012
Kontsulta:	Elorrioko bake epaile berri gisa, gobernu taldeak, euskaraz ez dakien pertsona bat proposatu zuen. Uztailaren 11ko osoko bilkuran euskaraz ez dakien pertsona hori izendatu zen postu horretarako. Zer egin Elorrioko bake epailea euskalduna izan dadin edo hautatutakoa ez dadin bake epailea izan?
Esp. Zenb.:	546-2012
Kontsulta:	Elkargo profesionalen hizkuntza-betebeharren inguruko kontsulta.
Esp. Zenb.:	562-2012
Kontsulta:	Lan deialdiaren legezketasunari buruzko kontsulta.
Esp. Zenb.:	663-2012
Kontsulta:	Administrazio publikoan lan egiteko aplikazio informatikoa gaztelaniaz soilik lan egiteko prestatuta egotearen legezketasunari buruzko galdera.
Esp. Zenb.:	780-2012
Kontsulta:	D ereduko ikastetxe batean tutore bat ordezkatzeko irakasle erdalduna kontratatzearen legezketasunari buruzko kontsulta.
Esp. Zenb.:	832-2012
Kontsulta:	Goizuetako estankotan fakturak euskaraz egin eta aurkezteari buruzko kontsulta.
Esp. Zenb.:	852-2012
Kontsulta:	Etxauriko Euskararen Ordenantzaren aldaketari alegazioak aurkezteko kontsulta.
Esp. Zenb.:	912-2012
Kontsulta:	Etorkinak DBHn euskara ikastetik salbuestearen inguruko kontsulta.
Esp. Zenb.:	1271-2012
Kontsulta:	Aparkalekua kudeatzen duen zerbitzu-enpresak erabiltzaileei begira dituen hizkuntza-betebeharren gaineko kontsulta.
Esp. Zenb.:	1395-2012
Kontsulta:	Grafia euskaratzearen ondorioen gaineko kontsulta.
Esp. Zenb.:	1396-2012
Kontsulta:	Nafarroako arkitektoen elkargoan proiektuak gaztelaniaz aurkeztu behar diren inguruko kontsulta.
Esp. Zenb.:	1405-2012
Kontsulta:	Jauntsaratseko dendan erretzea debekatua dagoela dioen kartela ele bietan jarri behar den argitzeko kontsulta.

HIZKUNTZA

ESKU BIDE EN

EGOERA

2012

EUSKARAREN
TELEFONOA



902 194 332

HIZKUNTZ ESKUBIDEEN
BEHATOKIA